

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**ENPLEGU ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA**

Plangintza eta Enplegu Sailburuordetza
Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren
Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y
ASUNTOS SOCIALES**

Viceconsejería de Planificación y Empleo
Dirección de Servicios y Régimen Jurídico

GIZARTE ZERBITZUEN ESKARIAREN ESTATISTIKA

-

Gizarte Premiei buruzko Inkesta 2010

EMAITZEI BURUZKO TXOSTEN OROKORRA

Azken txostena: 2011ko abenduaren 2a
EOE. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

0. SARRERA

Gizarte Zerbitzuen Eskariaren Estatistika (GZEE), Gizarte Premiei buruzko Inkestaren esparruan, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren eragiketa bat da. 2006. urtean egin zen lehen aldiz.

GZEEaren helburu generikoek honako bi alderdi hauek dituzte ardatz:

- a) Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-prestazioen eskariaren dinamika ezagutzea, dimentsio kuantitatiboan zein kualitatiboan.
- b) Biztanleriaren gizarte-premiak ezagutzea, eta horiek eskarian duten eragina aztertzea.

GZEEak, beraz, bi osagai ditu: batetik, gizarte-zerbitzuetan egindako eskariarekin zerikusi hertsia duena, eta, bestetik, biztanleriaren gizarte-premien azterketarekin zerikusia duena.

Txosten honen xedea GZEEaren bigarren dimentsio horri lotutako emaitza nagusiak zabaltzea da, hau da, gizarte-premiei lotutako emaitzen berri ematea. Dimentsio hori da, hain zuzen ere, Gizarte Premiei buruzko Inkestaren muina. Aurrekoa aparte utzi gabe, GZEE-GPIak eskariari buruzko informazio interesgarria ere ematen du, eta gizarte-zerbitzuetan eta pertsonak gizarteratzeko lanean diharduten gainerako zerbitzuetan egindako eskariari lotutako premiak zerrendatzen ditu. Emandako datuak eragiketaren aplikazioaren bigarren aldikoak dira, 2010eko bigarren hiruhilekokoak. Beraz, eta lehen aldiz, hainbat une historikotako informazioa dago eskuragarri, eta, horri esker, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) gizarte-premiei buruzko azterketa diakronikoa egin daiteke.

Zehaztu beharra dago GZEE-GPIan "gizarte-premia" kontzeptuaren inguruan egiten den hurbilketak gainditu egiten duela gizarte-zerbitzuen ohiko esparrua. Ildo horretan, gizarteratze-prozesuei –lan-merkatuan txertatzeko aukerarekin eta enpleguarekin zerikusia dutenak barne– lotutako premien esparruari ematen zaio lehentasuna. Nolanahi ere, horrek ez du esan nahi gizarte-zerbitzuen dinamikari lotutako funtsezko alderdi batzuk ahaztu behar direnik (adingabeen inguruko problematikak, mendetasunaren tratamenduari lotutako alderdiak eta abar).

1. GIZARTE ARAZOAK ESKOLATZE PROZESUAN

1.1.0-5 urteko adingabeen laguntza

2010. urtean, Euskadin bizi ziren 0-5 urteko haur gehienak joan ziren ikastetxe edo haurtzaindegi batera. Hala ere, laguntza jaso duten adingabeen proportzioak 1,4 puntuko jaitsiera izan du azken lau urteotan (% 74,4 2006an eta % 73 2010ean). Beherakada hori eragin duen faktore nagusia familiaren zuzeneko laguntzak gora egin izana da. Izan ere, % 23,2tik % 24,2ra igo da, familia-lehentasunaz bestelako arrazoiengatik laguntza jaso ez duten adingabeen proportzioa ere % 2,4tik % 2,8ra igo bada ere.

0-5 urteko biztanleria, haurtzaindegian edo ikastetxean laguntza jaso duten kontuan hartuta. 2006. eta 2010. urteak

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Laguntza-egoera	2006		2010	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Laguntza jaso dutenak	106.254	74,4	112.088	73,0
Familia-lehentasunagatik laguntza jaso ez dutenak	33.103	23,2	37.118	24,2
Beste arrazoi batzuegatik laguntza jaso ez dutenak	3.457	2,4	4.253	2,8
Guztira	142.815	100	153.459	100

2006tik 2010era bitarte ikastetxe edo haurtzaindegi batera joan diren adingabeen proportzioan izan den beherakada sexuaren eta adinaren arabera orokorra izan bada ere, deigarriagoa izan da nesken kasuan (-1,9 puntu nesken kasuan eta -0,9 puntu mutilen kasuan) eta 3 urtetik beherakoen kasuan (-1,8 puntutik -3,4ra bitarte –adinaren arabera–, eta -1 puntu 3 urteko eta gehiagoko adingabeen kasuan). Kualitatiboki, beherakadarik handiena atzerriko nazionalitatea duten adingabeen kasuan gertatu da. Kasu horretan, ikastetxe edo haurtzaindegi batera joan direnen kopurua % 98,6tik % 56,3ra jaitsi da 2006tik 2010era bitarte. Zentro batean laguntza jaso duten adingabeen proportzioa, berriz, % 73,8tik % 75era igo da Estatuko nazionalitatea duten haurren artean.

Laguntzaren beherakadarik handiena izan duten taldeetan, familiaren laguntza azpimarratu beharra dago: atzerriko nazionalitatea duten adingabeen artean, laguntza-modu horren proportzioa % 1,4tik % 40ra igo da 2006tik 2010era bitarte. Hala ere, familia-lehentasunaz bestelako arrazoiengatik laguntza jaso ez dutenen proportzioak puntu batetik gorako igoera izan du adierazitako laurtekoan, atzerriko adingabeen eta 2 urtetik beherakoen kasuan. Adinaren aldagaiari dagokionez, problematika horren eragina oso txikia izan da 2010ean 2 urtetik gorako adingabeen kasuan (% 1 baino gutxiago), baina familia-lehentasunaz bestelako arrazoiengatik laguntza jaso ez duten adingabeen proportzioa % 4,5era iritsi da urtebetetik

beherako adingabeen artean, eta % 10,2ra (zifrarik handiena izan da) urte batetik bira bitarteko haurren artean. Zifra horiek 2006koak baino handiagoak dira (% 1,7 eta % 9, hurrenez hurren).

0-5 urteko biztanleria, haurtzaindegian edo ikastetxean laguntza jaso duten kontuan hartuta, sexuaren, adinaren eta nazionalitatearen arabera. 2006. eta 2010. urteak
(% horizontalak)

		2006			2010		
		Laguntza jaso dutenak	Familia-lehentasunagatik laguntza jaso ez dutenak	Beste arrazoi batzuegatik laguntza jaso ez dutenak	Laguntza jaso dutenak	Familia-lehentasunagatik laguntza jaso ez dutenak	Beste arrazoi batzuegatik laguntza jaso ez dutenak
Sexua	Mutilak	73,5	23,1	3,4	72,7	23,7	3,7
	Neskak	75,4	23,3	1,3	73,4	24,7	1,8
Adina	< urte 1	16,4	81,9	1,7	13,0	82,5	4,5
	Urte 1	45,9	45,1	9,0	44,1	45,7	10,2
	2 urte	84,7	13,1	2,2	81,8	17,4	,8
	3 urte edo gehiago	99,1	,8	,1	98,1	1,7	,2
Nazionalitatea	Estatukoa	73,8	23,7	2,5	75,0	22,4	2,7
	Beste bat	98,6	1,4	,0	56,3	40,0	3,7
Guztira		74,4	23,2	2,4	73,0	24,2	2,8

Gertatu diren aldaketak hertsiki lotuta daude egoera ekonomikoarekin. Egiazta daitekeenez, ikastetxe edo haurtzaindegira joan direnen proportzioa % 83,6tik % 53,2ra jaitsi da 2006tik 2010era bitarte oinarrizko premiei erantzuteko gabezia-arazoak dituzten etxekoen unitateetan bizi diren adingabeen artean. Eskasia ekonomikorik jasaten ez duten adingabeen artean, berriz, % 73,6tik % 77ra igo da. Joera horrek lotura handia du etxekoen unitatean zaintzaile izan daitezkeen eta enplegurik lortu ezin duten pertsonak dauden ala ez kontuan hartuta sortutako portaerekin. Horrela, beraz, ikastetxera joan direnen proportzioak gora egin du pertsona aktibo guztiak lanean dituzten etxekoen unitateetako adingabeen kasuan (% 73tik % 75,6ra 2006tik 2010era bitarte), baina nabarmen egin du behera langaberen bat duten etxekoen unitateetako adingabeen kasuan (% 80,8tik % 67ra).

Hona hemen azpimarratu beharreko beste datu bat: 2010. urtean, adingabeen % 5ek baino gehiagok ez du laguntza jaso familia-lehentasunaz bestelako arrazoiengatik honako bi gizarte-egoera hauetan: oinarrizko premiei erantzuteko gabezia-arazoei lotutako egoeretan (% 6,6), eta ugalketa demografikoko arazoei eta nahi diren seme-alabak edukitzeko mugei lotutako egoeretan (% 6,8). Bi kasu horietan, zifra 2006koa baino handiagoa izan da (% 2,1 eta % 5,3, hurrenez hurren).

0-5 urteko biztanleria, haurtzaindegian edo ikastetxean laguntza jaso duten kontuan hartuta, etxeko unitatearen egoeraren arabera: 6 urtetik beherako kopurua, ugalketa demografikoko arazoak, gabezia-egoerak eta jarduerarekiko erlazioa
2006. eta 2010. urteak
 (% horizontalak)

		2006			2010		
		Laguntza jaso dutenak	Familia-lehentasun. laguntza jaso ez dutenak	Beste arrazoi batzueg. laguntza jaso ez dutenak	Laguntza jaso dutenak	Familia-lehentasun. laguntza jaso ez dutenak	Beste arrazoi batzueg. laguntza jaso ez dutenak
Adingabeen kopurua	Bat	76,1	21,3	2,5	75,9	20,6	3,5
	Bi edo gehiago	71,7	26,0	2,2	69,3	28,8	1,9
Ugalketa-arazoak	Bai	69,4	25,3	5,3	74,2	19,0	6,8
	Ez	75,3	22,8	1,9	72,9	25,0	2,1
Gabezia	Gabezia oinarritzko alderdietan	83,6	14,3	2,1	53,2	40,2	6,6
	Gabeziarik gabe, edo aisian baino ez	73,6	24,0	2,4	77,0	21,0	2,0
Jarduerarekiko erlazioa	Aktiboak, guztiak landunak	73,0	24,5	2,5	75,6	21,4	3,0
	Aktiboak, baten bat langabea	80,8	17,2	2,0	67,0	30,8	2,2
	Aktiborik gabe	63,6	36,4	0,0	80,0	20,0	0,0
Guztira		74,4	23,2	2,4	73,0	24,2	2,8

Azken lau urteotan izandako goranzko joera txikia gorabehera, familia-lehentasunaz bestelako arrazoiengatik laguntza jaso ez dutenen proportzioa txikia da: 0-5 urteko adingabeen % 2,8, kontuan hartutako egoeran (4.253 kasu guztira). Kasu batzuetan, ez da laguntzarik ematen, gurasoek haurra zentro batera eraman nahi badute ere. Horren arrazoi nagusiak inguruan plazarik ez egotea edo zentroan ez onartzea (%43,3), eta zerbitzuaren kostu handia (% 41,8) dira.

Haurtzaindegian edo ikastetxean laguntza jaso ez duen 0-5 urteko biztanleria, laguntzarik ezaren arrazoiaren arabera. 2006. eta 2010. urteak

Familia-lehentasunaz bestelako arrazoiengatik laguntza jaso ez duten adingabeak
 (% bertikalak)

Laguntzarik ezaren arrazoa	2006	2010
	% ber.	% ber.
Ez dute onartzen	,0	5,6
Plazarik eza inguruan	43,3	45,8
Plaza egokiturik eza	2,0	4,2
Ordutegia	12,9	,0
Kostu handia	41,8	44,4
Guztira	100	100

1.2. Gizarte- eta hezkuntza-arazoak nahitaez eskolatzeko adina duten adingabeen artean

2010. urtean, EAEn derrigorrez eskolatzeko adinean dauden 13.780 adingabek gizarte-arloan garrantzitsua den arazoren bat izan dute (2006. urtean 13.599 ziren). Termino erlatibotan, berriz, kontuan hartutako arazoek behera egin dute (% 7,2 2006an eta % 6,1 2010ean). Beherakada nabarmenagoa izan da arazo larrienei dagokionez: % 1,4tik % 0,4ra jaitsi da eskolatzetik ezari, absentismoari eta bi urteko edo gehiagoko eskola-atzeratasunari lotutako arazoaren proportzioa. 2006. urtean bezala, arazo nagusia eskola-atzeratasun arina da, gehienez urtebetekoa eta absentismoaren edo eskolatzetik ezaren inguruko arazoekiko loturarik ez duena. Problematika hori duten adingabeak % 5,7 izan dira 2010. urtean (% 5,8 2006an).

6-16 urteko biztanleria, hezkuntza-egoeraren arabera. 2006. eta 2010. urteak
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Hezkuntza-egoera	2006		2010	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Eskolatzetik eza/absentismoa	941	,5	0	,0
Eskola-atzeratasuna (bi urte edo gehiago)	1.689	,9	811	,4
Eskola-atzeratasuna, urtebete	10.968	5,8	12.969	5,7
Arazoren bat hezkuntza-egoeran	13.599	7,2	13.780	6,1
Arazorik gabeko eskolatzeara	175.531	92,8	212.866	93,9
Guztira	189.130	100	226.646	100

Eskolatzetik ezari, absentismoari edo bi urtetik gorako eskola-atzeratasun larriari lotutako arazo larrien beherakada esanguratsua are deigarriagoa izan da 2006. urtean egoera horiek gehien jasan zituzten taldeetan. Proportzioa 1,8-3,3 puntu jaitsi da mutilen, 14 urtetik gorakoen eta atzerriko nazionalitatea dutenen artean. Horrela, beraz, sexuaren, adinaren edo nazionalitatearen arabera, kontuan hartutako problematiken proportzioak gorabeherak izan zituen 2006an (% 0,5etik % 3,6ra bitarte ibili zen), eta 2010. urtean, berriz, proportzioa % 0,7 edo txikiagoa izan da.

14 urtetik gorakoen artean izan ezik (proportzioa % 14,7tik % 11,7ra murriztu da 2006tik 2010era bitarte talde horretan), hezkuntza-egoeran izandako arazo guztien eraginak (eskola-atzeratasun arina barnean hartuta) egonkorrago iraun du arriskurik handieneko taldeetan. Sexuari dagokionez, 2006-2010 aldian 0,5 puntuko jaitsiera baino ez da izan mutilen artean (% 9,2tik % 8,7ra jaitsi da). Hortaz, 2010. urtean, mutilen zifra neskena baino askoz handiagoa izan da (nesken proportzioa % 5 zen 2006an, eta % 3,5era jaitsi da 2010ean). Nazionalitateari dagokionez, % 8,8tik % 8,4rako beherakada izan da atzerriko adingabeen artean. Estatuko adingabeen kasuan, berriz, beherakada handiagoa izan da (% 7,1 2006an eta % 5,8

2010ean). Bestalde, 14 urtetik gorako adingabeen artean beherakada izan bada ere, kontuan hartutako problematiken eragina 12-13 urteko adingabeen artean eta 6-11 urtekoen artean izandakoa baino nabarmen handiagoa izan da (% 7,6 eta % 3,4, hurrenez hurren).

**6-16 urteko biztanleria hezkuntza-egoera kontuan hartuta, sexuaren, adinaren eta nazionalitatearen arabera.
2006. eta 2010. urteak
(% bertikalak)**

Hezkuntza-egoera		Mutilak	Neskak	6-11	12 eta 13	14-16	egoera	Beste bat	Guztira
2006	Eskolatzerik eza/absentismoa	1,0	,0	,3	,7	,7	,3	2,7	,5
	2 urteko edo gehiagoko eskola-atzeratasuna	1,3	,5	,2	,0	2,9	,9	,5	,9
	Urtebeteko eskola-atzeratasuna	7,0	4,5	2,8	7,5	11,1	5,8	5,6	5,8
	Arazoren bat hezkuntza-egoeran	9,2	5,0	3,3	8,2	14,7	7,1	8,8	7,2
	Arazorik gabeko eskolatzea	90,8	95,0	96,7	91,8	85,3	92,9	91,2	92,8
2010	Eskolatzerik eza/absentismoa	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0
	2 urteko edo gehiagoko eskola-atzeratasuna	,4	,3	,3	,0	,7	,4	,0	,4
	Urtebeteko eskola-atzeratasuna	8,3	3,2	3,1	7,6	11,0	5,4	8,4	5,7
	Arazoren bat hezkuntza-egoeran	8,7	3,5	3,4	7,6	11,7	5,8	8,4	6,1
	Arazorik gabeko eskolatzea	91,3	96,5	96,6	92,4	88,3	94,2	91,6	93,9

Derrigorrez eskolatzeko adinean dauden adingabeen hezkuntza-egoeran izandako hobekuntzaz gain, talde horrek eskola-ingurunean lortu duen integrazio-mailaren adierazleek bilakaera positiboa izan dute azken lau urteotan. Integrazio-arazoen proportzioa % 3tik % 1,8ra jaitsi da 2006tik 2010era bitarte. Azken urte horretan, 4.190 ikaslek izan dute arazo hori¹. Horrek esan nahi du proportzioak % 27ko beherakada izan duela 2006tik 2010era bitarte (5.739 kasu izan ziren 2006an).

Problematikek 2006tik 2010era bitarte izan duten beherakada berariazko hiru eremutan izan da handiagoa: ikaskideen bazterketa-arazoetan (% 1etik % 0,6ra bitarte), osasunari eta desgaitasunari lotutako arazoetan (% 0,9tik % 0,3ra bitarte) eta jazarpenari edo tratatu txarrei lotutako problematikaren bati lotutakoetan (% 0,6tik % 0,2ra bitarte). Arazorik larrienak (hots, jazarpenari, tratatu txarrei edo bazterketa-egoerei lotutakoak) osotasunean kontuan hartuta, erreferentziatzko laurtekoan % 1,5etik % 0,8ra jaitsi da proportzioa. Termino absolututan, eraginpean hartutako adingabeak 2.817 ziren 2006an, eta 1.810 izan dira 2010ean (% 35,7ko beherakada).

¹ Komeni da adieraztea informazio hori familiek eman dutela, eta, horrenbestez, horiek ezagututako eta adierazitako arazoak direla.

**6-16 urteko biztanleria, eskola-integrazioari lotutako arazoen arabera (arazo xehatuak eta mota taldekatuak).
2006. eta 2010. urteak**

(Datu absolutuak, eta eraginpean hartutako pertsonak %-tan)

Eskola-integrazioari lotutako arazoak		2006		2010	
		Abs.	Eraginpekoak (%)	Abs.	Eraginpekoak (%)
Arazo xehatuak	Ikaskideen bazterketa	1.925	1,0	1.449	,6
	Irakasleen bazterketa	0	,0	0	,0
	Arazoak hizkuntzarekin	523	,3	397	,2
	Erljioagatiko bazterketa	0	,0	0	,0
	Osasunagatik edo desgaitasunagatik	1.680	,9	678	,3
	Jazarpena edo tratu txarrak	1.157	,6	361	,2
	Beste arazo batzuk	1.280	,7	2.343	1,0
	Arazorik ez	183.391	97,0	222.457	98,2
Mota taldekatuak	Jazarpena edo tratu txarrak	1.157	,6	361	,2
	Beste bazterketa-arazo batzuk	1.661	,9	1.449	,6
	Beste arazo batzuk	2.922	1,5	2.379	1,0
	Arazoren bat	5.739	3,0	4.190	1,8
	Arazorik ez	183.391	97,0	222.457	98,2
Guztira	189.130	100	226.646	100	

Jazarpenari, tratu txarrei edo bazterketari lotutako problematiken beherakada hainbat taldetan izan den bilakaera onari lotuta dago batez ere (% 1,6tik % 0,1era nesken artean, % 3,8tik % 0ra 12 eta 13 urtekoen artean, eta % 7tik % 1,4ra atzerriko nazionalitatea dutenen artean). Edonola ere, jazarpenaren edo tratu txarren formarik larrienek ere beherakada esanguratsua izan dute mutilen artean (% 0,8tik % 0,3ra), 14-16 urtekoen artean (% 0,5etik % 0,2ra) eta Estatuko nazionalitatea dutenen artean (% 0,5etik 0,2ra). Bilakaera horren ondorioz, 12 eta 13 urtekoek eta atzerritarrek 2006. urtean izan zituzten % 3tik gorako zifren ordezkari (% 3,8 eta % 7, hurrenez hurren), 2010. urtean jazarpenari, tratu txarrei edo bazterketari lotutako problematika guztien proportzioa % 1,5 baino txikiagoa izan da talde guztietan, eta % 0,3 edo txikiagoa jazarpenaren edo tratu txarren kasurik larrienei dagokienez.

GZEE-GPIan kontuan hartutako integrazio-arazo guztiak (arinenak barne) aztertuta ikus daitekeenez, joera positibo bat izan da, baina generoaren eta nazionalitatearen arabera aldeak finkatu egin dira. Arazoen proportzioa handiagoa izan da, berriz ere, mutilen artean (% 3,3 mutilen kasuan eta % 0,4 nesken kasuan), 2006-2010 aldian nesken integrazio-arazoek beherakada handiagoa izan delako. Gainera, nesken artean, jazarpenari, tratu txarrei eta bazterketari lotutako arazoak ia desagertu egin dira (% 1,6tik % 0,1era jaitsi dira), baina ez da gauza bera gertatu mutilen kasuan, 2006koen antzeko mailetan jarraitu baitute 2010ean (% 1,5 2010ean eta % 1,4 2006an). Dena den, problematiken barne-banaketa desberdina izan da mutilen artean, jazarpena eta tratu txarrak % 0,8tik % 0,3ra murriztu baitira. Jazarpenari edo tratu txarrei lotu gabeko bazterketaren % 0,6tik % 1,1erako hazkundea izan da kontrapartida.

Aztertutako arazo guztien proportzioa, halaber, nabarmen handiagoa izan da atzerritarren artean (% 4,1 atzerritarren artean eta % 1,6 gainerakoen artean). Dena dela, joera positiboa izan da talde horretan, arazoaren eragina % 7,7ra iritsi baitzen 2006. urtean (Estatuko adingabeen artean % 2,7ko proportzioa izan zen urte horretan). Atzerriko adingabeen kasuan, hobekuntza nagusia egoerarik larrietan gertatu da. Izan ere, jazarpenari, tratu txarrei eta bazterketari lotutako egoeren eragina % 7tik % 1,4ra murriztu da. 2010. urtean, arazo horien guztien proportzioa % 0,8 izan da Estatuko adingabeen kasuan. Gainera, jazarpenari eta tratu txarrei lotutako arazoak desagertu egin dira talde horretan.

Adinaren arabera, bereziki deigarria aurrenerabeen artean ikusitako hobekuntza (12-13 urteko nerabeen taldean), 2006. urtean talde hori baitzen integrazio-arazoaren proportzio handiena izan zuen taldea. Talde horretan, aztertutako arazoaren multzoak kontuan hartutako adingabeen % 6,5 hartu zuen eraginpean 2006an, eta % 1 2010ean. Era berean, jazarpenari, tratu txarrei eta bazterketari lotutako problematikek taldearen % 3,8 hartu zuten eraginpean 2006an, eta erabat desagertu dira 2010ean.

Aurrerapausoak ez dira hain deigarriak beste adin-talde batzuetan. 14-16 urteko nerabeen artean, integrazio-arazoaren eragina % 2,7tik % 1,7ra murrizten da kontuan hartutako laurtekoan, baina betiere jazarpenari, tratu txarrei edo bazterketari lotutako kasuen proportzioak egonkortzeko joera hartu duen testuinguru batean (% 0,7 2010ean eta % 0,8 2006an). Dena dela, horien larritasuna mugatu egin da, eta 2010ean argiago biltzen dira bazterketari lotutako alderdietan jazarpenari edo tratu txarrei lotutako kasuetan baino.

Bestalde, adierazleen egonkortasuna izan da 6-11 urteko haurren ezaugarri bereizgarria (integrazio-arazoak % 2,2 izan dira). % 1,1 kasu larriei lotuta geratu da, batez ere bazterketa-kasuekin zerikusia dutenak (% 0,9). Zifra horiek 2006ko mailei eutsi diete funtsean (% 2,3, % 1,2 eta % 1), eta, hori horrela, talde hori kontuan hartutako problematikek eraginpean gehien hartutako taldea izan da 2010ean.

6-16 urteko biztanleria, eskola-integrazioari lotutako arazoak (mota taldekatuak) kontuan hartuta, sexuaren, adinaren eta nazionalitatearen arabera. 2006. eta 2010. urteak
(eraginpean hartutakoen %-a)

		2006				2010			
		Jazarpena edo tratu txarrak	Beste bazterketa-arazo batzuk	Beste arazo batzuk	Arazoren bat	Jazarpena edo tratu txarrak	Beste bazterketa-arazo batzuk	Beste arazo batzuk	Arazoren bat
Sexua	Mutilak	,8	,6	2,6	4,1	,3	1,1	1,9	3,3
	Neskak	,4	1,2	,4	1,9	,0	,1	,2	0,4
Adina	6-11	,2	1,0	1,1	2,3	,2	,9	1,1	2,2
	12 eta 13	2,2	1,6	2,7	6,5	,0	,0	1,0	1,0
	14-16	,5	,3	1,9	2,7	,2	,5	1,0	1,7
Nazionalitatea	Estatukoa	,5	,6	1,6	2,7	,2	,6	,9	1,6
	Beste bat	2,7	4,3	,6	7,7	,0	1,4	2,7	4,1
Guztira	Guztira	,6	,9	1,5	3,0	,2	,6	1,0	1,8

Guztira, 6-16 urteko 4.664 adingabek (nahitaez eskolatzeko adinean dagoen biztanleriaren % 2,1) eskolara egokitzeko gizarte-arazo larriren bat izan du, eta horrelako arazotzat jotzen dira orain artean kontuan hartutako integrazio-mugak edo hezkuntza-egoerari lotutakoak, urtebetera bitarteko eskola-atzeratasuna dakarten arazo txikiak salbuetsita. Horren ondorioz, adierazitako arazo larrien proportzioak % 29,4ko beherakada izan du 2006. urtetik (6.604 kasu izan ziren orduan). Urte hartan, problematika horiek taldearen % 3,5 hartu zuen eraginpean.

**6-16 urteko biztanleria, eskola-arazo larrien arabera (hezkuntza-egoera eta integrazioa)
2006. eta 2010. urteak**
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Hezkuntza-egoera eta integrazioa	2006		2010	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Arazo larriak	6.604	3,5	4.664	2,1
Urtebeteko eskola-atzeratasuna	9.623	5,1	11.032	4,9
Arazorik gabe	172.903	91,4	210.950	93,1
Guztira	189.130	100	226.646	100

2006tik 2010era bitarte, aztertutako arazoen proportzioak behera egin du nabarmen 12 urtetik gorako kasuan (2006. urtean, arazo horiek 12-13 urtekoen % 6,5 eta 14-16 urtekoen % 4,4 hartu zuten eraginpean), eta, neurri handi batean horren ondorioz, eskola-integrazioari eta hezkuntza-egoerari lotutako arazoen eragina txikia izan da 2010. urtean, adin-talde guztietan. 12-13 urteko adingabeei dagokie gutxienekoa (% 1), eta % 2,2-2,3ko zifrak lortu dira eskola-adinaren barruko gainerako taldeetan. Aldeak, dena den, garrantzitsuak izan dira sexuari dagokionez: kasuen % 3,5 eskola-adinean dauden mutilen artean, eta % 0,7 nesken artean. Zifrek, dena den, beheranzko joera nabaria erakusten dute bi sexuetan (% 4,9ko eta % 1,9ko zifrak 2006an).

Kontuan hartutako zailtasunek atzerritarren hartu dituzte bereziki eraginpean: atzerritarren % 4,1ek arazo larriak izan ditu, eta Estatuko % 1,9k. Bilakaera-datuak erakutsi dutenez, atzerritarren zifrek hobera egin dute nabarmen 2006. urtetik (% 10,4 urte hartan). Halaber, arazo horiek Estatuko adingabeen artean izan duten eragina nabarmen murriztu da (% 3 zen 2006an).

6-16 urteko biztanleria, eskola-arazoak kontuan hartuta (hezkuntza-egoera eta integrazioa), sexuaren, adinaren eta nazionalitatearen arabera. 2006. eta 2010. urteak
(% horizontalak)

		2006			2010		
		Arazo larriak	Urtebeteko eskola-	Arazorik gabe	Arazo larriak	Urtebeteko eskola-	Arazorik gabe
Sexua	Mutilak	4,9	5,8	89,3	3,5	6,8	89,7
	Neskak	1,9	4,3	93,8	,7	3,0	96,3
Adina	6-11	2,3	2,2	95,5	2,3	1,9	95,8
	12 eta 13	6,5	6,4	87,1	1,0	7,6	91,4
	14-16	4,4	10,3	85,3	2,2	10,2	87,6
Nazionalitatea	Estatukoa	3,0	5,2	91,9	1,9	4,7	93,4
	Beste bat	10,4	4,2	85,4	4,1	6,5	89,4
Guztira		3,5	5,1	91,4	2,1	4,9	93,1

Eskola-integrazioari eta hezkuntza-egoerari lotutako arazo larrien murrizketa izan da ezaugarri bereizgarria talde horietan (egoera ekonomikoa kontuan hartuta), oinarrizko premiei erantzuteko gabezia-arazoak dituztenak barnean hartuta (% 8,6tik % 4,9ra 2006tik 2010era bitarte; gainerako adingabeen kasuan, berriz, % 3tik % 1,7ra).

Hala ere, 2006-2010 laurtekoan, arazo larri horien eraginak gora egin du enplegu egonkorra duen pertsonarik ez duten etxekoek unitateetako adingabeen artean (% 2,3tik % 4,7ra). Adierazitako adingabe horien kasuan, gainera, eskola-integrazioari edo hezkuntza-egoerari lotutako arazo larriekin zerikusirik ez duten urtebeteko eskola-atzeratasunen garrantzi erlatiboak gora egin du. Enplegu egonkorra duen gutxienez pertsona bat duten etxekoek unitateetako ikasleen artean, kontuan hartutako arazo larrien eta ez hain larrien eragina % 8,7tik % 6ra murriztu da 2006tik 2010era bitarte. Enplegu egonkorra duen pertsonarik ez duten etxekoek unitateen kasuan, berriz, proportzioa % 7,5etik % 12,7ra igo da.

6-16 urteko biztanleria, eskola-arazo larriak kontuan hartuta (hezkuntza-egoera eta integrazioa), etxekoek unitatearen egoeraren arabera: gabezia-egoerak eta jarduerarekiko erlazioa. 2006. eta 2010. urteak
(% horizontalak)

		2006			2010		
		Arazo larriak	Urtebeteko eskola-atzeratasun	Arazorik gabe	Arazo larriak	Urtebet. Eskola-atzerata.	Arazorik gabe
Gabezia	Oinarrizko gabezia	8,6	6,3	85,1	4,9	9,6	85,4
	Gabeziarik gabe, edo aisian baino ez	3,0	5,0	92,0	1,7	4,3	94,0
Jarduerarekiko erlazioa	Enplegu egonkorra duen pertsonaren bat	3,7	5,1	91,3	1,7	4,4	94,0
	Enplegu egonkorra duen pertsonarik ez	2,3	5,1	92,5	4,7	8,0	87,3
Guztira		3,5	5,1	91,4	2,1	4,9	93,1

2. LANERATZEKO ARAZO BEREZIAK

2.1. Eraginpean hartutako taldeak

EAEEn bizi diren 16-64 urteko 40.862 pertsonak GZEE-GPIan kontuan hartutako laneratzeko arazo bereziren bat izan dutela adierazi dute 2010. urtean. Adin horietako biztanleriaren % 2,9 da hori, 2006ko % 3,7aren azpitik, argi eta garbi. Termino absolututan, 2010eko zifrak % 24,2ko beherakada dakar 2006an aztertutako egoeran zeuden 53.885 pertsonekin alderatuta.

Ikusitako murrizketa lan-baimenik ez duten atzerritar aktiboen kopuruan izandako beherakadari dago lotuta batez ere (2006. urtean, 24.593 pertsona zeuden egoera horretan, eta 2010. urtean, berriz, 12.151). Horrela, beraz, talde horretako pertsonak EAEko 16-64 urteko biztanleriaren % 1,7 ziren 2006an, eta % 0,9 2010ean (laneratzeko arazo bereziak dituzten pertsona guztien % 45,6 2006an eta % 29,7 2010ean).

2010. urtean, laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen artean nagusi diren lan-arazoak enplegu marjinalak dituztenen langabezia- edo azpiokupazio-egoera kronikoak dira. Egoera horretan 26.047 pertsona daude, hau da, 2006ko 24.680 pertsonak baino % 5,5 gehiago. Goranzko joera nagusia etxekoan unitateko pertsona nagusiak ez diren eta egoera horretan 30 hilabete baino gehiago daramatzaten langabe edo azpilandun kronikoen kasuan agertu da (% 20ko igoera izan da 2006tik 2010era bitarte). Pertsona nagusiak diren eta langabezia- edo azpiokupazio-egoeran 18 hilabete baino gehiago daramatzaten pertsonen kopuruak, berriz, % 12,9ko beherakada izan du. Kontuan hartutako bi taldeen garrantzi erlatiboa 16-64 urteko biztanlerian egonkor samarra izan bada ere (% 1,8 2010ean eta % 1,7 2006an), % 45,8tik % 63,7ra igo da laneratzeko zailtasun bereziak dituen biztanlerian.

Enplegu berezi edo babestu baten esparruko okupazio bati lotutako laneratzeko arazoak (laneratzeko programa berezietan, laneratzeko enpresetan edo enplegu-zentro berezietan) askoz gutxiago dira enplegu-arazo bereziak dituen biztanlerian. Biztanle horien artean, laneratzeko arazo berezia enplegu berezi edo babestu batekin lotzen dutenak % 6,5 baino ez dira. 2.664 pertsona dira, eta, beraz, beheranzko joera bat ikus daiteke (4.612 ziren 2006an).

16-64 urteko biztanleria, laneratzeko arazo bereziak kontuan hartuta. 2006. eta 2010. urteak
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Laneratzeko arazo bereziak	2006		2010	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Pertsona nagusia langabezia/azpiokupazio kronikoan >18 hilab.	10.855	,8	9.455	,7
Beste perts. bat langabezia/azpiokupazio kronikoan >30 hilab.	13.825	1,0	16.592	1,2
Enplegu berezi edo babestuan	4.612	,3	2.664	,2
Lan-baimenik gabeko atzerritarra	24.593	1,7	12.151	,9
Laneratzeko arazo bereziekin	53.885	3,7	40.862	2,9
Laneratzeko arazo berezirik gabe	1.383.815	96,3	1.377.348	97,1
Guztira	1.437.700	100	1.418.209	100

2006an ez bezala, laneratzeko arazoen eragin orokorra zertxobait handiagoa izan da emakumeen artean: % 3,2, eta % 2,5 gizonen artean. Izan ere, gizonen artean adierazlea % 4,2tik % 2,5era jaitsi da azken lau urteotan, baina egonkortu egin da emakumeen artean (% 3,3 2006an). Bestalde, hobekuntza orokorra izan da adin-talde guztietan, 25-34 urteko pertsonen kasuan eragina handiagoa izan bada ere (% 4,2 25-34 urtekoen artean, % 3,3 35-44 urtekoen artean eta % 2-2,3 25 urtetik beherakoek eta 45 urtetik gorakoek artean).

Laneratzeko arazo bereziek eragin diferentziala dute oraindik atzerriko biztanleriaren artean. Lagin bereko % 15,9k horrelako arazoetako bat izan du (Estatuko biztanleriaren % 1,9k). Dena dela, kontuan hartutako egoeren eraginak nabarmen egin du behera 2006ko % 31,4tik. Estatuko biztanleriaren kasuan, berriz, adierazleak egonkor jarraitu du funtsean (% 2 2010. urtean).

Laneratzeko arazo bereziak dituen 16-64 urteko biztanleria, sexuaren, adinaren eta nazionalitatearen arabera. 2006. eta 2010. urteak
(arazoak dituztenen %-a)

		2006	2010
Sexua	Gizonak	4,2	2,5
	Emakumeak	3,3	3,2
Adina	15-24 urte	3,9	2,0
	25-34 urte	5,7	4,2
	35-44 urte	3,7	3,3
	45-54 urte	3,1	2,3
	55-64 urte	2,1	2,3
Nazionalitatea	Estatukoa	2,0	1,9
	Beste bat	31,4	15,9
Guztira		3,7	2,9

Laneratzeko arazo bereziak etxekoen unitatean okupazio egonkorrik ez izatearekin hertsiki lotuta daude. Okupazio egonkorra duen pertsona aktiborik ez duten etxekoen unitateetan bizi direnen artean, eraginpean hartutakoak % 13 dira. Okupazio egonkorra duen pertsona aktiboren bat duten edo pertsona aktiborik ez duten etxekoen unitateetan, berriz, adierazlea % 1,2-1,4ra jaitsi da.

Azpitarratu beharreko beste alderdi bat laneratzeko arazo berezien eta oinarrizko premiei aurre egiteko zailtasunen arteko lotura da. Oinarrizko alderdietan gabezia-arazorik ez duten etxekoen unitateetan, laneratzeko arazo bereziak dituzten pertsonak % 1,7 dira, baina proportzioa % 8,3ra iritsi da oinarrizko premiei erantzuteko arazo partzialak dituzten etxekoen unitateetan, eta % 25,6ra oinarrizko premiei erantzuteko arazo dimentsioaniztunak dituztenetan. Kasu guztietan, nolana ere, laneratzeko arazo berezien eraginak behera egin du 2006tik 2010era bitarte.

Ugalketa demografikoko arazoekiko lotura ere azpitarratu beharra dago. Izan ere, nahi dituzten seme-alabak izateko arazoak dituzten etxekoen unitateetako 16-64 urteko biztanleriak laneratzeko arazo bereziak izateko dituen aukerak bost aldiz handiagoak dira (% 11,6 eta % 2,3). Kasu horietan, gainera, arazoak goranzko joera hartu duela ikus daiteke (proportzioa % 9,4 zen 2006an).

Laneratzeko arazo bereziak dituen 16-64 urteko biztanleria, etxekoen unitateak duen egoeraren arabera: ugalketa demografikoko arazoak, gabezia-egoerak eta jarduerarekiko erlazioa. 2006. eta 2010. urteak
(arazoak dituztenen %-a)

		2006	2010
Ugalketa-arazoak	Bai	9,4	11,6
	Ez	3,3	2,3
Gabezia	Dimentsioaniztuna, oinarrizko premiak	42,1	25,6
	Partziala, oinarrizko premiak	10,2	8,3
	Oinarrizko gabezia	19,8	14,7
	Gabeziarik gabe, edo aisian baino ez	2,5	1,7
Jarduerarekiko erlazioa	Enplegu egonkorra duen pertsonaren bat	1,6	1,4
	Aktiboak, okupazio egonkorrik ez	19,5	13,0
	Aktiborik gabe	0,8	1,2
Guztira		3,7	2,9

2.2. Gaur egungo lan-egoera

Laneratzeko arazo berezien eragin orokorrak behera egin duen testuinguru batean, krisialdi ekonomikoaren ondorio nagusia okupazioa lortzeko gaitasuna dutenen beherakada handia izan da. Gaur egun enplegua duten pertsona horien proportzioa % 57,9tik % 26,1era jaitsi da 2006tik 2010era bitarte. Laneratzeko arazo bereziak dituzten eta gaur egun enplegurik ez duten pertsonen kopurua, berriz, 22.663 pertsonatik 30.211ra igo da 2006-2010 aldian. Hortaz, % 33,3ko igoera izan da erreferentziatzko laurtekoan.

Laneratzeko arazoak dituen 16-64 urteko biztanleria, jarduerarekiko gaur egungo erlazioaren arabera. 2006. eta 2010. urteak

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Jarduerarekiko erlazioa	2006		2010	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Landuna	31.222	57,9	10.651	26,1
Langabea	20.715	38,4	28.109	68,8
Ez-aktiboa	1.949	3,6	2.102	5,1
Guztira	53.885	100	40.862	100

Ilido berean, laneratzeko arazo bereziak dituzten eta azken urtean gutxienez 6 hilabeteetan lan egin duten pertsonen proportzioa % 40tik % 24,7ra murriztu da 2006-2010 aldian, eta murrizketa hori ikus daiteke, halaber, enpleguarekin 6 hilabeteetik beherako erlazioa izan duten pertsonen artean (% 24,1etik % 8,2ra). % 35,9tik % 67,2 igo da, aldiz, azken hamabi hilabeteotan enpleguarekin inolako erlazorik izan ez duen taldearen proportzioa.

Bilakaera negatibo horren eraginik handiena lan-baimenik gabeko atzerritarren taldeak jaso du. Kasu horretan, azken hamabi hilabeteetan batere lanik egin ez duten pertsonen proportzioa % 19tik % 56,1era igo da 2006tik 2010era bitarte. Inkesta egiteko unean enpleguren bat lortzeko aukera izan dutenen pertsonen proportzioa, berriz, % 74,6tik % 28,8ra jaitsi da.

Beharakada handia gorabehera, lan-baimenik ez duten eta gaur egun enpleguren batekin erlazioa duten atzerritarren proportzioa 2010ean langabezia eta azpiokupazio kronikoa jasan duten pertsonen proportzioa baino handiagoa izan da: % 15 pertsona nagusien kasuan, eta % 18,5 etxekoen unitatean beste leku bat duten pertsonen kasuan; nolahi ere, beheranzko joera izan da 2006. urtetik (% 34,3 eta % 32,9, hurrenez hurren). Talde horietan, azken urtean enpleguarekin inolako erlazorik izan ez dutenen proportzioa % 53,4tik % 80,6ra igo da 2006tik 2010era bitarte langabezia- eta azpiokupazio-arazo kronikoak jasan dituzten pertsona nagusien kasuan, eta % 64,2tik % 78,4ra langabezia- edo azpiokupazio-arazo horiek jasan dituzten etxekoen unitateko beste pertsona batzuen kasuan.

Aipatu beharra dago, halaber, 2006. urtean enplegu berezi edo babestu bat izan zuten gehienek urte osoan izan zutela lana. 2010. urtean ere, gauza bera gertatu da neurri handi batean, baina proportzioa % 72,6tik % 65,1era jaitsi da aldi horretan. Pertsona horien artean, % 34,9k 9 hilabete baino gutxiagotan lan egin du (2006an % 12,8k).

Laneratzeko arazo bereziak dituen 16-64 urteko biztanleria, arazo motaren, gaur egungo lan-esperientziaren eta azken urtean lanean emandako denboraren arabera. 2006. eta 2010. urteak
(% horizontalak)

Arazo mota	Gaur egun lanean aritua	Azken urtean lanean emandako denbora				
		Urte osoan	9 - 11 hilabete	6 - 8 hilabete	< 6 hilabete	Batere ez
2006 P. nagusia langab./azpiok. kronikoan	34,3	24,5	4,2	6,6	11,4	53,4
Beste bat langab./azpiok. kronikoan	32,9	23,6	2,2	5,2	4,9	64,2
Enplegu berezia/babestua	100	72,6	14,6	11,2	1,6	,0
Baimenik gabeko atzerritarrak	74,6	6,5	11,7	18,1	44,7	19,0
Guztira	57,9	20,2	8,0	11,9	24,1	35,9
2010 P. nagusia langab./azpiok. kronikoan	15,0	12,6	1,6	3,9	1,3	80,6
Beste bat langab./azpiok. kronikoan	18,5	13,7	,0	2,6	5,3	78,4
Enplegu berezia/babestua	100	65,1	,0	29,0	5,9	,0
Baimenik gabeko atzerritarrak	28,8	8,4	,0	17,6	18,0	56,1
Guztira	26,1	15,2	,4	9,1	8,2	67,2

2010. urtean lana lortzeko aukeraren bat izan duten 10.651 pertsonak bete duten enplegu mota kontuan hartuta, daturik azpimarragarriena zera da, gaur egungo okupazioaren zatirik handiena enplegu marjinal bati lotuta dagoela zuzenean (kasuen % 60,1ean). % 25ek enplegu berezi edo babesturen batean egin du lan, eta % 14,8k baino ez du enplegu arrunta lortu. Azken kasu horretan, enpleguaren dimentsio marjinalak zerikusi handiagoa du lan-baldintzekin lan motarekin baino.

Laneratzeko arazo bereziak dituen 16-64 urteko biztanleria landuna, betetako enplegu motaren arabera. 2006. eta 2010. urteak
(% bertikalak)

Betetako lanpostu mota	2006	2010
Enplegu arrunta	6,2	14,8
Enplegu arrunta, lanpostu egokitua	,5	,0
Enplegu arrunta, lanpostu erreserbatua	3,3	1,5
Enplegu erreserbatua	,0	4,9
Enplegu-zentro berezia	10,2	16,7
Laneratze-enpresa	,8	2,0
Enplegu marjinala	79,0	60,1
Guztira	100	100

Kontuan hartutako 10.651 pertsonak 2006ko 31.222 pertsonak baino % 65,9 gutxiago dira. Aldaketa hori ulertzeko gizarte-garrantzi handiko elementu bat eraikuntzak landunen banaketa sektorialean izandako bilakaera negatiboak laneratzeko arazo bereziak dituzten pertsonen artean izan duen eragina da. Sektore horretan, okupazioa guztizkoaren % 27,6 izan zen 2006. urtean, eta laneratzeko arazo bereziak zituzten 8.624 pertsona zeuden sektore horretan lanean, enplegu marjinal batekin, baina enplegu mota hori desagertu egin da 2010. urtean. Aipatu beharra dago, halaber, testuinguru horretan, ostalaritzan izandako beherakada: 2006tik 2010era bitarte, kontuan hartutako pertsonen artean ostalaritzan lan egin dutenen proportzioa % 17,1etik % 1era jaitsi da.

Eraikuntzak eta ostalaritzak batera behera egin izana deigarria da (biak elkartuta, aztertutako biztanleriaren % 44,7 hartu zuten 2006an, eta % 1 baino ez 2010ean). Okupazioak gainerako sektore eta adarretan gora egin izanak ez du konpentsatu beherakada hori.

Laneratzeko arazo bereziak dituen 16-64 urteko biztanleria landuna, jarduera-sektorearen eta jarduera-adarraren arabera. 2006. eta 2010. urteak
(% bertikalak)

		2006	2010
Jarduera-sektorea	Nekazaritza	2,2	5,2
	Industria	6,5	7,0
	Eraikuntza	27,6	,0
	Zerbitzuak	63,8	87,7
Jarduera-adarra	Nekazaritza	2,2	5,2
	Erauzketa-jarduerak, energia, kimika	,0	,0
	Metala	4,6	3,4
	Bestelako industria	1,8	3,6
	Eraikuntza	27,6	,0
	Merkataritza	1,4	3,4
	Ostalaritza	17,1	1,0
	Garraioa	,0	,0
	Finantza-erakundeak, enpresentzako zerbitzuak	6,9	19,3
	Administrazioa, oinarrizko zerbitzuak	9,2	5,6
	Etxeko zerbitzua	25,4	40,9
	Beste merkataritza-zerbitzu batzuk	3,8	4,9
	Beste batzuk	,0	12,8
Guztira	100	100	

Lanbide-egoerari dagokionez, aztertutako landunen % 60 sektore pribatuko soldatapekoa da; % 25ek, aldiz, enplegu berezian edo babestuan jardun du, % 12,6k autonomo gisa jardun du edo familia-laguntza jaso du, eta % 2,4 beste egoera batean egon da.

Laneratzeko arazo bereziak dituen 16-64 urteko biztanleria landuna, lanbide-egoeraren arabera. 2006. eta 2010. urteak
(% bertikalak)

Lanbide-egoera	2006	2010
Autonomoa	3,4	11,7
Familia-laguntza	,0	1,0
Enplegu berezia edo babestua	14,8	25,0
Sektore pribatuko soldatapekoa	72,0	60,0
Beste egoera bat	9,8	2,4
Guztira	100	100

Enpleguaren oinarriko gizarte-ezaugarriak kontuan hartuta, 2006ko profilak egonkor jarraitu du, eta, beraz, okupazio-egoerak marjinalak izan dira, argi eta garbi. Salbuespen bakarra enplegu berezia eta babestua izan da. Izan ere, kontratua eta Gizarte Segurantzarako kotizazioa ohikoak izan dira enplegu mota horren kasuan, eta kontratu mugagabea ez duen biztanleriaren proportzioa % 25,2 baino ez da izan. Gainerako kasuetan, enpleguaren marjinaltasunaren nabaritasuna izan da ezaugarri nagusia.

Lan-baimenik ez duten atzerritarren eta langabezia- edo azpienplegu-arazo kronikoak dituzten pertsonen artean, elementu unibertsal komuna Gizarte Segurantzarako kotizaziorik eza izan da (gaur egun lanean ari den biztanleriaren % 100ek bizi du egoera hori). Azpiokupazio kronikoko arazoak dituzten pertsonen gutxiengo baten kasuan (% 22,1 pertsona nagusien kasuan, eta % 33,5 nagusi ez direnen kasuan), enpleguaren marjinaltasunaren eta ezkutuko ekonomiaren errealitatea neurri handi batean lan autonomo txikiei esker lortutako okupazioaren jarraitutasunarekin eta egonkortasunarekin lotu ohi da. Nolanahi ere, kasu horretan izan ezik, okupazioaren ezegonkortasuna eta kontraturik eza ere ezaugarri nagusi izan dira.

Laneratzeko arazo bereziak dituen 16-64 urteko biztanleria landuna, arazo motaren eta enpleguaren gizarte-ezaugarrien arabera. 2006. eta 2010. urteak
(%-a egoera bakoitzean)

Arazo mota	Okupazio ezegonkorra	Kontraturik ez	Ez du Giz. Seg. kotizatzen	Kolokako okupazioa
2006 Per. nagusia langabezia edo azpiokup. kronikoan	67,2	67,2	100	100
Beste pertsona bat langab. edo azpiok. kronikoan	94,1	90,8	100	100
Enplegu berezia edo babestua	11,5	,0	,0	11,5
Lan-baimenik gabeko atzerritarrak	100	96,0	100	100
Guztira	82,2	77,6	85,2	86,9
2010 Per. nagusia langabezian edo azpiokup. kronikoan	77,9	77,9	100	100
Beste pertsona bat langab. edo azpiok. Kronikoan	66,5	66,5	100	100
Enplegu berezia edo babestua	25,2	,0	,0	25,2
Lan-baimenik gabeko atzerritarrak	100	88,3	100	100
Guztira	68,7	58,5	75,0	81,3

Laneratzeko arazo bereziak dituzten eta gaur egun lanik ez duten 30.211 pertsoneri dagokienez, % 13,5ek ez du enplegurik bilatzen jada. Beste % 32,9k adierazi du ez duela inolako lan-esperientziarik lan-merkatu arrunt erregularizatuan. Proportzio horri 5 urtetik gorako aldi batean horrelako lan-esperientziarik izan ez duten pertsonen % 14,5 gaineratu behar zaio. Beraz, enplegua bilatu arren lanik ez duten pertsonen % 47,4 enplegu normalizatu bat lortzeko aukera orotatik kanpo dago (arazo estrukturala dela esan daiteke).

Azken egoera horretan, lan-baimenik ez duten atzerritarrak daude batez ere; horietako % 84,5ek ez du alde zuzeneko esperientziarik lan erregularizatu batean. Gehiengoa osatzen ez badute ere, lan-esperientzia erregularizaturik ez duten edo 5 urtetik gorako aldi batean enplegu normalizatu bat lortzeko aukerarik izan ez duten pertsonen proportzioa oso handia izan da, halaber, nagusiak ez diren eta langabezia- eta azpiokupazio-arazo kronikoak dituzten pertsonen artean. Zehazki, %22,8 dago egoera horretan (% 21,9 langabezia- eta azpiokupazio-arazoak dituzten pertsona nagusien artean).

Aitzitik, aztertutako pertsonen % 23,4k baino ez du lan egin azken hiru urteetan enplegu erregularizatu batean. Langabezia- edo azpienplegu-arazo kronikoak dituzten pertsonen kasuan, proportzio hori % 42,1era iritsi da, eta, beraz, 2006koa baino nabarmen handiagoa izan da (% 32,5 urte horretan). Nagusiak ez diren pertsonen kasuan, proportzioa % 26,6ra iritsi da (% 10,8ra 2006an). Lan-baimenik ez duten atzerritarren artean, berriz, proportzioa % 0,9 baino ez da izan, hau da, 2006koa baino txikiagoa (% 12,3 urte horretan).

Laneratzeko arazo bereziak dituen 16-64 urteko biztanleria ez-landuna, arazo motaren eta enplegu erregularizatu batean izan duen alde zuzeneko esperientziaren arabera. 2006. eta 2010. urteak
(% horizontalak)

Arazo mota		Enplegu erregularizatu batean izandako esperientzia						
		Duela 3 urte baino gutxiago	Duela 4-5 urte	Duela 5-9 urte	Duela 10 urte baino gehiago	Esperientz. gabe	Ez dagokio, ez dabil lan bila	Guztira
2006	Per. nagusia langab. edo azpiok. kronikoan	32,5	10,2	7,7	11,6	6,3	31,8	100
	Beste pertsona bat langab. edo azpiok. kronikoan	10,8	20,1	13,2	19,5	18,8	17,5	100
	Baimenik gabeko atzerritarra	12,3	,0	,0	,0	84,2	3,5	100
	Guztira	18,1	11,5	7,8	11,6	32,9	18,1	100
2010	Per. nagusia langab. edo azpiok. kronikoan	42,1	16,4	8,8	10,6	2,5	19,6	100
	Beste pertsona bat langab. edo azpiok. kronikoan	26,6	24,8	15,1	5,7	18,0	9,7	100
	Baimenik gabeko atzerritarra	,9	,9	,0	,0	84,5	13,7	100
	Guztira	23,4	15,7	9,1	5,4	32,9	13,5	100

2.3. Lanerako egiazko prestasuna

Laneratzeko arazo bereziak dituzten pertsonen lanarekin duten konpromisoa aztertzean, kontuan hartu beharreko lehen aldagaia aztertutako pertsonen (gaur egun lanean ari direnek zein lanik ez dutenek) beren ustez duten lan-gaitasuna da. Egiazta daitekeenez, pertsona horietako gehienek (% 82,1ek) muga orokorrik gabeko enplegu batean lan egiteko gaitasuna dutela adierazi dute. Proporzio hori % 99ra iritsi da lan-baimenik gabeko atzerritarren artean, % 84,2ra nagusiak ez diren eta langabezia- edo azpiokupazio-arazo kronikoak dituzten pertsonen artean, eta % 79,6ra laneratzeko arazo horiek dituzten pertsona nagusien artean. Aitzitik, enplegu berezi edo babestu batean jardun duten pertsonen % 100ek laguntza edo egokitze motaren bat eskatu dute lanpostuan. Beraz, pertsona horien kasuan izan ezik, muga berezirik gabe lan egiteko gaitasuna da nagusi.

Muga orokorrik gabe lan egin dezaketen pertsonen gain, kontuan harturiko biztanleen %11k adierazi du jarduera egokitueta lan egin dezakeela, lanpostua egokituz edo egokitu gabe; beste %5,7k, berriz, denbora gutxiago edo produkzio-intentsitate txikiagoa eskatzen duten enpleguetan, ahalegin fisiko edo intelektual txikiagoa eskatzen duten enpleguetan edo lan txikietan baino ezin dute lan egin. Horrela, beraz, laneratzeko arazo bereziak dituzten pertsonen % 16,7k lanpostuaren egokitze motaren bat behar du (handiagoa edo txikiagoa). Gaur egun enplegu-zentro berezi batean edo enplegu babesturen batean dauden pertsonen % 100 eta langabezia- edo azpiokupazio-arazo kronikoak dituzten pertsonen % 14,5-18,5 dago egoera horretan (% 18,4 pertsona nagusien kasuan eta % 14,6 nagusiak ez direnen kasuan). Lan-baimena duten atzerritarren artean, berriz, ez da horrelako egoerarik izan.

Laneratzeko arazo bereziak dituzten pertsonen % 1,3k ez du gaitasunik enplegu bat lortzeko, edo ez du lan egin nahi (% 0,3 eta % 0,9, hurrenez hurren). Beraz, proporzioak behera egin du 2006. urtearekin alderatuz (% 1,7 urte hartan). Proporzioa talde guztietan izan da txikia, laneratzeko arazoaren arabera. Proporziorik handiena –% 2– langabezia- edo azpiokupazio-egoera kronikoa jasan duten pertsona nagusiena izan da. Enplegu-zentro berezietan edo enplegu babestuan jardun duten langileen artean ez da horrelako kasurik izan.

Laneratzeko arazo bereziak dituen 16-64 urteko biztanleria, lanerako gaitasunaren eta arazo motaren arabera. 2006. eta 2010. urteak
(% bertikalak)

Lanerako gaitasuna	Per. nagusia langabezia-/azpi. kronikoan	Beste bat langab.-/azpi. kronikoan	Enplegu berezia/babestua	Baimenik gabeko atzerritarra	Guztira
2006 Muga orokorrik gabe	80,8	88,5	6,0	100	85,1
Jarduera egokietan	5,5	3,9	19,8	,0	3,8
Lanpostua egokituta	,0	3,7	37,9	,0	4,2
Denbora edo intentsitate txikiagoa	,0	,0	7,0	,0	,6
Ahalegin fisiko edo intelektual txikiagoa	3,3	3,0	29,4	,0	3,9
Lan txikiak baino ez	3,0	,0	,0	,0	,6
Enplegua lortzeko gaitasunik ez	1,5	,9	,0	,0	,5
Ez du lan egin nahi	5,9	,0	,0	,0	1,2
2010 Muga orokorrik gabe	79,6	84,2	,0	99,0	82,1
Jarduera egokietan	4,5	4,8	35,7	,0	5,3
Lanpostua egokituta	5,5	4,2	40,9	,0	5,6
Denbora edo intentsitate txikiagoa	4,2	3,4	8,5	,0	2,9
Ahalegin fisiko edo intelektual txikiagoa	4,3	2,1	14,8	,0	2,8
Lan txikiak baino ez	,0	,0	,0	,0	,0
Enplegua lortzeko gaitasunik ez	,0	,8	,0	,0	,3
Ez du lan egin nahi	2,0	,4	,0	1,0	,9

Gaur egungo okupazio-egoerari eta enplegua bilatzeko motibazio errealari buruzko informazioaren bidez, laneratzeko arazo bereziak dituzten pertsonen lanerako duten egiazko prestasunari buruzko zenbatespen zehatza egin dezakegu. Daturik garrantzitsuena honako hau da: dela gaur egun lanean ari direlako edo dela lana bilatzeko joera aktiboa dutelako, laneratzeko arazo bereziak dituzten pertsonen gehiengo handi bat enplegurako benetan prest dago. 2010. urtean, 30.867 pertsona izan dira, hau da, guztizkoaren % 75,5 (% 79,4 2006. urtean).

Gehienek lan egiteko duten prestasuna talde guztietan ikusi da. Hala ere, prestasuna handiagoa izan da lan-baimenik ez duten atzerritarren kasuan (% 83 dago prest; 2006. urtean, berriz, % 85,9) eta gaur egun enplegu berezi edo babestu batean diharduten pertsonen kasuan (% 100). Langabezia- edo azpiokupazio-arazo kronikoak dituzten pertsonen artean, berriz, adierazlea % 70 izan da. Nagusiak ez diren pertsonen kasuan, proportzioa % 64tik % 70,3ra igo da 2006tik 2010era bitarte, eta pertsona nagusien kasuan, berriz, % 75,7tik % 68,1era jaitsi da.

Enplegurako prestasunik handiena duen taldeari dagokionez, bitarteko postu batean adoregabezia-egoeran dauden edo enplegu-eskari ez-aktiboa ezaugarri bereizgarri duten –eta, beraz, lanpostu bat aurkitzeko beharrezkoak diren gutxieneko bitartekoak jartzen ez dituzten– pertsonak daude. 3.417

pertsona, guztizkoaren % 8,4, egoera horretan egon dira 2010ean (% 7,2 adorerik gabe eta % 1,2 enplegu-bilaketa ez-aktiboan). Proportzio hori 2006koa baino txixixeagoa da (% 10,5 urte hartan), eta okupazio-ezaugarri horiek dituzten pertsonen kopuruak % 39,6ko beherakada izan du (5.657 pertsona 2006an). Taldeak kontuan hartuta, azpimarratu beharra dago adorerik ez dutenen edo enplegua aktiboki bilatzen ez dutenen proportzio handia (% 12,7) langabezia- edo azpiokupazio-arazo kronikoak dituzten pertsonen artean.

Azkenik, 6.577 pertsonak, guztizkoaren % 16,1ek, ez dute benetan lana bilatzen (% 6,3k), edota praktikan itxurazkoa den eta arrakasta lortzeko aukerarik eskaintzen ez duen eredu bati jarraitzen diote lana bilatzeko (% 9,8k). Zifra horiek 2006. urtearekiko igoera bat izan dela adierazten dute. Urte horretan, 5.436 pertsona egon ziren egoera horretan (guztizkoaren % 10,1). 2010. urtean, kontuan hartutako errealitateen proportzioa handia izan da langabezia- edo azpiokupazio-arazo kronikoak dituzten pertsonen artean (% 19,2 pertsona nagusien kasuan eta % 23 nagusiak ez direnen kasuan; % 15,2 eta % 25,5 2006. urtean, hurrenez hurren).

Praktikan lan-merkatutik kanpo dagoen taldearen garrantzi erlatiboak goranzko joera izan badu ere, azpimarratu beharra dago lan-merkatutik kanpo dauden edo enplegua aktiboki bilatzen ez duten pertsonen guztizko kopuruak behera egin duela 2006-2010 aldian, termino absolututan. Izan ere, laneratzeko arazo bereziak dituzten 11.093 pertsona zeuden egoera horretan 2006. urtean, eta 9.995 pertsona 2010. urtean, hau da, % 9,9 gutxiago².

**Laneratzeko arazo bereziak dituen 16-64 urteko biztanleria, lanerako egiazko prestasunaren eta arazo motaren arabera.
2006. eta 2010. urteak
(% bertikalak)**

Lanerako prestasuna		P. nagusia langabezia-/ azpi. kronikoan	Beste bat langab.-/ azpi. kronikoan	Enplegu berezia/ babestua	Baimenik gabeko atzerritarra	Guztira
2006	Landuna	34,3	32,9	100	74,6	57,9
	Eskari aktiboa	41,4	31,1	,0	11,3	21,5
	Eskari ez-aktiboa	,0	2,5	,0	5,7	3,2
	Adorerik gabe	9,1	8,1	,0	7,4	7,3
	Gaur egun itxurazkoa den eskaria	3,4	19,9	,0	,2	5,9
	Enplegua bilatzen ez duten b. batzuk	11,8	5,6	,0	,9	4,2
2010	Landuna	15,0	18,5	100	28,8	26,1
	Eskari aktiboa	53,1	51,8	,0	54,2	49,5
	Eskari ez-aktiboa	,0	,7	,0	2,9	1,2
	Adorerik gabe	12,7	5,9	,0	6,2	7,2
	Gaur egun itxurazkoa den eskaria	12,1	17,2	,0	,0	9,8
	Enplegua bilatzen ez duten b. batzuk	7,1	5,7	,0	7,8	6,3

² Dena dela, laneratzeko arazo bereziak dituen biztanleriaren kasuan, egoera horien garrantzi erlatiboa % 20,6tik % 24,5era igo da 2006tik 2010era bitarte.

3. MUGA ETA MENDEASUNA DUTEN PERTSONAK

3.1. Muga- eta mendetasun-egoeren eragina

EAEEn bizi diren pertsonen % 10,8k (236.088 pertsonak, guztira) osasun-arazo bati edo adinari lotutako muga funtzionalen bat duela adierazi du. Eraginpean hartutako pertsonen kopurua 2006koa baino % 4,7 handiagoa izan da. Urte horretan, 225.515 pertsonak zituzten mugak (guztizko biztanleriaren % 10,5).

Kasuen % 52,6tan, aztertutako mugek mendetasun-egoera berezi bat sortu dute. Egoera horretan dauden pertsonak 124.080 dira, hau da, 2006ko 117.584 pertsonak baino % 5,5 gehiago. Talde horrek EAEko biztanleriaren guztizkoan duen proportzioa % 5,5etik % 5,7ra igo da 2006tik 2010era bitarte.

Biztanleria, muga-egoerak eta/edo mendetasun berezia kontuan hartuta. 2006. eta 2010. urteak
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Mugaren/mendetasunaren agerpena	2006		2010	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Mendetasun berezia	117.584	5,5	124.080	5,7
Mend. berezirik gabeko muga	107.931	5,0	112.008	5,1
Muga/mendetasunen bat	225.515	10,5	236.088	10,8
Mugarik gabe	1.923.515	89,5	1.945.339	89,2
Guztira	2.149.030	100	2.181.427	100

Aztertutako muga- edo mendetasun-egoeren eragina handiagoa izan da emakumeen kasuan. Emakumeen %11,9k osasunari edo adinari lotutako mugak ditu, eta gizonen %9,6k baino ez. Desberdintasun hori mendetasun bereziko egoeren eragin diferentzial handiagoarekin lotuta dago (% 6,7 eta % 4,6, hurrenez hurren). Emakumeen zifrak 2006koen antzekoak dira, baina gizonen zifrek gora egin dute zertxobait: % 9tik % 9,6ra aztertutako mugek eragin orokorrari dagokionez, eta % 4,2tik % 4,6ra mendetasun bereziren bat sortu duten mugek berariazko eraginari dagokionez.

Aztertutako mugek eragina, oro har, handiagoa da adinean gora egin ahala. 15 urtetik beherako kasuan proportzioa % 3,8ra iritsi bada ere, 15-34 urteko pertsonen artean % 2-3 izan da, eta 35-44 urtekoen artean % 4. Hortik aurrera, hazkundera esponentziala da: % 7,1 45-54 urtekoen artean, % 11,9 55-64 urtekoen artean, % 20,9 65-74 urtekoen artean eta % 48,5 75 urtetik gorakoen artean.

65 urteko adinera bitarte, arazo gehikuntza larritasun txikiagoko mugei lotuta dago neurri handi batean. Adin horretatik aurrera, berriz, mendetasun berezien eraginak gora egiten du nabarmen. Adierazitakoaren ildotik, 65 urteko adinera bitarte mendetasun bereziko arazoak biztanleriaren % 4k baino ez ditu adin-

talde bakoitzean; larritasun txikiagoko mugak dira nagusi. 65-74 urteko pertsonen artean, berriz, proportzioa % 8,6ra hurbildu da. Nolanahi ere, adin horietan handiagoa da larritasun txikiagoko mugen eragina (% 12,3). Hori guztiz aldatzen da 75 urtetik aurrerako adinean, mendetasun bereziko egoeren kasuak % 34,6 izan baitira, eta larritasun txikiagoko mugenak, berriz, %13,9.

2006-2010 aldiko bilakaeraren datuek ez dute funtsezko desberdintasunik agertzen adinaren arabera. Edonola ere, beheranzko joera txiki bat izan da 25-64 urtekoen tasetan, eta goranzko joera txiki bat 25 urtetik beherako eta 65 urtetik gorako pertsonen tasetan. Muga guztiak kontuan hartuta, eta aldaketarik negatiboenei dagokienez, puntu 1 inguruko igoera izan da 15 urtetik beherako kasuan (% 2,9tik % 3,8ra) eta 65-74 urtekoen kasuan (% 20,1etik % 20,9ra). 75 urtetik gorako artean, berriz, 2,1 puntuko igoera izan da (% 46,4tik % 48,5era). Mendetasun bereziari dagokionez, tasen igoera zaharrenen kasuan baino ez da esanguratsua izan: 75 urterik gorako pertsonen artean, egoera horien proportzioa % 31,3tik % 34,6ra igo da.

Biztanleria, muga-egoerak eta/edo mendetasun berezia kontuan hartuta, sexuaren, adinaren eta nazionalitatearen arabera. 2006. eta 2010. urteak
(taldearen %-a)

		2006			2010		
		Mendetasun berezia	Mend. berezirik gabeko muga	Muga/mendetasunen bat	Mendetasun berezia	Mend. berezirik gabeko muga	Muga/mendetasunen bat
Sexua	Gizonak	4,2	4,8	9,0	4,6	5,0	9,6
	Emakumeak	6,7	5,2	11,9	6,7	5,3	11,9
Adina	< 15 urte	1,4	1,5	2,9	1,6	2,2	3,8
	15-24 urte	,8	,9	1,7	1,0	1,1	2,1
	25-34 urte	1,5	1,6	3,1	1,3	1,4	2,7
	35-44 urte	2,6	2,3	4,9	1,3	2,7	4,0
	45-54 urte	2,6	4,8	7,4	2,6	4,5	7,1
	55-64 urte	4,1	7,9	12,0	3,9	7,9	11,9
	65-74 urte	8,3	11,8	20,1	8,6	12,3	20,9
	> 75 urte	31,3	15,1	46,4	34,6	13,9	48,5
Nazionalitatea	Estatukoa	5,7	5,2	10,9	6,0	5,4	11,4
	Beste bat	,9	1,7	2,6	,5	1,9	2,4
Guztira		5,5	5,0	10,5	5,7	5,1	10,8

Mendetasun bereziko egoeren larritasunari dagokionez, honako alderdi hauek azpimarra daitezke:

⇒ Mendetasun bereziren bat duten 54.315 pertsona autonomoak dira edo, asko jota, mendetasun-arazo arinak dituzte. Pertsona horiek mendetasun berezia duten pertsonen % 43,8 eta mugaren bat duten pertsona guztien % 23 dira. Taldea EAEko biztanleriaren % 2,5 da (2006. urtean % 2,6 izan zen).

Muga bai, baina mendetasun berezirik ez duten pertsonak eta mendetasun arinen bat dutenak (praktikan autonomoak direnak barne) batera kontuan hartuta, egiazta daiteke osasunari edo adinari lotutako mugak dituzten 166.323 pertsonak izan dituztela mendetasun arinak, hau da, muga horiek dituzten pertsona guztien % 70,4k (biztanleriaren guztizkoaren % 7,6, 2006ko % 7,7 baino hamarren bat txikiagoa).

⇒ 67.828 pertsonak, hau da, mendetasun berezia dutenen % 54,7k eta mugaren bat dutenen % 28,7k, gutxienez larritasun ertaineko mendetasun bat dute. Mendetasun horien eragina EAEko biztanle guztien % 3,1era iritsi da (2006. urtean % 2,7ra iritsi zen). Aurreko pertsona horietatik, 48.050ek mendetasun larria edo erabatekoa dute. Mendetasun berezia dutenen % 38,7 dira, mugaren bat dutenen % 20,4 eta biztanleria osoaren % 2,2. Azken adierazle horrek bost hamarrenetan gainditu du 2006koa (% 1,7 urte horretan).

⇒ Horretaz gain, mendetasun bereziko arazoak dituzten 5 urtera arteko 1.938 haur zenbatu behar dira. Mugak dituzten pertsonen % 0,8 dira, eta mendetasun berezia dutenen % 1,6. Mendetasuna duten 5 urtera bitarteko haurrak adin horretako haur guztien % 1,3 dira (2006. urtean % 1,4 izan ziren).

**Muga edo mendetasun berezia duen biztanleria, Barthel/Lawton mendetasun mistoaren mailaren arabera
2006-2010 urteak**

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Barthel/Lawton mendetasun mistoaren maila	2006		2010	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Erabatekoa edo larria	36.281	16,1	48.050	20,4
Ertaina	22.453	10,0	19.778	8,4
Arina	39.464	17,5	45.516	19,3
Mendetasun berezia: autonomoa	17.356	7,7	8.799	3,7
Mendetasun berezia duen 0-5 urteko haurra	2.029	,9	1.938	,8
Muga duten beste batzuk	107.931	47,9	112.008	47,4
Guztira	225.515	100	236.088	100

**Muga edo mendetasun berezia duen biztanleria, Barthel/Lawton mendetasun mistoaren mailaren arabera
2006. eta 2010. urteak
(guztizko biztanleriaren %-a)**

Barthel/Lawton mendetasun mistoaren maila	Urtea	
	2006	2010
Erabatekoa edo larria	1,7	2,2
Ertaina	1,0	,9
Arina	1,8	2,1
Mendetasun berezia: autonomoa	,8	,4
Mendetasun berezia duen 0-5 urteko haurra	,1	,1
Muga duten beste batzuk	5,0	5,1
Muga/mendetasunen bat dutenak	10,5	10,8

Muga-egoerek edo mendetasun bereziko egoerek biztanlerian duten eragina egitura demografikoa kontuan hartuta aztertzean, alderdi batzuk azpimarratu behar dira. Sexuari dagokionez, larritasun handieneko egoeren eragina handiagoa izan da emakumeen artean. Osasunari edo adinari lotutako mugaren bat duten emakume guztien artean, gutxienez mendetasun ertaina dutenen proportzioa % 31,4ra iritsi da (% 25,1era gizonen kasuan). Izan ere, gutxienez mendetasun ertaina dutenen proportzioa nabarmen handiagoa izan da emakumeen artean (% 3,7 emakumeen artean eta % 2,4 gizonen artean). Hala ere, azken lau urteotako goranzko joera handiagoa izan da gizonen kasuan (% 1,9 2006an gizonek, eta % 3,5 emakumeek).

Adinari dagokionez, mendetasun gutxienez ertainari lotutako egoeren eragina txikia da beti 65 urtera bitarteko adinetan (% 1,5etik behera). Larritasunik handieneko arazoaren eragina ere txiki samarra da oraindik 65-74 urtekoen taldean (% 3,6 mendetasun gutxienez ertainari dagokionez, eta % 2,4 mendetasun larriari edo erabatekoari dagokionez). Azken batean, 75 urtetik gorako kasuan baino ez du nabarmen gora egiten larritasunik handieneko arazoaren eraginak (% 22,5 mendetasun gutxienez ertainari dagokionez eta % 17,5 mendetasun larriari edo erabatekoari dagokionez). Horrela, beraz, larritasunik handieneko arazoaren garrantzi erlatiboa areagotu egiten da 75 urtetik gorako kasuan. Adin horietan, mugak dituzten pertsona guztien % 46,3k mendetasun ertaina du gutxienez (65-74 urteko pertsonen kasuan, berriz, % 17,3k).

15-34 urteko adinetan, mugak dituztenen artean handia da gutxienez mendetasun ertaina duten pertsonen proportzioa (% 33,2 15-24 urtekoen artean eta % 30,7 25-34 urtekoen artean). Zifra horiek 35-74 urtekoenak baino handiagoak dira (% 12,5-17,5), eta 75 urtetik gorako zifrek baino ez dituzte gainditu. Azken batean, mendetasun gutxienez ertainen proportzio horiek ez dira beste adin-tarte batzuetan baino handiagoak, baina mugarik agertuz gero 15-34 urteko pertsonen kasuan larriagoak izateko joera dutela adierazten dute.

2006-2010 aldiko bilakaera kontuan hartuta, mendetasun gutxienez ertainari lotutako arazozen eraginak 75 urtetik gorako pertsonen kasuan baino ez du hazkunde esanguratsurik izan (puntu 1etik gorakoa). Adin-tarte horretan, mugen garrantzi erlatiboa handiagoa da larritasunik handieneko egoeretara hurbiltzen garen heinean: % 46,4etik % 48,5era igo da 2006tik 2010era bitarte osasunari edo adinari lotutako mugei dagokienez, % 19,1etik % 22,5era mendetasun gutxienez ertainei dagokienez, eta % 12,5etik % 17,5era mendetasun erabatekoari edo larriari dagokionez.

Muga edo mendetasun berezia duen biztanleria, sexuaren, adinare eta Barthel/Lawton mendetasun mistoaren mailaren arabera. 2006. eta 2010. urteak

(Mendetasun gutxienez ertainak mugen guztizkoan duen garrantzi erlatiboa, eta %-a erreferentziazko taldean)

		2006				2010			
		Mendetasun erabatekoa edo larria	Gutxienez mendetasun ertaina	Mugaren bat	Gutxienez mendetasun ertaina (mugen guztizkoarekiko)	Mendetasun erabatekoa edo larria	Gutxienez mendetasun ertaina	Mugaren bat	Gutxienez mendetasun ertaina (mugen guztizkoarekiko)
Sexua	Gizonak	,9	1,9	9,0	21,3	1,4	2,4	9,6	25,1
	Emakumeak	2,4	3,5	11,9	29,5	2,9	3,7	11,9	31,4
Adina	< 15 urte	,0	,0	2,9	,3	,0	,2	3,8	6,4
	15-24 urte	,2	,3	1,7	16,5	,4	,7	2,1	33,2
	25-34 urte	,3	,9	3,1	27,5	,3	,8	2,7	30,7
	35-44 urte	,4	1,0	4,9	20,0	,4	,6	4,0	14,7
	45-54 urte	,6	,8	7,4	11,3	,3	,9	7,1	12,7
	55-64 urte	,8	1,4	12,0	11,5	1,0	1,5	11,9	12,7
	65-74 urte	2,2	3,7	20,1	18,5	2,4	3,6	20,9	17,3
> 75 urte	12,5	19,1	46,4	41,3	17,5	22,5	48,5	46,3	
Guztira		1,7	2,7	10,5	26,0	2,2	3,1	10,8	28,7

Eskainitako datuek agerian utzi dutenez, mendetasun modalitate esanguratsuak eta adin aurreratuak hertsiki lotuta daude. Ildo horretan, gutxienez mendetasun ertaina duten gehienak 75 urtetik gorako pertsonak direla egiaztatzen da: % 69,8 hain zuzen ere, hau da, 2006an baino gehiago (% 65,7). 65 urtetik gorakoak kontuan hartuta, proportzioa % 79,9ra iritsi da (% 78ra 2006an).

Horri lotuta, emakumeen bizi-itxaropena handiagoa denez gero, adierazitako errealitateak batez ere emakumeen kasuan agertzen direla espero daiteke. Izan ere, gutxienez mendetasun ertaina duten pertsonen % 62,5 emakumeak dira; nolana ere, proportzioa 2006koa baino txikiagoa da (% 65,8).

Muga edo mendetasun berezia duen biztanleria, sexuaren, adinaren eta Barthel/Lawton mendetasun mistoaren mailaren arabera. 2006. eta 2010. urteak
(% horizontalak)

Barthel/Lawton mendetasun mistoaren maila		Sexua		Adina								Guztira
		Gizonak	Emakumeak	< 15 urte	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	65-74 urte	> 75 urte	
2006	Erabatekoa edo larria	27,0	73,0	,1	1,2	3,1	4,1	4,6	5,6	11,8	69,5	100
	Ertaina	45,8	54,2	,0	,8	7,2	8,5	3,8	7,1	13,0	59,5	100
	Mendetasun gutxienez ertaina	34,2	65,8	,0	1,1	4,7	5,8	4,3	6,1	12,3	65,7	100
	Arina	33,5	66,5	2,9	2,8	2,1	6,8	6,2	13,9	14,7	50,6	100
	Mendetasun berezia duen autonomia	52,8	47,2	5,6	,3	8,0	16,1	16,7	9,4	18,1	25,9	100
	Mendetasun berezia duen 0-5 urteko adingabea	60,4	39,6	100	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	100
	Muga duten beste batzuk	47,0	53,0	4,1	1,8	4,6	7,6	13,5	19,1	21,1	28,2	100
	Mugaren bat	41,9	58,1	3,8	1,7	4,4	7,6	10,0	13,9	17,3	41,4	100
2010	Erabatekoa edo larria	31,3	68,7	,0	1,6	1,5	3,4	2,0	5,1	9,6	76,9	100
	Ertaina	52,5	47,5	4,2	3,0	8,0	3,1	10,7	7,1	11,4	52,6	100
	Mendetasun gutxienez ertaina	37,5	62,5	1,2	2,0	3,4	3,3	4,5	5,7	10,1	69,8	100
	Arina	34,3	65,7	2,0	,8	1,2	5,2	7,2	12,5	19,9	51,2	100
	Mendetasun berezia duen autonomia	74,0	26,0	23,0	2,4	8,4	3,0	27,2	6,1	4,6	25,4	100
	Mendetasun berezia duen 0-5 urteko adingabea	54,9	45,1	100	,0	,0	,0	,0	,0	,0	,0	100
	Muga duten beste batzuk	46,9	53,1	6,7	1,9	3,5	9,1	13,7	18,2	20,8	26,2	100
	Mugaren bat	42,8	57,2	5,6	1,7	3,2	6,4	10,2	12,9	16,8	43,3	100

Osasunari edo adinari lotutako mendetasun bereziren bat duten biztanleen herenek adinarekin lotzen dute beren arazoa, % 33,1ek hain zuzen ere (% 32,2k 2006. urtean). Adin aurreratuari lotutako mendetasuna areagotu egiten da arazoa larriagoa den heinean. Ildo horretan, mendetasun gutxienez ertainen % 36arekin lotuta dago, eta erabateko mendetasunen edo larrien % 38arekin. Ehuneko horiek 2006koak baino txikiagoak badira ere (% 39,5 eta % 40,4, hurrenez hurren), agerian uzten dute mendetasuna duten adineko pertsonen gaixotasunaren zehaztasunik eza. Izan ere, askotan adinari leporatzen zaizkio egiaz etiologia espezifikoak duten arazoak.

Zehaztutako urritasunen artean, fisikoak (gaixotasun neuromuskularrak, osteoartikularak eta kronikoak) mendetasunaren arrazoi nagusi dira. Izan ere mendetasun bereziko egoeren % 42 urritasun fisikoei lotuta dago (% 41,9 2006. urtean). Hala ere, proportzio horrek behera egiten du arazoaren larritasuna areagotzen den heinean, erabateko mendetasunen edo mendetasun larrien % 31,6 baino ez baita (% 31,9 2006. urtean). Egoera horren arrazoia honako hau da, neurri handi batean: mendetasunaren benetako jatorria hor duten arazo asko generikoki adinarekin lotzen dira. Hori bereziki nabaria da gaixotasun neuromuskularrei dagokienez, sarritan generikoki adinaren arazoen kategorian biltzen diren prozesu askori lotuta baitaude.

Buruko arazoak ere azpimarratu beharrekoak dira. Zehazki, mendetasun bereziko egoeren % 20 dira, eta garrantzi erlatiboa erabateko mendetasunen edo mendetasun larrien % 27,8ra iritsi da. Kasu horretan, beraz, zifra 2006ko % 23,9a baino nabarmen handiagoa izan da (% 19,8 mendetasun-arazoen eragin generikoari dagokionez urte horretan). Adimen-atzeratasuna eta nahasmendu intelektualak lehen haurtzaroko arazoen % 34,2 dira. Proportzio hori gaixotasun kronikoei lotutako lehen haurtzaroko arazoena baino ez du gainditzen (% 51).

Bestalde, zentzumen-arazoak dira mendetasun bereziko egoera gutxien eragiten dituztenak. Arazoen % 4,4 baino ez dago lotuta horrelako urritasunekin, eta proportzio horrek behera egiten du larritasunik handieneko mendetasunen kasuan (mendetasun gutxienez ertainen, mendetasun larrien eta erabateko mendetasunen % 2,6). Adierazle horiek agerian utzi dutenez, beheranzko joera bat izan da 2006. urtearekin alderatuta. Urte horretan, mendetasun-egoeren % 6 urritasun mota horiei lotuta zegoen, % 2,8 mendetasun gutxienez ertainei, eta % 3,8 erabateko mendetasunei edo mendetasun larriei.

Mendetasun berezia duen biztanleria, urritasun nagusiaren motaren arabera. 2006. eta 2010. urteak
(% bertikalak)

Urritasun nagusia	Erabatekoa edo larria	Ertaina	Mendetasun gutxienez ertaina	Mendetasun berezi arina/autonomoak	Mendetasun berezia duen 0-6 urteko adingabeak.	Guztira
2006						
Buruko urritasuna/nahasmendua	23,9	20,0	22,4	16,2	47,8	19,8
Ikusmen-urritasuna	2,9	1,2	2,2	5,0	,0	3,6
Entzumen-urritasuna	,3	,0	,2	3,5	,0	1,8
Hizkuntza-urritasuna	,6	,0	,4	1,0	,0	,7
Urritasun neuromuskularra	10,2	4,4	8,0	9,3	29,2	9,0
Gaixotasun kronikoa	16,0	22,2	18,4	19,5	23,0	19,0
Urritasun osteoartikularra	5,7	14,3	9,0	19,6	,0	13,9
Adinekoak	40,4	37,9	39,5	25,9	,0	32,2
Beste batzuk	,0	,0	,0	,0	,0	,0
Guztira	100	100	100	100	100	100
2010						
Buruko urritasuna/nahasmendua	27,8	23,8	26,6	11,3	34,2	20,0
Ikusmen-urritasuna	2,2	,8	1,8	4,9	8,4	3,3
Entzumen-urritasuna	,3	,0	,2	,6	,0	,4
Hizkuntza-urritasuna	,0	1,9	,6	1,1	,0	,8
Urritasun neuromuskularra	10,8	13,4	11,6	7,6	6,4	9,7
Gaixotasun kronikoa	11,9	15,5	13,0	15,1	51,0	14,5
Urritasun osteoartikularra	8,9	13,6	10,3	27,8	,0	17,8
Adinekoak	38,0	31,0	36,0	30,7	,0	33,1
Beste batzuk	,0	,0	,0	1,0	,0	,4
Guztira	100	100	100	100	100	100

3.2. Zerbitzuak eta prestazioak baliatzeko aukera mendetasun berezia duten pertsonengan

3.2.1. Laguntza lortzeko aukera

3.2.1.1. Etxekoen unitatetik kanpoko laguntzak eta zerbitzuak

Mendetasun berezia duten pertsonen % 58,9k etxekoen unitatetik kanpoko laguntzak eta zerbitzuak jaso ditu 2010ean, bizilekutik kanpoko zentroetara joz edota hirugarren pertsonen laguntza jasoz³. Erabateko mendetasuna edo mendetasun larria duten pertsonen kasuan, proportzioa % 73,5era iritsi da.

Mendetasun-arloko laguntza-programen garapenari esker, laguntza-maila orokorrak 5 puntutik gora igo dira 2006ko % 53,7arekin alderatuta. 2006. urtean, erabateko mendetasuna edo mendetasun larria zuten pertsonen % 72,3k jasotzen zuten laguntza, eta gorakada nagusiak 0-5 urteko adingabeen kasuan (laguntzaren adierazlea % 18,7tik % 27,4ra igo da 2006tik 2010era bitarte) eta mendetasun ertaina duten pertsonen kasuan (% 48,3tik % 57,1ra) gertatu dira.

Laguntzan izandako gorakada garbiago ikusten da zifra absolutuak kontuan hartuz gero. Izan ere, mendetasun berezia duten eta kanpoko babesa edo laguntza jasotzen duten pertsonen kopurua 63.171 pertsonatik 73.100era igo da 2006tik 2010era bitarte. Beraz, % 15,7ko igoera izan da. Termino absolututan, igoerarik handiena erabateko mendetasuna edo mendetasun larria duten pertsonen kasuan gertatu da (26.223 pertsonak jaso zuten laguntza 2006an, eta 35.321ek 2010ean).

Jasotako laguntza mota kontuan hartuta, zuzenean bizilekuan eskainitako laguntza azpimarratu beharra dago. Honako alderdi hauek azpimarra daitezke:

⇒ Kanpoko laguntza nagusia senitartekoek edo adiskideek emandakoa da. Mendetasun berezia duten pertsonen artean, senitartekoen laguntza jasotzen dutenak % 29,5 dira (2006. urtean % 23,4 izan ziren). Laguntza mota hori handiagoa da mendetasunaren larritasuna areagotzen den heinean (funtsean autonomoak diren pertsonen % 10,2k, arazo arinak eta ertainak dituztenen % 25 inguruk eta erabateko mendetasuna edo mendetasun larria dutenen % 39,3k jasotzen du laguntza). Gutxienez mendetasun arina dutenen kasuan, deigarria da 2006tik 2010era bitarte kanpoko laguntzak hartu duen

³ Gogoratu beharra dago GPIko datu guztiak instituzionalizatu gabe dagoen eta etxebizitza partikularretan bizi den biztanleriari buruzkoak direla.

goranzko joera: % 21,4tik % 26,5era igo da kasu arinetan, % 17,6tik % 24,1era kasu ertainetan, eta % 35,2tik % 39,3ra erabateko mendetasunen edo mendetasun larrien kasuan.

⇒ Aztertutako biztanleriaren % 25,6k pertsona baten kontratazio partikularra jo du bizilekuan laguntza jasotzeko, Administrazioak bitarteko gisa jardun gabe. Zifra horrek gora egiten du mendetasunaren larritasuna handiagoa den heinean, eta % 32,5era iritsi da erabateko mendetasuna edo mendetasun larria duten pertsonen kasuan. Gainera, laguntza mota horretara jo dutenen kopuruak zertxobait gora egin du 2006tik (% 18,2k jo zuen laguntza mota horretara urte horretan). Goranzko joera hori gutxienez mendetasun arina duten pertsonen kasuan agertu da bereziki (% 16,4tik % 22ra igo da mendetasun arina duten pertsonen kasuan, % 17,6tik % 26,2ra mendetasun ertaina dutenen kasuan, eta % 25,3tik % 32,5era erabateko mendetasuna edo mendetasun larria dutenen kasuan).

⇒ Mendetasun berezia duten eta zuzenean Administrazioaren bitartez kudeatutako etxez etxeko laguntza-zerbitzua duten pertsonen proportzioa, berriz, % 15,3tik % 12,1era jaitsi da. Gainera, beherakada handiagoa izan da arazoaren larritasuna ere handiagoa den heinean (2,5 puntu inguru pertsona autonomoen edo arazo arinak dituztenen kasuan, 3,9 puntu arazo ertainak dituztenen kasuan, eta 6 puntu erabateko mendetasuna edo mendetasun larria dutenen kasuan). Hala ere, laguntza hori jaso dutenen proportzioak mendetasunaren larritasuna handiagoa den heinean gora egiteko joerarekin jarraitu du. Izan ere, mendetasuna arina duten edo praktikan autonomoak diren pertsonen % 8-9,5ek, mendetasun ertaina dutenen % 11,7k eta mendetasun larria edo erabateko mendetasuna dutenen % 15,8k jaso du laguntza. 2006tik 2010era bitarte etxez etxeko laguntza publikoaren garrantzi erlatiboak gora egin duen talde bakarra 0-5 urteko adingabeena izan da (laguntza-maila ia ezdeusa zen 2006an, eta % 6,4ra iritsi da 2010ean).

Mendetasun berezia duten pertsonen artean, etxekeen unitatetik kanpoko baliabideetara jo dutenak % 6,6 baino ez dira izan, hau da, 2006an baino % 8,5 gutxiago. Zehazki, % 5,7 eguneko zentro publiko edo pribatu batera joan da (% 4,3 eta % 1,4, hurrenez hurren), hots, 2006an baino % 8,2 gutxiago (% 6,6 eta % 1,6 urte horretan), eta % 0,9 egoitza-zentro batean egon da aldi batean (% 0,3 2006. urtean). Kanpoko baliabideetara jo dutenen proportzioa nabarmen handiagoa da erabateko mendetasuna edo mendetasun larria duten pertsonen kasuan (% 10,6 mendetasun mota hori dutenen artean, % 7 mendetasun ertaina dutenen artean eta % 3tik behera kasurik arinetan); nolana ere, laguntza hori jaso dutenen proportzioa murriztu egin da 2006. urtetik (% 17,7 urte horretan). Mendetasun arina dutenen artean ere beheranzko joera izan da, arazo ertainak dituztenen artean proportzioak gora egin du zertxobait (% 5,7tik % 7ra), eta 0-5 urteko adingabeen artean, berriz, gorakada handia izan da (% 2,2 2006. urtean eta % 21 2010ean).

Mendetasun berezia duen biztanleria, eguneroko bizitzako premiei erantzuteko jasotako laguntza motaren eta Barthel/Lawton mendetasun mistoaren mailaren arabera. 2006. eta 2010. urteak
(Datu absolutuak)

Laguntza mota	Erab. edo larria	Ertaina	Arina	Men. ber. autonomoa	Men. ber. 0-5 urteko ading.	Guztira
2006 Ez du kanpoko laguntza jasotzen	10.058	11.615	19.583	11.507	1.650	54.413
Eguneko zentro pribatu batera joaten da	1.310	172	431	0	0	1.913
Eguneko zentro publiko batera joaten da	4.749	1.116	1.123	730	44	7.762
Modu part. kontratatutako pertsona bat etortzen da	9.182	3.941	6.471	1.483	335	21.412
Adm. Publikoak kontrat. pertsona bat etortzen da	7.884	3.490	4.795	1.844	0	18.014
Senitartekoak edo adiskideak etortzen dira etxera	12.780	3.962	8.433	2.359	0	27.533
Internatuta dago	362	0	0	0	0	362
Kanpoko laguntza jasotzen du	26.223	10.838	19.881	5.850	379	63.171
2010 Ez du kanpoko laguntza jasotzen	12.730	8.491	22.211	6.143	1.407	50.981
Eguneko zentro pribatu batera joaten da	664	331	470	0	218	1.683
Eguneko zentro publiko batera joaten da	3.289	1.045	779	94	189	5.396
Modu part. kontratatutako pertsona bat etortzen da	15.609	5.182	10.071	932	0	31.794
Adm. Publikoak kontrat. pertsona bat etortzen da	7.576	2.306	4.280	733	123	15.018
Senitartekoak edo adiskideak etortzen dira etxera	18.885	4.771	12.040	897	0	36.593
Internatuta dago	1.157	0	0	0	0	1.157
Kanpoko laguntza jasotzen du	35.321	11.287	23.306	2.656	531	73.100

Mendetasun berezia duen biztanleria, eguneroko bizitzako premiei erantzuteko jasotako laguntza motaren eta Barthel/Lawton mendetasun mistoaren mailaren arabera. 2006. eta 2010. urteak
(% bertikalak)

Laguntza mota	Erab. edo larria	Ertaina	Arina	Men. ber. autonomoa	Men. ber. 0-5 urteko ading.	Guztira
2006 Ez du kanpoko laguntza jasotzen	27,7	51,7	49,6	66,3	81,3	46,3
Eguneko zentro pribatu batera joaten da	3,6	,8	1,1	,0	,0	1,6
Eguneko zentro publiko batera joaten da	13,1	5,0	2,8	4,2	2,2	6,6
Modu part. kontratatutako pertsona bat etortzen da	25,3	17,6	16,4	8,5	16,5	18,2
Adm. Publikoak kontrat. pertsona bat etortzen da	21,7	15,5	12,2	10,6	,0	15,3
Senitartekoak edo adiskideak etortzen dira etxera	35,2	17,6	21,4	13,6	,0	23,4
Internatuta dago	1,0	,0	,0	,0	,0	,3
Kanpoko laguntza jasotzen du	72,3	48,3	50,4	33,7	18,7	53,7
2010 Ez du kanpoko laguntza jasotzen	26,5	42,9	48,8	69,8	72,6	41,1
Eguneko zentro pribatu batera joaten da	1,4	1,7	1,0	,0	11,3	1,4
Eguneko zentro publiko batera joaten da	6,8	5,3	1,7	1,1	9,8	4,3
Modu part. kontratatutako pertsona bat etortzen da	32,5	26,2	22,1	10,6	,0	25,6
Adm. Publikoak kontrat. pertsona bat etortzen da	15,8	11,7	9,4	8,3	6,4	12,1
Senitartekoak edo adiskideak etortzen dira etxera	39,3	24,1	26,5	10,2	,0	29,5
Internatuta dago	2,4	,0	,0	,0	,0	,9
Kanpoko laguntza jasotzen du	73,5	57,1	51,2	30,2	27,4	58,9

Oharra: Laguntzaren aldagaia askotarikoa da; horregatik, ehuneko baturak % 100 baino gehiago eman dezake.

Mendetasun berezia duen biztanleriak jasotako laguntza publikoa, pribatua edo senitartekoena izan den kontuan hartuta, laguntza nagusia pribatua izan da 2010ean. Formula mistoak (publiko/pribatuak) barnean hartuta, aztertutako pertsonen % 26,9k jaso du laguntza pribatua (2006. urtean, berriz, % 19,3k). Laguntza mota horrek izandako gorakada 5 puntutik gorakoa izan da gutxienez mendetasun arina dutenen artean. Beraz, laguntza pribatua nagusi izan da 2010. urtean. Izan ere, mendetasuna duten pertsonen talde guztietan gainditu du laguntza publikoa, 0-5 urteko adingabeen taldean izan ezik. 2006-2010 aldian laguntza mota horrek beheranzko joera izan duen kasu bakarra izan da.

Halaber, gora egin du senitartekoek soilik eskainitako laguntza. Zehazki, laguntza mota horren garrantzi erlatiboa % 16,8tik % 18,3ra igo da 2006tik 2010era bitarte. Nolanahi ere, laurteko horretan ikusitako gorakada egoerarik larrietan baino ez da gertatu: senitartekoen laguntzaren eragina % 13tik % 14,8ra igo da mendetasun ertainen kasuan, eta % 20,2tik % 21,8ra erabateko mendetasunen edo mendetasun larrien kasuan.

Laguntza publikoa edo itundua, laguntza mistoko (publiko/pribatuko) formulak barne, aztertutako biztanleriaren % 15,4k jaso du, eta, beraz, nabarmen egin du behera 2006. urtetik (% 20,7 urte horretan). Beherakadarik nabarmenena erabateko mendetasuna edo mendetasun larria dutenen artean gertatu da, laguntza jaso dutenen proportzioa % 33,2tik % 20,2ra murriztu baita 2006tik 2010era bitarte. Maila txikiagoko mendetasuna duten pertsonen eta 5 urtetik gorakoen kasuan, berriz, laguntza jaso dutenen proportzioa 3-4 puntu jaitsi da. Sektore publikoko laguntzak mendetasun berezia duten 0-5 urteko adingabeen kasuan baino ez du gora egin: % 2,2 2006. urtean, eta % 16,1 2010. urtean.

Mendetasun berezia duen biztanleria, laguntzaren jatorriaren eta Barthel/Lawton mendetasun mistoaren mailaren arabera 2006. eta 2010. urteak
(% bertikalak)

Laguntzaren jatorria	Erabatekoa edo larria	Ertaina	Arina	Men. ber. duen autonomoa	Men. ber. 0-5 urteko ading.	Guztira	
2006	Batere ez	27,7	51,7	49,6	66,3	81,3	46,3
	Publikoa/itundua	23,9	17,0	13,8	13,6	2,2	17,3
	Partikularra	17,9	15,5	17,5	8,5	16,5	15,9
	Mistoa	9,3	2,9	,0	,0	,0	3,4
	Senitartekoena	20,2	13,0	19,1	11,5	,0	16,8
	Internatua	1,0	,0	,0	,0	,0	,3
	Guztira	100	100	100	100	100	100
2010	Batere ez	26,5	42,9	48,8	69,8	72,6	41,1
	Publikoa/itundua	15,7	14,4	9,5	9,4	16,1	12,8
	Partikularra	29,1	25,3	22,0	10,6	11,3	24,3
	Mistoa	4,5	2,6	1,2	,0	,0	2,6
	Senitartekoena	21,8	14,8	18,6	10,2	,0	18,3
	Internatua	2,4	,0	,0	,0	,0	,9
	Guztira	100	100	100	100	100	100

Laguntza jasotzen duten herritarrek batez beste 32,3 orduko laguntza jaso dute astean, 2006ko 32,6 orduko kopurutik oso gertu. Erabateko mendetasuna edo mendetasun larria duten pertsonak 46,9 orduko laguntza jaso dute batez beste astean; mendetasun ertaina dutenek, berriz, 29,2 orduko laguntza jaso dute batez beste, eta 15 ordu baino pixka bat gutxiagoko laguntza, batez beste, arazo arinak dituzten pertsonak edo 0-5 urteko adingabeek. Azkenik, funtsean autonomoak direnak 7,9 orduko laguntza baino ez dute jaso. Mendetasun arina duten pertsonen kasuan izan ezik —horien artean laguntza-orduen kopurua 13,1etik 14,8ra igo da—, kopuru horiek 4-6 laguntza-orduko beherakada ekarri dute 2006ko kopuruaren aldean (51,2tik 46,9ra erabateko mendetasuna edo mendetasun larria dutenen artean, eta 34,5etik 29,2ra mendetasun ertaina dutenen artean, esaterako).

Beherakada hori senitartekoen laguntzaren kasuan gertatu da batez ere (astean batez beste 31,4 ordu ziren 2006. urtean, eta 20,7 ordu 2010ean), baina laguntza publikoaren edo itunduaren kasuan ere agertu da (24,5 ordutik 22,1era jaitsi da). Zerbitzu partikularren edo pribatuaren bidez emandako laguntzak, berriz, gora egin du: 2006-2010 aldian, asteko batez besteko orduen kopurua 33,3tik 37,5era igo da laguntza publikoaren kasuan, eta 69,3tik 85,2ra laguntza mistoaren (publiko/pribatuaren) kasuan.

Beraz, laguntza pribatuaren kasuan izandako gorakadari esker jarraitu du 2010ean egonkor EAeko laguntza-orduen batez bestekoak, konpentsazio-funtzio horretan muga batzuk agertu badira ere. Bereziki, mendetasun gutxienez ertaina duten pertsonen kasuan, laguntza publikoaren eta senitartekoek emandako laguntzaren ordu kopuruan izandako beherakada ez da konpentsatu.

Mendetasun berezia duen eta laguntza jasotzen duen biztanleria
Asteko laguntza-orduen batez besteko kopurua, laguntzaren jatorriaren eta Barthel/Lawton mendetasun mistoaren mailaren arabera. 2006. eta 2010. urteak

Laguntzaren jatorria		Mendetasun-egoera (Barthel/Lawton)					
		Erabatekoa edo larria	Ertaina	Arina	Men. ber. duen autonomoa	Men. ber. 0-5 urteko ading.	Guztira
		Media	Media	Media	Media	Media	Media
2006	Publikoa/itundua	34,1	30,0	11,2	11,5	30,0	24,5
	Partikularra	59,8	42,1	11,1	4,6	18,0	33,3
	Mistoa	71,5	57,6				69,3
	Senitartekoena	50,9	26,5	16,4	23,2		31,4
	Internatua	168,0					168,0
	Guztira	51,2	34,5	13,1	13,7	19,4	32,6
2010	Publikoa/itundua	32,7	15,5	11,1	5,3	23,2	22,1
	Partikularra	51,5	40,6	19,8	9,6	3,0	37,5
	Mistoa	109,2	34,9	35,4			85,2
	Senitartekoena	30,5	21,7	9,4	8,6		20,7
	Internatua	146,6					146,6
	Guztira	46,9	29,2	14,8	7,9	14,9	32,3

3.2.1.2. Mendetasunerako prestazio ekonomikoak

2010. urtean, 11.057 etxeen unitatek jaso dute mendetasuna babesteko sistemari lotutako prestazio ekonomikoetako bat (mendetasun berezia duen pertsonaren bat bizi den etxeen unitateen % 9,9k).

Etxeoen unitate horietan bizi diren eta mendetasun berezia duten 25.736 pertsonak jaso dituzte zuzenean edo zeharka prestazio horiek, hau da, mendetasun berezia duen guztizko biztanleriaren % 20,7k. Erabateko mendetasuna edo mendetasun larria duten pertsonak edo mendetasun berezia duten 5 urtetik beherakoak dira % 71,1ean. Proporzioa % 81,5era igotzen da larritasun ertaina duten pertsonak aintzat hartzen badira.

Mendetasun berezia duen pertsonaren bat duten, eta mendetasuna babesteko sistemari lotutako laguntza ekonomikoak jasotzen dituzten etxeen unitateak, laguntza jaso duen pertsona motaren arabera. 2010
(Datu absolutuak, % bertikalak eta erreferentziako taldean laguntza jaso dutenen %-a)

Laguntza jaso duen pertsona mota	Datu absolutuak	% bertikalak	Erreferentziako taldean (%)
Gutxienez mendetasun ertaina duten bi edo gehiago	879	8,0	22,1
Men. ber. duten bi edo gehiago (beste kasu batzuk)	1.207	10,9	15,7
Mendetasun berezia duten bi edo gehiago	2.086	18,9	17,9
Batek mendetasun ertaina du gutxienez	7.380	66,7	13,4
Beste kasu batzuk	1.591	14,4	3,6
Guztira	11.057	100	9,9

Mendetasun berezia duen eta mendetasuna babesteko sistemari lotutako laguntza ekonomikoak jasotzen dituzten etxeen unitateetan bizi den biztanleria, Barthel-Lawton mendetasun mistoaren mailaren arabera. 2010

(Datu absolutuak, % bertikalak eta erreferentziako taldean laguntza jaso dutenen %-a)

Barthel/Lawton mendetasun mistoaren maila	Datu absolutuak	% bertikalak	Erreferentziako taldean (%)
Erabatekoa edo larria	17.719	68,8	36,9
Ertaina	2.681	10,4	13,6
Arina	3.870	15,0	8,5
Mendetasun berezia duen autonomia	898	3,5	10,2
Mendetasun berezia duten 0-5 urteko adingabeak	569	2,2	29,3
Guztira	25.736	100	20,7

3.2.2. Laguntza-premiak

Mendetasun berezia duten herritarren laguntza-premiei dagokienez, honako datu hauek azpimarratu behar dira:

⇒ Mendetasun berezia duten pertsonak zaintzeko premia nagusia laguntza ekonomikoa izan da berriz. 2010. urtean, mendetasuna duten pertsonen % 52,6k behar izan du mota horretako laguntza (65.226 pertsonak, guztira). Premiarik handiena erabateko mendetasuna edo mendetasun larria duten pertsonen eta 0-5 urteko adingabeek izan dute.

⇒ Laguntza edo zainketa pertsonalak mendetasun berezia duten pertsonen % 42,4k eskatu ditu (52.633 pertsonak). Kasu horretan ere, zifrak gora egin du 2006koarekin alderatuz gero (% 39,1 urte horretan). Zifrarik handienak mendetasun ertaina, erabatekoa edo larria duten pertsonenak izan dira. Nolanahi ere, 2006an ez bezala, mendetasun ertaina duten pertsonen artean eskaria pixka bat handiagoa izan da, azken urte hauetan premiari dagokionez izan den gorakada handiaren ondorioz (% 40,7tik % 51,7ra igo da 2006tik 2010era bitarte). Erabateko mendetasuna edo mendetasun larria dutenen artean, aldiz, ehunekoak behera egin du (% 56,6tik % 50,2ra).

⇒ Aztertutako pertsonen % 27,6k (34.242 pertsonak), 2006ko % 27,5eko proportziotik gertu beraz, akonpainamenduari edo ikuskapenari loturiko laguntza eskatu du. Kasu horretan ere, proportzioak gora egin du mendetasun-mailarekin batera, eta mendetasun gutxienez ertaina duten pertsonen % 35 baino gehiago hartu ditu eraginpean. Puntu honetan, berriz ere agerian geratu da mendetasun berezi ertaina duten pertsonen bilakaera desberdina. Izan ere, erabateko mendetasuna edo mendetasun larria dutenen artean, premia % 44,1etik % 36,8ra jaitsi da; mendetasun ertaina dutenen artean, aldiz, proportzioa % 21,3tik % 38,4ra igo da.

Adierazitako laguntzekin alderatuz, zentro espezializatueta sartzeko eskaria askoz ere txikiagoa izan da, baina ez da hutsala edo guztiz marjinala. Horri dagokionez, hona hemen daturik esanguratsuenak:

⇒ Gehien eskatu den laguntza aisia-zentro espezializatuena izan da, mendetasun berezia duten pertsonen % 6,7k aipatu baitute (8.273 pertsonak guztira). Hala ere, proportzioa 2006koa baino nabarmen txikiagoa izan da (% 10 urte horretan). Eskaria handiagoa izan da larritasunik handieneko egoeretan daudenen kasuan (% 10,8 mendetasun ertaina dutenen artean, eta % 7,7 erabateko mendetasuna edo mendetasun larria dutenen artean). Dena dela, mendetasun berezia duten 0-5 urteko adingabeena izan da eskaririk handiena. Kasu horretan, % 30,9k eskatu ditu zerbitzu horiek 2010ean.

⇒ 8.206 pertsonak (mendetasun berezia duten pertsonen % 6,6k) eguneko zentroetan edo okupazio-zentroetan sartzea eskatu du, eta proportzio hori nabarmen txikiagoa da 2006koa baino (% 9,1 urte

horretan). Erabateko mendetasuna edo mendetasun larria duten pertsonen artean baino ez da gainditu batez besteko maila (% 10,5, 2006ko % 16,2 baino nabarmen txikiagoa, nolana ere).

⇒ 6.534 pertsonak egoitza-zerbitzuak eskatu dituzte, 2006ko 6.878ko kopuruaren azpitik pixka bat. Termino erlatibotan, beherakada nabariagoa izan da: 2006an, eskatzaileak mendetasun berezia zuten herritarren % 5,8 izan ziren, eta 2010ean % 5,3 izan dira. Eskaria % 2-3,5 izan da erabatekoa edo larria ez den mendetasuna duten pertsonen artean, eta azken talde horretan, berriz, proportzioa % 9ra iritsi da. Nolanahi ere, talde horretan eskariak behera egin du 2006. urtetik (% 12,8 urte horretan), eta beherakada are handiagoa izan da mendetasun ertaina duten pertsonen artean (% 5,7tik % 1,9ra). Mendetasun arina dutenen artean, aldiz, % 2,4tik % 3,6ra igo da. Gainera, eskari berri bat nabarmendu da funtsean autonomoak diren pertsonen artean (persona horien % 2,5ek egoitza-zerbitzu espezializatua eskatu du 2010ean).

Azkenik, aipatzekoa da 2.716 pertsonak (guztizkoaren % 2,2k) enpleguarekin zerikusia duten baliabideak eskatu dituela (enplegu-zentro berezietan edo laneratze-enpresetan sartzeko aukera izatea). Nolanahi ere, beherakada nabaria gertatu da 2006ko % 4,2aren aldean (une hartan 4.994 pertsonak egin zuten eskaera). Mendetasun arina edo ertaina dutenen artean, eskaria handiagoa izan da (% 2,4 eta % 6,2, hurrenez hurren), eta kasu horietan gorakada nabari da 2006ko ehunekoaren aldean (% 2,1 eta % 4,4, hurrenez hurren). Erabateko mendetasuna edo mendetasun larria duten pertsonen artean eta funtsean autonomoak diren pertsonen artean, ordea, eskariak behera egin du, % 5,2tik % 0,5era eta % 7,3tik % 1,5era, hurrenez hurren.

Mendetasun berezia duen biztanleria: babes- edo laguntza-eskariak Barthel/Lawton mendetasun mistoaren mailaren arabera. 2006. eta 2010. urteak
(Datu absolutuak)

Barthel/Lawton mendetasun mistoaren maila		Laguntza ekonomikoa	Laguntza edo zainketa pertsonaletarako laguntza	Akonpainamenduari edo ikuskapenari lotutako laguntza	Eguneko zentroak/okupazio-zentroak	Aisia-zentro espezializatuak	Egoitza-zerbitzu espezializatua	EZB/Laneratze-enpresa
2006	Erabatekoa edo larria	19.180	20.528	15.989	5.893	5.825	4.655	1.884
	Ertaina	10.481	9.143	4.776	3.079	2.935	1.288	995
	Arina	14.950	12.376	8.110	1.536	1.605	935	843
	Men. berezia duen autonomoa	6.029	3.181	2.780	180	1.434	0	1.273
	Men. berezia duten 0-5 urteko ading.	1.436	768	663	0	0	0	0
	Guztira	52.076	45.997	32.318	10.688	11.798	6.878	4.994
2010	Erabatekoa edo larria	27.280	24.145	17.698	5.032	3.679	4.324	256
	Ertaina	9.872	10.233	7.595	565	2.141	366	1.224
	Arina	23.392	16.913	8.396	2.038	1.666	1.619	1.104
	Men. berezia duen autonomoa	3.560	1.188	554	571	188	224	132
	Men. berezia duten 0-5 urteko ading.	1.123	153	0	0	599	0	0
	Guztira	65.226	52.633	34.242	8.206	8.273	6.534	2.716

Mendetasun berezia duen biztanleria: babes- edo laguntza-eskariak Barthel/Lawton mendetasun mistoaren mailaren arabera.
2006. eta 2010. urteak
(Taldearen %-a)

Barthel/Lawton mendetasun mistoaren maila	Laguntza ekonomikoa	Laguntza edo zainketa pertsonaletarako laguntza	Akonpainamenduari edo ikuskapenari lotutako laguntza	Eguneko zentroak/okupazio-zentroak	Aisia-zentro espezializatuak	Egoitza-zerbitzu espezializatua	EZB/Lanera-tze-enpresa
2006 Erab. edo larria	52,9	56,6	44,1	16,2	16,1	12,8	5,2
Ertaina	46,7	40,7	21,3	13,7	13,1	5,7	4,4
Arina	37,9	31,4	20,5	3,9	4,1	2,4	2,1
M. ber. duen auto.	34,7	18,3	16,0	1,0	8,3	,0	7,3
M. ber. 0-5 urt. ad.	70,8	37,9	32,7	,0	,0	,0	,0
Guztira	44,3	39,1	27,5	9,1	10,0	5,8	4,2
2010 Erab. edo larria	56,8	50,2	36,8	10,5	7,7	9,0	,5
Ertaina	49,9	51,7	38,4	2,9	10,8	1,9	6,2
Arina	51,4	37,2	18,4	4,5	3,7	3,6	2,4
M. ber. duen auto.	40,5	13,5	6,3	6,5	2,1	2,5	1,5
M. ber. 0-5 urt. ad.	57,9	7,9	,0	,0	30,9	,0	,0
Guztira	52,6	42,4	27,6	6,6	6,7	5,3	2,2

Mendetasun berezia duen biztanleria: babes- edo laguntza-eskariak Barthel/Lawton mendetasun mistoaren mailaren arabera.
2006. eta 2010. urteak
(% bertikalak)

Barthel/Lawton mendetasun mistoaren maila	Laguntza ekonomikoa	Laguntza edo zainketa pertsonaletarako laguntza	Akonpainamenduari edo ikuskapenari lotutako laguntza	Eguneko zentroak/okupazio-zentroak	Aisia-zentro espezializatuak	Egoitza-zerbitzu espezializatua	EZB/Lanera-tze-enpresa
2006 Erab. edo larria	36,8	44,6	49,5	55,1	49,4	67,7	37,7
Ertaina	20,1	19,9	14,8	28,8	24,9	18,7	19,9
Arina	28,7	26,9	25,1	14,4	13,6	13,6	16,9
M. ber. duen auto.	11,6	6,9	8,6	1,7	12,2	,0	25,5
M. ber. 0-5 urt. ad.	2,8	1,7	2,1	,0	,0	,0	,0
Guztira	100	100	100	100	100	100	100
2010 Erab. edo larria	41,8	45,9	51,7	61,3	44,5	66,2	9,4
Ertaina	15,1	19,4	22,2	6,9	25,9	5,6	45,1
Arina	35,9	32,1	24,5	24,8	20,1	24,8	40,7
M. ber. duen auto.	5,5	2,3	1,6	7,0	2,3	3,4	4,8
M. ber. 0-5 urt. ad.	1,7	,3	,0	,0	7,2	,0	,0
Guztira	100	100	100	100	100	100	100

3.3. Okupazio-alderdiak muga edo mendetasuna duten pertsonengan

Garrantzitsua da kontuan hartzea mugek edo mendetasun bereziek eraginpean hartutako pertsonen laneratze-aukerak zer neurritan baldintzatzen dituzten.

3.3.1.0-5 urteko adingabeak hezkuntzan integratzea

0-5 urteko adingabeen kasuan, muga edo mendetasun berezi bat egoteak ez dakar haurtzaindegi edo ikastetxe batera joateko aukera txikiagoa. Aitzitik, leku horietan laguntza jasotzen dutenen proportzio handiagoa dakar: mendetasun berezia duten haurren % 92,1 eta beste muga batzuk dituztenen % 85,2; aipatzeko moduko mugarik ez dutenak % 72,4 izan dira.

Mendetasun berezia duten eta zentro batean sartu direnen proportzioak gora egin du 2006tik 2010era bitarte (% 83,5etik % 92,1era). Mendetasun berezirik gabeko mugek kasuan, proportzioa egonkortu egin da, beherakada txiki batekin (% 85,8tik % 85,2ra). Osasunari lotutako mugarik ez dagoenean, aldiz, adierazleak beherakada handiagoa erakutsi du (% 74tik % 72,4ra).

0-5 urteko biztanleria: haurtzaindegi edo ikastetxe batera joan direnak, muga edo mendetasun bereziko egoerak kontuan hartuta. 2006. eta 2010. urteak
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Laguntza-egoera	Mendetasun berezia		Mendetasun berezirik gabeko muga		Mugarik gabe	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
2006 Laguntza jaso dutenak	1.694	83,5	2.957	85,8	101.604	74,0
Familia-lehentasunagatik laguntza jaso ez dutenak	335	16,5	419	12,2	32.348	23,6
Beste arrazoi batzuegatik laguntza jaso ez dutenak	0	,0	71	2,1	3.387	2,5
Guztira	2.029	100	3.446	100	137.339	100
2010 Laguntza jaso dutenak	1.784	92,1	3.991	85,2	106.312	72,4
Familia-lehentasunagatik laguntza jaso ez dutenak	153	7,9	514	11,0	36.451	24,8
Beste arrazoi batzuegatik laguntza jaso ez dutenak	0	,0	179	3,8	4.074	2,8
Guztira	1.938	100	4.684	100	146.837	100

3.3.2. Nahitaez eskolatzeko adinean hezkuntzan integratzea

Aurreko atalean ez bezala, nahitaez eskolatzeko aldiaren hezkuntza-egoerak okerrera egiten du nabarmen osasunari lotutako muga bat dagoenean eta, are gehiago, muga horrek mendetasun bereziko egoera bat eragiten duenean. Horrela, beraz, osasunari lotutako mugarik ez duten eta eskolatzetik ezari, absentismoari edo eskola-atzeratasunari lotutako arazoak dituzten eskola-umeen % 4,7arekin alderatuz, proportzioa % 18,7ra igo da mugak dituzten adingabeen kasuan, eta % 70era mendetasun berezia duten adingabeen kasuan. Muga arinak dituzten adingabeengan, egoera hori urtebeteko eskola-atzeratasun arinarekin lotuta dago; mendetasun berezia duten pertsonen kasuan, 2 urteko edo gehiagoko eskola-atzeratasuna duten pertsonen proportzioak nabarmen egin du gora (taldearen % 14,4ra iritsi da).

Mendetasun berezia duten adingabeak hezkuntza-sistema orokorrean integratzeko prozesuaren ondorioz, zailtasunek gora egin dute azken urteotan. Izan ere, talde horretan, hezkuntza-egoeran arazoak dituzten pertsonen ehunekoa % 39,5etik % 70era igo da 2006tik 2010era bitarte, urtebeteko eskola-atzeratasunaren garrantzi erlatiboa nabarmen igo delako bereziki.

Bestalde, mendetasun berezia duen 6-16ko biztanleriak aukera gutxiago ditu eskolan behar bezala integratzeko, eta, beraz, finkatu egin da talde horren arrisku-profila. Izan ere, eskolan integratzeko zailtasunak dituzten adingabeen proportzioa oso txikia da –% 1 inguru edo txikiagoa– mendetasun bereziko arazorik ez duten adingabeen artean, osasunari lotutako beste zenbait muga dituztenak barne. Mendetasun berezia duten adingabeen artean, aldiz, proportzioa % 43,1era iritsi da, beheranzko joeran nolana ere 2006ko % 53,5ekin alderatuz. Mendetasun berezia duten adingabe horiek integratzeko dituzten arazoen % 25,4k garrantzi txikia badu ere, % 17,7 bazterketari, jazarpenari edo tratatu txarrei lotuta dago. Proportzio hori 2006koa baino % 15,8 handiagoa izan da, baina ezein kasutan ez dago jazarpen-egoerei edo tratatu txarrei lotuta.

Laburbilduz, mendetasun berezia duten adingabeen % 75,2k arazoren bat du –larritasun handiagokoa edo txikiagokoa– hezkuntza-egoeran edo eskolan lortutako integrazio-mailan. Proportzio hori % 18,7 baino ez da izan osasunari lotutako mugak dituzten mendetasun berezirik gabeko adingabeen artean, eta % 5,5 mugarik ez duten adingabeen artean.

16-64 urteko biztanleria: hezkuntza-egoera, eskolan integratzeko arazoak eta eskola-arazo larriak, mugak edo mendetasun berezirik badagoen kontuan hartuta. 2006. eta 2010. urteak
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

		2006						2010					
		Mendetasun berezia		Mend. berezirik gabeko muga		Mugarik gabe		Mendetasun berezia		Mend. berezirik gabeko muga		Mugarik gabe	
		Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Hezkuntza-egoera	Eskolatzerik eza/absentismoa	174	5,8	0	,0	767	,4	0	,0	0	,0	0	,0
	Eskolatua, 2 urteko edo gehiagoko atzer.	809	27,2	0	,0	880	,5	573	14,4	0	,0	238	,1
	Eskolatua, urte 1eko atzeratasuna	191	6,4	229	24,3	10.547	5,7	2.208	55,5	608	18,7	10.153	4,6
	Arazoak hezkuntza-egoeran	1.175	39,5	229	24,3	12.195	6,6	2.782	70,0	608	18,7	10.391	4,7
	Arazorik gabeko eskolatzea	1.801	60,5	716	75,7	173.014	93,4	1.195	30,0	2.648	81,3	209.024	95,3
Eskolan integratzea	Jazarpena edo tratu txarrak	264	8,9	0	,0	893	,5	0	,0	0	,0	361	,2
	Beste bazterketa-arazo batzuk	205	6,9	54	5,7	1.402	,8	704	17,7	0	,0	745	,3
	Beste arazo batzuk	1.124	37,8	0	,0	1.798	1,0	1.009	25,4	0	,0	1.371	,6
	Arazorik gabe	1.382	46,5	892	94,3	181.117	97,8	2.264	56,9	3.255	100	216.937	98,9
Eskola-arazo larriak	Arazo larriak	1.593	53,5	54	5,7	4.957	2,7	2.077	52,2	0	,0	2.587	1,2
	Urte 1eko atzeratasuna	191	6,4	175	18,6	9.256	5,0	912	22,9	608	18,7	9.512	4,3
	Arazorik gabe	1.191	40,0	716	75,7	170.996	92,3	988	24,8	2.648	81,3	207.315	94,5
Guztira	2.975	100	946	100	185.209	100	3.976	100	3.255	100	219.415	100	

Bestalde, adierazi beharra dago laguntza espezializatua bereizgarria izan dela, berriz ere, mendetasun bereziko arazoak dituzten pertsonen taldean. Izan ere, talde horren barruan, % 7,3k baino ez du jaso hezkuntza-sare orokorreko zentro bateko ikasleen eskola-tratu arrunta. Ikastetxe espezializatu batera bideratuta dagoen eta neurri batean ikasgela berezi batean edo hizkuntza-garapenari lotutako arazoak konpontzeko berariazko laguntza-programekin jardun duen % 18,3az gain, aukera nagusia errefortzu-orduak sartzea izan da. Zehazki, aztertutako eskola-biztanleriaren % 74,4 baliatu da esku-hartze mota horretaz.

Testuinguru horretan, azpimarratu beharra dago sare normalizatuan integratzera bideratutako modalitate espezializatuetan izandako gorakada. Horrela, beraz, 2006-2010 aldian, % 36,4tik % 81,5era igo da mendetasun berezia duten eta hezkuntza-sare orokorraren esparruan errefortzu-orduak edo hizkuntza-egokitzerako programak baliatu dituzten adingabeen proportzioa.

Edonola ere, mendetasun berezia duten ikasle gehienek mugaren bat dute eskola-erritmoari jarraitzeko. Eskola-erritmoari jarraitzeko zailtasun larriak dituzten pertsonak guztien % 12,9 dira, hau da, 2006. urtean baino gehiago (% 12,3 urte horretan). Hala ere, integratzeko prozesua arrakastatsua izaten ari da alderdi askotan. Ildo horretan, beren jarduera mugarik gabe garatzen dutenen proportzioa % 2,4tik % 11,3ra igo da 2006tik 2010era bitarte. Gainera, erritmoari zailtasun larririk gabe baina laguntza espezializatuaren premiarekin jarraitzen dutenen barruan, 2006an zaintza bereziei emandako garrantzia desagertu egin da. Gauzak horrela, berariazko jarduera batzuk garatzeko mugak errealitate nagusi bihurtu dira mendetasun berezia agertu den kasuetan (guztizkoaren % 75,8, 2006ko % 45,2aren gainetik baina urte hartan zainketa berezien premia zuten pertsonen % 40,1a aurreko zifrari gehitzea ekarriko zukeen % 85,3aren azpitik).

Mendetasun berezia duen 6-16 urteko biztanleria, hezkuntza-premia berezirik eta eskola-erritmoari jarraitzeko mugarik badagoen kontuan hartuta. 2006. eta 2010. urteak
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

		2006		2010	
		Mendetasun berezia		Mendetasun berezia	
		Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Tratamendua edo laguntza berezia	Gainerakoen laguntza bera	470	15,8	291	7,3
	Laguntza edo errefortzu-orduak	1.084	36,4	2.958	74,4
	Hizkuntzara egokitzeko laguntza	0	,0	282	7,1
	Egunaren zati bat ikasgela berezi batean	1.236	41,5	137	3,4
	Zentro espezializatu batera bidalitakoak	186	6,2	308	7,8
Eskola-erritmoari jarraitzeko mugak	Jarduerak egiteko mugarik gabe	73	2,4	448	11,3
	Jarduera jakin batzuk egiteko mugak	1.345	45,2	3.016	75,8
	Zainketa berezien premia	1.192	40,1	0	,0
	Erritmoari jarraitzeko zailtasun larriak	365	12,3	512	12,9
Guztira	2.975	100	3.976	100	

3.3.3 Laneratzea adin aktiboan

Guztira, 16-64 urteko 80.642 pertsonak osasunari lotutako muga edo mendetasun bereziren bat dute, eta errealitate horrek modu erabakigarrian baldintzatzen die lan-merkatuan sartzeko aukera. Izan ere, osasun-mugarik ez duten 16-64 urteko pertsonen % 76,8ko jarduera-tasarekin alderatuz, proportzioa % 54,4ra jaitsi da muga txikiak dituztenen artean, % 51,4ra mendetasun berezia duten baina funtsean autonomoak diren pertsonen kasuan, % 35,8ra mendetasun berezi arina dutenen kasuan, % 17ra mendetasun berezi ertaina dutenen kasuan, eta % 2,8ra erabateko mendetasuna edo mendetasun larria dutenen kasuan.

Erreferentziazko taldeetako 16-64 urteko landunen proportzioak edo okupazio-koefizienteak joera berbera erakutsi du. Mugarik gabeko pertsonen kasuan, % 67,5ek lana dute, baina muga txikiak dituztenen artean proportzio hori % 43,3ra jaitsi da, % 25,5-28ra mendetasun berezi arina duten edo ia autonomoak diren pertsonen kasuan, % 14,9ra mendetasun berezi ertaina dutenen kasuan, eta % 2,8 mendetasun larria edo erabatekoa dutenen kasuan.

Langabeziak eragin handiagoa izan du osasun-arazoei lotutako mugak dituzten pertsonen kasuan. Mugarik ez duten pertsonen % 12ko langabezia-tasarekin alderatuta, zenbatekoa % 20,5era iritsi da mugak dituzten baina mendetasun berezirik ez duten pertsonen kasuan, eta % 30ean kokatu da mendetasun berezia duten pertsonen artean. Kasu horretan, langabeziaren eragina handiagoa izan da larritasun ertainera iristen ez den mendetasun berezia duten pertsonen artean: % 28,4 mendetasun arina duten pertsonen kasuan, eta % 45,2 mendetasun berezia izaki praktikan autonomoak diren pertsonen kasuan (langabezia-tasa % 12,6 izan da mendetasun ertaina duten pertsonen artean, eta % 0 erabateko mendetasuna edo mendetasun larria dutenen artean, kolektibo hori lan-merkatutik ia guztiz aparte dagoen adierazgarri).

Jardueraren, okupazioaren eta langabeziaren ehunekoen azkenaldiko bilakaera bereziki interesgarria izan da. Mendetasun berezirik gabeko muga bat duten pertsonen kasuan, jarduera- eta okupazio-mailak eutsi egin dio funtsean, eta okupazio-koefizientea % 44tik % 43ra baino ez da jaitsi 2006tik 2010era bitarte. Horren ondorioz, langabezia-tasa pixka bat baino ez da igo (% 19tik % 20,5era).

Langabezia-tasa nabarmen igo da, ordea, mendetasun berezi arina duten pertsonen artean edo mendetasun bereziren bat izanagatik ere funtsean autonomoak diren pertsonen artean (% 24,1etik % 28,4ra eta % 39,6tik % 45,2ra, hurrenez hurren). Nolanahi ere, talde horien okupazio-koefizienteak gora egin du (% 25etik % 25,6ra eta % 25,6tik % 28,2ra, hurrenez hurren), eta, hortaz, langabeziaren gorakada jarduera-tasaren gorakadari baino ez zaio lotzen (% 32,9tik % 35,8ra mendetasun berezi arina duten

pertsonen artean, eta % 42,4tik % 51,4ra mendetasun berezia izanagatik ere praktikan autonomoak direnen artean).

Mendetasun berezi ertaina duten pertsonen kasuan, berriz, prozesua desberdina izan da, eta langabezia-tasa % 49,9tik % 12,6ra murriztu da. Neurri batean, 2006tik 2010era bitarte okupazio-koefizientea igo izanari (% 12,3tik % 14,9ra) lotzen zaio murrizketa hori, baina, neurri handiagoan, jarduera-tasak talde horretan izan duen beherakada handiarekin (% 24,6tik % 17ra) du zerikusia.

Guztira, mendetasun berezia duten pertsonen langabezia-tasa % 31,5etik % 30era jaitsi da 2006tik 2010era bitarte. Aitzitik, mugarik eta mendetasun berezirik ez duten pertsonen kasuan, % 8,6tik % 12ra igo da tasa.

16-64 urteko biztanleria: jarduera-tasa, langabezia-tasa eta okupazioaren ehunekoa, Barthel/Lawton mendetasun mistoaren mailaren arabera. 2006. eta 2010. urteak
(%)

Barthel/Lawton mendetasun mistoaren maila		Jarduera-tasa	Langabezia-tasa	Okupazioaren %a
2006	Erabatekoa edo larria	13,5	,0	13,5
	Ertaina	24,6	49,9	12,3
	Arina	32,9	24,1	25,0
	Mendetasun berezia: autonomoa	42,4	39,6	25,6
	Mendetasun berezia dutenak	30,0	31,5	20,5
	Muga duten beste batzuk	54,4	19,0	44,0
	Arazorik gabe	74,4	8,1	68,4
	Guztira	72,7	8,6	66,4
2010	Erabatekoa edo larria	2,8	,0	2,8
	Ertaina	17,0	12,6	14,9
	Arina	35,8	28,4	25,6
	Mendetasun berezia: autonomoa	51,4	45,2	28,2
	Mendetasun berezia dutenak	26,4	30,0	18,5
	Muga duten beste batzuk	54,4	20,5	43,3
	Arazorik gabe	76,8	12,0	67,5
	Guztira	74,9	12,4	65,6

Osasun-arazoei lotutako mugak dituzten pertsonen laneratzeko zailtasunik handienak ez dira jardueraren, okupazioaren eta langabeziaren zifretara mugatzen. Laneratzeko arazo bereziak oso garrantzitsuak izan dira mendetasun berezi ertaina duten pertsonen artean. Izan ere, mendetasun berezia izanik ere praktikan autonomoak diren pertsonen % 23,8k eta mendetasun arina dutenen % 21,9k izan ditu horrelako arazoak. Zifrak % 5,2ra jaitsi dira osasunari lotutako mugak izaki mendetasun berezirik ez duten pertsonen artean, baina hala eta guztiz ere adierazlea mugarik ez duten pertsonen artean izandako % 2,6aren gaintik dago nabarmen. Lan-merkatutik urrun egonik (praktikan, behin betiko lan-merkatutik

kanpo geratu balira bezala), laneratzeko arazo bereziek mendetasun ertaina, larria edo erabatekoa duten pertsonen % 3 baino gutxiago hartu dute eraginpean.

Guztira, mendetasun berezia duten 3.932 pertsonak izan dute GZEE-GPIan kontuan hartutako laneratzeko arazo sozial bereziren bat, hau da, mendetasun berezia duten 16-64 urteko herritarren % 13,6k.

Biztanleria orokorraren kasuan bezala, arazo horien eragina 2006koa baino txikiagoa izan da (% 15,4 urte horretan, hau da, 5.202 kasu guztira). Dena dela, beheranzko joera hori ez da mendetasun berezia dutenen talde guztietan agertu. Berezi, laneratzeko arazo berezien proportzioa % 17,1etik % 21,9ra igo da mendetasun arina dutenen kasuan. Adierazitakoaren ildotik, kontuan hartutako arazoaren proportzioa % 5 izan da kontuan hartutako aldiaren, osasunari lotutako mugak dituzten baina mendetasun berezirik ez duten pertsonen kasuan.

Egiazta daitekeenez, adin aktiboan daudenen taldeetan, osasunari lotutako mugaren baten agerpenak jarduera-tasa txikiagoa eta langabezia-tasa handiagoa eragiteaz gain, laneratzeko arazo berezi gehiagoren agerpena dakar. Askotan (hala nola muga sinpleak edo mendetasun arinak dituzten pertsonen kasuan), osasunari lotutako mugarik ez duten pertsonetikiko diferentziala zaila da azaltzen muga funtzional objektibo soilekin.

**16-64 urteko biztanleria, Barthel/Lawton mendetasun mistoaren mailaren eta laneratzeko arazo berezien arabera
2006. eta 2010. urteak**
(Datu absolutuak eta % horizontalak)

Barthel/Lawton mendetasun mistoaren maila		Arazoekin		Arazorik gabe		Guztira	
		Abs.	% hor.	Abs.	% hor.	Abs.	% hor.
2006	Erabatekoa edo larria	213	3,2	6.535	96,8	6.748	100
	Ertaina	482	7,8	5.689	92,2	6.171	100
	Arina	2.075	17,1	10.056	82,9	12.131	100
	Mendetasun berezia: autonomoa	2.433	27,8	6.314	72,2	8.747	100
	Mendetasun berezia dutenak	5.202	15,4	28.594	84,6	33.796	100
	Muga duten beste batzuk	2.540	5,0	47.784	95,0	50.325	100
	Arazorik gabe	46.143	3,4	1.307.437	96,6	1.353.579	100
	Guztira	53.885	3,7	1.383.815	96,3	1.437.700	100
	2010	Erabatekoa edo larria	179	2,8	6.300	97,2	6.479
Ertaina		135	2,1	6.155	97,9	6.289	100
Arina		2.684	21,9	9.559	78,1	12.243	100
Mendetasun berezia: autonomoa		934	23,8	2.996	76,2	3.930	100
Mendetasun berezia dutenak		3.932	13,6	25.009	86,4	28.941	100
Muga duten beste batzuk		2.675	5,2	49.026	94,8	51.702	100
Arazorik gabe		34.255	2,6	1.303.312	97,4	1.337.567	100
Guztira		40.862	2,9	1.377.348	97,1	1.418.209	100

2010ean mendetasun berezia zuten 16-64 urteko 28.941 pertsoneri dagokienez⁴, azpimarratu beharra dago lan-merkatuan eta produkzio-sisteman izan den parte-hartzearen mailak oso txikiak izan direla. Talde horren barruan, lanean ari direnen edo enplegua aktiboki bilatzen dutenen proportzioa % 19 baino ez da izan, hau da, 2006. urtean baino askoz txikiagoa (% 25,4 urte horretan). Beste % 5,4k ez du adorerik, edota praktikan itxurazkoa den edo, nolahi ere, aktiboa ez den eskari-prozesu teoriko batean sartuta dago. Gainerako % 76,5ek ez du enplegurik bilatzen (2006. urtean proportzioa % 68,6 izan zen).

Mendetasun berezia duen 16-64 urteko biztanleria, lanerako egiazko prestasunaren eta Barthel/Lawton mendetasun mistoaren mailaren arabera. 2006. eta 2010. urteak
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Lanerako egiazko prestasuna		Mendetasun mistoaren maila (Barthel/Lawton)							
		Gutxienez ertaina		Arina		Mend. berezia duen autonomia		Guztira	
		Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
2006	Landuna	1.672	12,9	3.027	25,0	2.238	25,6	6.938	20,5
	Eskaera aktiboa	267	2,1	381	3,1	1.006	11,5	1.654	4,9
	Eskaera ez-aktiboa	0	,0	0	,0	0	,0	0	,0
	Adorerik gabe	0	,0	221	1,8	224	2,6	445	1,3
	Gaur egun itxurazkoa den eskaria	204	1,6	445	3,7	516	5,9	1.164	3,4
	Enplegua bilatzen ez duten b. batzuk	10.776	83,4	7.657	63,1	4.762	54,4	23.195	68,6
	Informaziorik gabe	0	,0	400	3,3	0	,0	400	1,2
	Guztira	12.919	100,0	12.131	100,0	8.747	100,0	33.796	100,0
2010	Landuna	1.114	8,7	3.139	25,6	1.107	28,2	5.361	18,5
	Eskaera aktiboa	0	,0	0	,0	131	3,3	131	,5
	Eskaera ez-aktiboa	0	,0	0	,0	0	,0	0	,0
	Adorerik gabe	92	,7	233	1,9	0	,0	326	1,1
	Gaur egun itxurazkoa den eskaria	135	1,1	404	3,3	443	11,3	981	3,4
	Enplegua bilatzen ez duten b. batzuk	11.427	89,5	8.467	69,2	2.249	57,2	22.143	76,5
	Informaziorik gabe	12.768	100	12.243	100	3.930	100	28.941	100

Adierazitako zifrek okupazio-potentzial askoz handiagoa ezkututzen dute, baita interesdunek lanerako duten gaitasuna soilik kontuan hartuta ere. Gutxienez lan txikiak egiteko prest agertu diren guztiak kontuan hartuta, mendetasun berezia duten pertsonen lan-potentziala % 36,4ra iritsi da 2010ean.

Termino absolututan, mendetasun berezia duten eta 2010ean lanean aritu diren edo enplegua bilatu duten pertsonak 5.491 izan dira, baina okupazio-potentziala 10.540 pertsonara iristen da gutxienez.

⁴ Adierazitako zifra hori 2006koa baino txikiagoa izan da (% 13,3 urte horretan, hau da, 33.396 kasu). Zifra horiek behar bezala interpretatzeko, azpimarratu beharra dago –lan egiteko adinean dauden herritarrei dagokienez bereziki– GZEE-GPlan mendetasun bereziari ematen zaion definizioak ez dituela barnean hartzen urritasunak eta mugak dituzten pertsona guztiak. Ildo horretan, ez dira talde horretan sartzen beren jardueran laguntza berezirik behar ez duten (ikastetxean zein lantokian) eta gainera eguneroko bizitzako jardueretarako beste inoren mende ez dauden pertsonen taldea, osasun-arazoaren edo urritasunaren izaera edo larritasuna gorabehera.

Datuek erakusten dutenaren arabera, mendetasun berezia duten eta adin aktiboan dauden pertsonen gaur egun dagoena baino okupazio-potentzial handiagoa dute.

Mendetasun berezia duen 16-64 urteko biztanleria, lanerako gaitasunaren eta Barthel/Lawton mendetasun mistoaren mailaren arabera. 2006. eta 2010. urteak
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Lanerako gaitasuna		Mendetasun mistoaren maila (Barthel/Lawton)							
		Gutxienez ertaina		Arina		Mendetasun berezia: autonomoa		Guztira	
		Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
2006	Muga orokorrik gabe	0	,0	413	3,4	328	3,7	741	2,2
	Jarduera egokitueta	688	5,3	933	7,7	1.520	17,4	3.141	9,3
	Lanpostu-egokitzearekin	970	7,5	2.172	17,9	1.251	14,3	4.393	13,0
	Denbora edo intentsitate txikiagoa	484	3,7	463	3,8	899	10,3	1.846	5,5
	Ahalegin fisiko edo intel. txikiagoa	246	1,9	884	7,3	954	10,9	2.085	6,2
	Lan txikiak baino ez	1.743	13,5	1.531	12,6	153	1,8	3.427	10,1
	Enplegua izateko gaitasunik eza	7.866	60,9	3.524	29,0	2.995	34,2	14.385	42,6
	Ez du lan egin nahi	921	7,1	1.811	14,9	647	7,4	3.379	10,0
	Informaziorik gabe	0	0,0	400	3,3	0	0,0	400	1,2
	Guztira	12.919	100	12.131	100	8.747	100	33.796	100
2010	Muga orokorrik gabe	0	,0	128	1,0	319	8,1	447	1,5
	Jarduera egokitueta	179	1,4	1.471	12,0	938	23,9	2.588	8,9
	Lanpostu-egokitzearekin	1.375	10,8	2.770	22,6	588	15,0	4.732	16,4
	Denbora edo intentsitate txikiagoa	207	1,6	258	2,1	226	5,7	690	2,4
	Ahalegin fisiko edo intel. txikiagoa	0	,0	400	3,3	188	4,8	588	2,0
	Lan txikiak baino ez	689	5,4	806	6,6	0	,0	1.495	5,2
	Enplegua izateko gaitasunik eza	8.954	70,1	4.014	32,8	1.419	36,1	14.386	49,7
	Ez du lan egin nahi	1.364	10,7	2.397	19,6	254	6,5	4.015	13,9
	Guztira	12.768	100	12.243	100	3.930	100	28.941	100

3.4. Arkitektura-oztopoak etxebizitzan

GZEE-GPIak etxebizitzan dauden arkitektura-oztopoak hartu ditu kontuan lehen aldiz. Datu horien arabera, muga edo mendetasuna duten pertsonen % 15,4k errealitate hori du bizilekuaren testuinguruan. Zehazki, muga txikiak dituztenen % 8,8k eta mendetasun berezia duten baina praktikan autonomoak diren pertsonen % 3k baino ez ditu oztopo horiek. Mendetasun berezi arina edo ertaina dutenen artean, berriz, proportzioa % 18ra iritsi da, eta erabateko mendetasuna edo mendetasun larria dutenen artean % 29,6ra.

Muga edo mendetasun berezia duen biztanleria, Barthel/Lawton mendetasun mistoaren mailaren arabera eta etxebizitzan arkitektura-oztopotik badagoen kontuan hartuta. 2010. urtea
(Datu absolutuak eta % horizontalak)

Mendetasun mistoaren maila (Barthel/Lawton)	Bai		Ez	
	Abs.	% hor.	Abs.	% hor.
Erabatekoa edo larria	14.240	29,6	33.810	70,4
Ertaina	3.490	17,6	16.288	82,4
Arina	8.438	18,5	37.079	81,5
Mendetasun berezia duen autonomia	267	3,0	8.531	97,0
Mendetasun berezia duten 0-5 urteko adingabeak	189	9,8	1.748	90,2
Muga duten beste batzuk	9.851	8,8	102.157	91,2
Guztira	36.475	15,4	199.613	84,6

3.5. Mendetasunari lotutako aparteko gastuak

2010ean, EAEko etxeen unitateen % 9,6k (hots, 78.557 etxeen unitatek) adierazi du mendetasuna duten pertsonak modu egokian zaintzeko aparteko gastuak dauzkala, hau da, 2006an baino gutxiagok (urte horretan % 10 ziren, hots, 78.401 etxeen unitate)⁵.

Etxeek unitateen % 6,1ek adierazi du aparteko gastuak dituela etxeen unitatearen barnean mendetasuna duten pertsonen laguntzeko premiari lotuta, eta kasu horretan proportzioa argi eta garbi txikiagoa da 2006ko % 7,3 baino. Etxeek unitateen kanpo bizi diren pertsonentzako laguntzari lotutako aparteko gastuak dituzten etxeen unitateen proportzioa, aldiz, % 3,2tik % 3,9ra igo da.

Etxeek unitateak, mendekoei laguntzeko aparteko gasturik badagoen kontuan hartuta 2006. eta 2010. urteak
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Aparteko gastuak	2006		2010	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Bai, etxean	53.565	6,8	46.922	5,8
Bai, etxetik kanpo	21.213	2,7	28.728	3,5
Bai, aurreko bi kasuetan	3.623	,5	2.906	,4
Gastuekin	78.401	10,0	78.557	9,6
Gasturik gabe	708.461	90,0	737.397	90,4
Guztira	786.862	100	815.954	100

⁵ Mendetasun hori gehienbat osasun-arazoei edo adinari lotuta badago ere, mendetasuna duten adingabeentzako laguntza ere atal horretan bildu da.

Etxekoen unitate horietako gehienetan, mendetasuna duten pertsonentzako laguntzak ez du inplikazio ekonomiko handirik izan 2010. urtean. Etxekoen unitate horien % 53,3k ez du gastu garrantzitsurik murriztu behar izan premiei erantzuteko, baina % 34,4k aisia-gastuak murriztu behar izan ditu eman beharreko laguntzaren ondorioz. Oinarrizko premiei erantzuteko gastuak murriztu behar izan dituzten etxekoen unitateak % 12,3 izan dira, hau da, 2006an baino gutxiago (% 15,8 urte horretan). Termino absolututan, egoera horretan dauden etxekoen unitateen kopurua 12.363tik 9.668ra murriztu da 2006tik 2010era bitarte. Beraz, % 21,8ko beherakada izan da.

Mendetasunari lotutako aparteko gastuak dituzten etxekoen unitateak, etxekoen unitatean duten eraginaren arabera. 2006. eta 2010. urteak
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Eragina etxekoen unitatearen ekonomian	2006		2010	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
la eraginik ez	14.480	18,5	7.603	9,7
Txikia	28.957	36,9	34.289	43,6
Aisia-gastuen murrizketa	22.601	28,8	26.997	34,4
Oinarrizko gastuen murrizketa	12.363	15,8	9.668	12,3
Guztira	78.401	100	78.557	100

2006ko % 9,1aren aldean behera egin badu ere, mendetasuna duten pertsonen laguntzeko aparteko gastuak dituzten etxekoen unitateen % 8,6an (6.764 etxekoen unitatetan, guztira) gastu horiek, funtsean, ez dira aitzakia mendetasuna duten pertsonen premiei ez erantzuteko eta pertsona horiei okerreko laguntza emateko. Etxekoen unitateen % 16,5ean (12.932 etxekoen unitatetan, guztira), egindako gastuak gorabehera, premiei nolabait ere erantzun ez zaiela ikusi da. Hala ere, kasu horretan zainketen bigarren mailako alderdietara mugatzen da arazo hori, eta ezin da esan okerreko laguntza eman zaienik. Zifrek beheranzko joera ageri dute berriz ere (2006. urtean, aparteko gastuak zituzten etxekoen unitateen % 17,2 zegoen egoera horretan). Guztira, aintzat hartutako arazoaren eragina 2006ko % 26,3tik 2010eko % 25,1era jaitsi da (20.592 kasutik 19.696 kasura, zifra absolututan).

Lotura garbia dago mendetasuna duten pertsonen premien estaldura-mailaren eta aparteko gastuek etxeko unitateentzat dituzten inplikazioen artean. Daturik garrantzitsuena zera da, mendetasuna duten pertsonen premiei erantzuteko oinarrizko gastuak murriztu behar izan dituzten etxekoen unitateen % 45,3an gastuen murrizketa ez dela nahikoa berme izan laguntzaren funtsezko alderdiei aurre egiteko. Beraz, proportzioak gora egin du 2006. urtekoarekin alderatuz gero (% 37,3 urte horretan). Kasuen % 17,9an, berriz, laguntzaren bigarren mailako alderdiak eraginpean hartzen dituzten mugak agertu dira. Etxekoen unitate horietatik, murrizketen bidez mendetasuna dutenen premiak guztiz betetzea lortu dutenak % 44,4 izan ziren 2006an, eta 2010ean, berriz, % 36,9 izan dira. 2006-2010 aldian, kasu horretan baino ez da ikusi etxekoen unitateen gastu-inplikazioek laguntzaren mailan duten eraginak okerrera egin

duela. Edonola ere, 2006tik 2010era bitarte oinarrizko gastuak murriztu behar izan dituzten etxekoek unitateen kopuruan izandako beherakadak konpentsatu egin du ikusitako goranzko joera hori. Mendetasuna duten pertsonen behar bezala laguntzea lortzen ez duten eta oinarrizko gastuak murriztu behar dituzten etxekoek unitateen zifra absolutuak behera egin du (6.872 kasutik 6.104ra 2006tik 2010era bitarte).

Mendetasunari lotutako aparteko gastuak dituzten etxekoek unitateak, etxekoek unitatean eta mendetasuna duten pertsonen beharrezko laguntza duten eraginaren arabera. 2006. eta 2010. urteak
(Datu absolutuak)

Eragina laguntzan		Eragina etxekoek unitatearen ekonomian				Guztira
		la eraginik ez	Txikia	Aisia-gastuen murrizketa	Oinarrizko gastuen murrizketa	
2006	Eragina funtsezko alderdietan	0	0	2.487	4.609	7.097
	Eragina 2. mailako alderdietan	20	2.715	8.497	2.263	13.496
	Eraginik ez	14.460	26.242	11.616	5.490	57.808
	Guztira	14.480	28.957	22.601	12.363	78.401
2010	Eragina funtsezko alderdietan	0	697	1.690	4.377	6.764
	Eragina 2. mailako alderdietan	0	2.243	8.962	1.727	12.932
	Eraginik ez	7.603	31.349	16.346	3.564	58.861
	Guztira	7.603	34.289	26.997	9.668	78.557

Mendetasunari lotutako aparteko gastuak dituzten etxekoek unitateak, etxekoek unitatean eta mendetasuna duten pertsonen beharrezko laguntza duten eraginaren arabera. 2006. eta 2010. urteak
(% bertikalak)

Eragina laguntzan		Eragina etxekoek unitatearen ekonomian				Guztira
		la eraginik ez	Txikia	Aisia-gastuen murrizketa	Oinarrizko gastuen murrizketa	
2006	Eragina funtsezko alderdietan	,0	,0	11,0	37,3	9,1
	Eragina 2. mailako alderdietan	,1	9,4	37,6	18,3	17,2
	Eraginik ez	99,9	90,6	51,4	44,4	73,7
	Guztira	100	100	100	100	100
2010	Eragina funtsezko alderdietan	,0	2,0	6,3	45,3	8,6
	Eragina 2. mailako alderdietan	,0	6,5	33,2	17,9	16,5
	Eraginik ez	100	91,4	60,5	36,9	74,9
	Guztira	100	100	100	100	100

Aparteko gastuek familiaren ekonomian duten eragina eta mendetasuna duten pertsonen premien estaldura-maila lotuz, mendetasuna duten pertsonen premia guztiei gastu txikiarekin aurre egin diezaieketen etxekoek unitateen proportzioa % 55,4tik % 52,4ra murriztu da 2006tik 2010era bitarte. Beherakada hori erreferentziazko aldiaren laguntza-helburu bera aisia-gastuak murriztuta lortu duten etxekoek unitateen proportzioan izandako igoerari lotuta dago batez ere. Izan ere, proportzio hori % 25,7tik % 32,2ra igo da 2006tik 2010era bitarte.

Laguntza egokia emateko oinarrizko gastuak murriztu behar izan dituzten etxekoen unitateak, berriz, 7.753 izan ziren 2006an (guztien % 9,9) eta 5.291 izan dira 2010. urtean (guztien % 6,7). Halaber, oinarrizko gastuak murriztuta ere mendetasuna duten pertsoneri behar bezala laguntzea lortu ez duten etxekoen unitateen proportzioa % 5,9tik % 5,6ra murriztu da 2006-2010 aldian (termino absolututan, 4.609 kasutik 4.377ra).

Bestalde, aparteko gastu txikiak edo gehienez aisia-gastuak murriztea eragin duten aparteko gastuak dituzten, eta mendetasuna duten pertsonen premiei behar bezala erantzuten ez dieten etxekoen unitateen proportzioak egonkor samar jarraitu du (% 3 2010. urtean eta % 3,2 2006. urtean).

Mendetasunari lotutako aparteko gastuak dituzten etxekoen unitateak, gastu horiek etxekoen unitatearen ekonomian eta mendetasuna duten pertsoneri eman beharreko laguntzan duten eraginaren arabera. 2006. eta 2010. urteak

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Baterako eragina	2006		2010	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Gastu txikia, laguntza egokia	43.437	55,4	41.194	52,4
Gastu txikia edo aisian eragiten duena, laguntza desegokia	2.487	3,2	2.387	3,0
Aisia-gastuen murrizketa, laguntza egokia	20.114	25,7	25.307	32,2
Oinarrizko gastuen murrizketa, laguntza egokia	7.753	9,9	5.291	6,7
Oinarrizko gastuen murrizketa, laguntza desegokia	4.609	5,9	4.377	5,6
Guztira	78.401	100	78.557	100

Aurreko datuen tratamendua osatzeko, etxekoen unitateen egoera ekonomikoa kontuan hartu eta gabezia ekonomikoak mendetasuna duten pertsonentzako laguntza-mailan duen eragin negatiboa egiaztatu behar da. Horrela, beraz, mendetasuna duten pertsonen funtsezko premiei behar bezala erantzuten ez dieten etxekoen unitateen proportzioa nabarmen handiagoa da etxekoen unitateak gabezia-arazoak dituenen: % 42,4 (% 5,7 gabeziarik ez duten edota gabezia aisia-alderdietan baino ez duten taldeen kasuan, 2010. urtean). Krisialdi ekonomikoaren testuinguruan, egoera horien proportzioak goranzko joera izan du (% 37,8 2006. urtean). Oinarrizko premiei erantzuteko gabeziarik ez dutenen proportzioak, berriz, beheranzko joera txikia izan du (% 6 2006an).

Gabezia-arazoak dituzten eta aldi berean mendetasuna duten pertsoneri laguntzeko aparteko gastuak dituzten etxekoen unitateek egiten duten ahalegina azpimarratu beharra dago. Etxekoen unitate horien % 76k (% 62,2k 2006. urtean) oinarrizko gastuak edo aisia-gastuak murriztu ditu mendetasuna duten

pertsonei laguntza egokia emateko, edota hori erabat lortu gabe ere, gutxienez estaldura hobea emateko. Gabeziarik ez dutenen etxekoen unitateen kasuan, berriz, proportzioa % 41,8ra iritsi da 2010ean.

Gabezia-arazoak dituzten eta mendetasunari lotutako aparteko gastuak dituzten etxekoen unitateen barruan, 2010. urtean mendetasuna duten pertsonen premiei erantzuteko oinarritzko gastuak murriztu behar izan dituztenak guztien % 42,3 izan dira. Proportzio hori gabezia-arazorik ez duten etxekoen unitateena baino askoz handiagoa da (% 9,7 etxekoen unitate horietan).

Mendetasunari lotutako aparteko gastuak dituzten etxekoen unitateak, gastu horiek etxekoen unitatearen ekonomian eta mendetasuna duten pertsonei eman beharreko laguntzan duten eraginaren arabera, eta etxekoen unitatean gabezia-egoerarik badagoen kontuan hartuta. 2006. eta 2010. urteak
(% horizontalak)

		Baterako eragina						
			Gastu txikia, laguntza egokia	Gastu txikia edo aisian eragiten duena, laguntza desegokia	Aisia-gastuen murrizketa, laguntza egokia	Oinarritzko gastuen murrizketa, laguntza egokia	Oinarritzko gastuen murrizketa, laguntza desegokia	Guztira
2006	Gabezia	Dimentsioaniztuna, oin. premiak	,0	20,7	13,4	37,0	29,0	100
		Partziala, oinarritzko premiak	36,1	9,4	20,8	10,6	23,2	100
		Oinarritzko gabezia	24,9	12,8	18,5	18,7	25,0	100
		Gebeziarik ez, edo aisian baino ez	58,7	2,1	26,4	8,9	3,8	100
	Guztira		55,4	3,2	25,7	9,9	5,9	100
2010	Gabezia	Dimentsioaniztuna, oin. premiak	9,6	,0	32,9	17,6	39,9	100
		Partziala, oinarritzko premiak	12,8	17,4	34,1	9,7	26,0	100
		Oinarritzko gabezia	11,8	12,2	33,7	12,1	30,2	100
		Gebeziarik ez, edo aisian baino ez	56,0	2,2	32,1	6,3	3,4	100
	Guztira		52,4	3,0	32,2	6,7	5,6	100

Atal honen barruan kontuan hartu beharreko azken puntua laguntza jaso duen pertsona motaren eta etxekoen unitateek mendetasuna duten pertsonei laguntza egokia emateko egin beharreko aparteko gastuen arteko lotura da. Egiaztatu denez, gastu horiek gutxienez mendetasun berezi ertaina izatearekin edo mendetasun berezia duten bi pertsona edo gehiago izatearekin dute zerikusia batez ere.

Egoerarik konplexuena etxekoen unitatean gutxienez mendetasun berezia ertaina duten bi pertsona edo gehiago daudenean agertzen da. Kasu horretan, etxekoen unitateen % 51,4k aparteko gastuak egin behar dituela adierazi du. Mendetasun berezia duten bi pertsona edo gehiago dituzten etxekoen unitateetan agertzen diren beste egoera batzuen kasuan ere, proportzioa handia izan da (% 45), eta gauza bera gertatzen da gutxienez mendetasun ertaina duen pertsona bat dagoenean. Kasu horretan, aparteko gastuak dituzten etxekoen unitateak % 43,1 dira. Proportzioa % 7,4ra jaitsi da, ordea, osasunari edo adin handiari lotutako beste muga batzuk ageri direnean. Azkenik, etxekoen unitateen % 1,8k baino

ez ditu egin aparteko gastuak etxekoen unitatean osasunari edo adinari lotutako mugekin zuzenean lotuta ez dauden mendetasun-arazoak daudenean.

Bilakaera kontuan hartuta, mendetasuna duten pertsonen bizilekuan bertan laguntzeko aparteko gastuak egin behar dituzten etxekoen unitateen proportzioak izan duen beherakada (% 7,3 2006an eta % 6,1 2010ean) gutxienez mendetasun ertaina duten pertsonak dituzten etxekoen unitateetan gertatu da neurri batean. Mendetasuna duten bi pertsona edo gehiago dituzten etxekoen unitateen artean, aparteko gastuak dituztenen proportzioa % 92,5etik % 51,4ra jaitsi da 2006tik 2010era bitarte. Txikiagoa izan bada ere, deigarria izan da mendetasun ertaina duen pertsona bakarra duten etxekoen unitateen proportzioaren beherakada (% 51,9tik % 43,1era jaitsi da).

Dena dela, beherakadaren zatirik handiena larritasunik txikienerako mugak edo mendetasunak dituzten pertsonen edo mendetasuna duten bi pertsonari edo gehiagori laguntzeko aparteko gastuak dituzten eta mendetasun gutxienez ertaineko kasurik ez duten etxekoen unitateetan izandako beherakadari lotuta dago. Adierazitako egoeran, aparteko gastuak egin behar dituztenen proportzioa % 13,4tik % 7,4ra murriztu da 2006tik 2010era bitarte, eta horrek eragin erabakigarria izan du kopuruan izandako beherakadan (18.394 etxekoen unitate 2006an, eta 9.685 2010ean).

**Mendetasunari lotutako aparteko gastuak dituzten etxekoen unitateak, laguntza jaso duen pertsona motaren arabera
2006. eta 2010. urteak**
(Datu absolutuak eta % horizontalak)

	Laguntza jaso duen pertsona mota	Gastuekin		Gasturik gabe		Guztira	
		Abs.	% hor.	Abs.	% hor.	Abs.	% hor.
2006	2 edo gehiago, ertaina	2.633	92,5	213	7,5	2.847	100
	2 edo gehiago, berezia	2.670	45,5	3.197	54,5	5.868	100
	Bat, ertaina	25.394	51,9	23.535	48,1	48.929	100
	Beste kasuren bat	18.394	13,4	118.675	86,6	137.069	100
	Osasun-mugarik gabe	8.096	1,4	584.053	98,6	592.149	100
	Guztira	57.188	7,3	729.674	92,7	786.862	100
2010	2 edo gehiago, ertaina	2.045	51,4	1.934	48,6	3.978	100
	2 edo gehiago, berezia	3.457	45,0	4.222	55,0	7.679	100
	Bat, ertaina	23.766	43,1	31.374	56,9	55.140	100
	Beste kasuren bat	9.685	7,4	120.431	92,6	130.116	100
	Osasun-mugarik gabe	10.876	1,8	608.165	98,2	619.041	100
	Guztira	49.828	6,1	766.125	93,9	815.954	100

4. ZAINZAILAK

Mendetasunaren alderdiei buruzko azterketari hertsiki lotuta, gaixotasunagatik, desgaitasunagatik edo zahartasunagatik etxekoen unitateko beste pertsona batzuen laguntza- edo zaintza-ardura bereziak beren gain hartzen dituzten pertsona jakin batzuen kasuak landu ditu GZEE-GPIak. Kasu horietan, zirkunstantzia jakin batzuk biltzen dira, hain zuzen ere dedikazio pertsonal handiagoa beharrezkoa den kasuak, etxekoen unitateko gainerako kideek laguntzarik ematen ez dutelako edo laguntzarik eman ezin dutelako.

2010. urtean, 15 urteko edo gehiagoko 97.227 pertsonak egin dituzte, adierazitako baldintzetan, beraiekin bizi diren beste pertsona batzuen laguntza- eta zaintza-zereginak, hau da, EAEn bizi diren 15 urteko edo gehiagoko biztanleen % 5,3k). Hortaz, zaintzaileen kopurua % 18,4 hazi da. Izan ere, 2006an 82.083 ziren eta, urte hartan, 15 urteko edo gehiagoko biztanleriaren % 4,4k egiten zituen horrelako jarduerak.

15 urteko edo gehiagoko biztanleria, gaixotasunagatik, desgaitasunagatik edo zahartasunagatik etxekoen unitateko beste kide batzuk zaintzeko zereginak bere gain hartu dituzten kontuan hartuta. 2006. eta 2010. urteak

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Zaintzeko zereginak beren gain hartu dituzte	2006		2010	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Bai	82.083	4,4	97.227	5,3
Ez	1.769.155	95,6	1.737.316	94,7
Guztira	1.851.238	100	1.834.543	100

Zaintzaileen taldean, emakumeak gehiengoa dira. Zehazki, guztien % 58,2 izan dira, hau da, 2006an baino gehiago (% 56,9 urte horretan). Gainera, 15 urteko edo gehiagoko emakumeen % 5,9k eta gizonen % 4,6k hartu ditu bere gain zaintza-funtzio horiek. Bi kasuetan, proportzioak gora egin du 2006. urtetik (% 4,9 eta % 4 urte horretan, hurrenez hurren).

Barneko desberdintasunak handiagoak dira adinaren aldagaia kontuan hartzean. Izan ere, zaintzaileen proportzioa % 6tik gorakoa izan da 45 urtetik aurrerakoan artean, % 7,4ra iritsi da 75 urteko eta gehiagoko pertsonen artean, eta % 8,4ra 55-64 urtekoen artean. 35-44 urteko pertsonen kasuan, proportzioa % 4ra murriztu da, 25-34 urtekoen kasuan % 2,6ra, eta 15-24 urtekoen kasuan, berriz, % 1,4ra. Zaintzaile gehienak 45 urtetik gorakoak dira. Hain zuzen ere, zaintzaile guztien % 74,2 daude adin-talde horretan (% 70,9 2006an).

Azkenaldiko aldaketek, oro har, zaintzaileen proportzioa handitu egin dela erakusten dute, 25 urtetik beherakoen (2006an % 2,2 eta 2010ean % 1,4) eta 65-74 urtekoen (% 7,3tik % 6,6ra) artean izan ezik. 25-54 urtekoen kasuan, igoera 0,4 puntutik 0,7 puntura bitartekoa izan da, baina 55-64 urtekoen kasuan 2 puntu baino handiagoa izan da, baita 75 urtetik gorakoen artean ere. Lehen kasuan, zaintzaileen proportzioa % 5,9tik % 8,4ra igo da; bigarren kasuan, berriz, % 5,3tik % 7,4ra.

Hona hemen datu garrantzitsu bat: gabezia ekonomikoaren aldagaiari dagokionez, zaintzaileen proportzioa antzekoa izan da 2010. urtean oinarritzko gabezia duten etxeen unitateetan eta horrelako gabeziarik ez duten etxeen unitateetan (% 5,3 bi kasuetan).

15 urteko edo gehiagoko zaintzaileak, sexuaren, adinaren eta nazionalitatearen arabera. 2006. eta 2010. urteak
(Datu absolutuak, % bertikalak eta eragina %-tan)

		2006			2010		
		Datu orokorrak		Eragina	Datu orokorrak		Eragina
		Abs.	% ber.		Abs.	% ber.	
Sexua	Gizonak	35.402	43,1	4,0	40.669	41,8	4,6
	Emakumeak	46.681	56,9	4,9	56.558	58,2	5,9
Adina	15-24 urte	4.917	6,0	2,2	2.771	2,9	1,4
	25-34 urte	7.024	8,6	2,2	7.266	7,5	2,6
	35-44 urte	11.933	14,5	3,4	15.004	15,4	4,0
	45-54 urte	18.075	22,0	6,0	22.459	23,1	6,7
	55-64 urte	15.350	18,7	5,9	21.554	22,2	8,4
	65-74 urte	14.063	17,1	7,3	12.512	12,9	6,6
	> 75 urte	10.721	13,1	5,3	15.661	16,1	7,4
Nazionalitatea	Estatukoa	80.720	98,3	4,6	95.485	98,2	5,5
	Beste bat	1.364	1,7	1,6	1.742	1,8	1,7
Guztira		82.083	100	4,4	97.227	100	5,3

15 urteko edo gehiagoko zaintzaileak, etxeen unitatearen egoeraren arabera: ugalketa demografikoari lotutako arazoak, gabezia-egoerak eta jarduerarekiko erlazioa
(Datu absolutuak, % bertikalak eta eragina %-tan)

		2006		2010			
		Datu orokorrak		Eragina	Datu orokorrak		Eragina
		Abs.	% ber.		Abs.	% ber.	
Ugalketa-arazoak	Bai	3.497	4,3	3,0	2.514	2,6	2,7
	Ez	78.587	95,7	4,5	94.713	97,4	5,4
Gabezia	Dimentsioaniztuna, oinarritzko premiak	1.545	1,9	4,4	2.601	2,7	5,2
	Partziala, oinarritzko premiak	4.708	5,7	5,3	5.209	5,4	5,4
	Oinarritzko gabezia	6.253	7,6	5,1	7.810	8,0	5,3
	Gabeziarik gabe, edo aisian baino ez	75.831	92,4	4,4	89.418	92,0	5,3
Jarduerarekiko erlazioa	Aktiboak, denak landun egonkorak	35.156	42,8	4,0	39.755	40,9	4,5
	Aktiboak, denak landunak, baten bat egonkor	8.356	10,2	2,8	6.615	6,8	3,0
	Aktiboak (langabeak edo landunak), baten bat egonk.	4.979	6,1	3,4	9.904	10,2	5,0
	Aktiboak (langabeak edo landunak), egonkorrik ez	7.288	8,9	4,9	6.554	6,7	4,6
	Aktiboak, denak langabeak	3.861	4,7	6,9	7.173	7,4	9,4
	Aktiborik gabe	22.444	27,3	6,8	27.227	28,0	8,4
Guztira		82.083	100	4,4	97.227	100	5,3

la zaintzaile guztiek (% 96,6k) mendetasun bereziren bat duen pertsona bat zaintzen dute gutxienez. Zaintzaileen % 84,2k pertsona bakarria zaintzen du, baina gainerako % 12,4aren kasuan, mendetasun berezia duen pertsona bat baino gehiago dago etzekoen unitatean. Zaintzaileen % 66k gutxienez mendetasun ertaina duten pertsonak zaindu behar ditu (% 62,6k egoera horretan dagoen pertsona bakarria zaintzen du, eta % 3,4k bi pertsona edo gehiago).

15 urteko edo gehiagoko zaintzaileak, lagundutako pertsona motaren arabera. 2006. eta 2010. urteak
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Honako hauek dituzten pertsonak etzekoen unitatean:		2006		2010	
		Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Mugaren bat	Bat ere ez	1.320	1,6	1.854	1,9
	Bat	65.271	79,5	68.126	70,1
	Bi edo gehiago	15.493	18,9	27.247	28,0
Mendetasun bereziren bat	Bat ere ez	1.320	1,6	3.351	3,4
	Bat	70.823	86,3	81.833	84,2
	Bi edo gehiago	9.941	12,1	12.044	12,4
Mendetasun gutxienez ertainen bat	Bat ere ez	28.975	35,3	33.054	34,0
	Bat	49.896	60,8	60.864	62,6
	Bi edo gehiago	3.213	3,9	3.309	3,4
Guztira		82.083	100	97.227	100

Mendetasuna duten pertsonen behar dituzten zaintza bereziak emateak dakarren lan-karga laguntza jasotzen duten pertsonen kopuruaren eta mendetasunaren larritasunaren arabera da. Kargarik handiena gutxienez mendetasun ertaina duten bi pertsona edo gehiago zaindu behar direnean sortzen da. Kasu horretan, zaintzaileen % 78,7k bi orduko edo gehiagoko lan gehigarria egiten du pertsona horiei laguntzeko. Karga, halaber, handia da mendetasun berezia duten bi pertsona edo gehiago dituzten etzekoen unitateen beste egoera batzuetan (mendetasuna duten pertsonen laguntzen egunean bi ordu edo gehiago ematen dituzten zaintzaileak % 53,5 dira kasu horretan) edota, are handiagoa, gutxienez mendetasun ertaina duen pertsona bakarria duten etzekoen unitateen kasuan (zaintzaileak % 70 dira kasu horretan).

Mendetasun ertaina baino larritasun txikiagoko mendetasun berezia edo bestelako muga txikiren bat duen edo beste egoera batean dagoen pertsona bakarraren kasuan baino ez du behera egin lan-kargak. Egoera horietan, zaintzaileen % 18,6k baino ez ditu eman bi ordu gehigarri edo gehiago mendetasuna duten pertsonen laguntzen. Gehienek –% 65,9k– ordu gehigarri bat baino gutxiago ematen dute mendetasuna duten pertsonen laguntza-premia bereziei edo zainketei erantzuten.

Gutxienez mendetasun ertaina duen pertsona bakarraren ardura duten zaintzaileen kasuan izan ezik (kasu horretan igoera txiki bat izan da 2006tik 2010era bitarte), laguntzan 2 ordu gehigarri edo gehiago

ematen dituzten zaintzaileen proportzioak 5 puntutik gorako beherakada izan du. Beherakadarik handiena gutxienez mendetasun ertaina duten bi pertsonaren edo gehiagoren ardura duten zaintzaileen kasuan gertatu da (% 90,9tik % 78,7ra 2006tik 2010era bitarte). Erreferentziazko laurtekoan, adierazle orokorra % 54,7tik % 52,5era jaitsi da.

15 urteko edo gehiagoko zaintzaileak, laguntza jaso duen pertsona motaren eta zainketei lotutako lan-kargaren arabera. 2006. eta 2010. urteak
(% horizontalak)

Laguntza jaso duen pertsona mota		Lan-karga				Guztira	
		Zaintza berezirik ez	< 1 ordu gehigarri	1-2 ordu gehigarri	2 ordu gehigarri edo gehi.		
Urtea	2006	Gutxienez men. ertaina duten bi edo gehiago	2,6	1,5	5,0	90,9	100
		Men. ber. bi edo gehiago, beste kasu batzuk	9,4	15,6	14,7	60,3	100
		Gutxienez mendetasun ertaina duen bat	6,4	12,0	12,4	69,1	100
		Beste kasu batzuk	30,4	31,0	12,6	26,0	100
		Guztira	14,6	18,3	12,4	54,7	100
2010		Gutxienez men. ertaina duten bi edo gehiago	,0	11,3	10,0	78,7	100
		Men. ber. bi edo gehiago, beste kasu batzuk	7,6	26,4	12,6	53,5	100
		Gutxienez mendetasun ertaina duen bat	6,7	10,2	13,1	70,0	100
		Beste kasu batzuk	36,2	29,7	15,5	18,6	100
		Guztira	15,9	17,9	13,7	52,5	100

Lan-karga murriztu bada ere, hezkuntza-bizitzari eta lan-bizitzari neurri batean uko egin behar izan diotela adierazi duten zaintzaileen proportzioa % 13,7tik % 15,2ra igo da 2006tik 2010era bitarte. Joera positiboagoa izan da gizarte-harremanak kontuan hartuta. Izan ere, gizarte-bizitzari neurri batean uko egin behar izan diotela adierazi duten zaintzaileen proportzioa % 58,4tik % 55,6era jaitsi da 2006tik 2010era bitarte. Horrez gain, gizarte-jarduerei erabat uko egin behar izan dieten zaintzaileen proportzioak behera egin du (% 18,3tik % 15,3ra).

Zehazkiago, bilakaerari buruzko datuek, oro har, zaintzaileen bizitza normalizatzeko ahalmenean aurrerapen handiak izan direla erakutsi dute. Eta bereziki nabariak dira mendetasuna duten bi pertsona edo gehiago zaindu behar direnean. Uko motarik larrienak kontuan hartuta, mendetasun ertaina duten bi pertsona edo gehiago zaindu behar diren kasuan, lan- eta gizarte-jarduerei erabat uko egin behar izan dieten zaintzaileen proportzioa % 27,7tik % 13,5era murriztu da 2006tik 2010era bitarte, eta kanpoko gizarte-bizitzari erabat uko egin behar izan dieten zaintzaileena, berriz, % 57,8tik % 19,3ra. Mendetasuna duten bi pertsona edo gehiago zaindu behar diren beste kasu batzuetan, proportzioak % 17,2tik % 4,3ra eta % 27,3tik % 15,2ra murriztu dira, hurrenez hurren.

Dena dela, ñabarduraren bat egin behar da balioespen positibo horretan. Adibidez, bilakaera ez da hain ona izan etxekoen unitatean mendetasuna duen pertsona bakarria dagoenean edo mendetasun edo muga arinak daudenean. Lehen kasuan, kanpoko lan- edo hezkuntza-jarduerak gutxienez partzialki utzi behar izan dituzten pertsonen proportzioa % 14,5etik % 18,9ra igo da 2006tik 2010era bitarte. Era berean, jarduera horiei erabat uko egin behar izan dieten pertsonen proportzioa % 7,7tik % 9,5era igo da aldi horretan. Halaber, etxekoen unitatetik kanpoko gizarte-bizitzari erabat uko egin behar izan diotenen proportzioa % 20,3tik % 21,5era igo da. Larritasunik txikieneko mendetasun edo mugetako bat duten pertsonak zaintzen dituztenen kasuan, hezkuntza- edo lan-bizitzari partzialki edo erabat uko egin behar izan diotenen proportzioa % 5,6tik % 9,4ra igo da.

Hezkuntza- edo lan-bizitzari uko egin behar izan diotenen adierazlearen kasuan bezala, mendetasuna edo muga duen pertsona bakarria zaintzen dutenen taldeen azkenaldiko bilakaerak indargabetu egin ditu, neurri batean, mendetasun berezia duten bi pertsona edo gehiago zaintzen dituztenen artean izandako hobekuntzak.

15 urteko edo gehiagoko zaintzaileak, laguntza jaso duen pertsona motaren eta hezkuntza-bizitzan edo lan-bizitzan egindako ukoaren arabera. 2006. eta 2010. urteak
(% horizontalak)

Laguntza jaso duen pertsona mota		Hezkuntza-bizitzan edo lan-bizitzan egindako ukoa						
		Ikasketei uko	Lanari uko	Denbora gutxiago ikasten	Denbora gutxiago lanean	Ukoren bat	Ukorik ez	Guztira
Urtea 2006	Gutxienez mendetasun ertaina duten bi edo gehiago	,0	27,7	,0	12,9	40,6	59,4	100
	Mendetasun berezia duten bi edo gehiago, beste kasu batzuk	,0	17,2	,0	11,5	28,7	71,3	100
	Gutxienez mendetasun ertaina duen bat	,3	7,4	,9	5,9	14,5	85,5	100
	Beste kasu batzuk	,2	1,4	1,0	3,0	5,6	94,4	100
	Guztira	,2	7,0	,8	5,7	13,7	86,3	100
2010	Gutxienez mendetasun ertaina duten bi edo gehiago	,0	13,5	,0	7,3	20,8	79,2	100
	Mendetasun berezia duten bi edo gehiago, beste kasu batzuk	,0	4,3	,0	5,7	10,0	90,0	100
	Gutxienez mendetasun ertaina duen bat	1,5	8,1	1,4	8,0	18,9	81,1	100
	Beste kasu batzuk	,0	2,4	,5	6,5	9,4	90,6	100
	Guztira	,8	6,1	,9	7,3	15,2	84,8	100

15 urteko edo gehiagoko zaintzaileak, laguntza jaso duen pertsona motaren eta gizarte-bizitzan egindako ukoaren arabera.

2006. eta 2010. urteak
(% horizontalak)

Laguntza jaso duen pertsona mota		Gizarte-bizitzan egindako ukoa				
		Erabateko ukoa	Denbora gutxiago	Ukoren bat	Ukorik ez	Guztira
2006	Gutxienez mendetasun ertaina duten bi edo gehiago	57,8	25,9	83,7	16,3	100
	Mendetasun berezia duten bi edo gehiago, beste kasu batzuk	27,3	42,5	69,7	30,3	100
	Gutxienez mendetasun ertaina duen bat	20,3	50,1	70,5	29,5	100
	Beste kasu batzuk	8,2	25,0	33,2	66,8	100
	Guztira	18,3	40,1	58,4	41,6	100
2010	Gutxienez mendetasun ertaina duten bi edo gehiago	19,3	53,3	72,6	27,4	100
	Mendetasun berezia duten bi edo gehiago, beste kasu batzuk	15,2	29,2	44,5	55,5	100
	Gutxienez mendetasun ertaina duen bat	21,5	48,3	69,8	30,2	100
	Beste kasu batzuk	4,0	28,1	32,0	68,0	100
	Guztira	15,3	40,3	55,6	44,4	100

Kasuen % 22,2an, mendetasuna duen pertsona zaintzaileak tentsio handiak sortzen dizkio zaintzaileari bere familia-bizitzan. Proporzio hori % 57,1 da tentsio txikiak ere kontuan izanik.

Tentsioen agerpena mendetasun-mailaren eta laguntza jaso behar dutenen kopuruaren igoerari lotuta dago. Izan ere, familia-bizitzan tentsioren bat (garrantzitsua edo garrantzirik gabea) izan dutela adierazi duten zaintzaileen proportzioa % 38,4ra iritsi da –eta hori izan da proportziorik txikiena– ertaina baino larritasun txikiagoko mendetasun berezi bat edo muga txikiak dituen pertsona bakarria zaindu behar denean. Proporzioak nabarmen egin du gora beste egoera batzuetan. Izan ere, % 64,5era iritsi da etxekoen unitatean gutxienez mendetasun ertaina duen pertsona bakarria dagoenean, % 70,9ra mendetasun berezia duten bi pertsona edo gehiago daudenean (denek mendetasun gutxienez ertaina ez badute ere), eta % 73,2ra etxekoen unitatean gutxienez mendetasun ertaina duten bi pertsona edo gehiago bizi direnean.

Tentsio handien agerpenak ere adierazitako eskemari jarraitzen dio. Izan ere, proportzioa % 10,3 izan da mendetasun-kasurik arinenetan, % 19,3 mendetasuna duten bi pertsona edo gehiago zaindu behar direnean (denek mendetasun gutxienez ertaina ez badute ere), eta % 25,3 gutxienez mendetasun ertaina duten bi pertsona edo gehiago zaindu behar direnean. Nolanahi ere, proportziorik handiena gutxienez mendetasun ertaina duen pertsona bakarria zaindu behar denean lortu da (% 29,3).

2006-2010 aldiko bilakaerak, oro har, zaintzaileen artean tentsio garrantzitsuen eraginak behera egin duela erakutsi du, mendetasuna duten bi pertsona edo gehiago zaindu behar diren kasuan bereziki: % 29,5etik % 25,3ra mendetasun ertaina duten pertsonen kasuan, eta % 21,4tik % 19,3ra mendetasun berezia duten bi pertsonaren edo gehiagoren kasuan. Hala ere, garrantzi txikiko tentsioen eraginak gora egin du. Horren ondorioz, 2006-2010 aldian tentsioren bat izan duten zaintzaileen proportzioak gora egin du kontuan hartutako taldeetan.

Egoerarik problematikoena mendetasun ertaina duen pertsona bakarria zaindu behar duten pertsonen artean agertu da. Zaintza- eta laguntza-prozesuan tentsioren bat izan duten zaintzaileen proportzioak gora egin du, gainerako taldeetan bezala. Nolanahi ere, tentsio garrantzitsuen kopuruak izan duen igoera handia izan da talde horren ezaugarri bereizgarria. Izan ere, pertsona horien proportzioa % 20,1 izan zen 2006. urtean, eta % 29,3ra iritsi da 2010ean.

Joera desberdin horien ondorioz, EAEko adierazle orokorrek okerrera egin dute azken lau urteotan. Tentsioren bat izan duten zaintzaileen proportzioa % 52,4tik % 57,1era igo da, eta tentsio garrantzitsuak izan dituztenena, berriz, % 17,3tik % 22,2ra.

15 urteko edo gehiagoko zaintzaileak, laguntza jaso duen pertsona motaren eta familia-bizitzan zaintzari lotuta izandako tentsioen arabera. 2006. eta 2010. urteak
(% horizontalak)

Laguntza jaso duen pertsona mota		Tentsioak familia-bizitzan				Guztira
		Garrantzitsuak	Txikiak	Baten bat	Bat ere ez	
2006	Gutxienez men. ertaina duten bi edo gehiago	29,5	42,7	72,2	27,8	100
	Men. ber. bi edo gehiago, beste kasu batzuk	21,4	31,3	52,8	47,2	100
	Gutxienez mendetasun berezia duen bat	20,1	40,4	60,5	39,5	100
	Beste kasu batzuk	10,5	26,4	36,9	63,1	100
	Guztira	17,3	35,1	52,4	47,6	100
2010	Gutxienez men. ertaina duten bi edo gehiago	25,3	47,8	73,2	26,8	100
	Men. ber. bi edo gehiago, beste kasu batzuk	19,3	51,6	70,9	29,1	100
	Gutxienez mendetasun berezia duen bat	29,3	35,2	64,5	35,5	100
	Beste kasu batzuk	10,3	28,1	38,4	61,6	100
	Guztira	22,2	34,8	57,1	42,9	100

5. ARAZOAK HARREMAN PERTSONALETAN ETA GIZARTE HARREMANETAN

5.1. Portaera- eta jarrera-arazoak

GZEE-GPlan, portaera- edo jarrera-arazo jakin batzuk aztertu dira, hain zuzen ere eraginpean hartutako pertsonari familiarekiko, bizilagunekiko edo eskolako, laneko eta beste gune batzuetako pertsonakiko harremanetan arazo larriak eragiten dizkietenak.

EAEko 6 urteko edo gehiagoko biztanleriaren barruan, elkarriketatuek aipatu dituztenen kopurua 13.710 izan da, hau da, 2006an baino % 48,3 gehiago (9.245 pertsona urte horretan). Aldaketa horren ondorioz, EAEn bizi den 6 urteko edo gehiagoko biztanleriaren artean, eraginpean hartutakoen proportzioa % 4,6tik % 6,8ra igo da 2006tik 2010era bitarte.

Portaera- edo jarrera-arazoak dituen 6 urteko edo gehiagoko biztanleria. 2006. eta 2010. urteak
(Datu absolutuak eta eragina %-tan)

Arazoak dituen biztanleria	2006	2010
Datu absolutuak	9.245	13.710
Eragina (%)	4,6	6,8

Portaera- edo jarrera-arazoaren eraginari eta banaketari dagokienez, azpimarratu beharreko datu nagusiak honako hauek dira:

* Era horretako arazoak hertsiki lotuta daude osasunari edo adin aurreratuari lotutako mugekin, batez ere mendetasun bereziren bat dagoenean. Ildo horretan, mendetasun berezia duten pertsonen % 67,8k, beste muga batzuk dituztenen % 12,9k eta osasunari edo adin aurreratuari lotutako mugarik ez dutenen % 2,3k adierazi du portaera- edo jarrera-arazoak dituela.

Azken talde horretan izan ezik, deigarria izan da arazoek azken lau urte hauetan izan duten hazkundea. 2006. urtean, % 43,3ra eta % 4,6ra iritsi ziren adierazleak arriskurik handieneko taldeetan. Bilakaera horren ondorioz, 2006tik 2010era bitarte % 59,3tik % 70,6ra igo da proportzioa portaera- edo jarrera-arazoak dituzten pertsonen artean osasunari edo adin aurreratuari lotutako mugak dituztenen kasuan. Mendetasun berezia duten pertsonen kasuan, proportzioa % 54,1etik % 60,4ra igo da aldi horretan.

* Osasunari lotutako muga garrantzia da portaera- edo jarrera-arazoaren eraginik handiena 65 urtetik gorakoaren artean gertatu izanaren arrazoia. Izan ere, arazo mota hori handiagoa da adinean gora egin

ahala: proportzioa ‰ 3,5 izan da 45 urtetik beherakoen artean, ‰ 5,5-6,5era iritsi da 45-64 urtekoen artean, ‰ 11,6ra 65-74 urtekoen artean eta ‰ 14,3ra 75 urtetik gorakoen artean.

Dena dela, azaldutako profil horren ñabardura batzuk aipatu behar dira, 15 urtetik beherakoen kasuan (‰ 5,8) zein 25-34 urtekoen kasuan (‰ 7,0). Izan ere, bi talde horietan portaera- edo jarrera-arazoen hazkunde deigarria izan dute 2006. urtearekin alderatuz gero (‰ 1,7 eta ‰ 2,1, hurrenez hurren, urte horretan). 2010. urtean, 65 urtetik gorakoen proportzioak baino ez du gainditu 25-34 urteko pertsonena.

Adierazlea, oro har, 2,2 puntu igo da 45 urtetik gorako kasuan, eta azken lau urteetan okerrera nabarmen egin duen beste talde bat 65-74 urtekoena izan da. Kasu horretan, adierazlea ‰ 4,9tik ‰ 11,6ra igo da 2006tik 2010era bitarte.

Aztertutako arazoen banaketa orokorrean, 2010. urtean kasuen % 37,9 65 urtetik gorako pertsonen artean agertu da, % 34,9 35-64 urteko pertsonen artean, eta % 27,2 35 urtetik beherakoen artean. Azken kasu horretan, igoera deigarria izan da, 2006. urtean proportzioa % 18,7 izan baitzen (% 45 35-64 urtekoen artean eta % 36,3 65 urtetik gorakoen artean urte horretan).

- * 2006. urtean ez bezala, sexuaren araberako banaketa orekatu samarra izan da 2010ean. Izan ere, 2006-2010 aldian portaera- eta jarrera-arazoen proportzioak emakumeen kasuan ere gora egin arren (‰ 5,3tik ‰ 6,3ra), aldaketa hori gizonen artean arazoen izan duten gorakada askoz handiagoari lotuta dago (‰ 3,9tik ‰ 7,2ra).
- * Adierazle horretan hobekuntza nabarmena izan duen talde bat atzerritarrena izan da. Kasu horretan, portaera- edo jarrera-arazoen proportzioa ‰ 10,9tik ‰ 6,9ra jaitsi da 2006tik 2010era bitarte. Beraz, adierazlea Estatuko biztanleen ‰ 6,7ko adierazlera hurbildu da, horien proportzioak gora egin baitu 2006. urtetik (‰ 4,3 urte horretan). Joera horien ondorioz, atzerritarrek portaera- edo jarrera-arazoen duten eragina % 11,6tik % 6,2ra jaitsi da 2006tik 2010era bitarte.
- * Gabezia ekonomikoaren eta jarduerarekiko erlazioaren aldagaiei dagokienez, pertsona aktiborik ez duten etxeen unitateetan portaera- eta jarrera-arazoen proportzioa ‰ 5,1etik ‰ 16,7ra igo da 2006-2010 aldian. Egoerak, ordea, hobera egin du pertsona aktibo guztiak langabeak diren etxeen unitateetan (‰ 30etik ‰ 17,6ra jaitsi da proportzioa) eta gabezia motaren bat dutenetan (‰ 17,3tik ‰ 7,8ra). Joera hori, neurri batean, adierazleak atzerritarren artean izan duen bilakaera onari lotuta dago.

**Portaera- edo jarrera-arazoak dituen 6 urteko edo gehiagoko biztanleria, aldagai demografikoen arabera
2006. eta 2010. urteak**

(Eragina erreferentziatzko taldean %-tan eta % bertikalak)

		2006		2010	
		Eragina	% ber.	Eragina	% ber.
Ahaidetasuna	Pertsona nagusia	4,6	39,3	7,9	46,9
	Ezkontidea edo bikotekidea	3,9	22,2	3,1	12,5
	Semea/alaba	4,1	24,1	6,8	27,9
	Beste harremanen bat	9,0	14,3	16,2	12,7
Sexua	Gizonak	3,9	41,0	7,2	51,4
	Emakumeak	5,3	59,0	6,3	48,6
Adina	< 15 urte	1,7	2,8	5,8	8,2
	15-24 urte	3,5	8,5	3,5	5,0
	25-34 urte	2,1	7,4	7,0	14,0
	35-44 urte	2,6	9,7	3,4	9,3
	45-54 urte	4,0	13,1	6,3	15,4
	55-64 urte	7,9	22,3	5,5	10,2
	65-74 urte	4,9	10,2	11,6	16,0
	> 75 urte	12,0	26,1	14,3	21,9
Nazionalitatea	Estatukoa	4,3	88,4	6,7	93,8
	Beste bat	10,9	11,6	6,9	6,2
Mendetasuna	Mendetasun berezia	43,3	54,1	67,8	60,4
	Beste mugaren bat	4,6	5,2	12,9	10,1
	Mugarik gabe	2,1	40,7	2,2	29,4
Guztira		4,6	100	6,8	100

**Portaera- edo jarrera-arazoak dituen 6 urteko edo gehiagoko biztanleria, etxekoan unitatearen egoeraren arabera:
gabezia-egoerak eta jarduerarekiko erlazioa. 2006. eta 2010. urteak**

(Eragina erreferentziatzko taldean %-tan eta % bertikalak)

		2006		2010	
		Eragina	% ber.	Eragina	% ber.
Gabezia	Dimentsioaniztuna, oinarrizko premiak	31,8	12,9	11,2	4,7
	Partziala, oinarrizko premiak	11,9	12,9	5,9	4,7
	Oinarrizko gabezia	17,3	25,8	7,8	9,5
	Gabeziarik gabe, edo aisian baino ez	3,7	74,2	6,7	90,5
Jarduerarekiko erlazioa	Aktiboak, denak landun egonkorak	3,0	31,3	3,6	26,3
	Aktiboak, denak landunak, baten bat egonkor	1,9	6,6	0,7	1,3
	Aktiboak (langab. edo landunak), baten bat egonk.	8,7	14,7	9,9	15,3
	Aktiboak (langabeak edo landunak), egonkorrik ez	5,0	8,7	5,8	6,8
	Aktiboak, denak langabeak	30,0	20,2	17,6	10,7
	Aktiborik gabe	5,1	18,5	16,7	39,6
Guztira		4,6	100	6,8	100

2. Arazoak familia- edo gizarte-harremanetan

5.2.1. Bakardade- eta tristura-arazoak

2010. urtean, 40.060 pertsonak adierazi dute bakardade- edo tristura-arazo larriak izan dituztela, hau da, EAEko biztanle guztien ‰ 18,4k (2006. urtean ‰ 18,7 izan ziren). Termino absolututan, % 0,5eko beherakada izan da 2006. urtetik (40.266 kasu urte horretan).

Bakardade- eta tristura-arazoak dituen biztanleria. 2006. eta 2010. urteak

(Datu absolutuak eta eragina ‰-tan)

Arazoak dituen biztanleria	2006	2010
Datu absolutuak	40.266	40.060
Eragina (‰)	18,7	18,4

Bakardade- eta tristura-arazoak honako zirkunstantzia hauei lotuta daude:

- * Arazo horiek dituzten pertsona gehienak emakumeak dira (% 62,1, hain zuzen ere). Bakardade- edo tristura- arazoak dituzten emakumeak gizonak baino gehiago izan dira 2010ean (‰ 22,0 eta ‰ 14,5, hurrenez hurren), 2006. urtetik beheranzko joera bat izan bada ere (‰ 22,9 urte horretan).
- * Adinaren faktorea erabakigarria izan da. Tristura- eta bakardade-arazoak dituzten pertsonen % 45,2k 65 urte baino gehiago ditu, eta % 22,2k 45-64 urte. Guzti horiek kasuen % 67,3 hartzen dituzte (2006. urtean % 64,7). Problematika hori handiagoa da adinean gora egin ahala; 65 urtetik aurrerako pertsonen artean, proportzioak erraz gaintzen du EAEko batez bestekoa. Arazo horien eragina ‰ 27,3ra iritsi da 65-74 urtekoen artean, eta ‰ 61,4ra 75 urtetik gorakoen artean. Azken zifra horren kasuan, proportzioa 2006koa baino handiagoa izan da (‰ 52,2 urte horretan). 65-74 urtekoen kasuan, berriz, proportzioak behera egin du (‰ 33,1 2006. urtean).

Aparteko aipamena merezi du, hala ere, 25-34 urtekoen egoerak. Kasu horretan, ‰ 18,9k adierazi du bakardade- eta tristura-arazo larriak dituela, hau da, batez bestekoak baino gehiagok. Hala ere, beherakada txiki bat izan da 2006. urtetik (‰ 20,1 urte horretan). Gutxiengoa izanik ere, ikusitako bakardade-arazoen % 25,3 25-44 urtekoek izan dute. 25 urtetik beherako kasuan, berriz, proportzio hori % 7,2ra baino ez da iritsi.

Halaber, garrantzitsua izan da 45-54 urtekoen kasuan izandako gorakada. Kasu horretan, bakardade- eta tristura-arazoen proportzioa ‰ 13,3tik ‰ 18,9ra igo da 2006tik 2010era bitarte. Problematika horrek

eraginpean hartutako biztanleria osoa kontuan hartuta, pertsona horien proportzioa % 10etik % 15,8ra igo da 2006-2010 aldian.

- * Era berean, mugak eta mendetasunak eragin handia dute bakardade- eta tristura-arazoetan. Mendetasun berezia duten pertsonen % 98,5ek eta osasunari edo adin aurreratuari lotutako beste muga batzuk dituztenen % 64,7k dituzte tristura- eta bakardade-arazoak. Aldiz, EAeko gainerako biztanleriaren % 10,6k ditu horrelako arazoak. Tristura- eta bakardade-arazoak dituzten guztien % 48,6k adierazi du arazo horrek osasunari lotutako mugekin zerikusia duela. Edonola ere, arazo gehienak (% 51,4) horrelako mugarik ez duten pertsonen izan dituzte.

Alderdi positibo gisa, mendetasun berezia duten pertsonen kasuan aztertutako arazoen eragina 2006-2010 aldian % 106,1etik % 98,5era murriztu dela aipa daiteke. Funtsean, kontuan hartutako arazoen eraginak egonkor jarraitu du 2006-2010 aldian gainerako taldeetan.

- * Atzerritar-izaera ere lotuta dago bakardadearekin eta tristurarekin. Zehazki, atzerritarren % 63,8k adierazi du arazo horiek dituela (Estatuko biztanleriaren artean, berriz, % 15,3k). Bakardade- edo tristura-arazoak dituzten pertsonen % 22,2 atzerritarra da. Hala ere, azken urteotan beherakada esanguratsua izan du problematika horren eraginak atzerritarren artean (2006. urtean, proportzioa % 91,1era iritsi zen).
- * Bestalde, oso nabarmena izan da bakardade- eta tristura-arazoen eta zirkunstantzia ekonomikoen arteko lotura. Ildo horretan, zenbait datu deigarri aipa daitezke. Alde batetik, arazoen eragina handiagoa da etxeen unitatearen egoera ekonomikoak okerrera egin ahala: % 12,3 oinarrizko gabeziarik ez dagoen kasuetan, eta % 80,8 gabezia-arazoak dauden kasuetan (% 45,9 arazo partzialak direnean, eta % 144,4 arazo dimentsioaniztunak direnean).

Bestalde, azpimarratu beharra dago arazo horien eragina handiagoa dela pertsonaren ingurunea enpleguaren mundutik urrundu ahala. Izan ere, eragina % 7,4ra baino ez da iritsi etxeen unitateetan, pertsona aktibo guztiak landun egonkorrik direnean, eta % 14-15era etxeen unitateko landunen batek enplegu egonkorrik ez duenean. Etxeen unitateko pertsona aktiboen artean landun egonkorrik ez dagoen kasuetan, proportzioa % 25,9ra iritsi da, eta pertsona aktibo guztiak langabeak diren kasuetan, berriz, % 33,8ra. Zifrarik handiena (% 52,5) pertsona guztiak ez-aktiboak diren etxeen unitateei dagokie.

Bakardade- edo tristura-arazoak dituen biztanleria, aldagai demografikoen arabera. 2006. eta 2010. urteak
(Eragina erreferentziatzko taldean ‰-tan eta % bertikalak)

		2006		2010	
		Eragina	% ber.	Eragina	% ber.
Ahaidetasuna	Pertsona nagusia	32,7	63,9	28,4	57,9
	Ezkontidea edo bikotekidea	10,7	13,9	12,4	16,9
	Semea/Alaba	2,9	5,0	5,1	9,0
	Beste harremanen bat	44,4	17,3	57,3	16,2
Sexua	Gizonak	14,4	37,5	14,5	37,9
	Emakumeak	22,9	62,5	22,0	62,1
Adina	< 15 urte	2,6	1,9	1,2	1,0
	15-24 urte	10,6	5,9	12,9	6,2
	25-34 urte	20,1	16,1	18,9	13,0
	35-44 urte	13,2	11,4	13,2	12,3
	45-54 urte	13,3	10,0	18,9	15,8
	55-64 urte	19,6	12,7	10,0	6,4
	65-74 urte	33,1	15,9	27,3	12,9
	> 75 urte	52,2	26,1	61,4	32,3
Nazionalitatea	Estatukoa	15,1	77,0	15,3	77,8
	Beste bat	91,1	23,0	63,8	22,2
Mendetasuna	Mendetasun berezia	106,1	31,0	98,5	30,5
	Beste mugaren bat	64,3	17,2	64,7	18,1
	Mugarik gabe	10,8	51,8	10,6	51,4
Guztira	Guztira	18,7	100	18,4	100

Bakardade- edo tristura-arazoak dituen biztanleria, etxekoan unitatearen egoeraren arabera: gabezia-egoerak eta jarduerarekiko erlazioa. 2006. eta 2010. urteak
(Eragina erreferentziatzko taldean ‰-tan eta % bertikalak)

		2006		2010	
		Eragina	% ber.	Eragina	% ber.
Gabezia	Dimentsioaniztuna, oinarrizko premiak	115,5	12,1	144,4	24,7
	Partziala, oinarrizko premiak	74,1	19,7	45,9	14,2
	Oinarrizko gabezia	85,8	31,8	80,8	38,9
	Gabeziarik gabe, edo aisian baino ez	13,7	68,2	12,3	61,1
Jarduerarekiko erlazioa	Aktiboak, denak landun egonkorak	7,3	19,4	7,4	20,0
	Aktiboak, denak landunak, baten bat egonkor	9,6	8,1	15,0	9,9
	Aktiboak (langab. edo landunak), baten bat egonkor	14,4	6,0	14,2	8,1
	Aktiboak (langabeak edo landunak), egonkorrik ez	38,8	16,5	25,9	11,7
	Aktiboak, denak langabeak	55,4	9,0	33,8	7,7
	Aktiborik gabe	49,2	40,9	52,5	42,5
Guztira	Guztira	18,7	100	18,4	100

5.2.2. Familia-banantzeari lotutako arazoak

EAEan, 18.553 pertsonak —biztanleria osoaren ‰ 8,5ek— dituzte familia-banantzeari lotutako arazoak, beren bititza pertsonalean eragin larria dutenak. Zifrak agerian uzten duenez, goranzko joera txiki bat

izan da 2006. urtetik (% 7,5 urte horretan). Zehazki, kasuak % 15,5 gehiago izan dira (16.059 2006. urtean).

Familia-banantzeari lotutako arazoak dituen biztanleria. 2006. eta 2010. urteak
(Datu absolutuak eta eragina %-tan)

Arazoak dituen biztanleria	2006	2010
Datu absolutuak	16.059	18.553
Eragina (%)	7,5	8,5

Aztertutako familia-banantzeari lotutako arazoei dagokienez, honako alderdi hauek azpimarra daitezke:

- * Berriz ere, arazo horien eragina handiagoa izan da osasunari edo adin aurreratuari lotutako arazoak dituzten pertsonen artean. Hala ere, kasu horretan arazoaren eragina handiagoa izan da mugak dituzten baina mendetasun berezirik ez duten pertsonen artean. Talde horretan, arazoaren proportzioa % 19,5etik % 22,6ra igo da 2006tik 2010era bitarte. Bestalde, mendetasun berezia duten pertsonen artean, % 14tik % 11,8ra jaitsi da proportzioa, eta mugarik ez dutenen artean, berriz, gora egin du (% 6,4tik % 7,5era). Edonola ere, aztertutako arazoaren % 78,5 mugarik ez duten pertsonen artean agertu da (2006. urtean % 76,7 izan ziren).
- * Familia-banantzeari lotutako arazoei dagokienez, atzerritar-izaera erabakigarria izan da. Izan ere, arazo horiek dituen Estatuko biztanleriaren proportzioa % 5,5 izan da, eta atzerriko biztanleriarena, berriz, % 52,8. Dena dela, Estatuko biztanlerian adierazleak gora egin du (% 3,9 2006. urtean), baina atzerritarren adierazleak, berriz, behera (% 78,9 2006. urtean). Bilakaera positibo hori gorabehera, biztanleria horrek familia-banantzeari lotutako arazoak dituzten pertsona guztien artean duen proportzioa oso handia izan da berriz 2010. urtean: % 39,6.

Atzerritarrek aztertutako taldean duten garrantziak agerian utzi du ezaugarri demografiko bereziak dituztela familia-banantzeari lotutako arazoak dituzten beste talde batzuekin alderatuta. Ildo horretan, arazo gehienak tarteko adina dutenen artean agertu dira; hain zuzen ere, arazo horiek dituzten pertsonen % 69,9k 15-54 urte ditu. Gainera, familia-banantzeari lotutako arazo larrien proportzioa % 10etik gorakoa izan da 15-34 urteko eta 45-54 urteko pertsonen artean.

- * Sexuari dagokionez, azpimarratu beharra dago aztertutako arazoak dituzten emakumeak gero eta gehiago direla: zehazki, emakumeak % 52,8 izan ziren 2006an, eta % 62,4 2010ean. Gainera, familia-

banantzeari lotutako gizarte-arazoak dituzten gizonen proportzioak behera egin du 2006-2010 aldian (%_o 7,2tik %_o 6,6ra), baina emakumeena %_o 7,7tik %_o 10,2ra igo da.

Familia-banantzeari lotutako arazoak dituen biztanleria, aldagai demografikoen arabera. 2006. eta 2010. urteak
(Eragia erreferentziazko taldean %_o-tan eta % bertikalak)

		2006		2010	
		Eragina	% ber.	Eragina	% ber.
Ahaidetasuna	Pertsona nagusia	10,4	50,8	10,0	43,9
	Ezkontidea edo bikotekidea	2,6	8,4	3,0	8,9
	Semea/Alaba	2,0	8,5	4,6	17,4
	Beste harremanen bat	33,1	32,3	48,7	29,7
Sexua	Gizonak	7,2	47,2	6,6	37,6
	Emakumeak	7,7	52,8	10,2	62,4
Adina	< 15 urte	4,0	7,5	3,9	7,3
	15-24 urte	8,8	12,2	10,3	10,8
	25-34 urte	13,4	26,8	13,4	19,9
	35-44 urte	8,6	18,7	6,8	13,7
	45-54 urte	6,5	12,4	14,1	25,5
	55-64 urte	7,0	11,4	6,8	9,4
	65-74 urte	5,0	6,1	4,1	4,2
	> 75 urte	4,0	5,1	8,1	9,2
Nazionalitatea	Estatukoa	3,9	50,1	5,5	60,4
	Beste bat	78,9	49,9	52,8	39,6
Mendetasuna	Mendetasun berezia	14,0	10,2	11,8	7,9
	Beste mugaren bat	19,5	13,1	22,6	13,7
	Mugarik gabe	6,4	76,7	7,5	78,5
Guztira		7,5	100	8,5	100

Bestalde, bakardade- eta tristura-arazoak dituen biztanleriaren kasuan ikusi bezala, familia-banantzeari lotutako gizarte-arazoek ere eragin diferentziala izan dute oinarrizko gabezia duten pertsonen kasuan, eta, horien artean, gabezia dimentsioaniztunak dituztenen kasuan. Izan ere, proportzioa %_o 103ra iritsi da horien artean, %_o 28,4ra gabezia partziala dutenen artean, eta %_o 4,0ra gainerako biztanleen artean.

Halaber, azpimarragarria da arazo horrek pertsona aktibo guztiak langabeak diren etxekoen unitateetan izan duen eragina (%_o 31,7).

Familia-banantzeari lotutako arazoak dituen biztanleria, etxekoen unitatearen egoeraren arabera: gabezia-egoerak eta jarduerarekiko erlazioa 2006. eta 2010. urteak
(Eragina erreferentziatzko taldean %^{oo}-tan eta % bertikalak)

		2006		2010	
		Eragina	% ber.	Eragina	% ber.
Gabezia	Dimentsioaniztuna, oinarrizko premiak	144,7	38,1	103,0	37,9
	Partziala, oinarrizko premiak	20,3	13,6	28,4	19,0
	Oinarrizko gabezia	55,5	51,7	54,9	57,0
	Gabeziarik gabe, edo aisian baino ez	3,9	48,3	4,0	43,0
Jarduerarekiko erlazioa	Aktiboak, denak landun egonkorak	1,7	11,6	4,7	27,8
	Aktiboak, denak landunak, baten bat egonkor	7,3	15,4	13,9	19,8
	Aktiboak (langab. edo landunak), baten bat egonk.	10,9	11,4	7,4	9,1
	Aktiboak (langabeak edo landunak), egonkorrik ez	31,9	34,1	8,0	7,8
	Aktiboak, denak langabeak	34,2	13,9	31,7	15,7
	Aktiborik gabe	6,5	13,6	11,3	19,9
Guztira	Guztira	7,5	100	8,5	100

5.2.3. Arretarik ezari, tratu txarrei, jazarpenari edo indarkeriari lotutako arazoak

EAEEn, gutxienez 5.831 pertsonak jasan dute arretarik eza edo bazterketa familiaren barruan, edota tratu txarrak, jazarpena edo indarkeria gizarte-ingurunean. Zifra hori EAEko biztanleriaren %^{oo} 2,7 da. Adierazleek agerian utzi dutenez, proportzioak gora egin du 2006. urtetik (%^{oo} 2,3 urte horretan), eta % 18,8ko igoera izan da eraginpean hartutako pertsonen kopuruan (4.907 kasu 2006an).

Familiaren arretarik ezari/bazterketari edota tratu txarrei, jazarpenari edo indarkeriari lotutako arazoak dituen biztanleria. 2006. eta 2010. urteak
(Datu absolutuak eta eragina %^{oo}-tan)

Arazoak dituen biztanleria	2006	2010
Datu absolutuak	4.907	5.831
Eragina (% ^{oo})	2,3	2,7

Arretarik ezari, tratu txarrei, jazarpenari edo indarkeriari lotutako arazoei dagokienez, honako alderdi nagusi hauek azpimarra daitezke:

- * Generoak garrantzi handia du arazo horietan. Izan ere, horrelako egoerak jasan dituzten pertsonen % 60,3 emakumeak izan dira. Dena dela, proportzioak behera egin du 2006. urtetik (% 64 urte horretan). Azken lau urteetan emakumeen kasuan arazo horien eragina %^{oo} 2,9tik %^{oo} 3,1era igo bada ere (gizonen kasuan %^{oo} 2,2), 2006-2010 aldian izan den gorakada handiagoa izan da gizonen artean (%^{oo} 1,7 2006. urtean).

- * Bestalde, problematika horrek 55 urtetik gorako pertsonak hartu ditu eraginpean nagusiki. Kasuen % 53,1 talde horretan agertu dira, eta aztertutako arazoen eragina ‰ 3,5etik gorakoa izan da beti adin horietan. Zifrarik handiena 75 urtetik gorakoen taldeak eman du (‰ 6), eta 2006koa baino handiagoa izan da (‰ 4,8 urte horretan). Dena dela, aldi horretan izan den gorakadarik handiena 45-54 urtekoen taldean gertatu da (‰ 2,0tik ‰ 4,1era 2006tik 2010era bitarte). Zifra hori, nolana ere, 55-74 urtekoek izan dutenaren antzekoa izan da. Gainera, pertsona horiek arretarik ezari, tratu txarrei, jazarpenari eta indarkeriari lotutako arazoak dituen biztanlerian duten garrantzi erlatiboa % 12,2tik % 23,5era igo da. 45 urtetik beherako pertsonen kasuan, eragina ‰ 1,5etik beherakoa izan da, 25-34 urtekoen artean izan ezik (‰ 1,9). Kasu horretan, edonola ere, proportzioak behera egin du 2006. urtetik (‰ 3,9 urte horretan).

- * Berriz ere, arazo larri horiek osasunari edo adin aurreratuari lotutako mugekin zerikusia dutela ikusi da. Izan ere, aztertutako arazoak dituzten pertsonen % 59,1k osasunari lotutako muga edo mendetasun berezi bat du (2006. urtean % 49,2k). Mugarik ez duten pertsonen artean, arazo horiek dituztenen proportzioa ‰ 1,2 izan da (‰ 1,3 2006. urtean), baina ‰ 9,6ra iritsi da larritasun txikieneko mugak dituzten pertsonen artean (‰ 16,0 2006. urtean), eta ‰ 19,1era mendetasun berezia duten pertsonen artean (‰ 5,8 2006. urtean).

- * Halaber, aztertutako arazoen eraginari dagokionez, zenbait kasutan arazoak gutxietsi egin direla pentsa daiteke. Egiaztatu denez, aztertutako arazoak dituztenen proportzioa ia ezdeusa izan da atzeritarren artean 2010. urtean. Estatuko biztanleen artean, berriz, proportzioa ‰ 2,9ra iritsi da (‰ 2,1era 2006. urtean), eta atzeritarrek 2006an izan zuten proportzioa ere guztiz bestelakoa da. Urte horretan, atzeritarren proportzioa askoz handiagoa izan zen (‰ 5,1)⁶.

- * Familiaren arretarik ezari edo bazterketari, tratu txarrei, jazarpenari edo indarkeriari lotutako arazoen eragina desberdina izan da oinarrizko gabezia duten pertsonen artean (‰ 23,7 arazo dimentsioaniztunen kasuan eta % 8,8 arazo partzialen kasuan; gabezia-arazorik ez duten pertsonen artean, berriz, ‰ 1,6). Eragina, halaber, handiagoa da pertsona langabeak dituzten etxeoen unitateetan eta, bereziki, okupazio egonkorra duenik ez dagoen kasuan (‰ 4,2-5,2) eta pertsona guztiak ez-aktiboak diren kasuan (‰ 9,6).

⁶ Hala ere, argitu beharra dago beste datu batzuek ere berretsi egin dutela aztertutako arazoak atzeritarren artean nabarmen murriztu direla. Adibidez, eskolan jasandako jazarpenari, tratu txarrei edo bazterketari buruzko datuek erakusten dutenez, eraginpean hartutako adingabeak % 68 gutxiago izan dira. 6-16 urteko atzeritarren artean, proportzioa % 7,03tik % 1,41era murriztu da 2006tik 2010era bitarte. Beraz, atzeritarren kasuan, badirudi elkarriketatuek arazo horiei ez dietela eman arazo larriak adierazteko garaian aipatzeko moduko garrantzia.

Familiaren arretarik ezari edo bazterketari, edo tratu txarrei, jazarpenari edo indarkeriari lotutako arazoak dituen biztanleria, aldagai demografikoen arabera. 2006. eta 2010. urteak
(Eragina erreferentziazko taldean ‰-tan eta % bertikalak)

		2006		2010	
		Eragina	% ber.	Eragina	% ber.
Ahaidetasuna	Pertsona nagusia	3,7	58,7	5,7	80,2
	Ezkontidea edo bikotekidea	2,8	29,6	,9	8,1
	Semea/Alaba	,8	10,8	,9	11,0
	Beste harremanen bat	,3	1,0	,4	,8
Sexua	Gizonak	1,7	36,0	2,2	39,7
	Emakumeak	2,9	64,0	3,1	60,3
Adina	< 15 urte	,8	5,0	,7	4,1
	15-24 urte	,0	,0	,7	2,3
	25-34 urte	3,9	25,7	1,9	8,8
	35-44 urte	,0	,0	1,3	8,2
	45-54 urte	2,0	12,2	4,1	23,5
	55-64 urte	3,7	19,7	3,6	15,9
	65-74 urte	4,5	17,6	4,1	13,2
	> 75 urte	4,8	19,7	6,6	24,0
Nazionalitatea	Estatukoa	2,1	89,5	2,9	100
	Beste bat	5,1	10,5	,0	,0
Mendetasuna	Mendetasun berezia	5,8	13,9	19,1	40,7
	Beste mugaren bat	16,0	35,3	9,6	18,4
	Mugarik gabe	1,3	50,8	1,2	40,9
Guztira		2,3	100,0	2,7	100,0

Familiaren arretarik ezari/bazterketari edota tratu txarrei, jazarpenari edo indarkeriari lotutako arazoak dituen bizt., etxekoen unitatearen egoeraren arabera: gabezia-egoerak eta jarduerarekiko erlazioa. 2006. eta 2010. urteak
(Eragina erreferentziazko taldean ‰-tan eta % bertikalak)

		2006		2010	
		Eragina	% ber.	Eragina	% ber.
Gabezia	Dimentsioaniztuna, oinarritzko premiak	10,6	9,1	23,7	27,8
	Partziala, oinarritzko premiak	7,4	16,1	8,8	18,9
	Oinarritzko gabezia	8,3	25,2	14,1	46,6
	Gabeziarik gabe, edo aisian baino ez	1,8	74,8	1,6	53,4
Jarduerarekiko erlazioa	Aktiboak, denak landun egonkorak	1,1	24,7	,7	13,5
	Aktiboak, denak landunak, baten bat egonkor	3,7	25,3	1,7	7,6
	Aktiboak (langab. edo landunak), baten bat egonk.	,0	,0	1,1	4,3
	Aktiboak (langabeak edo landunak), egonkorrik ez	2,7	9,5	4,2	13,2
	Aktiboak, denak langabeak	1,6	2,2	5,2	8,2
	Aktiborik gabe	5,6	38,4	9,6	53,2
Guztira	Guztira	2,3	100	2,7	100

5.3. Gizarte-bazterketako arazoak

GZEE-GPIan, halaber, EAEn bizi diren pertsonak jasaten dituzten gizarte-bazterketako arazoei buruzko informazioa bildu da. Datu horien bilketan, honako hauei lotutako arazoak hartu dituzte aintzat: gizarte-edo geografia-jatorria, arraza, etnia, kultura, hizkuntza, erlijioa eta atzerritar-izaera.

20.918 pertsonak —biztanleria osoaren % 9,6k, alegia— beren jatorriari, kulturari edo ezaugarri pertsonalei lotutako gizarte-bazterketako arazoak dituzte. Pertsona horietako 9.866k —aztertutako bazterketa moduen eraginpeko % 47,2k— adierazi dute arazo larriak direla, guztizko biztanleriaren % 4,5ek.

Aipatutako adierazle guztien arabera, ikusten da egoerak okerrera egin duela nabarmen 2006-2010 aldian. Izan ere, gizarte-bazterketako arazoak aipatzen dituzten pertsonen kopurua % 49 igo da, eta egoera larriei lotutako igoera % 67ra iritsi da. Aztertutako kasu guztien barruan, egoera larri horien garrantzia % 42,1etik % 47,2ra igo da 2006tik 2010 bitarte. Termino erlatibotan, gizarte-bazterketako problematiken eragina % 6,5etik % 9,6ra igo da (% 2,7tik % 4,5era arazo larriei dagokienez).

Gizarte- edo geografia-jatorriak, arrazak, etniak, kulturak, hizkuntzak, erlijioak edo atzerritar-izaerak eragindako gizarte-bazterketako arazoak dituen biztanleria. 2006. eta 2010. urteak
(Datu absolutuak eta eragina %-tan)

Arazoak dituen biztanleria	2006	2010
Datu absolutuak	14.036	20.918
Eragina (%)	6,5	9,6
Arazo larriak dituen biztanleria	2006	2010
Datu absolutuak	5.907	9.866
Eragina (%)	2,7	4,5

Gizarte-bazterketarik handiena jasan duten taldeekiko hurbilketak honako elementu hauek erakusten ditu:

* Mila atzerritarretik 128,9k aipatu ditu jatorri pertsonalarekin lotutako gizarte-bazterketako arazoak, eta atzerritarren % 59,1ek adierazi du arazo hori larria dela. Bi kasuetan ikusten da, 2006ko adierazlearekin alderatzen badugu, adierazle horrek gora egin duela, urte hartako zifrak % 101,5 eta % 50,8 izan baitziren. Arazo mota horrek bertako biztanleriarengan duen eragina, ordea, oso txikia izan

da, biztanleriaren % 1,5 eskasean soilik izan baitu eragina (% 1,8 2006. urtean). Arazo larriak % 0,8k aipatu ditu.

Aurreko datuak kontuan hartuta, ez da harritzekoa egiaztatzea bazterketa-egoerak aipatzen dituzten pertsonen % 85,8ek atzerriko nazionalitatea izatea; zifra horrek gora egin du 2006ko % 73,4arekin alderatzen badugu. Problematika larrienen % 83,4 ere atzerritarrekin lotzen da.

- * Gizarte-bazterketako arazoek gizonei eragiten diete emakumeei baino neurri handiagoan (gizonen kasuan % 10, emakumeen kasuan, aldiz, % 9,2, arazo guztiak kontuan hartuta), baita 15-44 urteko biztanleriari ere. Eragina bereziki handia da 25-34 urtekoen kasuan: % 25,3 (aitzitik, zifrak % 12,5etik % 13,1era igo dira 15-44 urteko pertsonen beste talde batzuetan, % 7,6tik % 8,7ra 15etik beherako edo 45-54 urteko pertsonen kasuan, eta % 3tik hurbileko edo hortik beherako mailak 55 urtetik gorako pertsonengan). 25-34 urteko pertsonen kasuan soilik gaintzen dira problematika larrien % 10eko mailak: % 11,5. Bi adierazleetan, igoera nabarmena izan da adin-talde honetan 2006ko datuekin alderatuta (arazo orokorren % 14,2 eta arazo larrien % 6,8).

Nabarmendu beharreko beste datu bat da gizarte-bazterketako arazoak aipatu dituzten biztanle gehienak, hots, % 55,6 25-44 urtekoak direla (beraz, 2006ko % 52,4arekin alderatuta, gora egiten ari den proportzioa da). 25 urtetik beherako biztanleria beste % 24,7 da, baina kasu horretan behera egin du 2006ko % 32arekin alderatuta.

Gizarte- edo geografia-jatorriak, arrazak, etniak, kulturak, hizkuntzak, erlijioak edo atzerritar-izaerak eragindako gizarte-bazterketako arazoak dituen biztanleria, aldagai demografikoen arabera
(Eragina erreferentziako taldean %-tan eta % bertikalak)

		2006		2010	
		Eragina	% ber.	Eragina	% ber.
Ahaidetasuna	Pertsona nagusia	6,3	35,2	10,0	39,1
	Ezkontidea edo bikotekidea	4,2	15,5	7,7	20,1
	Semea/Alaba	3,4	16,6	6,6	22,3
	Beste erlazio bat	29,3	32,7	34,3	18,5
Sexua	Gizonak	7,4	55,4	10,0	50,2
	Emakumeak	5,7	44,6	9,2	49,8
Adina	< 15 urte	4,3	9,2	7,6	12,6
	15-24 urte	14,3	22,7	13,1	12,1
	25-34 urte	14,2	32,5	25,3	33,3
	35-44 urte	8,1	19,9	12,5	22,3
	45-54 urte	1,7	3,7	8,7	14,0
	55-64 urte	3,4	6,2	,0	,0
	65-74 urte	2,4	3,4	2,9	2,6
	>75 urte	1,6	2,3	3,0	3,0
Nazionalitatea	Estatukoa	1,8	26,6	1,5	14,2
	Beste bat	101,5	73,4	128,9	85,8
Mendetasuna	Mendetasun berezia	4,1	3,4	2,3	1,4
	Beste mugaren bat	6,4	4,9	7,6	4,0
	Mugarik gabe	6,7	91,7	10,2	94,6
Guztira	Guztira	6,5	100	9,6	100

Gizarte- edo geografia-jatorriak, arrazak, etniak, kulturak, hizkuntzak, erlijioak edo atzerritar-izaerak eragindako gizarte-bazterketako arazo larriak dituen biztanleria, aldagai demografikoen arabera. 2006. eta 2010. urteak

(Eragina erreferentziatzko taldean %-tan eta % bertikalak)

		2006		2010	
		Eragina	% ber.	Eragina	% ber.
Ahaidetasuna	Pertsona nagusia	3,5	46,9	5,4	44,8
	Ezkontidea edo bikotekidea	1,5	13,6	3,9	21,3
	Semea/Alaba	2,0	23,4	2,9	20,7
	Beste harremanen bat	6,1	16,2	11,5	13,2
Sexua	Gizonak	2,4	42,0	5,8	61,6
	Emakumeak	3,1	58,0	3,3	38,4
Adina	< 15 urte	3,3	16,4	3,4	12,0
	15-24 urte	3,7	14,0	5,9	11,6
	25-34 urte	6,8	36,8	11,5	32,1
	35-44 urte	3,5	20,7	6,9	26,2
	45-54 urte	1,2	6,2	4,6	15,7
	55-64 urte	0,0	0,0	0,0	0,0
	65-74 urte	0,1	0,4	0,0	0,0
	>75 urte	1,6	5,6	1,1	2,4
Nazionalitatea	Estatukoa	0,4	12,7	0,8	16,6
	Beste bat	50,8	87,3	59,1	83,4
Mendetasuna	Mendetasun berezia	0,3	0,6	0,0	0,0
	Beste mugaren bat	5,0	9,2	1,1	1,3
	Mugarik gabe	2,8	90,2	5,0	98,7
Guztira	Guztira	2,7	100	4,5	100

Aztertutako gizarte-bazterketako moduak gabezia ekonomikoko egoerekin lotuta daude argi eta garbi, eta % 87ko eragina du oinarrizko gabezia duten etxeen unitateetako pertsonen dagokionez, eta % 2,1 eskasekoa, aldiz, gainerako etxeen unitateetan (% 44,9; problematika larriak kontuan hartzen badira, aldiz, % 0,6). Azken etxeen unitate horietan, problematikaren eragina murriztu egin da 2006tik aurrera; aitzitik, gabeziarik handiena duten etxeen unitateen kasuan, gizarte-bazterketak gora egin du (% 48tik % 87ra adierazle orokorrean, eta % 23,5etik % 44,9ra problematika larriak kontuan hartzean). Ondorioa honako hau da: gabezia-egoeran zeuden taldeek problematika orokorren % 51,1 eta jatorriak edo ezaugarri pertsonalek eragindako bazterketa moduekin lotutako problematika larrien % 59,3 biltzen zituzten 2006an, baina proportzio hori % 80,1etik % 87,7ra igo da 2010ean.

Gizarte-bazterketaren dimentsio ekonomikoa askoz ere garbiagoa da. 2006-2010 aldian oinarrizko gabeziako arazoak dituzten taldeei eragin dien jaitziera deigarria izan da azken urte horretan: ikusitako gizarte-bazterketako kasu gehienak oinarrizko gabeziako arazo dimentsioaniztunak dituzten etxeen unitateetako pertsonengan biltzen dira. Talde horretan, gizarte-bazterketako egoeren % 53,5 biltzen da (gizarte-bazterketako egoera orokorrak nahiz problematika larriekin lotutakoak).

Jatorri edo izaera pertsonalarekin lotutako gizarte-bazterketa lan-kolokatasun handieneko egoerekin ere lotzen da, % 37,2 kasu baitaude lan egonkorra lortzeko aukerarik gabeko pertsona aktiboak dituzten, baina landunen bat duten etxekoen unitateekin lotutako pertsonen artean. Proportzioa –handiena– % 42,1era iritsi da pertsona aktibo guztiak langabezian dauden etxekoen unitateetako pertsonen artean.

Gizarte- edo geografia-jatorriak, arrazak, etniak, kulturak, hizkuntzak, erlijioak edo atzerritar-izaerak eragindako gizarte-bazterketako arazoak dituen biztanleria, etxekoen unitatearen egoeraren arabera: gabezia-egoerak eta jarduerarekiko erlazioa. 2006. eta 2010. urteak
(Eragina erreferentziazko taldean %-tan eta % bertikalak)

		2006		2010	
		Eragina	% ber.	Eragina	% ber.
Gabezia	Dimentsioaniztuna, oinarrizko premiak	111,2	33,5	163,8	53,5
	Partziala, oinarrizko premiak	23,1	17,6	44,8	26,6
	Oinarrizko gabezia	48,0	51,1	87,0	80,1
	Gabeziarik gabe, edo aisian baino ez	3,4	48,9	2,1	19,9
Jarduerarekiko erlazioa	Aktiboak, denak landun egonkorrak	2,5	19,0	3,5	18,1
	Aktiboak, denak landunak, baten bat egonkorra	6,9	16,7	12,1	15,3
	Aktiboak (langabeak edo landunak), baten bat egonkorra	2,0	2,4	12,1	13,1
	Aktiboak (langa. edo landunak), bat ere ez egonk.	43,5	53,3	37,2	32,2
	Aktiboak, denak langabeak	11,5	5,4	42,1	18,5
	Aktiborik gabe	1,3	3,2	1,8	2,8
Guztira	Guztira	6,5	100,0	9,6	100,0

Gizarte- edo geografia-jatorriak, arrazak, etniak, kulturak, hizkuntzak, erlijioak edo atzerritar-izaerak eragindako gizarte-bazterketako arazo larriak dituen biztanleria, etxekoen unitatearen egoeraren arabera: gabezia-egoerak eta jarduerarekiko erlazioa. 2006. eta 2010. urteak
(Eragina erreferentziazko taldean %-tan eta % bertikalak)

		2006		2010	
		Eragina	% ber.	Eragina	% ber.
Gabezia	Dimentsioaniztuna, oinarrizko premiak	61,1	43,7	77,2	53,5
	Partziala, oinarrizko premiak	8,6	15,6	27,1	34,2
	Oinarrizko gabezia	23,5	59,3	44,9	87,7
	Gabeziarik gabe, edo aisian baino ez	1,2	40,7	,6	12,3
Jarduerarekiko erlazioa	Aktiboak, denak landun egonkorrak	,3	6,1	1,0	10,8
	Aktiboak, denak landunak, baten bat egonkorra	3,4	19,4	5,2	14,0
	Aktiboak (langabeak edo landunak), baten bat egonkorra	,4	1,0	1,2	2,7
	Aktiboak (langabeak edo landunak), bat ere ez egonkorra	21,1	61,4	23,6	43,3
	Aktiboak, denak langabeak	10,9	12,0	29,0	27,0
	Aktiborik gabe	,0	,0	,6	2,1
Guztira	Guztira	2,7	100	4,5	100

Gizarte-bazterketako arazoan goranzko joera gorabehera, problematika horien azpian dauden alderdien eragina beheranzkoa izan da orokorrean, egoera larrienak kontuan hartzen direnean behintzat. Hori gertatzen da jatorriarekin (kasuen % 85,5ean agertu zen 2006an, baina % 63,9an 2010ean) eta, neurri txikiagoan, etniarekin (% 78,6 eta % 72,8, hurrenez hurren). Gauza bera gertatzen da garrantzi txikiagoa duen beste alderdi batekin, hau da, hizkuntzarekin, gizarte-bazterketako arazoan eraginpeko pertsonen kasuan, alderdi hori aipatzen dutenen proportzioa % 29,9tik % 19,9ra jaitsi baita.

Joera horri dagokionez, salbuespen bakarra erlijioarekin edo kulturarekin lotzen da. Alderdi horrek erakusten du goranzko joera garbia duela gizarte-bazterketarekin lotutako elementu gisa. Gai hori – problematika larriekin lotuta– aipatzen duten pertsonen proportzioa 2006an % 10,9 izatetik 2010ean % 51,4ra izatera igaro da.

Orokorrean, bazterkeria-egoera larriak sortu edo ez, jatorria da, 2010ean, bazterkeria-errealitateekin lotzen den elementu nagusia, kasuen % 80an aipatzen baita, baina argiago hain larriak ez diren kasuetan (% 94,6, eta kasu larrietan, aldiz, % 63,9). Aipamen hori % 51,9ra jaisten da etniari dagokionez, alderdi hori kasu larriekin lotzen baita argiago, eta kasu mota horretan 2010ean gehien aipatzen dena da (% 72,8; larritasunik txikieneko zirkunstantzietan, aldiz, % 32,8). Gauza bera gertatzen da erlijioari edo kulturari dagokionez, kasu orokorren % 38an aipatu baita, baina kasu larrien % 51,4an.

Gizarte- edo geografia-jatorriak, arrazak, etniak, kulturak, hizkuntzak, erlijioak edo atzerritar-izaerak eragindako gizarte-bazterketako arazoak dituen biztanleria, eta arazoa eragin duten faktoreak.

2006. eta 2010. urteak

(faktore bakoitza azaltzen den kasuen %)

Bazterketa-alderdiak	2006	2010		
	Bai, larriak	Bai, larriak	Bai, larriak ez	Arazoekin
Etnia	78,6	72,8	32,8	51,9
Jatorria	85,5	63,9	94,6	80,0
Hizkuntza	29,9	19,9	30,8	25,6
Erljioa edo kultura	10,9	51,4	25,6	38,0

Oharra: 2006an, galdera kasu larriei soilik aplikatu zitzairen. Erantzun osoak soilik hartu dira kontuan

5.4. Harreman pertsonaletan eta gizarte-harremanetan gizarte-arazo larriren bat duten pertsonak

Laburpen gisa, GZEE-GPIak gizarte-arazo larriren baten presentzia aztertu du, hain zuzen ere EAEko biztanleriari dagokionez orain arte aintzat hartutako ezaugarri edo zirkunstantzia pertsonaletako bati lotutako gizarte-arazo larriren baten presentzia (horretaz gain, barneratzeari edo espetxeratzeari lotutako egoerak hartu ditu aintzat eta familia-banantzeari lotutako arazoak bakardade- edo tristura-pertzepzioa dakartenetara mugatu dira).

Datuek adierazten dutenez, 59.257 pertsonak —EAE n bizi den biztanleriaren % 2,72k— gizarte-arazo larrietako bat dute aintzat hartu diren harreman pertsonalei, familia-harremanei eta gizarte-harremanei dagokienez. Datu horiek goranzko joera argia izan dela erakusten dute, eraginpean hartutako pertsonen kopurua % 12,7 igo delako (52.590 pertsona 2006an; eraginak biztanleria osoaren % 2,45ari eragin zien urte hartan).

Harreman pertsonaletan, familia-harremanetan eta gizarte-harremanetan gizarte-arazo larriren bat duen biztanleria. 2006. eta 2010. urteak
(Datu absolutuak eta eragina %-tan)

Arazoak dituen biztanleria	2006	2010
Datu absolutuak	52.590	59.257
Eragina (%)	24,5	27,2

Aztertutako arrisku-taldeari dagokionez, honako alderdi nagusi hauek nabarmendu behar dira:

* Aztertutako problematiken eragina handiagoa izan da emakumeen artean (% 30,2; gizonen artean, berriz, % 23,9), eta kasuen % 57,7 emakumeei dagokie. Proporzio hori, ordea, jaitsi egin da 2006ko % 60,8arekin alderatzen badugu, eta hori hertsiki lotuta dago arazo pertsonalen, familia-arazoen eta gizarte-arazoen eragina neurri handiagoan igo delako gizonen artean 2006-2010 laurtekoan (% 19,7tik % 23,9ra; emakumeen kasuan, aldiz, % 29,1etik % 30,2ra igo da).

- * Kontuan hartutako arazoaren eragina igo egin da, oro har, adinarekin, 65 urtetik aurrera batez bestekoa baino nabarmen handiagoa izanik: ‰ 38,8 65-74 urtekoen artean eta ‰ 74,8 75 urtetik aurrerakoan artean (2006an zifra ‰ 37,7 eta ‰ 65,5 izan ziren, hurrenez hurren). Nabarmenezkoa da, nolahi ere, aintzat hartutako problematikek 25-34 urteko pertsonen artean eragin handia izaten jarraitzen dutela, 65 urtetik gorakoan bezala, adin-talde horrek ere arazoaren ‰ 30,3 gaitu duelako 2010ean (‰ 30,3; 2006an ‰ 24,5 izan zen). 2010ean, 45-54 urteko pertsonen taldea EAeko batez besteko orokorraren gainetik kokatu da, igoera ‰ 17,7tik ‰ 27,5era bitartekoa izanik azken lau urteetan.

Aintzat hartutako arazoek 55-64 urtekoen artean izandako jaitsierari eta 65-74 urtekoen taldean izandako nolabaiteko egonkortasunari kontrajarriz, EAeko adierazle orokorrean ikusitako goranzko joera 75 urtetik gorako pertsonengan ikusitako igoerarekin lotzen da, baita 55 urtetik beherakoetan aintzat hartutako problematikaren eragina handiagoa izatearekin ere. Adin horietan dauden pertsonak kasuen % 47,9 izan ziren 2006an, eta 2010ean berriz, % 55,2 izan dira; 55-74 urtekoen garrantzia, aldiz, % 27tik % 18,2ra jaitsi da. 75 urtetik gorako pertsonen proportzioa, bestalde, % 25,1 izatetik % 26,6 izatera igaro da.

- * Oro har, ikusi da arazoek eragin handiagoa izan dutela pertsona nagusien (‰ 38,3) eta etxearen unitateko beste kide batzuen artean (‰ 78,5; kasu horretan, 2006ko ‰ 54,9aren gainetik nabarmen). Aintzat hartutako arazoaren eragina ‰ 18 da ezkontideen edo bikotekideen artean eta ‰ 13,2 seme-alaben artean, gizarte-babesik handiena duen taldean, alegia. Pertsona nagusien artean problematikaren eragina egonkortu egin da (2006an ‰ 38,4 izan zen); ezkontide edo bikotekideen artean, aldiz, eragina nabarmen igo da 2006. urtekoaren aldean (‰ 15,3 urte hartan), eta, bereziki, semeen eta alaben kasuan (‰ 8,4 2006an).
- * Aztertutako problematikek eragin handia izan dute atzerritarren artean. Estatuko biztanleriaren ‰ 21,3k aipatu du aztertutako arazo larrietakoren bat izan duela; proportzio hori, aldiz, ‰ 113 da atzerritarren artean. Zifra hori 2006ko ‰ 125a baino zertxobait txikiagoa den arren –Estatuko biztanleriaren kasuan ‰ 19,5eko igoera izan da–, Euskadiko atzerritarren bolumena igo egin denez gero, talde horrek aztertutako arazoaren eraginpean dauden pertsona guztiengan duen garrantzia 2006ko 24,1etik 2010eko % 26,5era igaro da.

- * Mugaren edo mendetasunaren eraginari dagokionez, ikusten da mendetasun berezia duten pertsonen ‰ 152,5ek duela kontuan hartutako arazoren bat, eta muga txikiak dituzten pertsonen artean, proportzio hori ‰ 73,9 da oraindik. Bi kasuetan, goranzko joera nabarmendu da 2006ko zifren aldean (‰ 141,6 eta ‰ 70,8, hurrenez hurren). Proportzioa osasunari edo adin aurreratuari lotutako mugarik gabeko pertsonen ‰ 16,5era mugatu da, nahiz eta kasu horretan ere 2006ko ‰ 14,7ko zifra baino handiagoa den. Oro har, arazo pertsonal, familia-arazo eta gizarte-arazo larriak dituzten pertsona guztien % 45,9k osasunari edo adin aurreratuari lotutako muga pertsonal motaren bat du.

- * Aztertutako problematikak hertsiki lotuta daude kolokatasun ekonomikoarekin. Hortaz, oinarritzko gabezia-arazorik gabeko etxekoen unitateetan bizi diren pertsonen kasuen ‰ 18,3ri kontrajarririk, eragina % 59,9 da gabezia-egoerak dauden kasuetan, oinarritzko premiak estaltzearekin lotutako alderdi partzialei dagokionez eta ‰ 225 gabezia mota hori dimentsioaniztuna denean. Argi dago azken kasu horretan joera goranzkoa izan dela, 2006an ‰ 169,1 izan baitzen; aitzitik, gainerako gizarte-taldeetan eragin horrek behera egin du edo egonkorra izan da.

Jardueraren eta lan egonkor bat lortzeko aukeraren aldagaian ere desbedintasunak agertu dira. Pertsona guztiak landun egonkorrek diren etxekoen unitateetako pertsonen kasuan, ‰ 11,2 eskaseko eragina izan da, eta lan egonkorreko eta ezegonkorreko egoerak uztartzen direnean ‰ 18koa, baina proportzio hori ‰ 23,5era igo da lan egonkorreko egoeraren bat izateaz gain, langabeak daudenean. Hala eta guztiz ere, lan egonkorretik erabat kanpo dauden pertsona aktiboak dauden etxekoen unitateetako pertsonen kasuan zifrek gora egiten dute. Izan ere, zifra horiek ‰ 50,5era iritsi dira langabeen eta landun ezegonkorren kasuan, eta ‰ 62,7ra langabeak soilik dauden kasuan. Zifrarik handiena (‰ 67,8) pertsona aktiborik gabeko etxekoen unitateetako biztanleriari dagokio, ordea.

Harreman pertsonaletan, familia-harremanetan eta gizarte-harremanetan gizarte-arazo larriren bat duen biztanleria, aldagai demografikoren arabera 2006. eta 2010. urteak
(Eragina erreferentziatzko taldean ‰-tan eta % bertikalak)

		2006		2010	
		Eragina	% ber.	Eragina	% ber.
Ahaidetasuna	Pertsona nagusia	38,4	57,5	38,3	52,7
	Ezkontidea edo bikotekidea	15,3	15,2	18,0	16,6
	Semea/Alaba	8,4	10,9	13,2	15,7
	Beste harremanen bat	54,9	16,3	78,5	15,0
Sexua	Gizona	19,7	39,2	23,9	42,3
	Emakumea	29,1	60,8	30,2	57,7
Adina	< 15 urte	7,2	4,1	8,5	5,0
	15-24 urte	17,8	7,6	22,1	7,2
	25-34 urte	24,5	15,0	30,3	14,1
	35-44 urte	16,8	11,1	21,1	13,2
	45-54 urte	17,7	10,2	27,5	15,6
	55-64 urte	26,4	13,1	13,5	5,8
	65-74 urte	37,7	13,9	38,8	12,4
	>75 urte	65,5	25,1	74,8	26,6
Nazionalitatea	Estatua	19,5	75,9	21,3	73,5
	Beste bat	125,0	24,1	113,0	26,5
Mendetasuna	Mendetasun berezia	141,6	31,7	152,5	31,9
	Beste mugaren bat	70,8	14,5	73,9	14,0
	Mugarik gabe	14,7	53,8	16,5	54,1
Guztira		24,5	100	27,2	100

Harreman pertsonaletan, familia-harremanetan eta gizarte-harremanetan gizarte-arazo larriren bat duen biztanleria, etxekoan unitatearen egoeraren arabera: gabezia-egoerak eta jarduerarekiko erlazioa 2006. eta 2010. urteak

(Eragina erreferentziatzko taldean ‰-tan eta % bertikalak)

		2006		2010	
		Eragina	% ber.	Eragina	% ber.
Gabezia	Dimentsioaniztuna, oinarrizko premiak	169,1	13,6	225,0	26,0
	Partziala, oinarrizko premiak	87,1	17,7	59,9	12,6
	Oinarrizko gabezia	110,3	31,3	118,5	38,5
	Gabeziarik gabe, edo aisian baino ez	18,1	68,7	18,3	61,5
Jarduerarekiko erlazioa	Aktiboak, denak landun egonkorak	9,9	20,2	11,2	20,6
	Aktiboak, denak landunak, baten bat egonkorra	15,5	10,0	18,0	8,0
	Aktiboak (langabeak edo landunak), baten bat egonkorra	20,3	6,5	23,5	9,0
	Aktiboak (langabeak edo landunak), bat ere ez egonkorra	57,3	18,7	50,5	15,4
	Aktiboak, guztiak langabeak	76,0	9,5	62,7	9,7
	Aktiborik gabe	55,2	35,1	67,8	37,1
Guztira	Guztira	24,5	100	27,2	100

6. POBREZIA ETA GABEZIA SOZIOEKONOMIKO OROKORRA

6.1 Mantenu-pobreziari buruzko adierazleak

6.1.1. Gabezia-adierazleak

GZEE-GPlak etxekoen unitateetako⁷ kolokatasun-egoera espezifikoak aztertu ditu, eta 2010ean honako datu esanguratsu hauek aipa daitezke:

- * 61.422 pertsona arazo ekonomikoak direla-eta azken hiru hilabeteetan bigarren eskuko arropetara jo behar izan duten etxekoen unitateetan bizi dira, EAeko guztizko biztanleriaren % 2,8 (2006an, berriz, % 2,3).

81.669 pertsona azken neguan berokuntza-sistema egokirik ez zutelako edo energia-gastuak murriztu behar izan dituztelako etxean hotza izan duten –batzuetan behintzat– etxekoen unitateetan bizi dira, hau da, guztizkoaren % 3,7 (2006an, berriz, % 2,6).

- * 97.660 pertsona azken hiru hilabeteetan elikadura-arazoak izan dituztela adierazi duten etxekoen unitateetan bizi dira. Pertsona horiek guztizkoaren % 4,5 dira, 2006ko % 3,4aren gainera. Igoera hori elikadura-arazo orokorrak (horrekin lotutako gose-arriskurik gabe) dituzten pertsonekin lotzen da batez ere (% 2,7tik % 3,7ra), eta gosea izateko arrisku-egoerei buruzko adierazleak egonkor jarraitu du (% 0,6 2006an eta % 0,7 2010ean). 15.965 pertsona arrisku handieneko egoeran dauden etxekoen unitateetan bizi ziren 2010ean.

- * 97.574 pertsona oinarrizko premiei aurre egiteko azken hamabi hilabeteetan arazoak izan dituztela adierazi duten etxekoen unitateetan bizi dira, hau da, EAeko guztizko biztanleriaren % 4,5.

- * 167.710 pertsona, EAeko biztanleriaren % 7,7, hirugarrenetikiko betebeharrei aurre egiteko eta/edo beren gastu-premiei aurre egiteko azken hiru hilabeteetan zailtasunak izan dituzten etxekoen unitateetakoak dira (2006an % 5,7).

⁷ Aipatutako alderdiak oinarrizko premiak betetzearekin lotutako arazoei buruzkoak dira; elikadura egokia lortzeko zailtasunak, bigarren eskuko jantziak erabiltzea, hotz-egoerak bizi izatea gastuak kontrolatzeko premiarekin lotuta daudenak, eta, azkenik, dituzten diru-sarrerekin hirugarrenetikiko betebeharrei eta ohiko gastu-premiei aurre egiteko mugak.

Ikusi den zailtasun nagusia aisia-gastuak murrizteko premiari lotuta dago; EAEko biztanleriaren % 7,3 dago egoera horretan. % 5,5 oinarritzko gastuen murrizketari aurre egin dieten etxekoen unitateetan bizi da, eta % 2,4 hirugarrenetikiko betebeharren aurrean ordaindu ez duten etxekoen unitateetan. % 1,3k oinarritzko hornigaien etenak jasan ditu, eta % 0,4k jabetzak saldu behar izan ditu etxekoen unitateko ohiko gastuei aurre egin ahal izateko.

Guztizko biztanleria, gabezia ekonomikoko berariazko zenbait adierazleren arabera. 2006. eta 2010. urteak
(Datu absolutuak eta biztanleriarekiko eragina, %-tan)

Gabezia ekonomikoko adierazleak	2006		2010	
	Abs.	Eragina	Abs.	Eragina
Arazoak premien estaldurari dagokionez (azken 12 hilabeteetan)	Daturik ez	Daturik ez	97.574	4,5
Elikadura-arazoak (azken 3 hilabeteetan)				
Gose-arriskurik gabe	58.353	2,7	81.695	3,7
Gose-arriskuarekin	13.906	,6	15.965	,7
Arazoekin	72.259	3,4	97.660	4,5
Bigarren eskuko arropak erabiltzea (azken 3 hilabeteetan)	48.581	2,3	61.422	2,8
Hotzak egon dira etxean (azken neguan)	55.840	2,6	81.669	3,7
Betebeharrei eta ohiko gastuei aurre egiteko zailtasunak (azken hiru hilabeteetan)	122.941	5,7	167.710	7,7
- Ez ordaintzea edo berandu ordaintzea	34.769	1,6	52.757	2,4
- Hornigai-eteteak	20.207	,9	28.302	1,3
- Aisia-gastuak murrizteko premia	118.846	5,5	158.683	7,3
- Oinarritzko gastuak murrizteko premia	77.451	3,6	119.258	5,5
- Jabetzen salmenta	5.861	,3	9.623	,4

Orain arte aipatutako zailtasun asko pertsona berengan gertatzen dira askotan, eta, beraz, ezinezkoa da aintzat hartutako elementu problematiko guztien batura egitea. Gabezia-egoeren azterketa ahalbidetzeko, biztanleriaren ekonomiari eusteko premiak estaltzearekin lotutako arazoaren adierazle sintetiko mugatu du GZEE-GPIak, biziraupenari eta gastuak betetzeari buruzko aldagai nagusiak —estatistikan aztertu direnak— kontuan izanik. Adierazle horri esker, biztanleria hainbat taldetan zati daiteke; txosten honetan, hiru talde handi hartuko dira kontuan oro har: a) oinarritzko premiak estaltzeko arazo dimentsioaniztunen eraginpean daudenak, pobrezia-arrisku handiko taldea; b) antzeko arazoaren eraginpean daudenak, baina soilik alderdi partzialetan, ongizaterik ezeko arrisku-egoerei lotuago daudenak; eta c) gabezia-arazorik ez duten edota aisian eta astialdian baino ez dituzten etxekoen unitateak eta pertsonak, ongizate handiagoko posizioan daudenak.

Gabezia dimentsioaniztuneko egoerek, oinarrizko premiak estaltzeari lotutako hainbat alderditan inplikazioak dituztenek, 68.373 pertsona hartu dituzte eraginpean 2010ean, hau da, EAEko guztizko biztanleriaren % 3,1. 124.368 pertsona, gainera, premia horiek betetzeari dagokionez gabezia partzialeko egoeran dauden etxekoen unitateetan bizi dira, hau da, biztanleriaren beste % 5,7. Oro har, 192.741 pertsonak oinarrizko gabeziaren bat jasan dute (EAEn bizi den biztanleriaren % 8,8).

24.069 pertsona beste gabezia-errealitate esanguratsu batzuk (hain oinarrizkoak ez diren premien estaldurarekin eksklusiboki lotuta daudenak, bereziki aisiaz eta astialdiaz gozatzeko testuinguruan) dituzten etxekoen unitateetan bizi dira (guztizko biztanleriaren % 1,1). Gainerako biztanleriak –% 90,1ek– ez du adierazi gabezia-arazorik duenik. Oro har, EAEn bizi den biztanleriaren % 91,2k ez du, beraz, oinarrizko gabezia-arazorik.

Aurreko datuen arabera, egoerak okerrera egin du azken lau urte hauetan. Gauzak horrela, 2006-2010 aldian ia bi puntu igo da (% 7tik % 8,8ra) oinarrizko premien estaldurari lotutako arazoaren baterako eragina EAEko biztanleriaren kasuan. Bestalde, arazo dimentsioaniztunak, pobrezia-errealitateekin zuzenago lotuta daudenak, igo egin dira EAEko guztizko biztanleria kontuan hartuta (% 2tik % 3,1era). Zifra absolututan, oinarrizko gabezia-arazo orokorreari dagokienez, eraginpean hartutako pertsona kopuruaren igoera % 29 da, eta % 61,8 arazo dimentsioaniztunei dagokienez.

Biztanleria, etxekoen unitateetan gabezia-egoerarik badagoen kontuan hartuta. 2006. eta 2010. urteak
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Gabezia-egoera	2006		2010	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Dimentsioaniztuna	42.269	2,0	68.373	3,1
Partziala oinarrizko alderdietan	107.118	5,0	124.368	5,7
Oinarrizko gabezia	149.387	7,0	192.741	8,8
Partziala, aisia-alderdietan	32.200	1,5	24.069	1,1
Gabezia bat ere ez	1.967.443	91,6	1.964.617	90,1
Guztira	2.149.030	100	2.181.427	100

Gabezia-egoeren eragin diferentziala talde demografikoen arabera aztertzen badugu, egiazta dezakegu oinarrizko gabezia modu desberdinen presentzia handiagoa dela emakume bat buru duten etxekoen unitateetan bizi diren pertsonen artean: eraginpean hartutako pertsonen % 12,4 (gizon bat buru duten etxekoen unitateetan, aldiz, % 8).

2006-2010 aldian, ordea, ikus daiteke gizonak buru dituzten etxekoen unitateen egoeraren okerragotze diferentziala izan dela. Oinarrizko gabeziaren problematiken eraginak egonkor jarraitu du, funtsean,

emakume bat buru duten etxekoen unitateetan, % 12tik % 12,4ra soilik igo baita, baina igoera hori % 5,9tik % 8ra bitartekoa izan da pertsona nagusia gizona duten etxekoen unitateen kasuan. Aldaketarik deigarriena egoera larrienei dagokie, problematika dimentsioaniztunak agertu diren kasuan: % 4,1etik % 4,4ra bitartekoa emakumeak buru dituzten etxekoen unitateetan bizi diren pertsonen artean, baina % 1,5etik % 2,8ra bitartekoa pertsona nagusia gizona duten etxekoen unitateetan. Horren ondorioz, erreferentziazko pertsona gizona duten etxekoen unitateetako pertsonen problematikek gora egin dute, bereziki gabeziarik larrienei dagokienez. Izan ere, problematika dimentsioaniztunei dagokienez, gizona buru duten etxekoen unitateen kasuan, biztanleriaren proportzioa % 63,1etik % 74,3ra igo da 2006-2010 aldian (% 69,5etik % 74,4ra oinarrizko gabezia-egoera guztiei dagokienez).

Bestalde, sendotu egin da gabezia-egoeren eta etxekoen unitateko pertsona nagusia oso gaztea izatearen arteko lotura, eta oinarrizko gabezia-arazoen eraginak behera egin du pertsona nagusiaren adinak gora egin ahala. 35 urtetik beherako pertsona bat buru duten etxekoen unitateetan bizi den biztanleriaren artean, proportzioa % 23,7ra iritsi da, eta eragina handia iza da, halaber, 35-44 urteko pertsonen etxekoen unitateetan: % 12,1. Adin horretatik aurrera, tasak nabarmen jaitsi dira: % 6 inguru 45-64 urteko pertsonak buru dituzten etxekoen unitateetan bizi den biztanleriaren kasuan, eta % 5,5 inguru 65-74 urteko etxekoen unitateen kasuan. Oinarrizko gabeziari dagokion proportziorik txikiena pertsona nagusiak 75 urte edo gehiago dituen etxekoen unitateetan bizi den biztanleriarena izan da: % 4,4.

Gazteria, gainera, pobreziarekin zerikusi handiagoa duten gabezia-egoerei lotuta dago. 35 urtetik beherako pertsonak buru dituzten etxekoen unitateetan, biztanleriaren % 12,6k oinarrizko gabezia dimentsioaniztuna jasan du; zifra hori % 4,3 izan da 35-44 urteko pertsonak dituzten etxekoen unitateetan. Adierazlea % 1,3tik % 1,9ra bitartekoa izan da 45-74 urtekoen artean, eta % 0,4ra iritsi da 75 urtetik gorako pertsonak dituzten etxekoen unitateetan.

Aurreko datuek erakusten dute etxekoen unitate gazteetan bizi diren pertsonen egoerak nabarmen egin duela okerrera 2006-2010 aldian. 35 urtetik beherako pertsona bat buru duten etxekoen unitateetan bizi den biztanleriaren kasuan, oinarrizko gabezia duten pertsonen proportzioa % 15,4tik % 23,7ra igo da 2006-2010 aldian, eta adierazle hori % 7,8tik % 12,6ra igo da problematika dimentsioaniztunen eraginari dagokionez. Era berean, gorakada hori deigarria da 35-44 urteko pertsonen etxekoen unitateetan bizi den biztanleriaren artean. Kasu horretan, oinarrizko arazoak dituzten pertsonen proportzioa % 8,4tik % 12,1era igo da, eta igoera hori % 1,8tik % 4,3ra bitartekoa izan da arazo dimentsioaniztunei dagokienez.

Era berean, ikusten da igoerak izan direla 45-74 urteko pertsona bat buru duten etxekoen unitateetako biztanleriaren kasuan (oinarrizko arazoen % 5,4tik % 6,2ra bitarte titularra 45-54 urtekoa bada, % 5,1etik

% 5,9ra bitartekoa titularra 55-64 urtekoa bada, eta % 3,2tik % 5,5era bitartekoa pertsona nagusiak 65-74 urtekoak badira). Baina igoera horiek kuantitatiboki txikiagoak izan dira, eta, gainera, eragin-tasak askoz ere txikiagoak izan dira, arazo dimentsioaniztunei dagokienez bereziki. 75 urtetik gorako etxekoek unitateetako pertsonen kasua, DBEaren hobekuntza ekonomikoen eta mendetasunari laguntzeko politikaren ondorioz, oinarrizko arazoek eragin-tasek behera egin dute 2006-2010 aldian (% 6,7tik % 4,4ra), eta arazo horien eragina % 5etik beherakoa izan da 2010ean.

Aurreko datuak ikusita, ez da harrigarria egiaztatzea heldu gazteak buru dituzten etxekoek unitateetan bizi diren pertsonen edukitzea gabezia-arazoek zati handi bat. Biztanleria osoaren % 8,9 besterik ez diren arren, oinarrizko gabezia-arazo orokorren % 23,7 bildu dute 2010ean 35 urtetik beherako bat buru duten etxekoek unitateek, eta oinarrizko premien estaldurari dagokionez, arazo dimentsioaniztunekin lotuta daudenen % 35,6.

Daturik esanguratsuenak, ordea, 45 urtetik beherako pertsona bat buru duten etxekoek unitateetako biztanleriari dagokio. Talde horrek (EAEko guztizko biztanleriaren % 33,5 da) gabezia-arazo orokorren % 57,6 biltzen du, eta proportzio hori % 69,6ra iristen da problematika dimentsioaniztunak aintzat hartzen direnean, 2006ko zifrekin alderatuta goranzko ildoan argi eta garbi (% 50,8 eta % 62,2, hurrenez hurren). Igoera hori 35-44 urteko pertsonak dituzten etxekoek unitateetan bizi den biztanleriaren kasuan gertatu da batez ere, eta 2006-2010 aldian horien proportzioa % 27,9tik % 33,8ra igaro da oinarrizko gabezia-egoera orokorrei dagokienez, eta % 20,9tik % 34ra arazo dimentsioaniztunei dagokienez.

Problematika bioaniztunen % 69,6 45 urtetik beherako pertsonak buru dituzten etxekoek unitateetako biztanleriak jasan ditu. Proportzioa % 24 izan da 45-64 urteko pertsonak dituzten etxekoek unitateetako biztanleriaren kasuan, eta % 6,4 65 urtetik gorako etxekoek unitateetako pertsonen kasuan. Intentsitatea txikiagoa bada ere, aldeak antzekoak izan dira oinarrizko gabezia-egoera guztiak aintzat hartzen direnean: % 57,6; % 28,8 eta % 13,7, hurrenez hurren.

Pertsona nagusia atzerritarra duten etxekoek unitateetan bizi den biztanleriak ditu bereziki oinarrizko gabezia-arazoak. Pertsona nagusia Estatuko herritarra den etxekoek unitateetan bizi den biztanleriaren kasuan, gabezia-egoerak % 6,1 izan dira; aitzitik, proportzio hori % 51,3ra iritsi da pertsona nagusia beste estatu batzuetako herritarra duten etxekoek unitateetan. Alde horiek berdinak dira gabeziarik larrienen kasuan; esaterako, atzerritarren etxekoek unitateetan pertsonen % 28k ditu arazo dimentsioaniztunak, eta Estatuko nazionalitatea duen pertsona bat buru duten etxekoek unitateetan, berriz, % 1,5ek. Alde horiek ikusita, ez da harrizkoa atzerritarren etxekoek unitateetan bizi diren pertsonen oinarrizko gabezia-problematikaren % 35,1 biltzea, guztizko biztanleriaren % 6 besterik ez diren arren. Gabezia

dimentsioaniztunak aintzat hartzen direnean, berriz, horien proportzioa % 54,1eraino iritsi da. Hortaz, gabezia-egoerarik larrienetan, eraginpeko bi pertsonatik bat baino gehiago atzerritarra da.

Bilakaera-datuen arabera, aintzat hartutako arazoek neurrizko igoera izan dute Estatuko biztanlerian. Oinarrizko gabezia-azaroen eragin orokorra, beraz, 2006ko % 5,4tik 2010eko % 6,1era igaro da; problematika dimentsioaniztunen eragina, bestalde, % 1etik % 1,5era igo da. Aitzitik, atzerritarren etxekoen unitateetan, oinarrizko gabezia-arazoak dituzten pertsonen proportzioa % 38,8tik % 51,3ra igo da; arazo dimentsioaniztunak dituztenena, aldiz, % 21etik % 28ra. Aipatutako joeren ondorioz, atzerritar baten mende dagoen biztanleriak gabezia-errealitateetan duen proportzioak gora egin du. Krisiak gehiago eragiten diola, atzerritarren etxekoen unitateetako biztanleria oinarrizko gabezia-kasuen % 25,9 izatetik % 35,1 izatera igaro da 2006. urtetik 2010. urtera. Problematika dimentsioaniztun larriagoen kasuan, erreferentziazko biztanleriaren proportzioa % 49,4tik % 54,1era igaro da.

Bestalde, nabarmena da lan egonkorra lortzeko aukerak duen garrantzia oinarrizko gabezia-egoerei aurrea hartzeko mekanismo gisa. Gauzak horrela, posizio okerrenetan, % 4,5etik zertxobait goragoko zifrak daude pertsona guztiak ez-aktiboak diren edo pertsona aktibo guztiak modu egonkorrean lanean ari diren etxekoen unitateetan bizi den biztanleriaren artean. Kontrako muturrean, oinarrizko gabezia-egoerak dituzten etxekoen unitateetan bizi diren pertsonen proportzioa % 30 inguru izan da etxekoen unitateetan landun egonkor bakar bat ere ez dagoenean eta langabeak daudenean. Etxekoen unitateetan landun egonkorren bat dagoen kasuan eta kolokako beste okupazio-egoera batzuetan, tarteko errealitate bat izan da, egoera onenean dagoen muturretik hurbilago dagoena, hala ere. Zirkunstantzia horietan, oinarrizko gabeziaren eragina % 8,4 izan da aktibo guztiak lanean, baina baten bat modu ezegonkorrean, ari direnean, eta % 10,5 aktiboetako bat langabea denean.

Lan-kolokatasunaren eragina askoz ere deigarriagoa da problematika dimentsioaniztunak aintzat hartzen direnean. Izan ere, aktibo guztiak langabezian dauden etxekoen unitateetan eraginpean hartutakoen kopurua % 13,2 izan da, eta aktibo guztiak langabeak edo landun ezegonkorrak dituzten etxekoen unitateetan, erriz, % 15,1 (% 3tik hurbil edo hortik behera dauden zifrekin kontrastean, gutxienez landun egonkor bat duten etxekoen unitateetan edo etxekoen unitatea osatzen duten pertsona guztiak ez-aktiboak direnetan).

Nolanahi ere, bilakaera-datuen ezaugarri bereizgarria langileen baldintzak okerrera nabarmen egin izana da. Ildo horretan, 2006-2010 aldian igo egin da oinarrizko gabeziaren adierazlea landunak dauden kasu guztietan, baita aktibo guztiak modu egonkorrean lanean ari diren etxekoen unitateetan bizi den biztanleriaren kasuan ere (% 3,8tik % 4,7ra). Igoera deigarriena landunak (baina guztiak ez dira

egonkorrak) dauden etxekoen unitateetan gertatu da, igoerak 4 puntutik 5 puntura bitartekoak izan baitira oinarrizko gabezia-egoeren eraginari dagokionez 2006-2010 laurtekoan.

Landunak dituzten etxekoen unitate horietan, igoera hori, oro har, txikiagoa izan da $-0,8$ puntutik $1,5$ puntura bitartekoa— gabezia dimentsioaniztuneko moduei dagokionez. Salbuespen bakarra landunen bat duten baina horietako bakar bat ere landun egonkorra ez den etxekoen unitateei dagokie; kasu horretan, gabezia dimentsioaniztuneko arazoak dituzten pertsonen proportzioaren eragina 4 puntu igo da 2006-2010 aldian: % $11,1$ etik % $15,1$ era.

Paradoxikoa bada ere, igoera hori eta landunik ez duten etxekoen unitateetan dauden oinarrizko gabezia-arazoen eraginaren jaitsiera aldi berean gertatzen dira. Gabezia-arrisku handiko taldearen ezaugarriak aipatzerakoan, ikusten da jaitsiera hori handia izan dela, baina kualitatiboki ez dela erabakigarria izan aktibo guztiak langabeak dituzten etxekoen unitateen kasuan (% $34,5$ etik % $30,4$ ra oinarrizko gabeziaren adierazle orokorraren kasuan, eta % $14,3$ tik % $13,2$ ra bitartekoa adierazle dimentsioaniztunear). Ez da gauza bera gertatzen ez-aktiboak dituzten etxekoen unitateetan. Kasu horretan, jaitsierak (% $6,1$ etik % $4,6$ ra bitartekoa gabezia-adierazle orokorraren kasuan eta % $1,2$ tik % $0,6$ ra bitartekoa problematika dimentsioaniztunei dagokionez) finkatu egin du etxekoen unitate mota hori 2006an bereizten zuen gabezia konparatibo txikiagoaren posizioa.

Aurreko datuek egoera nabarmen bat azaltzen dute: gutxienez landun bat duten etxekoen unitateetako biztanleriak oinarrizko gabezia-arazoak dituen biztanleriaren artean garrantzi nagusia duela, eta, gainera, garrantzi hori gorantz doala (gutzizkoaren % $77,7$ 2010ean, 2006ko % $71,2$ aren gainetik; azken zifra hori ere handia izan zen). Proportzio hori are handiagoa da arazo dimentsioaniztunak aintzat hartzerakoan, egoera horretan dauden eta gutxienez pertsona bat landuna den etxekoen unitateetan bizi diren pertsonak % $79,4$ baitira; zifra hori nabarmen handitu da 2006ko % $68,6$ arekin alderatzen badugu.

Hain zuzen ere, langabeziarekin gabezia-arriskua nabarmen areagotzen den arren, eraginpeko pertsona gehienek kasuan —baita arazo dimentsioaniztunen kasuan ere— etxekoen unitateko kideren batek parte hartzen du produkzio-sisteman. Gainera, joera da gabezia-egoeretan talde horren garrantziak gora egitea epe ertainean.

Guztizko biztanleria, pertsona nagusiaren sexuaren, adinaren eta nazionalitatearen eta jarduerarekiko erlazioari dagokionez etxeko unitatearen egeberaren ondoriozko oinarritzko gabezia-egoeren arabera. 2006. eta 2010. urteak
(Eragina erreferentziazko taldean %-tan)

		2006			2010		
		Oinarritzko gabezia			Oinarritzko gabezia		
		Dimentsio-aniztuna	Partziala oinarritzko alderdietan	Oinarritzko gabezia	Dimentsio-aniztuna	Partziala oinarritzko alderdietan	Oinarritzko gabezia
Sexua	Gizonak	1,5	4,4	5,9	2,8	5,2	8,0
	Emakumeak	4,1	7,9	12,0	4,4	8,0	12,4
Adina	< 35 urte	7,8	7,5	15,4	12,6	11,1	23,7
	35-44 urte	1,8	6,6	8,4	4,3	7,8	12,1
	45-54 urte	1,5	3,9	5,4	1,7	4,4	6,2
	55-64 urte	,8	4,3	5,1	1,9	4,0	5,9
	65-74 urte	1,1	2,1	3,2	1,3	4,2	5,5
	>75 urte	,9	5,8	6,7	,4	4,1	4,4
Nazionalitatea	Estatukoa	1,0	4,4	5,4	1,5	4,6	6,1
	Beste bat	21,0	17,9	38,8	28,0	23,2	51,3
Jarduerarekiko erlazioa	Aktiiboak, denak landun egonkorak	,2	3,6	3,8	1,3	3,4	4,7
	Aktiiboak, denak landunak, baten bat egonkorra	1,5	2,9	4,5	2,3	6,1	8,4
	Aktiiboak (langabeak edo landunak), baten bat egonkorra	1,6	4,2	5,7	3,1	7,4	10,5
	Aktiiboak (langabeak edo landunak), bat ere ez egonkorra	11,1	12,8	23,9	15,1	14,0	29,1
	Aktiiboak, guztiak langabeak	14,3	20,3	34,5	13,2	17,3	30,4
	Aktiiborik gabe	1,2	4,9	6,1	,6	4,0	4,6
Guztira		2,0	5,0	7,0	3,1	5,7	8,8

Guztizko biztanleria, pertsona nagusiaren sexuaren, adinaren eta nazionalitatearen eta jarduerarekiko erlazioari dagokionez etxeen unitatearen egoeraren ondoriozko oinarrizko gabezia-egoeren arabera. 2006. eta 2010. urteak
(% bertikalak)

		2006			2010		
		Oinarrizko gabezia			Oinarrizko gabezia		
		Dimentsio- aniztuna	Partziala oinarrizko alderdietan	Oinarrizko gabezia	Dimentsio- aniztuna	Partziala oinarrizko alderdietan	Oinarrizko gabezia
Sexua	Gizonak	63,1	72,1	69,5	74,3	74,5	74,4
	Emakumeak	36,9	27,9	30,5	25,7	25,5	25,6
Adina	< 35 urte	41,3	15,6	22,9	35,6	17,2	23,7
	35-44 urte	20,9	30,6	27,9	34,0	33,7	33,8
	45-54 urte	18,1	18,3	18,2	13,3	18,9	17,0
	55-64 urte	7,6	16,6	14,1	10,6	12,4	11,8
	65-74 urte	6,7	5,1	5,5	4,9	8,6	7,3
	>75 urte	5,4	13,8	11,4	1,5	9,1	6,4
Nazionalitatea	Estatukoa	50,6	83,4	74,1	45,9	75,4	64,9
	Beste bat	49,4	16,6	25,9	54,1	24,6	35,1
Jarduerarekiko erlazioa	Aktiiboak, denak landun egonkorrak	4,9	36,0	27,2	20,1	29,8	26,4
	Aktiiboak, denak landunak, baten bat egonkorra	12,4	9,2	10,1	8,9	13,0	11,6
	Aktiiboak (langabeak edo landunak), baten bat egonkorra	6,2	6,5	6,4	10,3	13,6	12,4
	Aktiiboak (langabeak edo landunak), bat ere ez egonkorra	45,2	20,6	27,5	40,0	20,4	27,4
	Aktiiboak, guztiak langabeak	22,1	12,4	15,1	17,7	12,8	14,5
	Aktiborik gabe	9,3	15,3	13,6	3,0	10,4	7,8
Guztira		100	100	100	100	100	100

6.1.2. Etxekoen unitateko gastuei aurre egiteko ahalmena

Mantenu-pobreziaren azterketari dagokionez, etxekoen unitateek beren gastuei aurre egiteko duten ahalmenari buruzko informazioa ematen du GZEE-GPIak, nola hileroko ohiko gastuei hala ezustean sor daitezkeen gastuei (hala nola etxetresna elektrikoak edo altzariak aldatu beharra, autoa erostea eta abar) dagokienez.

6.1.2.1. Ohiko gastuak direla-eta zorpetzeko arriskua

GZEE-GPIak etxekoen unitateetako ohiko gastuei aurre egiteko zailtasunak eta horri lotutako zorpetze-arriskua aztertu ditu, ohiko gastuak baino diru-sarrera txikiagoak dituzten etxekoen unitateei dagokionez honako hauek kontuan izanik: aldeztatik aurreztutakoa erabiltzeko aukera, eta aurrezki horiek nahikoak ote diren diru-sarreraren eta gastuen arteko desorekari aurre egiteko.

2010ean, 97.770 pertsona bizi dira beren gastuak baino diru-sarrera txikiagoak dituzten etxekoen unitateetan. Horien artean, 89.487 pertsonak ez dute diru-sarreraren eta gastuen artean dagoen desorekari erantzuteko ahalmenik, bai aurrezki ez dutelako, bai aurrezkiak behar adinakoak ez direlako. Guztizko biztanleriaren % 4,1 hori, beraz, zorpetze-arriskuan dago, gastuaren oinarritzko premiak betetzeari aurre egiteko ezintasunagatik.

Nabarmendu behar da zifra horiek erakusten dutela modu esanguratsuan hobetu dela egoera 2006an eraginpean hartutako 102.828 pertsonekin alderatuta, zifra horiei dagokienez % 13ko jaitsiera izan baita. Izan ere, eraginpeko pertsonen proportzioa % 4,8tik % 4,1era jaitsi da 2006-2010 aldian. Dimentsio horretan, krisiaren eragina honako honetan soilik ikusten da: 69.918tik 72.270era igo da diru-sarreraren eta gastuen artean desoreka duten etxekoen unitateetan bizi direnen kopurua (aurrezki gabe). Talde horren eragin erlatiboak, ordea, % 3,3an jarraitu du 2006-2010 aldian.

Biztanleria, etxekoen unitateak beren ohiko gastuei aurre egiteko duen ahalmenaren arabera.
2006. eta 2010. urteak
Diru-sarreraren eta gastuen eta eskuragarri dauden aurrezkien arteko desoreka
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Diru-sarreraren/gastuen eta eskuragarri dauden aurrezkien arteko desoreka	2006		2010	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Desoreka, aurrezki gabe	69.918	3,3	72.270	3,3
Desoreka, nahikoa aurrezki gabe	32.909	1,5	17.217	,8
Desoreka, nahikoa aurrezki	22.725	1,1	8.284	,4
Diru-sarrerak gastuak baino txikiagoak	125.552	5,8	97.770	4,5
Diru-sarrerak gastuak baino handiagoak	2.023.477	94,2	2.083.657	95,5
Guztira	2.149.030	100	2.181.427	100

Zorpetze-arriskua –eskuragarri dauden aurrezkiek konpentsatzen ez duten diru-sarrereren eta gastuen arteko desorekak definitzen duena– hertsiki lotuta dago oinarrizko gabezia-egoerekin eta horien larritasunarekin. Arrisku-egoerak gabezia-arazo dimentsioaniztunak dituzten etxekoek unitateetan bizi diren pertsonen % 64,9ri eta oinarrizko gabezia-arazo partzialak dituzten etxekoek unitateetan bizi diren pertsonen % 14,9ri eragiten die (azken zifra hori gabezia aisiarekin lotzen den etxekoek unitateetan bizi diren pertsonen kasuan ikusitako % 16,8ko zifratik hurbil dago). Adierazlea % 1,1 besterik ez da izan gabezia motarik gabeko etxekoek unitateetan.

Bilakaera-datuak bereziki interesgarriak dira. Alde batetik, 2006-2010 aldian ikusten da arriskuan dauden etxekoek unitateetan bizi diren pertsonen proportzioa nabarmen murriztu dela gabezia mota bakar bat ere ez dagoenean, baita gabezia oinarrizko premiak estaltzearekin lotutako alderdi partzialetara mugatzen denean ere. Lehen kasuan, zorpetze-arriskua % 2,6tik % 1,1era jaitsi da, eta bigarreanean, aldiz, % 23,6tik % 14,9ra. Azken egoera horretan, jaitsierak erakusten du diru-sarrereren eta gastuen artean egokitzeko joera dagoela egokitze horrek oinarrizko premien estaltze integralaren ahalmenean modu negatiboan eragiteko joera duen etxekoek unitateen multzo batean.

Bestalde, ordea, krisialdiak zorpetze-arriskua areagotzea eragin du hainbat taldetan. Gauzak horrela, arriskua % 9,9tik % 16,8ra igo da aisia lortzeko aukerari lotutako gabezia-arazoak soilik erakusten dituzten etxekoek unitateetan; talde horren zorpetze-arriskuaren igoera gabeziak gastu-mailan duen eragina ahalik eta gehien mugatzeko ahaleginari lotuta dago beharbada. Arriskua igo den bigarren taldea oinarrizko premien estalduran arazo dimentsioaniztunak dituzten etxekoek unitateena da, eta kasu horretan % 52,6tik % 64,9ra igo da arriskuan dauden etxekoek unitateen proportzioa.

Biztanleria, etxekoek unitateak beren ohiko gastuei aurre egiteko duen ahalmenaren eta gabezia-egoeren arabera.
2006. eta 2010. urteak
Diru-sarrereren eta gastuen eta eskuragarri dauden aurrezkien arteko desoreka
 (% bertikalak)

	Diru-sarrereren/gastuen eta eskuragarri dauden aurrezkien arteko desoreka	Dimentsioaniztuna	Partziala oinarrizko alderdietan	Oinarrizko gabezia	Partziala, aisia-alderdietan	Gabezia bat ere ez
2006	Desoreka, aurrezkirik gabe	40,9	16,1	23,1	9,9	1,6
	Desoreka, nahikoa aurrezkirik gabe	11,7	7,5	8,7	,0	1,0
	Desoreka, nahikoa aurrezki	2,4	3,2	3,0	1,1	,9
	Diru-sarrerak txikiagoak	54,9	26,9	34,8	11,0	3,6
	Diru-sarrerak handiagoak	45,1	73,1	65,2	89,0	96,4
	Guztira	100	100	100	100	100
2010	Desoreka, aurrezkirik gabe	52,4	12,3	26,5	7,8	1,0
	Desoreka, nahikoa aurrezkirik gabe	12,6	2,6	6,1	9,0	,2
	Desoreka, nahikoa aurrezki	2,4	,1	,9	,3	,3
	Diru-sarrerak txikiagoak	67,3	15,1	33,6	17,1	1,5
	Diru-sarrerak handiagoak	32,7	84,9	66,4	82,9	98,5
	Guztira	100	100	100	100	100

6.1.2.2. Ezohiko gastuei eta ezustekoei aurre egiteko ezintasuna

EAEko biztanleriaren ahalmen ekonomikoaren balioespena zehaztuta geratzen da ezohiko gastuei aurre egiteko etxekoen unitateek duten maniobra-marjina aintzat hartuta. Etxetresna elektrikoak, altzariak, autoa edo antzeko beste ondasun batzuk aldatzeko premiari lotutako ezustekoak aintzat hartzerakoan, sor litezkeen ezohiko gastuei aurre egiteko ahalmenik ez duten etxekoen unitateetan 516.403 pertsona bizi dira, EAEko biztanleriaren % 23,7. Proporzio horrek gora egin du 2006ko % 21,9ko zifrarekin alderatzen badugu, eta eraginpean hartutako pertsonen kopurua % 9,6 igo da 2006an aztertutako 471.047 kasuekin alderatzen badugu.

Biztanleria, etxekoen unitateak ezusteko gastuei aurre egiteko duen ahalmenaren arabera. 2006. eta 2010. urteak
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Ahalmena	2006		2010	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Bai	1.677.983	78,1	1.665.024	76,3
Ez	471.047	21,9	516.403	23,7
Guztira	2.149.030	100	2.181.427	100

Gabezia-egoeraren baten agerpena erabakigarria da, eta gaur egun oinarrizko gabezia-arazoak dituzten etxekoen unitateen % 85,1ek adierazi du etorkizunean ezusteko gastuak sortzen bazaizkio ezin izango diela aurre egin, eta proporzio horrek gora egin du 2006ko % 78,9arekin alderatuta. Zifra hori % 71,2 da aisiari lotutako gabezia-arazoak dituzten etxekoen unitateei dagokienez (2006an % 77).

Gaur egun gabezia-egoeraren bat ez duten etxekoen unitateetan bizi direnen proporzio hori askoz ere txikiagoa da, baina % 17,1 da oraindik ere (2006an % 16,7). Datu horren arabera, ezustekoren bat gertatzen bada, arrisku-maila handia da arrazoi ekonomikoek eragindako gabezia-arazo larririk ez duen EAEko biztanleriaren zati handi batean.

Biztanleria, etxekoen unitateak ezusteko gastuei aurre egiteko duen ahalmenaren eta gabezia-egoeren arabera. 2006. eta 2010. urteak
(% horizontalak)

Gabezia-egoerak	2006		2010	
	Bai	Ez	Bai	Ez
Dimentsioaniztuna	4,0	96,0	3,6	96,4
Partziala oinarrizko alderdietan	27,8	72,2	21,1	78,9
Oinarrizko gabezia	21,1	78,9	14,9	85,1
Partziala, aisia-alderdietan	23,0	77,0	28,8	71,2
Gabezia bat ere ez	83,3	16,7	82,9	17,1
Guztira	78,1	21,9	76,3	23,7

6.2. Etxebizitzari lotutako problematikak

6.2.1. Etxebizitza-gastuen presioa etxeko unitateetan

EAEko biztanleriaren % 41ek adierazi du bere hileko diru-sarreraren % 30 baino gehiago etxebizitzaren ohiko gastuak –amortizazioa, alokairua, argia, ura, komunitatea eta abar– ordaintzeko erabiltzen duela. Zifra horrek esan nahi du 2006ko % 37,5arekin alderatuta igoera nabarmena izan dela, eta inplikaturako pertsonen kopurua % 11,1 igo da (2010ean 895.032; 2006an, aldiz, 805.535).

**Beren diru-sarreraren % 30 baino gehiago etxebizitza-gastuetarako erabiltzen dutela adierazi duten etxeko unitateetan bizi den biztanleria
2006. eta 2010. urteak
(Datu absolutuak eta % bertikalak)**

Diru-sarreraren % 30 baino gehiago etxebizitza-gastuetarako	2006		2010	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Bai	805.535	37,5	895.032	41,0
Ez	1.343.495	62,5	1.286.396	59,0
Guztira	2.149.030	100	2.181.427	100

Aintzat hartutako pertsonen proportzioa handiagoa da edukitze-erregimen gisa alokairua duten etxeko unitateetan (% 79,1), baita jabetzako etxebizitza partzialki ordainduta dagoenetan ere (% 64,1). Jabetza hipotekatua kasuan, egonkor samar jarraitu du problematika horren eraginak (2006ko % 63,4tik 2010eko % 64,1era). Alokairuaren kasuan, aldiz, nabarmen igo da (% 69,5etik % 79,1era). Partzialki ordaindutako jabetzari dagokionez, alokairuaren ondoriozko gehiegizko gastu-arriskuaren diferentziala 2006ko 6,1 puntutik 2010eko 15 puntura igo da.

Diru-sarreraren % 30 baino gehiago etxebizitza-gastuetarako erabiltzen dutela adierazi duten etxeko unitateetan bizi den biztanleria, etxebizitzaren edukitze-erregimenaren arabera.

Edukitze-erregimena	2006		2010	
	Bai	Ez	Bai	Ez
Jabetza erabat ordaindua	21,9	78,1	21,7	78,3
Jabetza partzialki ordaindua	63,4	36,6	64,1	35,9
Alokairua, berralokairua eta partekatua	69,5	30,5	79,1	20,9
Doakoa edo lagatakoa	14,6	85,4	38,7	61,3
Guztira	37,5	62,5	41,0	59,0

Diru-sarreraren % 30etik gorako gastua eragiten duten etxebizitzarako ekarpenak hertsiki lotuta daude gabeziaren bat izatearekin. Izan ere, etxebizitza mantentzeko gastu-maila horri aurre egin behar dioten etzekoen unitateen artean, gabezia-arazorik gabekoak % 37,3 dira, baina proportzio hori % 64,4ra igo da aisiari lotutako gabezia duten etzekoen unitateetan, eta % 70,9ra oinarrizko alderdietan gabezia partzialak dituztenei dagokienez. Mailarik handiena gabezia dimentsioaniztunei dagokie: % 85,2.

Beraz, egiaztatzen da arriskuan dauden etzekoen unitateen zailtasun ekonomikoaren funtsezko osagaia dela gehiegizko etxebizitza-gastua. Errealitate horrek, gainera, gora egiteko joera du krisialdiaren testuinguruan. Gehiegizko etxebizitza-gastuaren adierazlea zertxobait igo da 2006-2010 aldian, gabeziarik ez duten etzekoen unitateetan (% 35,5etik % 37,3ra), eta % 58tik % 76 igo da oinarrizko gabezia horiek dituzten etzekoen unitateetan.

**Diru-sarreraren % 30 baino gehiago etxebizitza-gastuetarako erabiltzen dutela adierazi duten etzekoen unitateetan bizi den biztanleria, gabezia-egoeren arabera.
2006. eta 2010. urteak
(% horizontalak)**

Gabezia-egoerak	2006		2010	
	Sí	No	Sí	No
Dimentsioaniztuna	65,2	34,8	85,2	14,8
Partziala oinarrizko alderdietan	55,2	44,8	70,9	29,1
Oinarrizko gabezia	58,0	42,0	76,0	24,0
Partziala, aisia-alderdietan	66,4	33,6	64,4	35,6
Gabezia bat ere ez	35,5	64,5	37,3	62,7
Guztira	37,5	62,5	41,0	59,0

6.2.2. Etxebizitzari lotuta dauden metatze-pobreziaren adierazleak

GZEE-GPIak ez du aukerarik ematen metatze-pobreziari buruzko adierazle orokor bat izateko, etzekoen unitateen ondareari lotutako alderdiak aztertu gabe baitaude. Hala ere, metatze-pobreziaren adierazle orokorraren osagai nagusia den etxebizitza-arazoaren adierazle sintetiko bat zehazteko aukera ematen du.

2010eko emaitzek erakusten dutenez, EAEn okupatuta egon ohi diren etxebizitza gehienek (biztanleriaren % 64,5 biz da bertan) ez dute ekipamendu-arazorik, instalazio-gabeziarik edo egitura-arazorik, baina % 24,9k larritasun txikiagoko arazoak ditu. Biztanleriaren % 10,6k adierazi du, ordea, arazo esanguratsuak

dituela dimentsio horretan. Arazo horiek oso larriak dira, metatze-pobreziaren egoeraren berezkoak, beraz, kasuen % 1,6an; zirkunstantzia horrek 35.462 pertsona hartzen ditu eraginpean⁸.

Etxebizitzaren kalitateari buruzko adierazleei dagokienez, azken hamarkada honen bereizgarri izan den hobekuntzarako joerari eutsi zaio, nolana ere, 2006-2010 aldian. Bilakaera positibo hori ikusten da, beraz, kalitateko adierazle partzialetan eta eskuragarri dagoen adierazle sintetikoan. Izan ere, etxebizitza-arazo larriak edo oso larriak dituzten etxeen unitateetan bizi diren pertsonen proportzioa % 12,1etik % 10,6ra jaitsi da 2006-2010 aldian. Arazo oso larrien bilakaerak erakusten du jaitsiera are esanguratsuagoa dela, eraginpeko pertsonen proportzioa % 3,3 izatetik % 1,6 izatera igaro baita.

Guztizko biztanleria, etxebizitzako gabeziaren berariazko zenbait adierazleren arabera
(Datu absolutuak eta eragina %-tan)

Etxebizitza-gabezia	2006		2010	
	Abs.	Eragina	Abs.	Eragina
Ur beroko instalazioa	23.713	1,1	4.066	,2
Instalazio elektrikoa	2.524	,1	1.101	,1
Komun-ontzia	168	,0	0	,0
Bainu-ontzia edo dutxa	5.043	,2	1.129	,1
Berokuntza-sistema egokia	125.611	5,8	277.163	12,7
Hozkailua	2.547	,1	217	,0
Sukaldeko etxetresna elektrikoa	2.592	,1	0	,0
Arropa-garbigailua	7.865	,4	320	,0
Labea edo mikrouhin-labea	19.147	,9	15.605	,7
Koloretako tb	9.118	,4	2.457	,1
Telefonia	8.204	,4	12.754	,6
Hezetasun-arazoak	166.859	7,8	230.868	10,6
Azalera nahikoa ez	412.367	19,2	341.024	15,6
Zarata edo kutsadura	353.107	16,4	297.170	13,6
Iluna, argi urriarekin	117.831	5,5	80.417	3,7

Biztanleria, etxebizitzaren egokitasunaren pertzepzioaren arabera (erosotasunak, kontserbazio-egoera eta barruko dekorazioa/zaintza). 2006. eta 2010. urteak
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Etxebizitzaren egokitasuna	2006		2010	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Ez, ezin kasutan ez	18.398	,9	5.192	,2
Ez, ez da nahikoa	65.383	3,0	64.102	2,9
Maila onargarria, baina hobe daiteke	560.828	26,1	483.495	22,2
Maila egokia	1.504.421	70,0	1.628.637	74,7
Guztira	2.149.030	100	2.181.427	100

⁸ Metatze-pobreziaren benetako inpaktua aurkeztutako zifrek erakusten dutena baino txikiagoa izaten da normalean. Ildo horretan, pobrezia mota horrek eskatzen du etxebizitza-arazo oso larriez gain oso ondare-maila txikia izatea aztertutako etxeen unitateetan.

Biztanleria, etxebizitzako arazoen arabera (adierazle sintetikoa). 2006. eta 2010. urteak
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Etxebizitza-arazoak	2006		2010	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Oso larriak	71.400	3,3	35.462	1,6
Larriak	188.608	8,8	195.354	9,0
Larritasun txikiagokoak	572.402	26,6	543.591	24,9
Arazorik gabe	1.316.620	61,3	1.407.020	64,5
Guztira	2.149.030	100	2.181.427	100

Emakume bat buru duten etxeen unitateen % 11,5ek ditu etxebizitza-arazo larriak edo oso larriak; pertsona nagusia gizona denean, berriz, proportzioa % 10,4 da (% 2,3 eta % 1,5, aldiz, arazo oso larriei dagokienez). Pertsona titularra gizona duten etxeen unitateen kasuan, aintzat hartutako arazo eraginak behera egin du 2006-2010 aldian (% 12,3tik % 10,4ra, % 3,4tik % 1,5era bitarteko jaitsierarekin arazo oso larriei dagokienez), baina emakumeak buru dituzten etxeen unitateetan, % 11tik % 11,5era igo da arazo larrien eta oso larrien baterako eragina. Nolanahi ere, etxeen unitate horietan bizi diren pertsonen kasuan ikusten da, halaber, arazo oso larrien eragina jaitsi egin dela (% 3,2tik % 2,3ra).

2006an bezala, egiaztatu da arazo larriek eta oso larriek gora egin dutela adinak behera egin ahala. 65-74 urteko pertsonak dituzten etxeen unitateetako biztanleriaren % 6,7k adierazi du etxebizitza-arazo larriak edo oso larriak dituela; proportzio hori, aldiz, % 8,6 da etxeen unitateko buru direnak 55-64 urtekoak direnean, % 9,4 pertsona titularra 45-54 urtekoa dutenetan, eta % 12,7 35-44 urteko pertsonak dauden etxeen unitateekin lotutako biztanleriaren kasuan. Zifrarik handiena 35 urtetik beherako titularra duten etxeen unitateen kasuan ikusten da: eraginpean hartutako biztanleriaren % 18,7. Nolanahi ere, zifra hori 2006ko % 24,4ko zifra baino txikiagoa da argi eta garbi.

2006-2010 aldian adierazleak izandako jaitsiera orokorra izan da 75 urtetik beherako pertsonak bizi diren etxeen unitateetan, baina problematika horrek gora egin du adin gehiagoko taldeetan. Etxebizitza-arazo larrien edo oso larrien proportzioa % 7,5etik % 9,6ra igo da 75 urtetik gorako pertsonak dituzten etxeen unitateetan bizi den biztanleriaren artean. Talde horretan bakarrik ikusten da arazo eraginak ez duela behera egiten adinarekin, beste taldeen adierazlea gainditzen baita 45-74 urteko tartean. Era berean, talde horretan bakarrik ikusten da etxebizitza-arazo oso larrien problematikek goranzko joera izan dutela (% 1,7tik % 2,2ra), 35 urtetik beherako etxeen unitateetan ikusten den jaitsiera handiari kontrajarrita: % 14,5etik % 2,7ra bitarteko jaitsiera.

Dena dela, desorekarik handiena nazional/atzeritar dikotomiarekin gertatzen da oraindik ere. Etxebizitza-arazo larriak edo oso larriak dituzten etxeen unitateetan bizi diren pertsonen proportzioa % 9,4 da Estatuko herritar bat buru duten etxeen unitateen artean, eta % 28,7 pertsona nagusia atzeritarra duten etxeen unitateetan. Alderik esanguratsuen arazo oso larriei dagokie: Estatuko etxeen unitateen kasuan, eragina % 1,3 da; atzeritarren etxeen unitateen kasuan, aldiz, eraginpean hartutako pertsonen proportzioa % 6,4 da. Datu horiek ezin dute ezkutatu, ordea, azken urte hauetan atzeritarren etxebizitzetako bizi-baldintzak nabarmen hobetu direla. Arazo larrien eta oso larrien baterako eragina % 46,2tik % 28,7ra jaitsi da, eta arazo oso larriena, berriz, % 33tik % 6,4ra.

Guztizko biztanleria, etxebizitzako arazoen (adierazle sintetikoa), pertsona nagusiaren sexuaren, adinaren eta nazionalitatearen, eta jarduerarekiko erlazioari dagokionez etxekeen unitatearen egoeraren arabera. 2006. eta 2010. urteak
(% horizontalak)

		2006				2010			
		Etxebizitza-arazoak				Etxebizitza-arazoak			
		Oso larriak	Larriak	Larritasun txikiagokoak	Arazorik gabe	Oso larriak	Larriak	Larritasun txikiagokoak	Arazorik gabe
Sexua	Gizona	3,4	9,0	27,5	60,2	1,5	8,9	25,6	64,1
	Emakumea	3,2	7,9	22,6	66,4	2,3	9,2	22,0	66,5
Adina	< 35 urte	14,5	9,9	22,3	53,3	2,7	16,0	23,9	57,4
	35-44 urte	2,0	11,2	29,3	57,5	2,1	10,5	28,2	59,2
	45-54 urte	1,5	8,9	31,6	58,0	,7	8,7	27,1	63,5
	55-64 urte	3,3	8,6	24,9	63,2	1,3	7,3	25,6	65,8
	65-74 urte	1,5	6,1	25,6	66,8	1,6	5,1	20,6	72,7
	>75 urte	1,7	5,7	19,3	73,2	2,2	7,4	18,2	72,2
Nazionalitatea	Estatua	1,9	8,6	26,7	62,8	1,3	8,1	24,2	66,4
	Beste bat	33,0	13,2	25,0	28,8	6,4	22,3	36,7	34,6
Jarduerarekiko erlazioa	Aktiboak, denak landun egonkorak	2,0	8,1	27,1	62,8	1,3	7,5	25,8	65,4
	Aktiboak, denak landunak, baten bat egonkorra	5,1	11,3	31,4	52,2	1,1	11,9	27,4	59,7
	Aktiboak (langabeak edo landunak), baten bat egonkorra	2,8	14,4	26,0	56,8	2,3	9,5	26,6	61,6
	Aktiboak (langabeak edo landunak), bat ere ez egonkorra	12,4	9,6	29,1	48,9	2,2	14,6	28,4	54,8
	Aktiboak, guztiak langabeak	2,8	9,7	32,0	55,4	2,3	17,8	27,7	52,2
	Aktiborik gabe	1,4	4,8	18,4	75,4	2,2	5,2	16,2	76,4
	Guztira		3,3	8,8	26,6	61,3	1,6	9,0	24,9

Nabarmendu behar den alderdi bat da etxebizitza-arazo larriek eta oso larriek eragin handiagoa izan dutela 2010ean pertsona aktiboak izanik horietako bakar batek ere lan egonkorrik lortzen ez duen etzekoen unitateetako pertsonen artean. Eragin hori % 16,8 izan da langabeen edo landun ezegonkorren kasuan, eta % 20,1era iritsi da aktiboak langabeak diren kasuan. Zifrarik txikienak, ordea, % 7,4tik % 8,8ra bitartekoak izan dira ez-aktiboak edo aktiboak izanik guztiak landun egonkorrek diren etzekoen unitateetan. Landun egonkorren batek ez ezik aktibo langabeek edo landun ezegonkorrek osatzen dituzten etzekoen unitateetan, aintzat hartutako arazoen eragina, bestalde, % 12-13 izan da.

Arazo oso larrien eraginak ez du erakusten, ordea, alde handiak daudenik etzekoen unitateko pertsonen jarduerarekin duten erlazioaren arabera, zifrak % 1,1etik % 2,3ra bitartekoak baitira. Etxebizitza-arazo oso larriak dituen biztanleriaren barne-banaketa aintzat hartzen dugunean, deigarria da, ordea, biztanleria horren % 62,7, 2006ko % 60,9aren gaineratik, gutxienez pertsona bat landun egonkorra den etzekoen unitateetan bizi diren pertsonen osatzea.

Aipatu behar den beste datu bat da 45 urtetik beherako biztanleriaren garrantzia nabarmena izan dela: % 46,9, 45-64 urtekoen kasuan; aldiz, % 24,4, eta % 28,7 65 urtetik gorakoetan, baina 2006ko % 58,8arekin alderatuta, behera egin du. Atzerritarrez osatutako etzekoen unitateetako biztanleriaren kasuan arazo oso larrien diferentzialaren eragina gorabehera, bestalde, etxebizitza-arazo oso larrien % 76,1 Estatuko biztanleriaz osatutako etzekoen unitateekin lotzen da.

Etxebizitza-arazo oso larriak dituen biztanleria, pertsona nagusiaren sexuaren, adinaren eta nazionalitatearen eta jarduerarekiko erlazioari dagokionez etzekoen unitatearen egoeraren arabera (adierazle sintetikoa). 2006. eta 2010. urteak (% horizontalak)

		2006	2010
		Oso larriak	Oso larriak
Sexua	Gizonak	83,2	73,8
	Emakumeak	16,8	26,2
Adina	< 35 urte	45,1	14,5
	35-44 urte	13,7	32,4
	45-54 urte	10,5	10,3
	55-64 urte	19,2	14,1
	65-74 urte	5,3	11,5
	>75 urte	6,2	17,2
Nazionalitatea	Estatukoa	53,9	76,1
	Beste bat	46,1	23,9
Jarduerarekiko erlazioa	Aktiboak, denak landun egonkorrek	30,2	40,0
	Aktiboak, denak landunak, baten bat egonkorra	24,1	8,0
	Aktiboak (langabeak edo landunak), baten bat egonkorra	6,6	14,8
	Aktiboak (langabeak edo landunak), bat ere ez egonkorra	29,9	11,1
	Aktiboak, guztiak langabeak	2,6	5,9
	Aktiborik gabe	6,6	20,3
Guztira		100	100

6.3. Pobreziaren pertzepzio subjektiboa etzekoen unitatean

Pobreziaren pertzepzioari lotutako alderdiei dagokionez, ikusi da EAEko etzekoen unitateetan bizi diren 93.258 pertsonak —gutzizko biztanleriaren % 4,3— pobretzat edo pobre samartzat dutela beren burua. 28.122 pertsona, (EAEn bizi den biztanleriaren % 1,3) zentzu hertsian pobretzat definitzen diren etzekoen unitateetan bizi dira.

2006arekin alderatuta, eskuragarri dauden zifrek erakusten dute pobreziaren pertzepzio subjektiboa areagotu egin dela. Beren burua gutxienez zertxobait pobretzat hartzen duten etzekoen unitateetako biztanleriaren proportzioa % 3tik % 4,3ra bitartekoa izan da 2006-2010 aldian, eta % 44,2ko igoera izan da eraginpeko biztanleriaren kopuru absolutuan (64.677 pertsona izatetik 93.258 pertsona izatera). Igoera txikiagoa izan da beren burua zentzu zorrotzean pobretzat daukaten etzekoen unitateetan bizi den biztanleriaren kasuan; bestalde, egoera horretan dagoen biztanleriaren ehunekoa % 1etik % 1,3ra igo da erreferentziazko laurtekoan. Termino absolututan, etzekoen unitate mota horretan bizi diren pertsonen kopurua 22.563 izatetik 28.122 izatera igaro da, % 24,6ko igoerarekin.

Alabaina, 2008-2010 aldiko krisiaren eragin nagusia ez da arriskurik handieneko egoerarekin lotzen. Hartara, beren egoera erosotzat duten etzekoen unitateetako pertsonen proportzioa 2006ko % 58tik 2010eko % 52,3ra jaitsi da, ongizate-egoeraren pertzepzio subjektibo hori duten etzekoen unitateetan bizi diren pertsonen kopuruan % 8,5eko jaitsiera izanik. Horrekin batera, igo egin da moldatzen direla adierazten duten etzekoen unitateetan bizi diren pertsonen proportzioa, baina pobreziaren zuzeneko pertzepzioa alde batera utzita (gutzizkoaren % 39tik % 43,4ra 2006-2010 aldian).

Biztanleria, pobreziaren/ongizatearen eskalan etzekoen unitatean hautemandako posizioaren arabera. 2006. eta 2010. urteak

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Hautemandako pertzepzioa	2006		2010	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Pobrea	22.563	1,0	28.122	1,3
Pobre samarra	42.115	2,0	65.135	3,0
Gutxienez pobre samarra	64.677	3,0	93.258	4,3
Moldatzen dira	837.438	39,0	947.197	43,4
Erosoa	1.246.914	58,0	1.140.972	52,3
Guztira	2.149.030	100	2.181.427	100

Beren burua gutxienez zertxobait pobretzat duten etzekoen unitateetan bizi den biztanleriaren proportzioari dagokionez, pobreziaren pertzepzioa handiagoa da emakumea buru duten etzekoen unitateen kasuan. Emakumea buru duten etzekoen unitateetako pertsonen % 6,4k du pobreziaren pertzepzioa; gizona buru duten etzekoen unitateei dagokionez, berriz, % 3,8k. Emakumea buru duten

etxeen unitateetako pertsonak EAEko biztanleria osoaren % 18,2 soilik diren arren, proportzio hori % 27,1eraino iristen da beren burua gutxienez pobre samartzat duten etxeen unitateetako biztanleria kontuan hartuz gero.

Nolanahi ere, pobreziaren pertzepzioaren hazkunderik handiena gizona buru duten etxeen unitateei dagokie 2006-2010 aldian. Hori horrela, emakumeak buru diren etxeen unitateetan bizi diren pertsonen artean adierazleak egonkor jarraitu du —2006-2010 aldian bi hamarren eskas handitu da: % 6,2tik % 6,4ra—, eta gizonak buru diren eta beren burua gutxienez pobre samartzat duten etxeen unitateetako pertsonen proportzioa % 2,3tik % 3,8ra igo da aldi horretan. Pertsona horien kasuan, 2006an pobrezia-egoera orokorren % 63,7 izatetik % 72,9 izatera igaro dira 2010ean.

Etxeen unitateko pertsona nagusiaren adina ere aldagai garrantzitsua da pobreziaren pertzepzioan gorabeherak zehazteko. Kasu horretan, daturik deigarriena honako hau da: etxeen unitateko pertsona nagusia zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta handiagoa da pobreziaren pertzepzio subjektiboa. Hortaz, proportzioa % 2,1 da 75 urtetik gorako pertsonak buru diren etxeen unitateetan bizi diren pertsonen kasuan. Beren burua gutxienez pobre samartzat duten etxeen unitateetan bizi diren pertsonen kasuan, aldiz, proportzio hori % 2,5etik % 3ra bitarteko zifretara igo da 45-74 urteko pertsonak bizi diren etxeen unitateetan, % 5,5era pertsona nagusiak 35-44 urte dituenen, eta % 12,8ra 35 urtetik beherako pertsonak buru dituzten etxeen unitateetan.

Beren burua gutxienez pobre samartzat duten etxeen unitateetan bizi diren pertsona gehienak (gutzizkoaren % 58) 45 urtetik beherako pertsona nagusia duten etxeen unitateetakoak dira. Biztanleen % 26,4 35 urtetik beherako etxeen unitateetan bizi da, baina gehienak (% 31,6) pertsona nagusia 35-44 urteko pertsona duten etxeen unitateetan bizi dira; halaber, deigarria da 45-64 urteko pertsonak buru dituzten etxeen unitateetan bizi direnen % 27,7a. Bestalde, 65 urtetik gorako etxeen unitateetako pertsonak % 14,2 baino ez dira, beren burua pobre samartzat duten etxeen unitateetan bizi diren biztanleei dagokienez.

Deigarria da 2010. urtean hautemandako pobrezia-egoeren barruan, 35-44 urteko pertsona nagusia duten etxeen unitateetan bizi diren biztanleak izatea nagusi. Biztanleria horren garrantzia, beren burua gutxienez pobre samartzat duten etxeen unitateetan bizi den biztanleria guztia kontuan hartuta, 2006ko % 22tik 2010eko % 31,6ra igo da. Errealitate hori 2006-2010 laurtekoan etxeen unitate mota horretan pobreziaren pertzepzioak izandako igoera nabarmenari lotuta dago, horren eragina % 2,9tik % 5,5era igo baita. Era berean, igoera handia izan da, ordea, 35 urtetik beherako pertsona bat buru duten etxeen unitateetan bizi den biztanleriari dagokionez; kasu horretan, eragina % 8,5etik % 12,8ra igo da. Biztanleria horrek aztertzen ari garen arrisku-egoeran dauden pertsonen multzoan duen proportzioaren jaitziera

(2006ko % 29,3tik 2010eko % 26,4ra) biztanleriaren bolumena 35-44 urteko pertsonen etxeko unitateei dagokiena baino askoz ere txikiagoa delako gertatu da.

Aztergai ditugun pobrezia-egoeren eragina % 3 inguruan egonkortu da 2006-2010 aldian, 45-54 urteko pertsonen etxeko unitateetan bizi diren biztanleen kasuan; aldiz, 55-74 urteko pertsona nagusia duten etxeko unitateetan bizi direnen kasuan, zifrek gora egin dute 2006ko % 1 ingurutik 2010eko % 2,5-3ra. Aitzitik, hautemandako pobrezia-eragina % 3,7tik % 2,1era murriztu da erreferentziazko 2006-2010 aldian, betiere pertsona nagusia 75 urtetik gorakoa duten etxeko unitateetako biztanleriari dagokionez.

Atzerritar-izaeraren eta hautemandako pobrezia-eragina arteko lotura erabakigarria da. Estatuko biztanleriari dagokionez, beren burua gutxienez pobre samartzat duten etxeko unitateetan bizi diren pertsonak % 2,6 dira, eta proportzioa % 29,7ra igotzen da atzerritarrez osatutako etxeko unitateetan bizi direnen artean. EAeko biztanleriaren % 6 besterik ez badira ere, atzerritarrak buru dituzten etxeko unitateetan bizi diren pertsonak aztertutako pobrezia-kasuen % 42 dira; proportzio horrek gora egin du 2006ko % 33,5arekin alderatzen badugu. Pobrezia-pertzepzioak nabarmen egin du gora atzerritarren artean azken urte hauetan: 2006ko % 21,8tik 2010eko % 29,7ra. Gora egin badu ere, igoera askoz txikiagoa izan da Estatuko biztanleriaren artean, adierazlea % 2,1 izatetik % 2,6 izatera igaro baita.

Hautemandako pobrezia-eragina, halaber, handiagoa izan da langabezia-egoeraren bat duten etxeko unitateetan bizi direnen artean, eta oso maila handietara iritsi da aktibo guztiak langabezian daudenean. Azken kasu horretan, beren burua gutxienez pobre samartzat duten etxeko unitateetan bizi diren pertsonen proportzioa % 19,8 da, 2006ko % 16,7aren gainetik. Landun ezegonkorrak nahiz langabeak dauden etxeko unitateetan bizi diren pertsonen kasuan ere ikusten da zifrak batez bestekoaren gainetik daudela beren burua gutxienez pobre samartzat duten etxeko unitateetan bizi den biztanleriarekin alderatzen badugu (% 13,9; zifra hori 2006ko % 12,1aren gainetik dago, halaber).

Aipatu ditugun taldeei kontra eginez, kideren bat landun egonkorra den etxeko unitateetan edo ez-aktiboak dituzten etxeko unitateetan bizi den biztanleria nabarmentzen da hautemandako pobrezia-eragina batez bestekoaren ingurukoa edo hortik beherakoa delako. Beren burua gutxienez pobre samartzat duten etxeko unitateetan bizi diren pertsonen proportzioa % 4,9 da lan egonkorra eta langabezia-egoerak edo egonkortasunik gabeko okupazio moduak uztartzen diren kasuan, eta % 3,1 da aktibo guztiak landunak direnean, baten bat egonkortasunik gabea bada ere, eta % 1,6 landun guztiak egonkorrak direnean. Proportzio hori % 3,9 da ez-aktiboak bizi diren etxeko unitateetan.

Aurreko datuek, alabaina, ez dute ezkutatu behar langile pobreek hautemandako pobrezia-eragina banaketan duten garrantzia. Pobrezia-pertzepzioari (gutxienez pobre samarrak) lotutako pertsonen % 66,9 gutxienez

landun bat duten etxeko unitateetan bizi da. Proportzioa % 64,8 izan da zentzu zorrotzean beren burua pobretzat duten etxeko unitateen kasuan.

Biztanleria, etxeko unitateak pobreziaren inguruan duen pertzepzio subjektiboa kontuan hartuta, pertsona nagusiaren sexuaren, adinaren eta nazionalitatearen eta jarduerarekiko erlazioari dagokionez etxeko unitatean dagoen egoeraren arabera. 2006. eta 2010. urteak

(Eragina erreferentziazko taldean, %-tan)

		2006			2010		
		Pobrezia subjektiboa			Pobrezia subjektiboa		
		Pobrea	Pobre samarra	Gutxienez pobre samarra	Pobrea	Pobre samarra	Gutxienez pobre samarra
Sexua	Gizonak	1,0	1,3	2,3	1,1	2,7	3,8
	Emakumeak	1,2	5,0	6,2	2,3	4,1	6,4
Adina	< 35 urte	4,5	4,0	8,5	4,8	8,0	12,8
	35-44 urte	1,1	1,7	2,9	2,0	3,5	5,5
	45-54 urte	,6	2,5	3,1	,7	2,2	3,0
	55-64 urte	,3	,7	1,0	,7	1,9	2,6
	65-74 urte	,1	,8	,9	,3	2,6	2,9
	>75 urte	1,0	2,7	3,7	,3	1,8	2,1
Nazionalitatea	Estatukoa	,5	1,5	2,1	,6	2,0	2,6
	Beste bat	11,4	10,4	21,8	11,6	18,1	29,7
Jarduerarekiko erlazioa	Aktiboak, denak landun egonkorak	,3	,8	1,1	,5	1,2	1,6
	Aktiboak, denak landunak, baten bat egonkorra	,6	,6	1,2	2,0	1,1	3,1
	Aktiboak (langabeak edo landunak), baten bat egonkorra	,9	3,8	4,7	1,0	3,9	4,9
	Aktiboak (langabeak edo landunak), bat ere ez egonkorra	6,4	5,7	12,1	3,0	10,9	13,9
	Aktiboak, guztiak langabeak	5,1	11,6	16,7	8,4	11,4	19,8
	Aktiborik gabe	,4	2,3	2,7	,7	3,2	3,9
Guztira		1,0	2,0	3,0	1,3	3,0	4,3

Biztanleria, etxeko unitateak pobreziaren inguruan duen pertzepzio subjektiboaren arabera, pertsona nagusiaren sexuaren, adinaren eta nazionalitatearen eta jarduerarekiko erlazioari dagokionez etxeko unitatean dagoen egoeraren arabera. 2006. eta 2010. urteak

(% bertikalak)

		2006			2010		
		Pobrezia subjektiboa			Pobrezia subjektiboa		
		Pobrea	Pobre samarra	Gutxienez pobre samarra	Pobrea	Pobre samarra	Gutxienez pobre samarra
Sexua	Gizonak	80,4	54,8	63,7	68,2	75,0	72,9
	Emakumeak	19,6	45,2	36,3	31,8	25,0	27,1
Adina	< 35 urte	44,7	21,0	29,3	32,8	23,7	26,4
	35-44 urte	24,8	20,5	22,0	37,8	28,9	31,6
	45-54 urte	13,6	30,0	24,3	13,8	18,2	16,8
	55-64 urte	4,6	7,2	6,3	9,6	11,4	10,9
	65-74 urte	1,4	5,0	3,7	2,7	10,2	7,9
	>75 urte	10,9	16,4	14,5	3,3	7,6	6,3
Nazionalitatea	Estatukoa	49,8	75,4	66,5	45,7	63,4	58,0
	Beste bat	50,2	24,6	33,5	54,3	36,6	42,0
Jarduerarekiko erlazioa	Aktiboak, denak landun egonkorak	14,9	20,3	18,4	18,1	19,5	19,1
	Aktiboak, denak landunak, baten bat egonkorra	8,9	4,7	6,1	18,9	4,4	8,8
	Aktiboak (langabeak edo landunak), baten bat egonkorra	6,4	15,4	12,2	8,2	13,5	11,9
	Aktiboak (langabeak edo landunak), bat ere ez egonkorra	48,5	23,4	32,2	19,5	30,3	27,0
	Aktiboak, guztiak langabeak	14,8	18,1	16,9	27,4	16,1	19,5
	Aktiborik gabe	6,5	18,1	14,1	7,8	16,1	13,6
Guztira		100	100	100	100	100	100

6.4. Bizitza independentea izateko arazoak

Pobreziari eta gabeziari buruzko zatian, GZEE-GPIak kontuan hartu ditu egungo etxekoek unitatetatik independizatu nahi duten eta arrazoi ekonomikoak tarteko ezin duten pertsona jakin batzuk ere. 2010ean ere arazo garrantzitsua izan da hori EAEn, guztira 180.043 baitira etxekoek unitate independente bat osatu nahi bai baina zailtasun ekonomikoek ondorioz ezin izan duten pertsonak. Alabaina, 2006-2010 aldian eraginpeko pertsonen bolumena nabarmen murriztu da, 2006ko 247.349 pertsonatik % 27,2 jaitsi baita. Aztergai ditugun problematiken eragina urte hartako EAeko biztanleriaren % 11,5etik 2010eko % 8,3ra murriztu da.

Egungo etxekoek unitatetik independizatu nahi duen eta arrazoi ekonomikoengatik ezin duen biztanleria 2006. eta 2010. urteak

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Independizatu nahi	2006		2010	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Bai	247.349	11,5	180.043	8,3
Ez	1.901.680	88,5	2.001.384	91,7
Guztira	2.149.030	100	2.181.427	100

Bizimodu independentea izateko arazoak dituzten pertsonen proportzioa 2010ean askoz ere handiagoa izan da gizonen artean —% 9,4— emakumeen artean baino —% 7,2—, eta gizonen artean arazo horiek % 54,7k ditu. Hala ere, jaitziera-erritmoa askoz handiagoa izan da gizonen artean, 2006ko % 14,3tik abiatuta (emakumeen kasuan % 8,9tik).

Bizimodu independentea lortzeko arazoek argiago eragiten diete 15-44 urteko pertsonari. 15 urtetik beherako edo 55 urtetik gorako biztanleriaren artean, problematika horiek % 2k baino gutxiagok izan dituzte; 45-54 urtekoen artean, berriz, % 3,7 izan dira, eta 35-44 urtekoen kasuan % 8,7ra iritsi dira; beraz, agerian geratzen da bizimodu independentea lortzeko arazoek eragin erabakigarria dutela oraindik 35 urtetik gorakoek artean ere. Alabaina, zailtasun horiek gizarte-arazo nabarmenak dira oraindik 15-34 urtekoen artean; hain zuzen ere, 15-24 urtekoen % 20k ditu horrelako arazoak, eta 25-34 urtekoen % 31,3k. Bizimodu independentea izateko zailtasunak izan dituen biztanleriaren % 69,4 15-34 urtekoa da, eta horien proportzioa % 87,5eraino iritsi da 35-44 urtekoak kontuan hartuta.

2006-2010 aldiko datuen arabera, ordea, independizatzeko arazoek eragina nabarmen jaitsi da 15-34 urteko biztanleriaren artean. Arazo horien eragina % 31,4tik % 20ra jaitsi da 15-24 urtekoen artean, eta % 37,1etik % 31,3ra 25-34 urtekoen kasuan. Murrizketa txikiagoa izan da gainerako adin-taldeetan, puntu baten inguruko edo txikiagoko jaitzirekin; 15-64 urtekoak salbuespen izan dira, gorakada txiki bat izan baita. 45-54 urtekoena izan da esanguratsuena, adierazlea % 3,2tik % 3,7ra igo da-eta.

Bizimodu independentea lortzeko arazoek garrantzia galdu izana garrantzitsua da Estatuko biztanleriaren kasuan, 2006tik 2010era eragina % 10,3tik % 7,6ra jaitsi baita. Aldiz, atzerriko biztanleriaren kasuan izan da jaitsierarik handiena aldi horretan, 2006ko % 35,4tik 2010eko % 18,5era jaitsi baita.

Okupazioari dagokionez, daturik deigarriena da bizimodu independentea lortzeko arazoak dituen biztanleriaren barruan jaitsi egin dela landunei dagokien zatia. Talde hori arazoak zituzten pertsonen % 71,9 izatetik 2010ean % 58,3 izatera igaro da. Aitzitik, % 10,9tik % 23,1era igo da langabeei dagokien zatia⁹.

Egungo etxekoek unitatetik independizatu nahi duen eta arrazoi ekonomikoengatik ezin duen biztanleria, sexuaren, adinaren, nazionalitatearen eta jarduerarekiko erlazioaren arabera.

(Eragina erreferentziazko taldean, %-tan eta % bertikalak)

		2006		2010	
		Eragina	% ber.	Eragina	% ber.
Sexua	Gizonak	14,3	60,6	9,4	54,7
	Emakumeak	8,9	39,4	7,2	45,3
Adina	< 15 urte	3,0	3,6	1,9	3,6
	15-24 urte	31,4	28,3	20,0	21,5
	25-34 urte	37,1	48,1	31,3	48,0
	35-44 urte	9,7	13,6	8,7	18,0
	45-54 urte	3,2	3,9	3,7	7,0
	55-64 urte	1,1	1,1	1,3	1,8
	65-74 urte	1,3	1,1	,0	,0
	>75 urte	0,3	,2	0,1	,1
Nazionalitatea	Estatukoa	10,3	85,5	7,6	85,7
	Beste bat	35,4	14,5	18,5	14,3
Jarduerarekiko erlazioa	Landuna	18,6	71,9	11,1	58,3
	Langabea	29,4	10,9	31,6	23,1
	Ez-aktiboa	3,9	17,3	3,0	18,6
Guztira		11,5	100	8,3	100

⁹ Langabeen artean izandako hazkundearen zati bat 2006-2010 aldiko langabeziaren gorakadarekin lotuta dagoen arren, egia esan aurreko datuen arabera hobekuntza argia izan da landun gazteen gaitasunean, betiere bizimodu independentea izateko arazoak gaintzeari dagokionez. Izan ere, 16-64 urteko biztanleria aktiboa, oro har, aintzat hartuta, independizatzeko arazoak dituztenen bolumena % 27,8 murriztu da, 2006. urteko 202.951 kasuetatik 2010. urteko 146.581 kasuetara. Murrizketa hori biztanleria ez-aktiboaren kasuan ikusitakoa baino handiagoa da (% -16,9).

Independizatzeko zailtasunak etzekoen unitatearen arabera aztertzen baditugu, ikus dezakegu problematika hori hedatuago dagoela gabezia sozioekonomikoak dituzten etzekoen unitateetan. Bizimodu independentea lortzeko zailtasunak gehiago ikusten dira demografia-ugalketako arazoak dituzten etzekoen unitateetan (bizimodu independentea lortzeko arazoak dituen biztanleriaren % 15,6; gainerako kasuan, aldiz, % 7,8) edo oinarrizko gabezia-arazoak dituzten etzekoen unitateetan (adierazlea % 22,8 da arazo dimentsioaniztunak dituzten etzekoen unitateetako pertsonen kasuan, % 11,2 oinarrizko gabeziaren arazo partzialak dituzten etzekoen unitateekin lotuta daudenen kasuan, eta % 7,6 gabeziarik gabeko edo aisiari lotutako gabeziak dituzten etzekoen unitateetan bizi direnen artean). Kasuen % 80an baino gehiagotan, ordea, bizimodu independentea lortzeko zailtasunak gabeziarik gabeko edo familia-ugalketaren inguruko arazorik ez duten etzekoen unitateekin lotzen dira.

Etxekoen unitateko kideen jarduera-datuek erakusten dute, alabaina, problematika horiek oso lotuta daudela etzekoen unitatean langabezia-egoerak edo lan-ezegonkortasuneko egoerak izatearekin. Gauzak horrela, egiaztatzen da bizimodu independentea lortzeko arazoaren % 64,8 langabezia-egoera edo lan-ezegonkortasuneko egoera horietako bat dagoen etzekoen unitateekin lotzen dela. Proporzioa % 47,5 izan da langaberen bat dagoenean, eta ikusten da proportzio hori 2006ko % 35,3a baino handiagoa izan dela. Etxekoen unitatean langabeak dauden egoerak dira, hain zuzen ere, bizimodu independentea lortzeko arazoek eragina handiagoa izatearekin lotzen direnak (kasu horietan eraginpeko pertsonak % 14-20 dira).

Egungo etzekoen unitatetik independizatu nahi duen eta arrazoi ekonomikoengatik ezin duen biztanleria, etzekoen unitatearen egoeraren arabera: demografia-ugalketako arazoak, gabezia-egoerak eta jarduerarekiko erlazioa.
2006. eta 2010. urteak

(Eragina erreferentziatzeko taldean %-tan eta % bertikalak)

		2006		2010	
		Eragina	% ber.	Eragina	% ber.
Ugalketa-arazoak	Bai	14,8	9,1	15,6	11,7
	Ez	11,3	90,9	7,8	88,3
Gabezia	Dimentsioaniztuna, oinarrizko premiak	33,8	5,8	22,8	8,7
	Partziala, oinarrizko premiak	20,4	8,9	11,2	7,7
	Oinarrizko gabezia	24,2	14,6	15,3	16,4
	Gabeziarik gabe, edo aisian baino ez	10,6	85,4	7,6	83,6
Jarduerarekiko erlazioa	Aktiboak, denak landun egonkorak	8,5	36,8	5,5	33,5
	Aktiboak, denak landunak, baten bat egonkorra	18,6	25,4	11,7	17,2
	Aktiboak (langabeak edo landunak), baten bat egonkorra	21,9	14,9	20,2	25,5
	Aktiboak (langabeak edo landunak), bat ere ez egonkorra	25,0	17,4	14,1	14,2
	Aktiboak, guztiak langabeak	11,4	3,0	15,2	7,8
	Aktiborik gabe	1,8	2,5	1,0	1,7
Guztira		11,5	100	8,3	100

7. UGALKETARI (nahi diren seme-alabak edukitzeari) LOTUTAKO ARAZOAK

2010ean, EAEko etxeen unitateen % 5,1ek —guztira 41.484k— familia- edo demografia-ugalketaren inguruko arazoak ditu, eta ez ditu izaten nahi dituen seme-alabak baliabide ekonomiko gutxi izateagatik, lanean segurtasunik ez duelako eta/edo haurren zaintza eta arretarekin lotutako arazoak dituztelako. Nahiz eta, aurreko datuek erakusten dutenez, ugalketa-arazoen eragina ez den marjinala EAEn; nolana ere, eragin horrek beheranzko bilakaera du epe ertainean. Hortaz, arazoak dituzten etxeen unitateen kopurua % 14,7 murriztu da 2010ean, 2006an ugalketarako zailtasunak zituzten 48.651 etxeen unitateekin alderatzen badugu. Problematika horren eragin erlatiboa % 6,2tik % 5,1era jaitsi da aldi horretan.

Ugalketa-arazoak (nahi dituzten seme-alabak edukitzeko) dituzten etxeen unitateak (Datu absolutuak eta eragina %-tan)

Ugalketa-arazoak	2006		2010	
	Abs.	Eragina	Abs.	Eragina
Nahikoa baliabide ekonomikorik ez/etxebizitzarik ez	34.448	4,4	27.666	3,4
Laneko segurtasunik eza	26.662	3,4	26.543	3,3
Seme-alabak zaintzeko arazoak	30.389	3,9	21.085	2,6
Ugalketa-arazoren bat	48.651	6,2	41.484	5,1
Guztira	786.862	100	815.954	100

Logikoa denez, familia-ugalketako arazoen eragina oso txikia da 45 urtetik gorako pertsona nagusien kasuan (etxeen unitate horien % 1,5ek baino ez baititu ugalketarekin lotutako arazoak aipatu adin horretatik aurrera). Eragina % 11,6 izan da 35-44 urteko pertsona nagusia buru duten etxeen unitateetan, eta % 17,8 35 urtetik beherako pertsona nagusia buru duten etxeen unitateetan.

Hala eta guztiz ere, ez dugu ahaztu behar etxeen unitate gehienek aipatu dutela arazo hori; % 68 35 urteko edo gehiagoko pertsona nagusiekin lotzen da, 2006-2010 aldiko % 54,4aren gainetik. Igoera hori gertatu da, 35 urtetik gorako pertsonen etxeen unitateetan aintzat hartzen diren arazoen eragin-tasek funtsean bere horretan eusten dieten arren, adin horretatik beherako pertsonak buru dituzten etxeen unitateetan jaitsiera nabarmena dagoelako laurtekoan, % 26,7tik % 17,8ra bitartekoa, hain zuzen ere.

Ugalketa-arazoen eragina handiagoa izan da atzerritarrez osatutako etxeen unitateetan. Izan ere, kasu horretan, etxeen unitateen % 27,1k ugalketa-arazoak dituela aipatu du, Estatuko herritarrak diren pertsona nagusien kasuko % 4,1aren gainetik argi eta garbi. Bi kasuetan, batez ere atzerritarren kasuan ikusten den arren, ugalketa-arazoen eraginaren beheranzko joera garbia izan da, nolana ere. Eragina, beraz, % 35,1etik % 27,2ra jaitsi da atzerritarrak dituzten etxeen unitateetan, eta % 5,3tik % 4,1era Estatuko etxeen unitateetan.

Etxekoen unitateko aldagai sozioekonomiko nagusiak aintzat hartuta, egiaztatu da gabezia ekonomikoaren arazoek areagotu egin dutela ugalketa-arazoen eragina: oinarrizko gabeziarik gabeko etxekoen unitateetan arazoak % 3,8 ziren; aldiz, eragina % 13,2 izan da oinarrizko gabeziak estaltzeko arazo partzialak daudenean eta % 30,5 arazo dimentsioaniztunak dituzten etxekoen unitateen kasuan. Horretaz gain, adierazleak erakusten du jaitziera izan dela 2006arekin alderatuta gabeziarik gabeko etxekoen unitateetan (% 5,1etik % 3,8ra), aldiz, nabarmen igo dela oinarrizko gabezia-egoeretan (% 11,5etik % 13,2ra arazo partzialen kasuan eta % 25,1etik % 30,5era problematika dimentsioaniztunak daudenean). 2006ko % 82,1etik 2010eko % 70,2ra jaitsi bada ere, demografia-ugalketa arazoak dituzten etxekoen unitate gehienak, ordea, gabeziarik gabeko etxekoen unitateek edo aisian parte hartzearekin lotutako gabezia moduak dituzten etxekoen unitateek osatzen dute.

Arazoen eragina, oro har, handiagoa izan da langabeak dituzten etxekoen unitateetan, baina deigarria da ugalketa-arazoak landun egonkorrek dauden etxekoen unitateetan egotea batez ere. Ildo horretatik, kasuen % 48 aktibo guztiak landun egonkorrek diren etxekoen unitateak dira; kasuen % 26,8, aldiz, enplegu egonkorra lortzeko pertsona aktiboren bat duten etxekoen unitateak dira. Aktibo guztiak langabeak diren edo enplegu ezegonkorra lortu duten pertsonak dauden etxekoen unitateen proportzioa gutzitzkoaren % 23,3 soilik da; nolana ere, gora egin du 2006ko % 18,1arekin alderatzen badugu.

Ugalketa-arazoak dituzten etxekoen unitateak, pertsona nagusiaren adinaren eta nazionalitatearen, gabezia-egoeren eta jarduerarekiko erlazioari dagokionez etxekoen unitatean dagoen egoeraren arabera 2006. eta 2010. urteak

(Eragina erreferentziatzko taldean %-tan)

		2006	2010
		Eragina %-tan	Eragina %-tan
Adina	< 35 urte	26,7	17,8
	35-44 urte	11,5	11,6
	45 urte eta gehiago	1,6	1,5
Nazionalitatea	Estatukoa	5,3	4,1
	Beste bat	35,1	27,2
Gabezia-egoera	Dimentsioaniztuna	25,1	30,5
	Partziala oinarrizko alderdietan	11,5	13,2
	Oinarrizko gabezia	15,1	18,5
	Oinarrizko gabeziarik gabe	5,1	3,8
Jarduerarekiko erlazioa	Aktiboak, denak landun egonkorrek	7,3	5,4
	Aktiboak, denak landunak, baten bat egonkorra	11,5	8,9
	Aktiboak (langabeak edo landunak), baten bat egonkorra	6,4	7,0
	Aktiboak (langabeak edo landunak), bat ere ez egonkorra	12,8	11,0
	Aktiboak, guztiak langabeak	6,5	8,4
	Aktiborik gabe	,3	,4
Guztira		6,2	5,1

**Ugalketa-arazoak dituzten etxekoek unitateak, pertsona nagusiaren adinaren eta nazionalitatearen, gabezia-egoeren eta jarduerarekiko erlazioari dagokionez etxekoek unitatean dagoen egoeraren arabera
2006. eta 2010. urteak**

		(% bertikalak)	
		2006	2010
		% ber.	% ber.
Adina	< 35 urte	45,6	32,0
	35-44 urte	36,4	47,5
	45-54 urte	18,1	20,6
Nazionalitatea	Estatukoa	82,3	76,4
	Beste bat	17,7	23,6
Gabezia-egoera	Dimentsioaniztuna	8,0	15,2
	Partziala oinarrizko alderdietan	9,9	14,6
	Oinarrizko gabezia	17,9	29,8
	Oinarrizko gabeziarik gabe	82,1	70,2
Jarduerarekiko erlazioa	Aktiboak, denak landun egonkorrak	52,5	48,0
	Aktiboak, denak landunak, baten bat egonkorra	22,4	16,2
	Aktiboak (langabeak edo landunak), baten bat egonkorra	5,8	10,6
	Aktiboak (langabeak edo landunak), bat ere ez egonkorra	14,7	16,6
	Aktiboak, guztiak langabeak	3,5	6,7
	Aktiborik gabe	1,1	1,9
Guztira		100	100

8. ETXEOEN UNITATEEK ESKATZEN DITUZTEN ZERBITZUAK ETA PRESTAZIOAK

Txosten hau EAEko etxeko enitate batzuek eskatzen dituzten zerbitzu eta prestazioekiko hurbilketa eginez osatuko dugu. Eskari hori, neurri handi batean, premia-egoeren isla praktikoa da.

8.1. Gizarte-zerbitzuak lortzeko aukera

8.1.1. Zerbitzu publikoak

2010ean, EAEko etxeko enitateen % 17,9k adierazi du inkesta egin aurreko hiru urteetan jo duela gizarte-zerbitzu publikoetara; proportzio horrek gora egin du, 2006an % 15,1 izan baitzen. Euskadin, etxeko enitateen kopuruak gora egin duen testuinguruan, erregistratutako igoerak etxeko enitate eskatzaileen kopurua % 22,8ra igotzea eragin du.

Azken hiru urteetan gizarte-zerbitzu publikoetara jo duten etxeko enitateak.
2006. eta 2010. urteak
 (Datu absolutuak eta % bertikalak)

Gizarte Zerbitzu publikoetara jotzea	2006		2010	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Joan da	119.074	15,1	146.178	17,9
Ez da joan	667.788	84,9	669.776	82,1
Guztira	786.862	100	815.954	100

Gizarte-zerbitzu publikoetara jotzeko joera handiagoa duten taldeen ezaugarriak aztertzen baditugu, ikusiko dugu hasieran emakumeak buru dituzten etxeko enitateek azken hiru urteetan egindako eskari diferentziala nabarmentzen dela, etxeko enitate mota horren eskatzaileen proportzioa % 25,5 baitzen, eta gizona buru duten etxeko enitateen kasuan, aldiz, % 15,2. Eskari horrek 2006-2010 aldian izan duen igoera, ordea, mugatua da emakumeen artean (0,9 puntu 2006ko % 24,6arekin alderatuta); horri kontrajarririk, berriz, 3,5 puntuko igoera dago gizonen artean (% 11,8 2006an). Horregatik, guztizko eskariaren banaketan igo egin da gizona buru duten etxeko enitateen garrantzi erlatiboa, 2006-2010 aldian % 57,5etik % 62,8ra igaro baita.

35 urtetik beherako pertsonak osatzen dituzten etxeko enitateak dira EAEko gizarte-zerbitzu publikoetara jotzeko joera handiena duten taldeetako bat, % 21,3ko zifrarekin, 2006ko % 18,5eko zifra 2,8 puntutan gainditzen du. Nolanahi ere, eskariaren hazkunderik handiena 55 urtetik gorako pertsonak osatzen dituzten etxeko enitateei dagokie, igoerak 3 puntu ingurukoak edo hortik gorakoak izan baitira 2006-2010 aldian. Eskatzaileen proportzioa 2006an % 12tik hurbil zeuden zifretatik % 15,1era igo da 65-74 urteko pertsona nagusia duten etxeko enitateetan, eta % 17,5era 55-64 urteko pertsona buru

duzetan. 75 urteko pertsonen etxeen unitateen kasuan, igoera hori are handiagoa da, eskaria % 17,5 izatetik % 26 izatera igaro baita 2006-2010 laurtekoan. Ondorioa da adinekoen etxeen unitate mota hori oinarrizko gizarte-zerbitzu publikoetara gehien jotzen duen taldea dela 2010ean, eta 35 urtetik beherako biztanleria gaintzen duela (biztanleria hori zen eskariari dagokionez adierazgarririk handiena 2006an).

Baina joera guztia ez da goranzkoa izan gizarte-zerbitzu publikoekiko harremanari dagokionez, laguntzarako eskaria murriztu egin baita 35-54 urteko pertsonen etxeen unitateetan: % 16,7tik % 16,1era 35-44 urteetan eta % 15,1etik % 13,5era 45-54 urteko pertsonen kasuan. Emaitza da 35-74 urteko pertsonak bizi diren etxeen unitateetan eskariaren nolabaiteko oreka izan dela, % 13,5etik % 17,5era bitarteko zifrekin. Tarte nagusi horretatik, gazteak (etxeen unitate eskatzaileen % 21,3) nahiz zaharrenak (% 26 75 urteko eta gehiagoko pertsonen kasuan –proportziorik handiena–) urruntzen dira.

Gizarte-zerbitzu publikoetara jotzen duten etxeen unitateen barne-banaketari dagokionez, 2006-2010 aldian % 32,5etik % 38,4ra igo da 65 urtetik gorako pertsona bat buru duten etxeen unitateei dagokien zatia. Zifra horrek 45-64 urteko pertsona bat buru duten etxeen unitateei dagokien % 32a gaintu du 2010ean, baita 45 urtetik beherako biztanleria buru duten etxeen unitateen % 29,6a ere. Talde nagusiak 2006ko ehunekoari eusten dio neurri handi batean (% 33 urte hartan), baina 2006ko % 34,5etik behera jaisten da 35 urtetik beherako pertsonak bizi diren etxeen unitateen kasuan.

Atzerritarrek joera handia dute gizarte-zerbitzu publikoetara jotzeko. Izan ere, Estatuko herritarrak bizi diren etxeen unitateetako % 16ari kontrajarririk (2006ko % 14,1arekin alderatzen badugu, gora egin du zifra horrek), eskari-maila pertsona nagusia atzerritarra den kasuetan, proportzioa % 58,8ra igo da, 2006ko % 46,1eko zifra baino 12,7 puntu gorago, azken hiru urte hauetan. Nolanahi ere, oinarrizko gizarte-zerbitzuei egindako guztizko eskariaren % 14,5 soilik dagokie atzerritarren etxeen unitateei.

Azken hiru urteetan gizarte-zerbitzu publikoetara jo duten etxeen unitateak, pertsona nagusiaren sexuaren, adinaren eta nazionalitatearen arabera. 2006. eta 2010. urteak

(Eragina erreferentziako taldean, %-tan eta % bertikalak)

		2006		2010	
		Eragina	% ber.	Eragina	% ber.
Sexua	Gizonak	11,8	57,5	15,2	62,8
	Emakumeak	24,6	42,5	25,5	37,2
Adina	< 35 urte	18,5	12,9	21,3	10,8
	35-44 urte	16,7	21,5	16,1	18,7
	45-54 urte	15,1	19,1	13,5	15,3
	55-64 urte	11,6	13,9	17,5	16,7
	65-74 urte	12,2	12,1	15,1	12,5
	>75 urte	17,5	20,4	26,0	25,9
Nazionalitatea	Estatukoa	14,1	90,5	16,0	85,5
	Beste bat	46,1	9,5	58,8	14,5
Guztira		15,1	100	17,9	100

Ikusi da lotura garbia dagoela gizarte-zerbitzuetara jotzearen eta kolokatasun ekonomikoaren artean, bereziki larritasun handieneko egoerak direnean. Izan ere, oinarrizko gabezia-arazorik gabeko etzekoen unitateetan zerbitzu horietara jotzen dutenen kopurua % 14,9 da, baina kopuru hori % 42,3ra igotzen da oinarrizko premiak estaltzeko arazo partzialak dituzten etzekoen unitateen kasuan, eta 78,2ra arazo dimentsioaniztunak daudenean.

Zerbitzu horietara jotzeko joeraren igoera hori talde guztietan gertatu da 2006-2010 aldian, baina aldeak gora egin du kolokatasun ekonomikoaren egoera areagotu ahala. Gizarte-zerbitzu publikoetara jotzeko joera 1,6 puntu igo da gabeziarik gabeko etzekoen unitateetan (% 13,2tik % 14,9ra), 5,2 oinarrizko gabeziaren arazo partzialak dituzten etzekoen unitateetan (% 37,1etik % 42,3ra) eta 26,2 arazo dimentsioaniztunak dituzten etzekoen unitateetan (% 52tik % 78,2ra). Edonola ere, eta 2006ko % 81,5etik behera egin badu ere, azpimarratu beharra dago 2010aren aurreko hiru urteetan gizarte-zerbitzu publikoak erabili dituzten etzekoen unitateen % 76,3k ez duela oinarrizko premien estaldurari lotutako gabezia-arazo larririk ez duten etzekoen unitateak direla.

Etxekoen unitatean bizi diren pertsonen jarduera-egoerari dagokionez, gizarte-zerbitzuak erabiltzen dituzten etzekoen unitateen artean gehiengoa dira pertsona guztiak ez-aktiboak diren etzekoen unitateak (kasuen % 32,5) edo aktiboen artean okupazio egonkorra duenik ez duten etzekoen unitateak (% 25). Oro har, bi egoera horiek 2006an eskariaren % 52,2 izatetik 2010ean % 57,5 izatera igaro dira. Izan ere, landun egonkorren bat duten etzekoen unitateetan eskari-maila % 15etik beherakoa izan da 2010ean; gizarte-zerbitzu publikoak erabiltzen dituzten pertsonen proportzioa, aldiz, % 22,6 izan da ez-aktiboak dituzten etzekoen unitateetan, % 35,2 langabeak eta landun ezegonkorrak dituzten etzekoen unitateetan, eta, azkenik, % 43,6 pertsona aktibo guztiak langabeak dituzten etzekoen unitateetan.

Azken hiru urteetan gizarte-zerbitzu publikoetara jo duten etzekoen unitateak, etzekoen unitatearen egoeraren arabera: gabezia-egoeren presentzia eta jarduerarekiko erlazioa.

2006. eta 2010. urteak

(Eragina erreferentziazko taldean, %-tan eta % bertikalak)

		2006		2010	
		Eragina	% ber.	Eragina	% ber.
Gabezia	Dimentsioaniztuna, oinarrizko premiak	52,0	6,3	78,2	10,7
	Partziala, oinarrizko premiak	37,1	12,2	42,3	12,9
	Oinarrizko gabezia	41,1	18,5	53,4	23,7
	Gabeziarik gabe, edo aisian baino ez	13,2	81,5	14,9	76,3
Jarduerarekiko erlazioa	Aktiboak, denak landun egonkorrak	10,3	30,5	11,3	28,8
	Aktiboak, denak landunak, baten bat egonkorra	13,6	10,8	14,5	7,5
	Aktiboak (langabeak edo landunak), baten bat egonkorra	17,6	6,5	14,4	6,2
	Aktiboak (langabeak edo landunak), bat ere ez egonkorra	25,6	12,0	35,2	15,1
	Aktiboak, guztiak langabeak	43,9	9,6	43,6	9,9
	Aktiborik gabe	17,0	30,7	22,6	32,5
Guztira		15,1	100	17,9	100

8.1.2. Zerbitzu asoziatiboak

2010ean, EAEko etxekoen unitateen % 1,6k adierazi du inkesta egin aurreko hiru urteetan elkartek eta gobernuz kanpoko erakundeek kudeatutako gizarte-zerbitzuetara jo duela. Kasu horretan, joera beheranzkoa izan da 2006an erregistratutako % 1,9arekin alderatzen badugu.

Azken hiru urteetan gizarte-zerbitzu asoziatiboetara jo duten etxekoen unitateak. 2006. eta 2010. urteak
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Gizarte Zerbitzu asoziatiboetara jotzea	2006		2010	
	Abs.	% ver.	Abs.	% ver.
Joan da	15.189	1,9	12.935	1,6
Ez da joan	771.673	98,1	803.019	98,4
Guztira	786.862	100	815.954	100

Termino demografikotan, eskari asoziatiboaren alderdi garrantzitsuenak adinarekin eta nazionalitatearekin lotzen dira. Lehenengo aldagaiari dagokionez, nabarmena da gazteez osatutako etxekoen unitateek zerbitzu horiek erabiltzeari dagokionez 2006-2010 aldian izandako goranzko joera: % 2,1etik % 2,4ra 35-44 urteko pertsonak bizi diren etxekoen unitateetan eta % 5,7tik % 6,1era 35 urtetik beherako pertsonak bizi diren etxekoen unitateetan. Bilakaera horren ondorioz batez bestekotik goragoko eskaria sendotzen da 2010ean, 45 urtetik gorako pertsonak dituzten etxekoen unitateetan, aldiz, proportzioa % 1 da edo hortik beherakoa; etxekoen unitate horietan, gainera, normalean beheranzko joera dago eskari-mailetan 2006tik aurrera. 45 urtetik beherako pertsonak buru dituzten etxekoen unitateen kasuan, eskariaren kontzentrazio-maila erakunde mota horren aurrean 2006an % 51,9 izatetik 2010ean % 66,8 izatera igaro da.

Bestalde, eutsi egin zaio baliabide horiek erabiltzeko joera diferentzialari atzerritarren artean: etxekoen unitateen % 20; aldiz, Estatuko etxekoen unitateen % 0,7. Eskari hori zertxobait jaitsi da atzerritarren kasuan, 2006an % 21,1 izan baitzen, baina jaitsiera handiagoa da Estatuko biztanleriaren artean, 2006an % 1,3 izan baitzen. Ondorioa da % 34,1etik % 55,6ra igo dela gizarte-zerbitzu asoziatibo hauek lortzeari dagokionez atzerritarrek duten garrantzia.

Alderdi sozioekonomikoei eta lanari buruzko alderdiei dagokienez, nabarmendu behar da oinarrizko zerbitzu horietara jotzeko joera dagoela oinarrizko premiak estaltzearekin lotutako gabezia-arazoak daudenean. Gabezia-arazo larririk ez duten etxekoen unitateetako % 0,6ko zifrei kontrajarririk, (zifra horiek behera egin dute 2006ko % 1,5arekin alderatzen baditugu) % 5,3tik % 5,9ra igo da oinarrizko gabezia-arazo partzialeri lotutako eskaria eta % 16,6tik % 29,9ra arazo dimentsioaniztunei lotutakoa.

Azken etxeko unitate mota horren garrantzia % 15,7tik % 46,3ra igo da gizarte-zerbitzu mota horietan egindako eskariari dagokionez.

Gizarte-zerbitzu asoziatiboan aurrean dagoen eskaria, bestalde, langabeak dauden eta lan egonkorra duen pertsona bakar bat ere ez dagoen etxeko unitateekin lotzen da. Eskariaren % 60,8 etxeko unitate horiekin lotzen da, eta zifra hori % 69,7ra igoz da langabeak dauden, baina, era berean, landun egonkorren bat dagoen etxeko unitateak aintzat hartzen direnean. Azken egoera horretan dauden etxeko unitateen % 1,8k laguntza eskatu du zerbitzu horietan, proportzio hori, aldiz, % 7,3ra iristen da langabeak eta landun ezegonkorrak dituzten etxeko unitateetan eta % 9,9ra aktibo guztiak langabeak direnetan. Gainerako etxeko unitateetan zifrak % 1,5era jaisten dira pertsona guztiak landunak (horietakoren bat ezegonkorra) diren etxeko unitateetan, eta % 0,5 ingurura ez-aktiboan edo aktiboan (guztiak landun egonkorrak) etxeko unitateetan.

Azken hiru urteetan gizarte-zerbitzu asoziatiboetara jo duten etxeko unitateak, pertsona nagusiaren sexuaren, adinaren eta nazionalitatearen arabera. 2006. eta 2010. urteak

(Eragina erreferentziako taldean, %-tan eta % bertikalak)

		2006		2010	
		Eragina	% ber.	Eragina	% ber.
Sexua	Gizonak	1,6	60,2	1,7	77,2
	Emakumeak	2,9	39,8	1,4	22,8
Adina	< 35 urte	5,7	30,9	6,1	35,1
	35-44 urte	2,1	21,0	2,4	31,7
	45-54 urte	2,8	27,5	1,0	13,0
	55-64 urte	1,2	11,4	0,7	7,0
	65-74 urte	0,1	1,1	0,9	8,2
	>75 urte	0,9	8,1	0,4	5,0
Nazionalitatea	Estatukoa	1,3	65,9	0,7	44,4
	Beste bat	21,1	34,1	20,0	55,6
Guztira		1,9	100	1,6	100

Azken hiru urteetan gizarte-zerbitzu asoziatiboetara jo duten etxeko unitateak, etxeko unitatearen egoeraren arabera: gabezia-egoerak eta jarduerarekiko erlazioa. 2006. eta 2010. urteak

(Eragina erreferentziako taldean %-tan eta % bertikalak)

		2006		2010	
		Eragina	% ber.	Eragina	% ber.
Gabezia	Dimentsioaniztuna, oinarritzko premiak	16,6	15,7	29,9	46,3
	Partziala, oinarritzko premiak	5,3	13,8	5,9	20,5
	Oinarritzko gabezia	8,4	29,5	13,3	66,8
	Gabeziarik gabe, edo aisia baino ez	1,5	70,5	,6	33,2
Jarduerarekiko erlazioa	Aktiboak, denak landun egonkorrak	1,0	23,2	,4	11,7
	Aktiboak, denak landunak, baten bat egonkorra	3,9	24,2	1,5	9,0
	Aktiboak (langabeak edo landunak), baten bat egonkorra	2,4	7,1	1,8	8,9
	Aktiboak (langabeak edo landunak), bat ere ez egonkorra	6,3	22,9	7,3	35,3
	Aktiboak, guztiak langabeak	3,7	6,4	9,9	25,4
	Aktiborik gabe	1,1	16,2	,6	9,6
Guztira		1,9	100	1,6	100

8.2. Prestazioen eta zerbitzuen eskaria EAEn

GZEE-GPIak modu berezian aztertu du premia-, mendetasun- edo kolokatasun-egoeran dauden pertsonen babesera eta gizarteratzera bideratutako hainbat prestazio ekonomikoren eta zerbitzuren eskaria. Jarraian, 2010eko GZEE-GPIa egin zen aldiaren aurreko urtean prestazioen eta zerbitzuen eskariari buruz dauden datu nagusiak azalduko ditugu, EAeko Administrazio Publikoek kudeaturiko prestazio- eta zerbitzu-sistemari dagokionez.

8.2.1. Diru-sarrerak bermatzeko laguntzak eta prestazioak

Administrazio Publiko horien jardun-eremuaren barruan, diru-sarreraren laguntza-sistema osatzen duten laguntzek eta prestazioek zeregin handia dute, DBE, EGPO eta GLL babes-eredua nahiz bestelako prestazio orokorrak edo osagarriak (horiek ere diru-sarrerak bermatzera bideratuta daudenak, hots, KGP, GOF eta PAGAMIaren gainerakoak) barne.

EAeko 55.719 etzekoen unitatek, EAEn daudenen % 6,8k, eskatu du prestazio horietakoren bat 2010eko inkestaldiaren aurreko hamabi hilabeteetan. Horrek esan nahi du 2006ko 44.494 etzekoen unitateekin alderatuta % 25,2ko igoera dagoela (urte hartan zeuden guztizko etzekoen unitateen % 5,7).

Azken urtean EAeko babes ekonomikoko sistemaren laguntzak eta prestazioak eskatu dituzten pertsonak dituzten etzekoen unitateak. 2006. eta 2010. urteak

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Laguntzak eskatzea	2006		2010	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Eskatzailea	44.494	5,7	55.719	6,8
Ez da eskaririk ageri	742.368	94,3	760.235	93,2
Guztira	786.862	100	815.954	100

Oharra: DBE, EGPO, GLL, KGP eta PAGAMI prestazioak ere kontuan hartu dira

DBE, EGPO, GLL, KGP laguntzen eta prestazioen eskari diferentzialari eutsi zaio emakumeak buru dituzten etzekoen unitateetan, etzekoen unitate eskatzaileak % 11,1 baitira, gizonak buru dituztenen kasuan, aldiz, % 5,3 dira. Zifra horiek erakusten dute egonkortu egin direla emakumeak buru dituzten etzekoen unitateetan 2006an ikusitako % 10,9arekin alderatzen baditugu, baina batez ere agerian jartzen dute erreferentziazko pertsona gizona duten etzekoen unitateetan eskariak izan duen igoera nabarmena, etzekoen unitate eskatzaile mota hori % 3,8 baitzen 2006an. Eskariaren barne-banaketari dagokionez emakumeak buru dituzten etzekoen unitateen garrantzia % 50,3tik % 42,6ra jaitsi da 2006-2010 aldian.

DBE, EGPO, GLL, KGP sistemara jotzeko eskaria talde gazteenen ezaugarria da batez ere. Eskaririk txikiena 75 urtetik gorako pertsonak buru dituzten etxeko unitateetako pertsoneri dagokien (% 4,4), eta zifrak % 5-5,5etik hurbilekoak dira 45-74 urtekoetan, baina eskarirako joera nabarmen igotzen da 35-44 urteko pertsonen etxeko unitateetan (% 9,5), eta % 4,7ra iritsi dira erreferentziako pertsona 35 urtetik beherakoa duten etxeko unitateetan.

2006-2010 aldian, aztertutako laguntzen eta prestazioen sistemarekiko hurbilketa handiena 35-44 urteko etxeko unitateei dagokien, kasu horretan eskaria % 6tik % 9,5era igo baita, 35 urtetik beherakoak dituzten etxeko unitateetan zifrek izan duten % 14,5 inguruko egonkortzearekin kontrajarririk. Nolanahi ere, eskariaren goranzko joera ikusten da, halaber, 55-74 urteko pertsonak dauden etxeko unitateetan, eta zifra horiek 2006an % 3tik hurbilekoak izatetik 2010ean % 5era igaro ziren (% 3,2tik % 4,8ra 55-64 urtekoetan eta % 3,3tik % 5,3ra 65-74 urtekoetan). Igoera txikiagoa baldin bada ere, atzematen da igoerak gora egin duela 75 urtetik gorako etxeko unitateetan (% 3,9tik % 4,4ra); hori guztia 45-54 urteko etxeko unitateetan ikusten den % 6,1etik % 5,5era bitarteko jaitsierarekin kontrastean. Nolanahi ere, 45 urtetik beherako etxeko unitateen garrantziari eutsi egin zaio eskariaren banaketari dagokionez, % 48,4ko ekarpena baitago, 2006ko 47,9a baino zertxobait gorago.

2010ean nabarmena da atzerritarrek prestazio eta laguntza mota horietara jo izanaren diferentziala. Estatuko etxeko unitateen % 5ek eskatu ditu prestazioak, atzerritar bat buru duten etxeko unitateen % 46,5ek egiten du, aldiz, eskari hori. Laguntzak lortzeari dagokionez goranzko joera ikusten da, halaber, Estatuko etxeko unitateetan (% 4,7tik % 5era), baina askoz ere deigarriagoa da atzerritarren artean, kasu horretan 2006ko % 35,9tik gora egin baitu. Nabarmendu behar da, ordea, Estatuko biztanleria nagusitzen dela guztizko eskariari dagokionez, DBE, EGPO, GLL, KGP sistemara jotzeari begira egindako eskaeren % 70 baita (% 80,2 2006an).

Termino sozioekonomikotan, eskaria oinarrizko premiak estaltzeko arazoak dituzten talde kaltetuenekin lotzen da. Izan ere, gaur egun gabezia-arazorik ez duten etxeko unitate eskatzaileen % 3,9ko zifrekin kontrajarririk, proportzioa % 31,7ra igotzen da oinarrizko premiak estaltzeko arazo partzialak dituzten kasuan, eta % 59,2ra arazo dimentsioaniztunen kasuan. 2006arekin alderatuta, eskaria egonkortu egin da egoera okerreanean dagoen taldean (% 3,8), baina nabarmen igo da gabezia-arazoen eraginpean dauden bi taldeetan (2010eko zifrak % 26,4 eta % 41,5 baitira, hurrenez hurren).

Aztertutako laguntzen eta prestazioen eskaria kolokako okupazio-egoerekin lotzen da, zifrak % 6tik hurbilekoak edo hortik beherakoak dira ez-aktiboak edo aktiboak (horietatik gutxienez bat landun egonkorra) dituzten etxeen unitateetan. Proporzioa, ordea, % 24,6 da langabeak eta landun ezegonkorak dituzten etxeen unitateen kasuan, eta % 32ra iritsi da aktibo guztiak langabeak diren etxeen unitateetan.

Bestalde, eskari txikiena pertsona aktibo guztiak landunak (gutxienez horietako bat egoera egonkorrean dago) dituzten etxeen unitateei dagokie. Kasu horretan, eskaria % 3 ingurukoa edo hortik beherakoa da.

Azken urtean EAEko babes ekonomikoko sistemaren laguntzak eta prestazioak eskatu dituzten pertsonak dituzten etxeen unitateak, pertsona nagusiaren sexuaren, adinaren eta nazionalitatearen arabera.

2006. eta 2010. urteak

(Eragina erreferentziatzko taldean, %-tan eta % bertikalak)

		2006		2010	
		Eragina	% ber.	Eragina	% ber.
Sexua	Gizonak	3,8	49,7	5,3	57,4
	Emakumeak	10,9	50,3	11,1	42,6
Adina	< 35 urte	14,5	27,1	14,7	19,6
	35-44 urte	6,0	20,8	9,5	28,8
	45-54 urte	6,1	20,7	5,5	16,6
	55-64 urte	3,2	10,4	4,8	12,0
	65-74 urte	3,3	8,9	5,3	11,4
	>75 urte	3,9	12,0	4,4	11,6
Nazionalitatea	Estatukoa	4,7	80,2	5,0	70,0
	Beste bat	35,9	19,8	46,5	30,0
Guztira	Guztira	5,7	100	6,8	100

Oharra: DBE, EGPO, GLL, KGP, GOF eta PAGAMI prestazioak ere kontuan hartu dira

Azken urtean EAEko babes ekonomikoko sistemaren laguntzak eta prestazioak eskatu dituzten pertsonak dituzten etxeen unitateak: gabezia-egoerak eta jarduerarekiko erlazioa.

2006. eta 2010. urteak

(Eragina erreferentziatzko taldean %-tan eta % bertikalak)

		2006		2010	
		Eragina	% ber.	Eragina	% ber.
Gabezia	Dimentsioaniztuna, oinarrizko premiak	41,5	13,4	59,2	21,3
	Partziala, oinarrizko premiak	26,4	23,2	31,7	25,4
	Oinarrizko gabezia	30,4	36,7	40,2	46,8
	Gabeziarik gabe, edo aisian baino ez	3,8	63,3	3,9	53,2
Jarduerarekiko erlazioa	Aktiboak, denak landun egonkorak	2,6	20,7	3,1	20,7
	Aktiboak, denak landunak, baten bat egonkorra	4,5	9,6	2,3	3,1
	Aktiboak (langabeak edo landunak), baten bat egonkorra	9,5	9,4	5,7	6,5
	Aktiboak (langabeak edo landunak), bat ere ez egonkorra	13,0	16,2	24,6	27,7
	Aktiboak, guztiak langabeak	34,7	20,2	32,0	19,1
	Aktiborik gabe	4,9	23,9	6,1	22,9
Guztira	Guztira	5,7	100	6,8	100

Oharra: DBE, EGPO, GLL, KGP, GOF eta PAGAMI prestazioak ere kontuan hartu dira

8.2.2. EAEko beste laguntza ekonomiko batzuk

Laguntza-sisteman kontuan hartu behar den beste eremu bat bestelako laguntza osagarrien eskariarekin lotuta dagoena da, normalean tokian-tokian kudeatzen dena, eta laguntza horiek hainbat alderdirekin lotuta daude, hala nola etxebizitza-tasen hobaria, eskola-jangelako edo hartzaindegiko beka edo baita Udal edo erakunde asoziatibo batzuek bizirauteko ematen dituzten aldizkako laguntzekin ere.

2010ean, EAEko 75.167 etxeen unitatek, guztira daudenen % 9,2k, eskariren bat egin du inkesta egin den aldiaren aurreko hamabi hilabeteetan aintzat hartutako laguntza osagarri dagokienez. Horrek esan nahi du % 44,3ko igoera izan dela 2006ko 52.099 etxeen unitateekin alderatzen badugu. Urte horretan eskaria Euskadiko etxeen unitateen % 6,6 besterik ez zen izan.

Azken urtean EAEn beste laguntza ekonomiko batzuk eskatu dituzten pertsonak bizi diren etxeen unitateak 2006. eta 2010. urteak (Datu absolutuak eta % bertikalak)

Laguntzak eskatzea	2006		2010	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Eskatzailea	52.099	6,6	75.167	9,2
Ez da eskaririk ageri	734.762	93,4	740.786	90,8
Guztira	786.862	100	815.954	100

Oharra: Etxebizitza-tasak ordaintzeko laguntzak, jangelako edo hartzaindegiko beka eta oinarrizko premietarako beste laguntza ekonomiko batzuk kontuan hartu dira

Laguntza mota horien eskaria handiagoa da gizona buru duten etxeen unitateen kasuan (% 10,3, emakumea buru duten etxeen unitateen kasuan, aldiz, % 6); zirkunstantzia hori etxeen unitate mota horrek egindako eskarian ikusitako igoera handiaren isla da (2006an % 6,9) emakumeak buru diren etxeen unitateetan eskaria egonkortu egiten den testuinguruan.

Laguntza horien eskaria desberdina da 45 urtetik beherako etxeen unitateen kasuan, bereziki 35-44 urtekoetan (eskarrien % 25,3; 35 urtetik beherako etxeen unitateetan, aldiz, % 16,5). Nahiz eta bi taldeetan eskariak gora egin duen 2006-2010 aldian, igoera askoz ere handiagoa da 35-44 urtekoak buru dituzten etxeen unitateetan (% 17,4tik % 25,3ra, eta % 13,5etik % 16,5era bitarteko igoera talde gazteenean). Eskaria igo egin da 45-54 urteko pertsonen etxeen unitateetan ere, kasu horretan % 5,5etik % 8,7ra igo baita eskatzaileen proportzioa. 55 urtetik aurrera eskariari % 2tik behera eutsi zaio, ordea, 2006an gertatzen zen bezala.

Talde gazteenetan eskaria handia dela egiaztatzen da kontuan hartzen badugu etxekoen unitate eskatzaileen % 73,5 45 urtetik beherakoa den pertsona nagusiarekin lotuta dagoela 2010ean (% 72,7 2006an).

Berriz ere nabarmendu egiten da atzerritarrek eskarirako joera handiagoa izatea (% 39,9, Estatuko etxekoen unitateen kasuan, aldiz % 7,8); nolana ere, bi kasuetan goranzko joera dago 2006arekin alderatzen badugu (% 25,7 eta % 6, hurrenez hurren). 2006ko % 87,9tik jaitsi bada ere, eskariaren % 80,9 Estatuko etxekoen unitateei dagokie, ordea.

Era berean, 2010ean sendotu egin da eskariaren eta kolokatasun ekonomikoaren arteko erlazioa. Oinarrizko gabeziarik gabeko egoeretan dauden etxekoen unitate eskatzaileen % 7,6arekin kontrajarririk, proportzio hori % 23,2ra iritsi da oinarrizko premiak estaltzeko arazo partzialak dituztenen kasuan eta % 37,3ra arazo dimentsioaniztunak daudenean. Eskariari dagokionez, kasu guztietan goranzko joera dago eta eskari hori igo egin da 2006-2010 aldian, kolokatasun-egoera areagotu ahala, zifrak honako hauek izan baitira, hurrenez hurren, 2006an: % 6, % 14,7 eta % 17,3.

Eskaria, halaber, langabeak dituzten eta landun egonkorrik ez duten etxekoen unitateetan; egoera horietan zifrak % 20 ingurukoak edo hortik gorakoak baitira. Nolanahi ere, eskaria % 9-10 mailetara hurbildu da edo hortik gorakoa da landunak dituzten edozein motatako etxekoen unitateetan. Ez-aktiboek etxekoen unitateetan eskaria % 1,5 da, aktiboak dituzten etxekoen unitate guztietan, aldiz, 2006-2010 aldian ikusten da laguntza mota horren eskaria nabarmen igo dela, bereziki langabeak daudenean.

Azken urtean EAEn beste laguntza ekonomiko batzuk eskatu dituzten pertsonak dituzten etxekoen unitateak, pertsona nagusiaren sexuaren, adinaren eta nazionalitatearen arabera.

2006. eta 2010. urteak

(Eragina erreferentziazko taldean, %-tan eta % bertikalak)

		2006		2010	
		Eragina	% ber.	Eragina	% ber.
Sexua	Gizonak	6,9	76,4	10,3	82,9
	Emakumeak	6,0	23,6	6,0	17,1
Adina	< 35 urte	13,5	21,5	16,5	16,3
	35-44 urte	17,4	51,2	25,3	57,2
	45-54 urte	5,5	15,9	8,7	19,1
	55-64 urte	1,6	4,2	1,7	3,1
	65-74 urte	1,5	3,5	1,9	3,0
	>75 urte	1,4	3,6	,6	1,2
Nazionalitatea	Estatukoa	6,0	87,9	7,8	80,9
	Beste bat	25,7	12,1	39,9	19,1
Guztira		6,6	100	9,2	100

Oharra: Etxebizitza-tasak ordaintzeko laguntzak, jangelako edo haurtzaindegiko beka eta oinarrizko premietarako beste laguntza ekonomiko batzuk kontuan hartu dira

Azken urtean EAEn beste laguntza ekonomiko batzuk eskatu dituzten pertsonak dituzten etxekoen unitateak, etxekoen unitatearen egoeraren arabera: gabezia-egoerak eta jarduerarekiko erlazioa.2006. eta 2010. urteak
(Eragina erreferentziazko taldean, %-tan eta % bertikalak)

		2006		2010	
		Eragina	% ber.	Eragina	% ber.
Gabezia	Dimentsioaniztuna, oinarritzko premiak	17,3	4,8	37,3	10,0
	Partziala, oinarritzko premiak	14,7	11,0	23,2	13,8
	Oinarritzko gabezia	15,4	15,8	27,6	23,8
	Gabeziarik gabe, edo aisian baino ez	6,0	84,2	7,6	76,2
Jarduerarekiko erlazioa	Aktiboak, denak landun egonkorrak	7,2	48,4	9,1	45,2
	Aktiboak, denak landunak, baten bat egonkorra	10,8	19,7	12,9	13,0
	Aktiboak (langabeak edo landunak), baten bat egonkorra	6,9	5,9	11,4	9,5
	Aktiboak (langabeak edo landunak), bat ere ez egonkorra	12,7	13,6	23,6	19,7
	Aktiboak, guztiak langabeak	12,5	6,2	18,9	8,4
	Aktiborik gabe	1,5	6,2	1,5	4,3
Guztira	Guztira	6,6	100	9,2	100

Oharra: Etxebizitza-tasak ordaintzeko laguntzak, jangelako edo haurtzaindegiko beka eta oinarritzko premietarako bestelako laguntza ekonomikoak kontuan hartu dira

8.2.3. Zaintza-zerbitzuak

Gizarteratzeko laguntza eta prestazio ekonomikoez gain, GZEE-GPIak aintzat hartzen du, halaber, etxekoen unitateetako kideak zaintzeko zerbitzuekin lotutako eskaria. Modu espezifikoan aintzat hartutako zerbitzuak honako hauek dira: etxeko laguntza, eguneko zentroak edo okupazio-zentroak, telelaguntza, aldi baterako egonaldia egoitzan eta etxebizitza komunitarioaren zerbitzua edo egoitza-zerbitzua.

Oro har, 2010eko inkesta egin zen aldiko aurreko hamabi hilabeteetan, EAeko 60.123 etxekoen unitatek eskatu dute atal honetan aintzat hartzen diren arreta- eta zaintza-zerbitzuetakoren bat: guztizkoaren % 7,4k. Eskariaren joera, era berean, goranzkoa da kasu honetan, 2006ko 51.351 etxekoen unitate eskatzaileekin alderatuta % 17,1 igo baita. EAeko guztizko etxekoen unitateei dagokienez, eskaria 2006ko % 6,5etik 2010eko % 7,4ra igo da.

Azken 12 hilabeteetan zaintza-zerbitzuak eskatu dituzten pertsonak dituzten etxekoen unitateak.
2006. eta 2010. urteak
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Eskatu dute	2006		2010	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Bai	51.351	6,5	60.123	7,4
Ez	735.510	93,5	755.831	92,6
Guztira	786.862	100	815.954	100

Oharra: Etxez etxeko laguntza, eguneko zentroak, telelaguntza eta zentroetan egonaldiak ere kontuan hartu dira

Genero-ikuspegitik begiratuta, laguntza- eta zaintza-zerbitzuen eskariak modu desberdinean bereizten ditu emakumeak buru dituzten etxeen unitateak. Izan ere, etxeen unitate horien % 14,0k eskatu du aztertutako zerbitzuren bat, gizon bat buru duten etxeen unitateen kasuan, aldiz, % 5ek. Hala eta guztiz ere, azkenaldiko joerek erakusten dute hurbilketa txiki bat dagoela (adierazleak gora egin du gizonen artean 2006ko % 3,9tik abiatuta, eta % 14an eutsi dio emakumeak buru diren etxeen unitateen kasuan), eta horrek esan nahi du oreka handiagoa dagoela zaindutako etxeen unitateen banaketan (emakume eskatzaileak bizi diren etxeen unitateen % 49,5 2010ean, 2006an, aldiz, % 56).

Adinari dagokionez, 75 urteko edo gehiagoko pertsonak buru dituzten etxeen unitateek eskariari dagokionez duten protagonismoa sendotu egin da 2010ean, etxeen unitate horiek laguntza- eta zaintza-zerbitzuen onuradun guztien % 67,4 biltzen baitute, 2006ko % 59,8tik gora. Proportzio hori % 80,8ra iristen da pertsona titularra 65 urtetik gorakoa duten etxeen unitate guztiak aintzat hartzen direnean.

Zerbitzu horiek eskatzeko joera igo egin da adinarekin. 55 urtetik beherako etxeen unitateen kasuan, eskaria % 1,5 ingurukoa edo hortik beherakoa da, 55-74 urteko pertsonak buru dituzten etxeen unitateetan, aldiz, % 5-6 ingururen ezaugarri da. Zifra hori % 27,8raino igotzen da 75 urteko edo gehiagoko pertsona nagusia duten etxeen unitateetan, 2006ko % 22,1aren gainetik argi eta garbi.

Prestazio eta laguntza ekonomikoen sisteman ez bezala, laguntza- eta zaintza-zerbitzuak Estatuko nazionalen arreta soilik erakartzen dute ia bere osotasunean, etxeen unitate mota horrek eskariaren % 99,3 biltzen baitu. Atzerritar eskatzaileak bizi diren etxeen unitateen % 1,1ari kontrajarririk, proportzio hori % 7,7 da Estatukoak bizi diren etxeen unitateetan; nolahi ere, proportzioa igotzen ari da bi kasuetan (% 0 eta % 6,7 2006an).

Halaber, nabarmena da zerbitzu horien eskariaren eta etxeen unitatean artatzen den pertsona motaren artean dagoen harreman estua. Izan ere, gutxienez mendetasun ertaina duten bi pertsona edo gehiago dituzten etxeen unitateen % 71,1ek eskatu ditu laguntza- eta zaintza-zerbitzuak. Proportzio hori % 57,5era jaitsi da zirkunstantzia horietan dagoen pertsona bakar baten kasuan, eta % 50,4ra mendetasun berezia duten bi pertsona edo gehiago dauden bestelako egoeretan, eta pertsona horietako batek gutxienez ertaina baino larritasun txikiagoa baldin badu. Proportzioa % 13,8ra jaitsi da muga txikiagoak dituzten pertsonak bizi diren etxeen unitateetan.

Azken joerek erakusten dute, ordea, mendetasun berezia duten bi pertsona edo gehiago dauden etxeen unitateen kasuan eskariak behera egin duela 2006-2010 aldian (% 80tik % 71,1era mendetasun ertain motaren bat dagoenean, eta % 59,7 tik % 50,4ra beste egoera batzuetan). 2006-2010 aldian,

ordea, eskaria igo egin da gutxienez ertaina den mendetasuna duen pertsona bat bakarrik izateak bereizten dituen egoeretan (50,7tik % 57,5era). Etxekoen unitateen azken talde hori eskariaren oinarri nagusia da, laguntza- eta zaintza-zerbitzuak eskatu dituzten guztizko etxekoen unitateen % 56,2 baita, 2006ko % 50aren gainetik. Ondoren, muga txikiagoak dituzten pertsonak dauden etxekoen unitateak daude (% 31,9) eta mendetasun berezia duten bi pertsona edo gehiago dituzten etxekoen unitateak (% 11,9).

Azken 12 hilabeteetan zaintza-zerbitzuak eskatu dituzten pertsonak dituzten etxekoen unitateak, pertsona nagusiaren sexuaren, adinaren eta nazionalitatearen eta zaindutako pertsona motaren arabera, eta etxekoen unitatean zaintzailerik badagoen kontuan hartuta. 2006. eta 2010. urteak
(Eragina erreferentziarako taldean %-tan eta % bertikalak)

		2006		2010	
		Eragina	% ber.	Eragina	% ber.
Sexua	Gizonak	3,9	44,0	5,0	50,5
	Emakumeak	14,0	56,0	14,0	49,5
Adina	< 35 urte	,2	,4	1,6	1,9
	35-44 urte	2,1	6,1	,7	1,9
	45-54 urte	3,3	9,6	1,5	4,0
	55-64 urte	3,5	9,7	5,2	12,1
	65-74 urte	6,2	14,4	6,3	12,6
	>75 urte	22,1	59,8	27,8	67,4
Nazionalitatea	Estatukoa	6,7	100	7,7	99,3
	Beste bat	,0	,0	1,1	,7
Zaindutako pertsonak	Gutxienez ertaina den mendetasuna duten bi pertsona edo gehiago	80,0	4,6	71,1	5,0
	Mendetasun berezia (beste kasu batzuk) duten bi pertsona edo gehiago	59,7	7,1	50,4	6,9
	Gutxienez mendetasun ertaina duen pertsona bat	50,7	50,0	57,5	56,2
	Beste muga batzuk	13,9	38,3	13,8	31,9
Zaintzailea etxekoen unitatean	Zaintzaileak	35,2	39,7	41,3	48,3
	Zaintzailerik gabe	4,2	60,3	4,2	51,7
Guztira	Guztira	6,5	100	7,4	100

Oharra: Etxez etxeko laguntza, eguneko zentroak, telelaguntza eta zentroetan egonaldiak ere kontuan hartu dira

Bestelako eskari-modalitateetan ez bezala, kasu honetan ez da alde nabarmenik ikusten etxekoen unitateen artean oinarrizko gabezia-egoerak izatearen edo ez izatearen arabera. Batez ere erabakigarria da eskaria ez-aktiboak dauden etxekoen unitateekin lotuta. Etxekoen unitateen % 17,3k eskatu ditu zerbitzu horiek, guztizko eskariaren % 60,2 bilduz.

Esan behar da, nolahi ere, aktiboak bizi diren etxekoen unitateetan ikusten dela eskaerarekiko portaera desberdina dela landun egonkorak dauden edo ez dauden kontuan hartzen bada. Lan egonkorren bat baldin badago, eskariarekiko joera etxekoen unitateen % 3,3tik % 4ra bitartekoa da. Eskaria % 6,2ra igotzen da, ordea, langabeak edo landun ezegonkorak bizi diren etxekoen unitateetan eta % 6,7ra pertsona aktibo guztiak langabeak dituzten etxekoen unitateetan.

Azken 12 hilabeteetan zaintza-zerbitzurik eskatu ez duten pertsonak dituzten etxeen unitateak, etxeen unitatearen egoeraren arabera: gabezia-egoerak eta jarduerarekiko erlazioa. 2006. eta 2010. urteak
(Eragina erreferentziatzeko taldean %-tan eta % bertikalak)

		2006		2010	
		Eragina	% ber.	Eragina	% ber.
Gabezia	Dimentsioaniztuna, oinarritzko premiak	6,6	1,8	4,3	1,4
	Partziala, oinarritzko premiak	10,1	7,7	8,5	6,3
	Oinarritzko gabezia	9,2	9,6	7,2	7,8
	Gabeziarik gabe, edo aisian baino ez	6,3	90,4	7,4	92,2
Jarduerarekiko erlazioa	Aktiboak, denak landun egonkorrak	3,4	23,4	3,3	20,5
	Aktiboak, denak landunak, baten bat egonkorra	1,7	3,2	4,0	5,1
	Aktiboak (langabeak edo landunak), baten bat egonkorra	1,8	1,5	3,8	4,0
	Aktiboak (langabeak edo landunak), bat ere ez egonkorra	3,6	3,9	6,2	6,4
	Aktiboak, guztiak langabeak	7,8	3,9	6,7	3,7
	Aktiborik gabe	15,3	64,1	17,3	60,2
Guztira	Guztira	6,5	100	7,4	100

Oharra: Etxez etxeko laguntza, eguneko zentroak, telelaguntza eta zentroetan egonaldiak ere kontuan hartu dira

8.2.4. Pertsonak zaintzeko laguntza ekonomikoak (mendetasuna)

Bestalde, mendetasuna duten etxeen unitateko kideak zaintzeko azken urtean laguntza ekonomikoak eskatu dituzten edo datozen hamabi hilabeteetan eskatu beharko dituztela uste duten 38.364 etxeen unitate, hots, guztizkoaren % 4,7 biltzen ditu GZEE-GPIak.

Zifra horiek erakusten dute eskariaren presioak nabarmen egin duela gora azken urte hauetan, eta horren kopurua % 107,4 igo da 2006an inplikaturako 18.494 etxeen unitateekin alderatuta. Etxeen unitate eskatzaileen proportzioa % 2,4tik % 4,7ra igaro da aintzat hartutako aldirian.

Mendetasuna duten pertsonak etxeen unitatean zaintzeko laguntza ekonomikoetara jo duten edo datorren urtean jotzeko asmoa duten etxeen unitateak. 2006. eta 2010. urteak
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Jo du edo joko du	2006		2010	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Bai	18.494	2,4	38.364	4,7
Ez	768.367	97,6	777.590	95,3
Guztira	786.862	100	815.954	100

Mendetasuna duten pertsonak zaintzeko laguntza ekonomikoak behar dituzten etxeen unitateen ezaugarri bereizgarriak aztertzen badira, egiazta daiteke azken urteetan nabarmen igo dela emakumeak eskariari egindako ekarpenaren diferentziala. Hortaz, eskariarekiko joera % 11 da emakumea buru duten etxeen unitateetan, zifra hori 2006ko % 3,5a baino askoz handiagoa da. Nolanahi ere, eskariak gora

egin du gizonak bizi diren etxeen unitateetan ere, baina igoera hori neurrizkoagoa da (% 1,9tik % 2,5era 2006-2010 aldian). Bilakaera dibergente horren ondorioa da pertsona nagusia emakumea dute etxeen unitateekin lotutako eskariaren zatia nabarmen igo dela eta 2010ean gehiengoduna izatera iritsi dela (2006ko % 39,4tik 2010eko % 60,9ra).

Eskarira bideratutako etxeen unitate gehienetan 75 urteko eta gehiagoko pertsona bat da buru; talde horretan, etxeen unitateen % 19,2k laguntza horiek behar ditu; ikusten denez, 2006arekin alderatuta, % 6,5eko igoera dago. Guztizko eskariari dagokionez etxeen unitate mota honek duen garrantzia 2006ko % 49tik 2010eko % 73,2ra igo da. Eskariaren igoera hori 65-74 urtekoak bizi diren etxeen unitateetan ere ikusten da (% 1,8tik % 5,6ra 2006-2010 laurtekoan), 2006ko guztizko eskariaren % 11,4tik 2010eko % 17,5era igaro baita. Guztira, titularrak 65 urte edo gehiago dituen etxeen unitateak eskariaren % 90,7 dira, 2006ko % 60,4aren gainetik.

Eskaria pixkanaka-pixkanaka adin handieneko taldeetan biltzea ez da mendetasunarekin lotutako laguntza ekonomikoak lortzeko prozesuan talde horiek egiten duten presio handiagorekin soilik lotzen; era berean, 2006-2010 aldian erabakigarria da 65 urtetik beherako pertsonak bizi diren etxeen unitate gehienetan ere ikusten den jaitsiera. Eskariaren jaitsiera hori bereziki deigarria da (0,8 puntutik 1,7 puntura bitartekoa) 35-54 urteko pertsonak bizi diren etxeen unitateetan. Horren emaitza honako hau da: pertsona nagusia 65 urtetik gorakoa den etxeen unitateen % 5i baino gehiagori eragiten dion eskariari kontrajarririk, eskari hori % 1,4ra mugatzen da 55-64 urteko pertsonak bizi diren etxeen unitateetan, eta % 1etik beherako zifretara 55 urtetik beherako pertsonak buru direnetan. 65 urtetik beherako pertsonak bizi diren etxeen unitateek guztizko eskarian duten partaidetza 2006ko % 39,6tik 2010eko % 9,3ra jaitsi da.

Laguntza horiek eskatzen dituztenak Estatukoak dira nagusiki (pertsona nagusia Estatukoa duten etxeen unitateen kasuan, eskaria % 4,9 da, eta atzerriko pertsona nagusia dutenen kasuan, berriz, ia ez dago eskaririk).

Etxeen unitateetan zaintzen diren pertsonen mendetasun-egoera da alderdi erabakigarri bat eskarian. Izan ere, mendetasuna duten pertsonak zaintzeko laguntza ekonomikoaren eskatzaileak diren eta larritasun txikiagoko mugak dituzten pertsonak bizi diren etxeen unitateen % 8,2ari kontrajarririk, proportzioa % 38,5era igo da gutxienez ertaina den mendetasuna duen pertsona bat dagoen etxeen unitateen kasuan eta % 45,3ra gutxienez ertaina den mendetasuna duten bi pertsona edo gehiago bizi direnetan. Eskaririk handiena, ordea, mendetasun berezia duten bi pertsona edo gehiago dauden bestelako kasuak detektatzen diren etxeen unitateei dagokie (pertsona horietako batek mendetasun ertainetik beherako

larritasuna duen mendetasuna du). Zirkunstantzia horietan, zaintzarako laguntza ekonomikoaren eskaria etzekoen unitateen % 61ean ikusten da.

Oro har, mendetasun berezia duten bi pertsona edo gehiago, edo gutxienez ertaina den mendetasuna duen gutxienez pertsona bat bizi den etzekoen unitateak urte hartan guztizko eskariaren % 62,5 izatetik 2010ean % 72,3 izatera igaro dira. Nolanahi ere, eskariaren goranzko joera osasunari edo adin handiari lotutako mugak ikusten diren egoera guztietan atzematen da. Hortaz, larritasun txikiagoko mugak dituzten pertsonak bizi diren etzekoen unitateetan, eskaria 2006ko % 4,8tik 2010eko % 8,2ra igo da.

Dena den, laguntzaren eskariari dagokionez, oso garrantzitsua da etxean zaintza-lanak benetan egiten dituen pertsonarik badagoen ala ez kontuan hartzea. Izan ere, etzekoen unitate horien % 29,6k eskatu du laguntza ekonomikoa. Zaintzaile-funtzioak betetzen dituen inor ez dagoen etzekoen unitateen artean, berriz, laguntza eskatzen dutenak % 2,4 baino ez dira. Era berean, azken kasu honetan ere % 1,3tik % 2,4ra igo da eskaria, baina igoerarik handiena zaintzaileak bizi diren etzekoen unitateei dagokie; kasu honetan, eskaria % 15,5etik % 29,6ra igo baita 2006-2010 aldian.

Mendetasuna duten pertsonak zaintzeko laguntza ekonomikoak eskatu dituzten etzekoen unitateen % 54,2k zaintzaile-lanak egiten dituen pertsonaren bat du gaur egun. Gainerako % 45,8an, berriz, etzekoen unitatetik kanpoko pertsonen bidez erantzuten zaie laguntza-premiei.

Mendetasuna duten pertsonak etzekoen unitatean zaintzeko laguntza ekonomikoetara jo duten edo datorren urtean joko duten etzekoen unitateak, pertsona nagusiaren sexuaren, adinaren eta nazionalitatearen eta zaindutako pertsona motaren arabera, eta etzekoen unitatean zaintzailerik badagoen kontuan hartuta. 2006. eta 2010. urteak

(Eragina erreferentziarako taldean %-tan eta % bertikalak)

		2006		2010	
		Eragina	% ber.	Eragina	% ber.
Sexua	Gizonak	1,9	60,6	2,5	39,1
	Emakumeak	3,5	39,4	11,0	60,9
Adina	< 35 urte	,3	1,3	,9	1,8
	35-44 urte	1,3	10,4	,4	1,8
	45-54 urte	1,9	15,3	,2	,7
	55-64 urte	1,6	12,5	1,4	5,0
	65-74 urte	1,8	11,4	5,6	17,5
	>75 urte	6,5	49,0	19,2	73,2
Nazionalitatea	Estatukoa	2,4	99,2	4,9	100
	Beste bat	,6	,8	,0	,0
Zaindutako pertsonak	Gutxienez ertaina den mendetasuna duten bi pertsona edo gehiago	32,6	5,3	45,3	4,7
	Mendetasun berezia (beste kasu batzuk) duten bi pertsona edo gehiago	35,7	12,0	61,0	12,2
	Gutxienez mendetasun ertaina duen pertsona bat	16,2	45,3	38,5	55,4
	Beste muga batzuk	4,8	37,5	8,2	27,7
Zaintzailea etzekoen unitatean	Zaintzaileak	15,5	48,6	29,6	54,2
	Zaintzailerik gabe	1,3	51,4	2,4	45,8
Guztira		2,4	100	4,7	100

Zerbitzuen eskariarekin gertatzen zen bezala, berriz ere ikusten da batez ere erabakigarria dela ez-aktiboak dauden etxekoek unitateekin lotutako eskaria, etxekoek unitate horiek guztizko eskariaren % 57,7 baitira. Etxekoek unitate mota horretan, etxekoek unitateen % 10,5ek eskatu ditu laguntzak.

Halaber, aktiboak bizi diren etxekoek unitateetan ikusten da eskaerarekiko portaera desberdina dela etxekoek unitatean landun egonkorrak izatearen edo ez izatearen arabera. Etxekoek unitateko kideren batek lan egonkorra lortzen duen kasuetan, eskaerarekiko joera etxekoek unitateen % 2 inguru da, kopuru hori % 4,4ra igotzen da langabeak eta landun ezegonkorrak bizi diren etxekoek unitateetan, eta % 5,8ra pertsona aktibo guztiak langabeak diren etxekoek unitateetan.

Mendetasuna duten pertsonak etxekoek unitatean zaintzeko laguntza ekonomikoetara jo duten edo datorren urtean joko duten etxekoek unitateak, etxekoek unitatearen egoeraren arabera: gabezia-egoerak eta jarduerarekiko erlazioa 2006. eta 2010. urteak

(Eragina erreferentziatzeko taldean, %-tan eta % bertikalak)

		2006		2010	
		Eragina	% ber.	Eragina	% ber.
Gabezia	Dimentsioaniztuna, oinarritzko premiak	6,1	4,8	1,8	,9
	Partziala, oinarritzko premiak	3,7	7,8	6,5	7,6
	Oinarritzko gabezia	4,3	12,5	5,1	8,5
	Gabeziarik gabe, edo aisian baino ez	2,2	87,5	4,7	91,5
Jarduerarekiko erlazioa	Aktiboak, denak landun egonkorrak	1,3	25,5	2,3	22,7
	Aktiboak, denak landunak, baten bat egonkorra	1,5	7,6	2,1	4,2
	Aktiboak (langabeak edo landunak), baten bat egonkorra	,9	2,3	2,0	3,3
	Aktiboak (langabeak edo landunak), bat ere ez egonkorra	2,1	6,2	4,4	7,1
	Aktiboak, guztiak langabeak	3,6	5,0	5,8	5,0
	Aktiborik gabe	4,6	53,5	10,5	57,7
Guztira		2,4	100	4,7	100

8.2.5. Familientzako laguntzak

Kasu honetan laguntzak eskatzea zuzenean aintzat hartuta, GZEE-GPIak azken hamabi hilabeteetan seme-alabak dituzten familiak babesteko Erakunde arteko Planaren laguntzak edo laguntzeko bestelako neurri paraleloak (hala nola, Udal batzuek edo Estatuko Administrazio Zentralak kudeatzen dituztenak, normalean beste seme edo alaba bat jaiotzean laguntzak ematearekin lotuta daudenak) jaso dituzten etxekoek unitateei buruzko informazioa ere bildu du.

Guztira, 65.523 etxekoek unitatek jaso ditu azken hamabi hilabeteetan laguntza horiek, EAEn dauden guztizko etxekoek unitateen % 8k. Zifra horrek erakusten du 2006ko % 10,2arekin alderatzen badugu, jaitsiera dagoela, guztira 80.219 etxekoek unitate onuradun baitaude.

Azken hamabi hilabeteetan familiei laguntzeko neurriren bat (seme-alabengatiko laguntzak barne) erabili duten etxekoen unitateak. 2006. eta 2010. urteak

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Erabili ditu	2006		2010	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Bai	80.219	10,2	65.523	8,0
Ez	706.643	89,8	750.431	92,0
Guztira	786.862	100	815.954	100

Oharra: Udalak eta Estatuak emandako laguntzak ere kontuan hartu dira

Aintzat hartutako familiei ematen zaizkien laguntza guztietaz onura handiena atera duten etxekoen unitateen ezaugarriak kontuan hartzen baditugu, gizona buru duten etxekoen unitateak nabarmentzen dira, guztizko onuradunen % 91,4 baitira; era berean, 45 urtetik beherako pertsonak buru dituzten etxekoen unitateak ere nabarmentzen dira, adin horietan biltzen baita laguntzen guztizkoaren % 89,2 (% 67,9 soilik 35-44 urteko pertsonen etxekoen unitateei dagokienez). 35-44 urteko pertsonak bizi diren etxekoen unitateen % 26,2k lortu du familientzako dauden laguntzetakoren bat, eta 35 urtetik beherako pertsona nagusi bat duten etxekoen unitateei dagokien % 18,8 gainditzen dute. Proportzio hori % 3,2ra jaisten da 45-54 urteko pertsonak buru dituzten etxekoen unitateen kasuan eta % 1etik beherako zifretara 55 urtetik gorako pertsonak buru dituzten etxekoen unitateetan.

Etxekoen unitate onuradunen % 90,9an pertsona nagusia Estatukoa bada ere, laguntzak lortzen dituztenen proportzioa atzerriko pertsona nagusia duten etxekoen unitateetan Estatukoa dutenetan baino handiagoa da (% 16,7 eta % 7,6 Estatukoak buru dituzten etxekoen unitateen kasuan). Laguntzara jotzeko beheranzko joera ikusten da, ordea, bi egoeretan, 2006ko zifrak % 22,1 eta % 9,8 baitira.

Azken hamabi hilabeteetan familiei laguntzeko neurriren bat (seme-alabengatiko laguntzak barne) erabili duten etxekoen unitateak, pertsona nagusiaren sexuaren, adinaren eta nazionalitatearen arabera. 2006. eta 2010. urteak

(Eragina erreferentziazko taldean %-tan eta % bertikalak)

		2006		2010	
		Eragina	% ber.	Eragina	% ber.
Sexua	Gizonak	12,5	90,3	9,9	91,4
	Emakumeak	3,8	9,7	2,6	8,6
Adina	< 35 urte	21,7	22,4	18,8	21,3
	35-44 urte	34,0	65,1	26,2	67,9
	45-54 urte	5,9	11,1	3,2	8,1
	55-64 urte	,3	,6	,6	1,2
	65-74 urte	,3	,4	,4	,8
	>75 urte	,2	,4	,3	,7
Nazionalitatea	Estatukoa	9,8	93,2	7,6	90,9
	Beste bat	22,1	6,8	16,7	9,1
Guztira		10,2	100	8,0	100

Oharra: Udalak eta Estatuak emandako laguntzak ere kontuan hartu dira

Laguntza horien onuradunak aktibo guztiak okupatuta dituzten etxeen unitateak dira nabarmendu behar den funtsezko alderdi bat (aintzat hartutako laguntzak jaso dituzten etxeen unitateen % 81,2 dira etxeen unitate horiek). Izan ere, pertsona aktibo guztiak langabeak diren etxeen unitateei dagokienez izan ezik (etxeen unitateen % 9,5 da laguntzetara jotzen dutenen kopurua), laguntzetara jotzen duten etxeen unitateen kopurua jaitsi egiten da lan egonkorreko moduetatik gehiago aldatzen diren neurrian. Izan ere, aktibo guztiak landun egonkorak diren etxeen unitateetan % 12,6k jotzen du laguntza horietara, baina proportzioa % 8,7 da aktibo landunak dituzten baina horietakoren bat egoera ezegonkorrean dagoen etxeen unitateetan, % 7,7 langabeak eta landunak dauden (nahiz eta horietakoren bat modu egonkorrean) etxeen unitateetan, eta % 6,9 langabeak eta landun ezegonkorak dauden etxeen unitateetan.

Nolanahi ere, datu deigarriena da laguntza horiek baliatu dituzten etxeen unitate gehienek (% 89,3) gaur egun ez dutela arazorik nahi dituzten seme-alabak izateko. Laguntza horiek batez ere arazo mota horiek dituzten etxeen unitateek jaso badituzte ere, (17; beste kasuan, aldiz, % 7,6) adierazi beharra dago laguntza horiek familia-ugalketako arazoak dituzten etxeen unitate gutxi batzuek jaso dituztela. Horretaz gain, ikusten da % 31,4tik % 17ra bitarteko jaitsiera dagoela 2006-2010 aldian nahi dituzten seme-alabak izateko arazoak dituen talde horrek laguntzak baliatzeko mailei dagokienez.

Azken hamabi hilabeteetan familiei laguntzeko neurriren bat (seme-alabengatiko laguntzak barne) erabili duten etxeen unitateak, etxeen unitatearen egoeraren arabera: demografia-ugalketako arazoak, gabezia-egoerak eta jarduerarekiko erlazioa. 2006. eta 2010. urteak
(Eragina erreferentziako taldean %-tan eta % bertikalak)

		2006		2010	
		Eragina	% ber.	Eragina	% ber.
Ugalketa-arazoak	Bai	31,4	19,1	17,0	10,7
	Ez	8,8	80,9	7,6	89,3
Gabezia	Dimentsioaniztuna, oinarrizko premiak	15,8	2,8	15,3	4,7
	Partziala, oinarrizko premiak	9,2	4,5	10,2	7,0
	Oinarrizko gabezia	11,0	7,3	11,8	11,7
	Gabeziarik gabe, edo aisian baino ez	10,1	92,7	7,7	88,3
Jarduerarekiko erlazioa	Aktiboak, denak landun egonkorak	15,5	68,0	12,6	71,2
	Aktiboak, denak landunak, baten bat egonkorra	14,7	17,4	8,7	10,0
	Aktiboak (langabeak edo landunak), baten bat egonkorra	11,0	6,1	7,7	7,4
	Aktiboak (langabeak edo landunak), bat ere ez egonkorra	7,9	5,5	6,9	6,6
	Aktiboak, guztiak langabeak	7,1	2,3	9,5	4,8
	Aktiborik gabe	,3	,7	,0	,0
Guztira		10,2	100	8,0	100

Oharra: Udalak eta Estatuak emandako laguntzak ere kontuan hartu dira

ERANSKINA: ADIERAZLEAK, KONTZEPTUAK ETA DEFINIZIOAK

Gizarteratze-adierazleak

GZEE-GPIan aintzat hartutako gizarteratze-adierazle nagusiek honako hauekin dute zerikusia:

Eskola-integrazioa

6 urtetik 16 urtera bitarteko taldean, honako hauekin zerikusia duten arazoak edo zailtasunak ikusi dira:

- * Hezkuntza-egoera, eskolaterik ezari, ohiko eskola-absentismoari edo eskola-atzeratasunari lotutako arazoekin.
- * Eskolan integratzeko prozesuak, bazterketari, jazarpenari edo tratatu txarrei lotutako eskola-arazoekin, eta eskola-bizitzan parte-hartzea eragozten duten bestelako alderdiak.

0 urtetik 5 urtera bitarteko biztanleriaren haurtzaindegian edo ikastetxean integratzeko prozesuak ere hartu dira aintzat.

Laneko integrazioa

16 urtetik 64 urtera bitarteko biztanleriaren barnean, laneratzeko zenbait arazo berezi ageri dira. Lanetik kanpo geratzeko arrisku-egoera larriekin edo produkzio-sisteman sartzeko zirkuitu arruntetatik kanpo kokatutako enplegu mota bat eskuratzearekin zerikusia duten kasuak dira oro har.

Berriaz, honako laneratze-arazo berezi hauek hartu dira aintzat:

- * Langabezian, edo lan marjinalak eginez egotea, duela 18 hilabete baino gehiagotik hona (betiere etxekoen unitateko pertsona nagusia bada)
- * Langabezian, edo lan marjinalak eginez egotea, duela 30 hilabete baino gehiagotik hona (etxekoen unitateko gainerako kideen kasuan)
- * Lan-baimenik gabe egotea —atzeritar landunen kasuan— edo enplegu bila aritzea.
- * Arazotzat jotzen bada betiere, honako zirkunstantzia hauetan lanean aritzea:

- Enplegua eskuratzeko prozesu bereziak, garai bateko Auzolan programaren ildotik
- Laneratzeko enpresak
- Enplegu-zentro bereziak.

Gizarteratzea

Gizarteratzeko prozesuei eragiten dieten beste zenbait alderdi ere hartzen dira aintzat, hala nola:

- * Honako hauekin zerikusia duten arazo larriak: bakardadea, familia-banantzeko prozesuak, desatentzioa, marjinazioa, bazterketa, gatazka, jazarpena edo indarkeria, honako gai hauek berariaz aintzat hartuta:
 - Bakardade- edo tristura-arazoak.
 - Familia-banantzeari lotutako arazoak.
 - Familiaren arretarik ezari edo bazterketari lotutako arazoak.
 - Tratu txarrei, erasoei edo indarkeriari lotutako egoerak gizarte-ingurunean.
- * Gizarte-bazterketako arazoak, larriak zein ez hain larriak, gizarte- edo geografia-jatorriak, arrazak, etniak, kulturak, hizkuntzak, erlijioak edo atzerritar-izaerak eragindakoak.

Osasunari edo adin aurreratuari lotutako mugak eta mendetasun berezia

Osasunari edo adin aurreratuari lotutako mugak izaten dira, oro har, osasunari edo adin aurreratuari lotutako arazoei loturik, pertsona bati nolabaiteko gaixotasun kronikoa edo mendetasuna diagnostikatzen diotenean, edota pertsona batek bere eguneroko jarduerak garatzean zailtasunak ditutenean, txiki-txikiak izanagatik ere (eskolan edo lanean laguntza berezi baten premia izatea barne).

6 urtetik beherako pertsoneri dagokienez, **mendetasun bereziko** arazoen barnean hartzen dira adin bereko haurrei normalean eman ohi zaiena baino zaintza edo laguntza handiago baten beharra dutenak. 6 urtetik gorakoen artean, berriz, honako hiru zirkunstantzia hauetako bat hartzen da aintzat:

- * Hirugarren pertsonen mendetasuna, puntuala edo jarraitua, eguneroko bizitzako gutxienez jarduera bat garatzeko
- * Laguntza bereziaren premia eskolan (ikastetxe berezietara bertaratzea barne)
- * Laguntza bereziaren premia lanean (enpleguko zentro berezietara bertaratzea barne)

6 urteko edo urte gehiagoko biztanleriari dagokionez, Barthel-Lawton eskala mistoa aplikatuz, mendetasun bereziko moduak honako kategoria hauetan sailkatzen dira:

- * Erabatekoa edo larria.
- * Ertaina.
- * Arina.
- * Ia-ia autonomia.

Etxekoen unitateetan aintzat hartutako egoerak gertatu edo ez, horren arabera honako sailkapen hau ezarri da etxekoen unitateetan bizi diren eta mendetasuna duten pertsona motaren arabera:

- * Gutxienez ertaina den mendetasun berezia duten bi pertsona edo gehiago
Etxekoen unitatean gutxienez mendetasun berezi ertaina duten bi pertsona edo gehiago biltzen diren kasuak barne.
- * Mendetasun berezia duten bi pertsona edo gehiago biltzen diren beste kasu batzuk
Etxekoen unitatean mendetasun berezia duten bi pertsona edo gehiago biltzen diren beste kasu batzuk (gehienez pertsona bat egon daiteke mendetasun gutxienez ertainarekin).
- * Gutxienez mendetasun berezi ertaina duen pertsona bat
Etxekoen unitatean gutxienez mendetasun berezi ertaina duen pertsona bat bakarrik dagoen kasuak barne.
- * Beste kasu batzuk
Aurretik aintzat hartu ez diren mugako eta/edo mendetasun bereziko egoera pertsonalak ageri diren kasuak barne.

Zaintzaileen egoera.

Mendetasunari buruzko azterlanarekin lotura estua izanik, GZEE-GPIak etxekoen unitateko beste pertsona batzuen laguntza- edo zaintza-ardura bereziak beren gain hartzen dituzten pertsona jakin batzuen kasuak erregistratu ditu, betiere zaintza eta laguntza hori gaixotasunari, ezintasunari edo zahartasunari lotuta egonik. Kasu horietan zirkunstantzia jakin batzuk biltzen dira, hain zuzen ere dedikazio pertsonal handiagoa beharrezkoa den kasuak, etxekoen unitateko gainerako kideek laguntzarik ematen ez dutelako edo laguntzarik eman ezin dutelako.

Oinarrizko gabeziako eta gabezia dimentsioaniztuneko arazoak (mantenu-dimentsioa)

Etxekoen unitateen mantentze ekonomikoarekin zerikusia duten problematika guztiei batera heltzeko, GZEE-GPIak gabezia-egoerak sailkatu ditu premien estaldura aintzat hartuta, eta honako lau kategoria hauek bereizi ditu:

* Gabezia dimentsioaniztuna oinarrizko alderdiei dagokienez

Oinarrizko premiak estaltzearekin lotuta dagoen honako problematika hauetakoren bat duten etxekoen unitateetan bizi diren pertsonen kasua da:

- Bizirauteko zailtasunak, hala nola elikadura-arazoak, bigarren eskuko jantziak erabili behar izatea, baita, arrazoi ekonomikoen ondorioz, neguan hotzak egotea ere.
- Hiru arazo edo gehiago honako hauei loturik: ohiko gastu-premiei aurre egiteko zailtasunari, nolana ere, oinarrizko gastuak murriztu behar izan badira edo jabetzak eta antzekoak saldu behar izan badira; edo hirugarrenetikiko betebeharrei erantzuteko zailtasunei, horiekin batera hainbat gauza ordaindu gabe utzita edo hornidura etena izanda.
- Bestelako zirkunstantziak, betiere elikadura-, jantzi- eta berotasun-premiak betetzeko arazo larriren batekin gutxienez lotutako hiru zailtasun edo gehiago badituzte, eta, horretaz gain, ohiko gastu-premiei edo hirugarrenetikiko betebeharrei aurre egiteko ahalmenari dagokionez arazo larriren bat badute.

* Gabezia partziala (ez-dimentsioaniztuna) oinarrizko alderdiei dagokienez

Oinarrizko premiak estaltzearekin lotuta dagoen honako problematika hauetakoren bat duten etxekoen unitateetan bizi diren eta aurreko taldean bildu ez diren pertsonen kasua da:

- Elikadurari, bigarren eskuko jantziak erabili behar izateari edo arrazoi ekonomikoengatik hotzak egoteari lotutako arazoren bat gutxienez.
- Gutxienez arazoren bat honako hauei loturik: ohiko gastu-premiei aurre egiteko zailtasunari, horretarako oinarrizko gastuak murriztu behar izanda edo jabetzak eta antzekoak saldu behar izanda; edo hirugarrenetik betebeharrei erantzuteko zailtasunei, horiekin batera hainbat gauza ordaindu gabe utzita edo hornidura etena izanda.

* Gabezia aisia-alderdietan

Ohiko gastu-premiei aurre egiteko arazoak detektatu zaizkien etxekoen unitateetan bizi diren pertsonak hartzen ditu eraginpean, betiere zailtasun horiek aisiaz eta astialdiaz gozatzerantz bideratutako gastuak murrizteari dagokionez soilik.

* Gabeziarik gabe

Azkenik, aintzat hartutako premiak –oinarrizkoak edo aisiakoak– betetzeko inolako gabeziarik ez duten pertsonak biltzen ditu.

Oinarrizko premiak estaltzearekin zerikusia duten gabeziak **oinarrizko gabeziako** moduak dira. Alderirik larrienetan, oinarrizko premiak estaltzean gabezia dimentsioaniztunekin zerikusia dutenak **oinarrizko gabezia dimentsioaniztuneko** (edo gabezia dimentsioaniztuna) moduak dira. Larritasun gutxiagoko oinarrizko gabeziako moduak oinarrizko gabezia partzial (edo gabezia partzial) gisa definitzen dira.

Elikadura-arazoak

Oinarrizko gabeziako formekin lotura estua izanik, azken hiru hilabeteetan etxekoen unitate batek askotariko elikadura orekatua lortzeko arazoei edo gose-arazoei aurre egin behar izan badie, edota janari kantitatea murriztu behar izan badu, orduan etxekoen unitate horrek elikadura-arazoak dituela esaten da.

Besteak beste, honako hauek dira gose-arriskuko egoerak aintzat hartutako denboraldian:

- Diru-sarrerak urriak direlako, sarritan askotariko elikadura orekatua lortzeko aukerarik ez izatea, janari kantitatea murriztuta (otordu batzuk ez egitea barne).
- Askotariko elikadura orekatua lortzeko aukerarik ez izatea, gosea izanik (gosea izan zuten eta ez zuten jan, behar adinako janaririk lortzeko aukerarik ez zutelako eduki).

- Diru-sarrerak urriak direlako janari kantitatean murrizketak izatea (zenbait otordu ez egitea barne), gosea izanik aurreko puntuan adierazitakoaren arabera.

Etxebizitzari lotutako problematikak.

Problematika horiek etxebizitza-gastuek etxekeoen unitateen gainean eragiten duten presioari lotutako alderdiak hartzen dituzte kontuan, baita etxebizitzari lotutako metatze-pobreziaren adierazleak ere. Horien artetik, GZEE-GPIak metatze-pobreziaren adierazle orokorraren osagai nagusia den etxebizitza-arazoaren adierazle sintetiko bat hartu du kontuan. Adierazle hori lortzeko, honako aldagai hauek hartzen dira kontuan:

- * Honako oinarritzko instalazio hauen eskuragarritasuna: ur beroaren instalazioa, instalazio elektrikoa, komun-ontzia eta bainuontzia edo dutxa.
- * Honako oinarritzko ekipamendu hauen eskuragarritasuna: hozkailua, sukaldea, garbigailua, labea edo mikrouhin-labea, koloretako telebista eta telefonoa (finkoa edo sakelakoa).
- * Honako etxebizitza-arazo larri hauetakoren bat izatea:
 - Sabaia itoginekin, horma, zoru eta zimenduak hezetasunarekin, edo usteldura leihoen markoetan edo zoruetan.
 - 20 metro koadrotik beherako azalera erabilgarria etxebizitzan bizi den pertsona bakoitzeko.
 - Zaraten eta kutsaduraren eraginpean egon beharra.
 - Etxebizitza iluna, argi urriarekin.
- * Etxebizitzaren kalitate orokorra (honako galdera honen erantzuna: maila eta erosotasun egokia duen, eta barneko kontserbazioari, dekorazioari eta zaintzari dagokionez egoera onean dagoen etxebizitza batean bizi zarela esango al zenuke?)

Aintzat hartutako aldagaiei buruzko informazioa kontuan izanik, GZEE-GPIak etxebizitza-arazoei buruzko honako sailkapen hau ezartzen du:

1. Arazo oso larriak

Honako problematika hauetakoren bat duten etxebizitzetan bizi diren pertsonak eta etxekeoen unitateak hartzen ditu eraginpean:

- Ur beroaren instalaziorik ez izatea.
- Instalazio elektrikorik ez izatea.
- Komun-ontzirik eta bainu-ontzirik edo dutxarrik ez izatea.
- Adierazitako oinarrizko ekipamenduetako bi edo gehiago ez izatea.
- Beharrezko mailarik eta erosotasunik ez duen etxebizitza.
- Maila eta erosotasun urriko etxebizitza, oinarrizko instalazioetan bi gabezia edo gehiago dituen edo etxebizitza-arazo larriak dituen.

Errealitate horrek erakusten du pobrezia-arriskua dagoela metatze-dimentsioan.

2. Arazo larriak

Honako problematika hauetakoren bat duten etxebizitzetan bizi diren eta aurreko taldean bildu ez diren pertsonak eta etzekoen unitateak hartzen ditu eraginpean:

- Adierazitako oinarrizko ekipamenduetako bat ez izatea.
- Adierazitako etxebizitza-arazo larrietako bat izatea:
- Oinarrizko instalaziorik eta oinarrizko ekipamendurik ezari lotutako hiru arazo edo gehiago, eta etxebizitza-arazo larriak izatea.
- Maila eta erosotasun urriko etxebizitza, oinarrizko instalazioetan gabezia bat duena edo etxebizitza-arazo larriak dituen.

3. Larritasun txikiagoko arazoak

Honako problematika hauetakoren bat duten etxebizitzetan bizi diren eta aurreko taldeetan bildu ez diren pertsonak eta etzekoen unitateak hartzen ditu eraginpean:

- Oinarrizko instalaziorik eta oinarrizko ekipamendurik ezari lotutako arazo bat edo gehiago, eta etxebizitza-arazo larriak izatea.
- Maila eta erosotasun urriko etxebizitza, baina oinarrizko instalazioei edo etxebizitza-arazo larriei dagokienez gabeziarik ez duena.

4. Arazorik gabe

Egoera hori arestian adierazitako problematika bakar bat ere ez duten etxebizitzetan bizi diren pertsonen eta etxekoen unitateen bereizgarri da.

Pertzepzio subjektiboa pobrezia/ongizatea eskalan

Adierazle horrek biztanleriak, bere erreferentziazko pertsonaren bitartez, pobrezia/ongizatea eskalan duen kokapenari buruz etxekoen unitateak duen pertzepzioaren arabera kokatzen du biztanleria.

Bizitza independentea lortzeko prozesuei lotutako arazoak.

Arazo ekonomikoei buruzko zatian, GZEE-GPIak kontuan hartu ditu egungo etxekoen unitatetatik independizatu nahi duten eta arrazoi ekonomikoak tarteko ezin duten pertsona jakin batzuk ere. Problematika horiek ekonomia-atalean aztertu dira ezkutuko pobrezia-aren fenomenoarekin lotzen baitira.

Ugalketari (nahi diren seme-alabak edukitzeari) lotutako arazoak

GZEE-GPIak familia- edo demografia-ugalketako prozesuei buruzko datuak eman ditu, honako arazo hauek dituzten etxekoen unitateen eta familien kasuan kontuan hartuta:

- * Ez dute nahi duten seme-alaben kopurua (adopzioa barne) behar adinako baliabide ekonomikorik ez dutelako oinarrizko premiei aurre egiteko eta/edo etxebizitza egokirik ez dutelako
- * Ez dute nahi duten seme-alaben kopurua laneko segurtasunik ezeko arazoengatik: langabezia, aldi baterako lanak eta enplegu-arloko bestelako segurtasunik ezak (gerta litekeen ixte edo enplegu-murrizketa)
- * Ez dute nahi duten seme-alaba kopurua seme-alaba horien zaintzarekin lotutako arazoengatik: baliabiderik eza pertsona bat kontratatzeke edo adingabeak haurtzaindegira bidaltzeko, beren premietara egokituriko zerbitzu gabezia edo antzeko beste arazoren bat

Aurreko galderari emandako erantzunak aintzat hartuta, nahi dituzten seme-alabak ez dituzten etxekoen unitateak eta familiak aintzat hartutako arazoren baten arabera mugatu ditu GZEE-GPIak.

Etxekoen unitateek eskatzen dituzten zerbitzuak eta prestazioak

GZEE-GPIa etxekoen unitateek zaintzarekin eta estatistika-eragiketan lantzen diren arazoak konpontzearekin lotutako zerbitzuei eta prestazioei dagokienez etxekoen unitateek egiaz egindako eskariari buruzko azterlanarekiko hurbilketarekin osatzen da. Suposatzen da eskari hori EAEn dauden premia-egoeren isla praktikoa dela.

Testuinguru horretan, honako alderdi hauek hartu dira kontuan:

- * Gizarte-zerbitzuetara jotzea.

Etxekoen unitateek gizarte-zerbitzuetara (publikoetara nahiz elkarteen eta GKEen mende daudenetara) jotzea hartu da kontuan. Hurbilketa inkesta egin aurreko hiru urteetan zerbitzu horiekin zuten harremanean oinarritu da.

- * Prestazioen eta zerbitzuen inguruan EAEn egin den eskaria, batez ere euskal Administrazio Publikoen zuzeneko kudeaketakoak direnena, honako laguntza, prestazio eta zerbitzu hauei buruzko erreferentzia espezifikoak eginez:

- EAeko Administrazio Publikoen bizirauteko laguntza eta prestazio orokorrak.

EAeko erakunde autonomikoen eta aldundikoen jardun-eremuaren barruan, honako laguntza eta prestazio orokor hauek hartu dira kontuan:

--Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE), garai batean Oinarrizko Errenta edo Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-sarrera zena.

--Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria (EGPO).

--Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL).

--Ordaindutakoaren araberakoa ez den prestazio-sistema (KGP, GOF) eta horrekin lotutako gainerako prestazioak (PAGAMI).

- EAEko beste laguntza ekonomiko batzuk.

Udal-erakundeen edo aintzat hartutako jardun-eremuan esku hartzen duten gobernuz kanpoko erakundeen jardun-eremu osagarriaren barruan, GPLak honako laguntza hauek hartzen ditu aintzat:

- Bestelako laguntza ekonomikoak, normalean udal-kudeaketakoak, hala nola etxebizitza-tasen murrizketa, eskolako jantokirako bekak, haurtzaindegirako bekak eta abar.
- Beste laguntza batzuk oinarriko premiak estaltzeko, bereziki gobernuz kanpoko erakundeen eremutik kudeatzen direnak.

- Mendetasuna duten pertsonak zaintzeko eta laguntzeko zerbitzuak

Horrekin lotutako eskaria honako zerbitzu mota hauetan biltzen da:

- Etxeko laguntza
- Eguneko zentroak edo okupazio-zentroak
- Telelaguntza.
- Egoitzan aldi baterako egonaldiak.
- Etxebizitza komunitarioaren zerbitzua edo egoitza-zerbitzua.

- Zaintzarako laguntza ekonomikoak (mendetasuna).

Laguntza horiek mendetasuna duten pertsonen edo zaintzaileei laguntzeko prestazio ekonomikoak biltzen dituzte.

- Familientzako laguntzak

Azkenik, seme-alabak dituzten familiei laguntzeko erakunde arteko Planaren laguntzak edo laguntzeko bestelako neurri paraleloak (hala nola, Udal batzuek edo Estatuko Administrazio Zentralak kudeatutakoak) azken hamabi hilabeteetan zuzenean lortzeari buruzko informazioa bildu da.

GIZARTE ZERBITZUEN ESKARIAREN ESTADISTIKA-GIZARTE PREMIEI BURUZKO INKESTA, 2010

AURKIBIDEA

0. SARRERA	2
1. GIZARTE ARAZOAK ESKOLATZE PROZESUAN	3
1.1. 0-5 urteko adingabeen laguntza	3
1.2. Gizarte- eta hezkuntza-arazoak nahitaez eskolatzeko adina duten adingabeen artean	6
2. LANERATZEKO ARAZO BEREZIAK	12
2.1. Eraginpean hartutako taldeak	12
2.2. Gaur egungo lan-egoera	15
2.3. Lanerako egiazko prestasuna	20
3. MUGA ETA MENDEKASUNA DUTEN PERTSONAK	23
3.1. Muga- eta mendekasun-egoeren eragina	23
3.2. Zerbitzuak eta prestazioak baliatzeko aukera mendekasun berezia duten pertsonengan	31
3.2.1. Laguntza lortzeko aukera	31
3.2.1.1. Etxekoen unitatetik kanpoko laguntzak eta zerbitzuak	31
3.2.1.2. Mendekasunerako prestazio ekonomikoak	36
3.2.2. Laguntza-premiak	37
3.3. Okupazio-alderdiak muga edo mendekasuna duten pertsonengan	40
3.3.1. 0-5 urteko adingabeak hezkuntzan integratzea	40
3.3.2. Nahitaez eskolatzeko adinean hezkuntzan integratzea	41
3.3.3. Laneratzea adin aktiboan	44

3.4. Arkitektura-oztopoak etxebizitzan	48
3.5. Mendetasunari lotutako aparteko gastuak	49
4. ZAINZAILAK	55
5. ARAZOAK HARREMAN PERTSONALETAN ETA GIZARTE HARREMANETAN	62
5.1. Portaera- eta jarrera-arazoak	62
2. Arazoak familia- edo gizarte-harremanetan	65
5.2.1. Bakardade- eta tristura-arazoak	65
5.2.2. Familia-banantzeari lotutako arazoak	67
5.2.3. Arretarik ezari, tratu txarrei, jazarpenari edo indarkeriari lotutako arazoak	70
5.3. Gizarte-bazterketako arazoak	73
5.4. Harreman pertsonaletan eta gizarte-harremanetan gizarte-arazo larriren bat duten pertsonak	78
6. POBREZIA ETA GABEZIA SOZIOEKONOMIKO OROKORRA	82
6.1. Mantenu-pobreziari buruzko adierazleak	82
6.1.1. Gabezia-adierazleak	82
6.1.2. Etxekoen unitateko gastuei aurre egiteko ahalmena	91
6.1.2.1. Ohiko gastuak direla-eta zorpetzeko arriskua	91
6.1.2.2. Ezohiko gastuei eta ezustekoei aurre egiteko ezintasuna	93
6.2. Etxebizitzari lotutako problematikak	94
6.2.1. Etxebizitza-gastuen presioa etxekoen unitateetan	94
6.2.2. Etxebizitzari lotuta dauden metatze-pobreziaren adierazleak	95
6.3. Pobreziaren pertzepzio subjektiboa etxekoen unitatean	100
6.4. Bizitza independentea izateko arazoak	104
7. UGALKETARI (NAHI DIREN SEME-ALABAK EDUKITZEARI) LOTUTAKO ARAZOAK	107

8. ETXEKOEN UNITATEEK ESKATZEN DITUZTEN ZERBITZUAK ETA PRESTAZIOAK

110

8.1. Gizarte-zerbitzuak lortzeko aukera	110
8.1.1. Zerbitzu publikoak	110
8.1.2. Zerbitzu asoziatiboak	113
8.2. Prestazioen eta zerbitzuen eskaria EAEn	115
8.2.1. Diru-sarrerak bermatzeko laguntzak eta prestazioak	115
8.2.2. EAeko beste laguntza ekonomiko batzuk	118
8.2.3. Zaintza-zerbitzuak	120
8.2.4. Pertsonak zaintzeko laguntza ekonomikoak (mendetasuna)	123
8.2.5. Familientzako laguntzak	126

ERANSKINA: ADIERAZLEAK, KONTZEPTUAK ETA DEFINIZIOAK

129

Gizarteratze-adierazleak	129
Eskola-integrazioa	129
Laneko integrazioa	129
Gizarteratzea	130
Osasunari edo adin aurreratuari lotutako mugak eta mendetasun berezia	130
Zaintzaileen egoera.	132
Oinarrizko gabeziako eta gabezia dimentsioaniztuneko arazoak (mantenu-dimentsioa)	132
Elikadura-arazoak	133
Etxebizitzari lotutako problematikak.	134
Pertzepzio subjektiboa pobrezia/ongizatea eskalan	136
Bizitza independentea lortzeko prozesuei lotutako arazoak.	136
Ugalketari (nahi diren seme-alabak edukitzeari) lotutako arazoak	136
Etxekoen unitateek eskatzen dituzten zerbitzuak eta prestazioak	137